

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1997, 1+2
42. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Argitalpen batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Juan Mari Lekuona Endrike Knörr J. A. Arana Martija Patxi Altuna Miren Azkarate Beñat Oihartzabal
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

Aldizkari hau beste agerariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

JOSE IGNACIO ARANAREN OMENEZ

Nerea Zubizarreta, herriko alkate anderea, <i>Jose Ignacio Aranaren mendeurrena</i>	11
Jose Antonio Arana Martija, <i>Jose Ignacio Arana, bibliografoa</i>	13
Patxi Altuna, <i>Jose Inazio Arana jesuitaren bizitza (1838-1896) - I</i>	23
Endrike Knörr, Iratxe Zorrozueta, Nerea Larrañaga eta Leire Vergara, <i>Jose Ignacio Aranaren "Reseña Histórica de la Lengua Cántabra o Bascongada". Pertsona-izenen zerrenda</i>	41

AITA POLIKARPO IRAZOZKOAREN MENDURRE-NEKO OSPAKIZUNAK

Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria, <i>Pilokarpo Iraizozkoararen mendeurrena</i>	51
Julio Indaberea Osinaga, Ultzamako alkatea, <i>Aita Polikarpo Iraizozkoa</i>	55
Jesús Golderaz, <i>Aita Polikarporen goratzarretan</i>	57
Frantzisko Ondarra, <i>Aita Polikarporen bizitza eta obrak</i>	61
Alfonso Garcia Etxandi, Iraziozko alkatea, <i>Aita Polikarpo Iraizozkoa</i>	77
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Aita Polikarpo Iraizozkoaren mendeurrena</i>	79

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK ETA ADIERAZPENAK

Euskaltzaindiaren ARAUAK	81
--------------------------------	----

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENAK

Euskaltzaindiaren Adierazpena hizkuntzei buruz Frantziako Estatu Kontseiluak eman duen iritziaz	191
---	-----

Barañaingo udalaren 1994ko deialdi batez Nafarroako Epaitegi Gore- naren 1997ko otsailaren 20ko epaia dela eta Euskaltzaindiaren <i>adierazpena</i>	193
<i>Pronunciamiento</i> de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskal- tzaindia a propósito de la Sentencia del Tribunal Superior de Jus- ticia de Navarra del 20 de febrero de 1997 sobre una convocatoria de 1994 del Ayuntamiento de Barañain	195
Batetik, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta, bestetik, Euskaltzaindiaren arte- teko 1997. urterako protokoloa. 1995eko urriaren 27an izanpetu- tako <i>hitzarmenaren</i> eranskina	197
<i>Convenio</i> entre el Ayuntamiento de Pamplona / Iruña y la Real Aca- demia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia	203
Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiaren arteko <i>hitzarmena</i>	205
Javier Chourraut Burguete, alcalde, <i>Ayuntamiento de Pamploa / Iruña</i> <i>Iruñeko Udala-R.A.L.V. / Euskaltzaindia</i>	207

BARNE TXOSTENA

Patxi Goenaga, idazkaria, <i>Hileroko batzarretako lan banaketaz gogoeta</i>	213
--	-----

BATZAR AGIRIAK

Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak (1997: I, II, III, IV, V, VI, VII)	219
---	-----

JASOTAKO TXOSTENAK

ONOMASTIKA

Andres Iñigo, Patxi Salaberri, Onomastika batzordeko kideak, <i>euskaraz</i> <i>femeninoak egiteko izan diren bideez</i>	257
Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordearen idazkaria, <i>Euskal- tzaindiaren irizpena Sopelako herri izenaz</i>	271
Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la comisión de Onomástica, <i>Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzain- dia sobre el nombre vasco de Sopelana</i>	273

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la comisión de Onomástica: Be- rrikano	275
Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la comisión de Onomástica: Le- gutiano	276
Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la comisión de Onomástica: Mañueta	277

EUSKERA: INDEX

Juan San Martin, <i>Euskera agerkarian egile aurkibidea (1980-1996)</i> .	281
---	-----

GRAMATIKA

Gontzal Lopez Bizkaiko AEK-ko hizkuntz arduradunaren hizkuntz kontsulta: Gramatika batzordearen erantzun-txostena	325
R.M. ^a Azkue euskaltegiko Lander Arrasatek azaldutako zalantzak: Gra- matika batzordearen erantzun-txostena	327
Hondarribiko udal euskaltegitik egindako galderak: Gramatika batzor- dearen erantzun-txostena	329
<i>Portale / Portalea</i> : Gramatika batzordearen erantzuna	331
Mitxel Kaltzakorta Mentxaka, <i>Leku esangurako posposizioatzako ba- tzuk</i>	333
Xabier Alberdi Larizgoitia, EHUKo irakaslea eta Julio García García de los Salmones, EHUKo irakaslea, <i>Zein izenordain erlatiboaren deklinabidea</i>	349

BESTE TXOSTEN BATZUK

Xabier Kintana, <i>Zinpekoak</i>	361
Beñat Oihartzabal, <i>Euskalkietako hitzen morfologia finkatzerakoan agertzen den arazo batez</i>	363
Patxi Salaberri Muñoa, <i>Gero liburua erretorikaren argitan (aurkepen modura)</i>	365
Jose Antonio Arana Martija, <i>Euskaltzale aldizkariaren mendeurrena</i>	375

BERRIAK

Juan Ogetik, <i>Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: 'R.M.^a Azkue' literatura sariak</i>	383
Juan Luis Goikoetxea Arrieta, <i>Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: 'R.M.^a Azkue' literatura sariak, 1995</i>	387
Odón Elorza, Alcalde de Donostia/San Sebastián, <i>Donostiako Udala-Euskaltzaindia / Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián-Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia</i>	389
Udal Gobernu batzordeari	390
A la Comisión de Gobierno	391
Jose Antonio Arana Martija, euskaltzaina, 1997. urteko "Korrika" aurkezpena	395
Pello Zabala, X. "Korrika"-ren aurkezpenean	397

HIL BERRIAK

Alfonso Irigoien Etxebarria	401
-----------------------------------	-----

JOSE IGNACIO ARANAREN OMENEZ

Azkoitia, 1996-XII-20

JOSE IGNACIO ARANAREN MENDEURRENA

Azkoitia, 1996-XII-20

*Nerea Zubizarreta,
herriko alkate anderea*

Ohore bat da guretzat, zuek gaur gela historiko honetan hartu ahal izatea.

1982an hemen bildu zineten, Vicenta Moguel, lehengo emakumezko euskal idazle garrantzitsua omentzeko.

Gaur berriz, beste pertsonaia garrantzitsu bat gogoratzera gatoz, Luis Villasanteren esanetara, "eusko-zaleen artean jakintsu eta ospetsuenetako bat".

Jose Ignacio de Arana e Irazusta Baroikua etxean jaio zen 1838ko maiatzaren 26an, (orduan Sta. Clara, 22) eta gaur betiko oroigarri gisa harri bat jarri dugun tokia.

Gero, ama hil ondoren, Kale Nagusiko 95ra aldatu zen. Hemen orain dela gutxirarte haren iloba Rafael 'relojero' bezala ezaguna zen pertsonaia herrikoia ezagutu ahal izan genuen.

Baina nire asmoa ez da hemen Arana jaunaren bizitza kontatzea. Eta gela honetan oso ondo ezagutzen duten jakitsuak daudenez gero, beraiei emango diegu hitza.

Gure hizkuntza saildu eta zabaltzeko egiten duzuen lan guztia eskertu nahi genizuke. Eta berriz, laster ospatuko dugun, José Francisco de Aizkibel jaunaren jaiotzaren bigarren mendeurrena gurekin egotera gonbidatzen zaituztegu. Honek gaur omendutako Arana jaunarekin batera, ortografiaren lehenengo arauak eta bilduma bibliografiko garrantzitsua egin zituen.

Guztiori, ongi etorri eta eskerrik asko.

JOSE IGNACIO ARANA, BIBLIOGRAFOA

Azkoitia, 1996-XII-20

Jose Antonio Arana Martija

Atzo bete ziren ehun urte Jose Ignacio Arana Irazusta Oñako jesuiten komentuan hil zenetik, eta gaur Azkoitian, 1838an jaio zen herrian eskaintzen diote jaioterriak eta Euskaltzaindiak mendeurreneko omenaldia. Euskal idazle, olerkari, hizkuntzalari eta historiagile izan zen azkoitiar handi honi dagokion biografia eta lanen ikerketa/azterketa azpeitiarra den Patxi Altuna euskaltzain adiskideari dagokio eta badakit hurbil izaten diren herri arteko lehiakeriak ez duela inolako eragin maltzurrik izango azpeitiarrarengandik azkoitiarrarenganako, alde batetik Patxi Altunak ikerketetan duen seriotasuna ezagutzen dudalako eta bestetik bi herri horien bitartean Loiola dagoelako, jesuiten jatorria eta ardatza, non oinarritzen den, besteak beste, Altunak Aranarekiko aspaldidanik agertu duen estima, maitasun eta benerazioa. Izatez, bera izan zen mendeurren honen berri eman ziguna, zerbait egin behar zela etengabe eta fermuki gogorarazi diguna eta niri dagokidanetik mahai honetan eseri nauana.

Aita Jose Ignacio Arana historiagilea zela esan dut eta zerbait gehitu behar diot pertsonaiaren xehetasun honi: liburuzalea ere bazela. Gure gaurko omen-duak, ñabardura honekin begiratuta, historia alorrean beste ikuspegi bat ere azaltzen digu, bibliografiarena, hain zuzen. Eta hau da nik ukituko dudana gaia, izenburuan esaten denez, Jose Ignacio Arana, bibliografoa. Aspaldidanik nerabilen eskuartean Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako artxiboan datzan aita Aranaren eskuizkribu bat, hots, *Ensayo de una bibliografía bascongada*, argitaratu gabea. Baneukan gogoaz azterketa-gai honi behingoz eusteko eta hara non Patxi Altunak, gaurko ospakizunerako eskaria eta gomita eginaz, eman zidan parada nire aspaldiko asmoa betetzeko. Eta gaian sartu baino lehen egin dezadan adierazpen eta aitormen bat: Jose Ignacio Arana Irazusta azkoitiarra eta jesuita izan zela XIX. mendeko bibliograforik handienatarikoa.

Jose Ignacio Arana 1896.eko abenduaren 19an hil zenean, heriotzaren berri eman zuten orduko egunkari eta euskal kulturako aldizkari batzuk. Nola ez hainbat olerki eta idazlan argitaratu zizkion *Euskal Erria* aldizkariak. Baina beste aldizkari bat azpimarratu nahi nuke: datorren urteko urtarilaren 3an beteko dira ehun urte R.M. Azkuek *Euskalzale* aldizkariaren lehen alea atera zuenetik. Ezagutzen zuen Azkuek aita Arana Bilbotik eta Oñatik elkarri gurutzatutako gutunetan ari izan baitziren euskararekiko eztabaidetan. 1896.eko

otsailaren 14ean igorri zion Aranak Azkueri *Arte métrica bascongada o tratado analítico de la versificación Euskara* izeneko eskuizkribua, 1872an prestatzen hasi zena (1). Beraz, aita Arana hil zenean aipatu aldizkarirako agindu zion Azkuek aita Felipe Zugatzaga Gallarzagoitari nekrologia idatz zezala eta hala egin zuen jesuita honek eta Azkuek *Euskalzalen* argitaratu (2). Nekrologia honetaz baliatu naiz Jose Ignacio Arana bibliografoaren lana urteka eta tokika taiutzeko. Baina zerbait gehiago ematen digu Zugatzagaren idazlenak, hots, Jose Ignacio Aranaren bibliografia labur bat, beraz, berak argitaratutako liburu eta liburusken zerrenda, 1863tik 1896ra. Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographian* askoz ere titulu gehiago agertzen diren arren, zazpi ematen dizkigu Zugatzagak Jon Bilbaok ematen ez dituenak:

1. “1863 *Corona poética* deritson liburuan, zazpi neurtitz. Barcelona, Escolá.”

2. “1868 *Seminario Católico* deritson albistarian, neurtitz bi. Vitoria.”

3. “1870 *Vidas de algunos claros varons guipuzcoanos de la Compañía de Jesús*. Tolosa, Modesto Gorosabel”, 448 orr. 18,5 cm. Aita Zugatzagak dioenez, Ramon Garcia eta A. Lizargarate jesuitekin alkarturik erderaz egina (3).

4. “1875 *Catalogus RR.PP. Praepositorum Societatis Jesu*. Toulouse, Bonnal.”

5. “1889 *Lo Gayter del Llobregat* deritsan liburuan euskaraz dagoena. Barcelona, S. Roviralta.”

6. “1891 *Liberalkeria pekatua da*, Sarda jaunak egina euskeratua. Barcelona, La Hormiga de Oro.”

7. “1893 *Gertaeraren oroimen betikorako* asten den izkuntza askotako liburuan euskarazkoa. Tirol, Austria.”

Izenburu hautetaik aparte, Jon Bilbaok aipatzen ez dituen Aranaren idazlan oso batzuk ere ematen dizkigu Azkuek *Euskalzalen*:

8. “Done Iñigo Loiolatarraren jaiotza ta aurzaroa” (1897-7-29, 242).

9. “Guadalupeko Andra Mariari” (1899-9-14, 292-293) Klaudio Jauregi, Hondarribiko organistaren doinuarekin.

(1) ALTUNA, Patxi: “Tratado de métrica vasca (1872)”. *Fontes Linguae Vasconum*, 1992, enero-abril, n.º 59, 119-165. ARANA, Jose Ignacio: “El amalaucio y el amaseico o sobre el sonetillo y sonetos euskaros propios e improprios”. *Euskal Erria*, 1883, VIII, 41-47.

(2) ZUGAZAGA: “Jesusen Lagundiko Aita Aranatar Jose Iñigo euskalzale argiaren bizibani laburra”. *Euskalzale*, 1897, I, 229-230, 234, 253-254.

(3) ARANA, Jose Ignacio: Antoine d’Abbadieri gutuna, Zarautz, 1870-10-30. 500/600 orrialde izango dituela diotso. Urduñatik gutuna, 1871-4-8: Bidali dio Abbadieri liburu: Jon Bilbaok egile gabe ematen du, “por unos bienhechores” tituluari gehituz.

Sabino Arana eta Antonio Arginzoniz jaunekin batera *La Abeja* aldizkaria (1889-1890) kaleratu zuen Azkuek. Hemen ere (1890-1-2) Jon Bilbaok aipatzen ez duen Aranaren latinezko lan bat argitaratu zen: "In laudem praeclari Domini Petri Novia de Salcedo".

Bestalde, eta hauek ere ez dira Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographian* agertzen, Jose Manterolak argitaratu zituen *Cancionero Basco* delakoan (1880-III, 270-297) Jose Ignacio Aranaren biografia laburra eta "Amarreko" eta "Zortziko" batzuez gain, "Dies irae" gipuzkerara itzulita (1867), "Juan Sebastian Elkano getariar jaunari mundua jira-biratzten. Euskal kanta" eta "Gurutzearen garaitupena euskaldunakin Nabas-en"

Jose Ignacio Aranarena ez den titulu bat ematen digu Jon Bilbaok, hots, Nicolas Jose Azara eta Perera jaunari zuzendutako omenaldi liburu baten agertzen den "Dialecto antiguo guipuzcoano" izeneko lana, 1856an Madrilén argitaratua, Aizkibel beste azkoitiar batena dena. Baina Aranarenak diren lanak —eta ez direnak— lerrokatzea eta aztertzea nire mahaikide den Patxi Altunari dagokio eta berari uztiko diot horren ardura. Ni, beraz, banoa nire zereginera.

Bibliografia eremuan sartu aurretik, Jose Ignacio Arana Zarautzen eta Urdunian bizi izan zen urteetako giro politikoa aipatu nahiko nuke, bere inguruan ibili ziren karlistek badute zerikusirik euskal bibliografiarekin eta. Azkoitian eta Azpeitian gertatutakoak emango ditut labur. Gai honetaz luze eta sakonago zerbait idazteko asmoa dut, ugaria baita bildu dudak dokumentazioa. Baina oraingoz bi karlista famatuak aipatuko ditut: Agustin Jauregi eta Jose Ignacio Aldalur.

Liberalen eskuetan zeuden orduko Diputazioa eta Batzar Nagusiak. *Registro de Juntas Particulares que esta M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa ha celebrado en la M.N. y L. Villa de Tolosa los días 16 y 17 de mayo de 1872* (4) delakoan giroaren azalpen izugarria ematen da: 1869an hasitako matxinada ez zela politikoa esaten da klerikala baizik. Nazioak emandako erakundeen aurkako konspirazioa zela, apezek eragindakoa. 1870ean armekin altxatu ziren apezek, lasai jarraitzen dutela karguetan eta herbestera baziren ere, amnistia-rekin itzuli direla salatzen da. Izena aipatu gabe, apezpikua zen Diego Mariano Alguacil jaunari atxekitzen diote errua eta Gobernuari Gasteizko Apezpikutza kentzea eskatzen diote. Urte pare bat lehenago egin zen epaiketa batean kondenatuak izan ziren Pedro Aldalur, Azkoitiko parrokoa, Agustin Jauregi, Azpeitiko parrokoa eta beste batzuen artean Jose Ignacio Aldalur Azpeitiko organista. Agustin Jauregi Donostiako espetxean sartu zuten eta Aldalur anaiak ezin izan zituzten atxilotu herbestera menditik joanda zirelako. Epaietako paperean iheslari gisa agertzen dira.

(4) "Secretario Joaquin de Urreiztieta" agertzen da azalean, eta "Tolosa. En la Imprenta de la Provincia. 1872", 22 orr. 29,5 × 20 cm.

Lehendabizi Agustin Jauregirenak aipatuko ditut. Azpeitian 1870.eko abuztuaren 29an sortu zen matxinadaren errudun nagusitzat epaitu zuten. “La Azpeitiana” izeneko arma-fabrika baten egindako fusilak gorde zituela elizan (koruaren ganga eta zoruaren bitartean) eta soldadu karlistei banatu zietela salatzen zioten. Lau urtetik gorako kartzelara kondenatu zuten. Migel Dorronsoro Gipuzkoako Diputatu Nagusiak ziurtagiri bat eman zuen 1875.eko apirilaren 16an non Jauregiren aldeko beste argudio batzuen artean zera esaten zuen: Carlos V. eta Antonio Lizarraga karlisten Komandantearen kapeilaua izan zela, Diputazioaren aginduz dirua biltzen ibili zela ospitalean zauriturik zeudenei laguntza emateko, eta haurren hezkuntzarako Gipuzkoako batzordeburu izan zela. Eta azken kargu honekin lotuta dator Jauregik gure Aranarekin izan zuen harremana: Poyanetik idazten dio Jauregiri prest dagoela haurrentzat Euskal Gramatika idazteko eta Irazustaren *Doctrina*, dakarren euskara txarragatik, eskoletatik kentzeko eskatuz. Hau esaten dio 1875.eko abuztuaren 25ean idatzitako gutunean eta beste batzuetan gomendatzen dio Historia Sakratuaren testuliburu gisa Juan Antonio Ubillosen *Christau Doctriñ berri-ecarlea* (Tolosa, 1785) eta haurrei gizabidea irakasteko *Kristauaren Kortesiya*, bere ustez Cardaberazek idatzia. Donostian Euskal Katedra bat sortzeko ekintzetan Diputazioa zebilen garaian (1884) txosten bat bidali zuen Jose Ignacio Aranak: “De la primera sección o el euskera en las escuelas de instrucción primaria de Guipúzcoa” (5). Baina Agustin Jauregiren haria berriz harturik esan dezadan honako lan hau argitaratu zuela: *Albiste on bat urteoro berritzen dana... Barau Vigilia eta Bulda santuaren gañean* (1878) (6) Azkueren *Euskalzale* aldizkarian ere argitaratu zuen “Sasoiko fruta” lantxo (7).

1870 urteko matxinadan nahasturik egon zen beste bat Jose Ignacio Aldalur Iriarte, azkoitiarra (1829-1890) eta Azpeitiko organista izan zen. Esanda dagoenez, 1870.eko epaiketan Iparraldera ihes eginda zegoen. Honek ere badu zerikusirik Jose Ignacio Aranarekin. Esan dezagun hasteko, Agustin Pascual Iturriagak (1778-1851) idatzi zuela orain ere kantatzen den San Ignacio-ren martxa edo ibilneurria. Honen gaztelaniazko itzulpena Jose Ignacio Aranak egin zuen. Baina Loiolako Inazioaren bizitzari eta pertsonaiari hainbat lan eskaini zion jesuita hau ez zen horrekin konformatu. *San Ignacio-ren marcha berria* idatzi zuen 1872an, “Jose Ignacio Aldalur apaiz jaunak soñuz ipiña” eta Azpeitiko P. Martinezen moldiztegiaren kaleratua (8). Aldalur musikaren bila joan zen berriz gure Jose Ignacio Arana 1886an beste *S. Inazioaren marcha berriya* idatzi zuenean, hau ere Azpeitian P. Martinezek argitaratua. Zortzi zortziko txikik osotzen dute martxa hau, lehena

(5) ECHEGARAY, Bonifacio de: “Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco”. In: *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa*. Donostia, Euskaltzale, 1935.

(6) Madrid, Propaganda Católica, 1878, 31 orr. 14 cm. Gero *Euskal Erria*, 1885, XII, 175-178, 212-216, 252-254, 266-273.

(7) *Euskalzale*, 1897, 107.

(8) Gero *Euskal Erria*, 1882, 102, ortografia aldatuta. Gaztelaniazko testua Ramon Garcia-rena da.

koruarentzat egina eta beste zazpiak ahots bakarrarentzat. Inprimakiaren azpian azaltzen da ohar hau: “D. J.I. Aldalur jaunac soñu eder berrian jarriya”. Azkoitiar biak ondo konpontzen zirela politikan eta olerki/musikan dirudi. Dena den, 1886 urte berean eta zortziko handian, oraingoan, *Erregu-Kantak San Ignazio Loyolakoari* eskaini zizkion Jose Ignacio Aranak, doinurik gabe dirudienez (9). Bi urte lehenago beste *Aita San Inaziori Erreguzko kanta-choa* argitaratu zuen (10).

Jose Ignacio Aranaren bibliografia labur bat eman dut aurreko lerroetan, gehiena ezezaguna, eta bere inguruan zebiltzan adiskide karlistena. Baina adibide urriak dira. Bibliografo honen lan ugaria eman behar dut hurrengo lerroetan, ezezaguna, eskuizkributik moldiztegira ez zuen eraman eta. Larramendik bere *Hiztegiaren* hitzaurrean eman zigunetik, Juan Mateo Zabalak gehitua (11) Julien Vinsonen 1891an eman zigun *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* liburura arte hainbat izan zireen euskal bibliografiaz aritu zirenak (12). Baina ez dut uste inork egin zuenik, garai hartan behintzat, Jose Ignacio Aranak egin zuen hainako lana. Vinsonena aparte utziz, Jon Bilbao eta gure Arana izan dira euskal bibliografo eta bibliozererik handienak. Kontua da beste guztiek argitara eman zituztela aztertutako bibliografiak eta Jose Ignacio Aranak ez zuela berea argitaratu eta hor geratu zela, inork ezagutu gabe, artxiboan ezkutatuta. Orain dagokigu, argitaratzen ez bada ere, horren berri emateko parada. Aitor dezagun Aranak ez zuela jarraitu latinezko esaera honek adierazi nahi duena: “parva propria magna; magna aliena parva” apaltasuna izan baitzen, nahiz eta guretzat mesedegarri izan ez, jesuita honen izaerako birtutea.

Dufoisinek Aranari 1874-10-22an idatzitako gutunean esaten zion Abbadiek zeukala euskal liburutegirik onena, garai hartan Bonapartek baino hobea. Abbadieren liburutegiaz eta liburuzaletasunaz bazekien zerbait Jose Ignacio Aranak. Parisko Bibliothèque Nationale-tik lortutako mikrofilmetan irakurri ditut Antoine d'Abbadieri idatzitako 50 gutun, 1869tik 1877 arte. Zarautztik idazten dio lehena 1869.eko urtarrilaren 7an eta azkena Poyanetik 1877.eko ekanaren 25ean. Bitartean Urduñatik, Baionatik eta Larbeytik idatzitakoak dau-de. Ez da posible hitzaldi honetan azaltzea Abbadieri ematen dizkion aipamen bibliografikoak eta igorri zizkion liburuen zerrendak. Ez eta geodesia eta arkeologiaz ematen dizkion berriak zeinetan agertzen den bibliografoa izatetik aparte beste zientzia batzuetan ere aditua zela Arana. Urduñako ikastetxean jarri zen laborategirako hainbat tresna eskatzen dizkio Abbadieri Parisera ida-

(9) *Euskal Erria*, 1886, XV, 209.

(10) *Euskal Erria*, 1884, XI, 68.

(11) ARANA MARTIJA, Jose Antonio: “Larramendi eta Bonaparteren mendeurrenetan, Juan Mateo Zabala gogoangarri”. *Bilduma*, 1991, 5.zka. 137-147.

(12) Iturriza, Landazuri, Pierquin de Gembloux, Chaho, Abbadie, Brunet, Bonaparte, Rodriguez Ferrer, Michel, De la Fuente, Trueba, Manterola, Webster, Dodgson, Allendesalazar, Soralue.

tzitako gutunetan. Zientzia gizon gisa agertzen zaigu Jose Ignacio Arana gutundegi honetan. Baina bibliografia denez nire gaia, adibide bitxi batzuk azaltzera natorkizue. Zarautzen zegoenean hil zen 1869-2-20an Jose Antonio Uriarte eta honen heriotzaren berri ematen dio. Aranak Bonaparte ez zuela ondo ezagutzen ikusten dugu gutun berean, Abbadieri esaten baitio: "Duela 12-15 egun Napoleon-Lucienen bisita izan zuen Uriartek". Urte pare bat geroago, Urduñatik 1871-2-18an idatzitako gutunean Duvoisin, Intxauspe eta "Prince Napoleon"en liburuen berri eskatzen dio Abbadieri. Arraro samarra de Louis-Lucien izena zeukala Bonapartek ez jakitea. *Vidas de algunos claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesús* liburua dela eta, ez dio esaten Arana bera dela egileetariko bat. Jon Bilbaok ere ez du egileen izenik aipatzen "por unos bienhechores" jartze baitu. Baina Zugatzagaren nekrologiatik dakigu Jose Ignacio Arana, Ramon Garcia eta A. Lizargarate izan zirela autoreak. Liburu honen atarian azaltzen da Modesto Gorosabelek argitaratu zuela Tolosan 1870ean. Baina ez zen urte horretan argitarapena bukatu. 1870-10-30eko gutunean esaten dio 500/600 orrialde izango dituela liburuak. Gero 1871-2-18koarekin batera igortzen dizkio lehen orrialde inprimatuak eta azkenik, 1871-4-8 datako gutunean jakinarazten dio igorri diola liburua. Datu hauek ematen ditut oso arraroa delako liburu hori.

Galindezek egindako Ruth liburuaen itzulpenaz (13) argibide bat eman behar dut Jose Ignacio Aranaren eskutik. Bizkaiko Urduñatik idazten dizkio gutunak Abbadieri 1870.eko urritik hasita. Handik hurbil dauka Audio Bilborako bidean, eta Bonaparteren aginduz edo, eskatzen dio Abbadiek Aranari Audioko eskaran itzultzea Ruth-en Liburua. Zarautzera opor sasoian joanda, esaten dio Aranak Abbadieri "Laudion dagoela euskaldun on bat Ruth-en liburua itzultzeko gai dena". Denok uste genuen Ignacio Galindez zela itzultzaile hau eta, egia esan, bera izan zen azkenean argitaratu gabe geratu zen liburu honen itzultzailea. Baina Aranak 1871.eko abuztuaren 22an aipatzen duena ez da Galindez, beste apez bat, Jose Larrea baizik. Honi itzulpena agindu zionetik urte bete baino gehiago iragan ondoren, 1872.eko azaroaren 30ean esaten dio Aranak Abbadieri Larreak ez duela astirik itzulpena egiteko eta beste apez bati agindu diola lan hau burutzea: Ignacio Galindez. Azaroan agindu eta Gabon aurretik bazebilen itzulpen lanetan. Itzulpen honen beste xehetasunak E. Knörrrek ematen dizkigu.

Arraroa badirudi ere ez zuen Aranak Bonaparterekin harremanik izan 1876 arte. Ordurako bost aldiz egonda zegoen Printzea Euskal Herrian baina 1869a baino lehen egin zituenez bost bidaiak, ez zuen Arana gaztea ezagutu. Sei urte geroago esaten dio Aranak Larbey-tik Abbadieri (1875-1-17) jaso duela Bonaparteren helbidea eta Printzeari helarazteko bidaltzen dizkio atera berri zituen hiru liburu: *Vidas de los claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesús*

(13) KNÖRR, Endrike: "Otro texto de Llodio. El Libro de Ruth por Ignacio Galindez. 1872". In: *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae. Pars altera*. Vitoria, 1985, 1055-1062. Knörrrek irakurri ezin izan zituen bi hitzak bat dira: "dernierment".

(1870), *Ama Virgiña gucziz garbi Concepciocoaren oficio laburra* (1872) eta *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gastelaniaz* (1872). Gero ausartzen da Bonaparteri zuzenean idazten eta Baionatik zuzentzen dio lehen gutuna 1876.eko urriaren 3an. Bonaparte eta Aranaren artean gurutzatutako gutundegia Patxi Altunak eman zigun (14). Handik zortzi hilabetera bukatuko du Aranak Abbadierekin gutundegia eta hasiko da Bonaparterekin gutunetan. Egia esan gaia ere guztiz aldatzen da, zeren eta Abbadierekin, gehien bat, euskal bibliografiako lanak erabiltzen zituen (100 liburutik gora aipatzen dira eta Bonaparterekin izandako harreman idatzietan hizkuntza, euskara, da gai nagusia). Dena den, eta noiz behinka, agertzen dira liburuen aipamen bibliografikoak. Eta bereziki Bonapartek 1876-12-4an idazten dion gutunean, horrekin batera bidaltzen baititzio 38 liburu Printzeak argitaratuak. Arraroa dena da, liburu horietatik 14 baizik ez dituela Aranak Bibliografian aipatzen.

Irakurri eta idatzi dituen liburuak, batari eta besteari ematen dizkion erreferentzia bibliografikoak, bidaltzen dituen liburuak, beraiegangdik jasotzen dituenak ez dira euskal bibliografia osotzeko erabiltzen dituen iturri bakarrak. Dakigunez, Salamancan egon zen 1857an, hogeitaz oraindik bete gabe zituelarik. Han ezagutuko zuen, behar bada, Gabriel de Henao jesuitak (1611-1704) argitaratu zuen *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*, bertan bi tomotan 1689-1691an kaleratutako liburua. Carrion eta Loiolako komentuetan egon zen gero eta badirudi orduan hasi zela euskal bibliografia biltzen. “Je ne suis pas encore prêtre” diotso Abbadieri 1869ko gutun batean eta Zugatzagak dioskunez (eta honetaz Patxi Altunak zerbait gehiago esango digu) 1874ean eman zuen meza berria. Beraz, Loiolan, Zarautzen, Urduñan eta Poyanen bildu zituen lehen fitxa bibliografikoak, apeztu baino lehen. Ene ustez, 1872 urtea da Jose Ignacio Aranaren bibliografiarekiko urterik aipagarriena. Ordurako bizpahiru liburu argitaratuak zituen, *Arte métrica bascongada* urte horretan datatzen du eta hainbat idazle irakurri dituela ikusten da. Eta datu hau azpimarratu nahi nuke urte horretan: 1872.eko azaroan Abbadieri zera diotso:

“No es fácil una Bibliografía completa euskara según yo la considero, abrazando no sólo los escritos en bascuence sino todo lo relativo al país euskaro en cualquier lugar. Con todo, mucho servirán al efecto las noticias de las imprentas que ha habido y que hay en el país bascongado (como se ve en la Memoria de 1871 a 1872 con respecto a Bilbao) (15) principalmente en Pamplona, Vitoria, Tolosa, San Sebastián y Bayona, y aun tomando en cuenta las que hubo en Oñate, Azpeitia, Azcoitia, Vergara y otros pueblos; y para eso y más elevados fines sería utilísima una Academia Católico-Euskara que fuera un nuevo baluarte de la Religión verdadera, idioma, fueros y libertades patrias de la más antigua de las razas europeas.”

(14) ALTUNA, Patxi: “Bonaparte eta Aita Aranak elkarri egin kartak”. *Fontes Linguae Vasconum*, 1985, n.º 46, julio-diciembre, 305-341. orr.

(15) Jose Julio de la Fuente argitaratutakoak, hain zuzen.

Hor dugu ba bibliografiarako beste iturria, hots, moldiztegia, eta bibliografiaren gaien aipamena: erlijioa, hizkuntza, fueroak eta azpimarratu beharko genukeen Aranaren abertzaletasuna (16).

Gabriel de Henaoren liburua aipatu dut. Eusebio Lopezek egin zuen Tolosan bigarren argitarapena 1895-1896 urteetan eta Jose Ignacio Aranak egin zizkion edizio honi hainbat eranskin. Historiografiarako ematen dituen datuetatik aparte, eranskin hauek azpimarratuko nituzke bibliografia zehatza aipatzen dutenak:

APENDICE IV. "Ilustraciones sobre la Historia de Guipúzcoa y sobre sus libertades y fueros". Noticia bibliográfica de los principales historiadores de Guipúzcoa.

APENDICE V. "Ilustraciones al P. Henao en sus Preliminares de las Averiguaciones". Noticias bibliográficas sobre la Santa Casa de Loyola.

APENDICE VI. "Sobre el monoteísmo y religión verdadera de los Cántabros y su primitiva lengua". II Parte: Sobre la primitiva lengua española o ibérica de los Cántabros. Ilustración primera: Sobre las voces topográficas euskaras. Ilustración segunda: Reseña histórica de la literatura cántabra o bascongada.

APENDICE VII. "Historia del Patronato de Loyola e Iglesia Parroquial y ermitas de Azpeitia".

Eranskin guztietan erreferentzia bibliografiko interesgarriak ematen baditu ere, VI. Eranskinean euskal literaturari buruzko atala da garrantzitsuena. 88-110 orrialdeetan biltzen dira ia 200 idazleen izenak. Endrike Knörrek igorri dit atal horretatik atera duen idazleen zerrenda eta eskertzen diot benetan. Baina askoz ere gehiago dira beste eranskinetan agertzen diren euskal bibliografiarako fitxak, ez euskal idazleenak bakarrik, euskal gaiak ukitzen dituztenenak baizik. Eta euskal idazleenak ere askoz ere gehiago dira orain aztertuko dugun Aranaren *Ensayo de una Bibliografía Bascongada* eskuizkribuan.

Azkenerako utzi dut lan honi dagokion azalpena. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan dagoen eskuizkribu originala da, 436 orrialde dituen, 21 × 13 zentimetrokoa. Gehiena Aranak idatzia da, baina badaude txertatuta, letra ezberdinetak orrialdeak, dirudienez laguntzaile batzuk Aranari bidaliak. Bibliografia honek 1.363 fitxa bibliografikoak ematen dizkigu, baina biltze lana dela ematen du, zeren eta lehen orrialdean gero erantsitako Sinopsis ez du jarraitzen. Azkuek 1896an argitaratutako *Proyecto de Ortografía* da azken fitxa. Beraz hil arte jarraitu zuen Aranak biltze lanean eta ez zuen astirik izan dena sinopsiare arabera taiutzeko. Hau da Jose Ignacio Aranak asmatu zuen plana:

(16) Moldiztegien historiari buruz ikus: ARANA MARTIJA, Jose Antonio: "Euskal Herriko inprentaren historia". *Uztaro*, 1994, 12, 37-53.

BIBLIOGRAFIA BASCONGADA *Plan del Tratado*

Sinopsis sinopseos (sic) de la Bibliografía Bascongada

I.^a Parte: Bibliografía bascongada antigua (o hasta mediados del siglo XV o invención de la imprenta).

Disertación I: Sobre la Paleología Euskara o basco-cántabro-aquitana en sí misma considerada.

Disertación II: Sobre la Paleología Euskara con relación a otros países y lenguas antiguas y modernas.

Disertación III: Sobre la Ortografía Euskara o bascongada antigua y moderna.

Parte II.^a: Bibliografía bascongada moderna (o desde la invención de la imprenta (1440 a 1452) hasta nuestros días).

Disertación preliminar sobre esta segunda parte y sus Apéndices.

Sección I: Orden cronológico de los escritores y monumentos relativos al Euskara, la Euskaria y los Euskaros o Basco-Cántabro-Aquitanos.

Sección II: Orden alfabético-biográfico-crítico de escritores relativos al Bascuence, la Euskaria y los Basco-Cántabro-Aquitanos.

Sección III: Apéndices.

Baina, egitasmo hau betetzeko beste fitxa bildu arren, ezin izan zuen aurretiaz ikusitakoa bete. Kontuan izan dezagun 58 urterekin hil zela, urte gehiago bizitzeko eta fitxak taitzeko esperantzan. Beraz gordetzen dugun eskuizkribuan honako hamabi atal utzi zizkigun:

1. Orden alfabético cognominal de algunos autores clásicos del Bascuence en sus tres dialectos principales: bizcaino u occidental (16), guipuzcoano y navarro o central (24) y labort-suletino u oriental (20).
2. Algunas de las fuentes o repertorios para esta Bibliografía Bascongada.
3. Bibliografía Bascongada I con índices alfabético y cronológico. 377 fitxa.
4. Bibliografía Bascongada II con índices alfabético y cronológico. 222 fitxa.
5. Catálogo de libros para aprender el Euskara. 40 fitxa.

6. Cristau-icasbide eta jayera edo deboziyoraco liburutegi berezia euskerazkua. Biblioteca selecta bascongada de libros de instrucción y devoción cristianas. Ez dirudi Aranak idatzitakoa denik. Azkena 1883koa. 48 fitxa.

7. Euskarazco liburu on batzuen izenak, edozein cristau gogo-onecoren pro(be)churaco, zeñac iracurgai eta gomutagai obeenetacoac baidira. 214 fitxa.

8. Comunicación del Sr. D. Roque de Eriz, segundo Diputado General de Guipúzcoa, al R.P. Ignacio de Arana sobre la entrega del Santuario y Colegio de Loyola a la Compañía de Jesús en 1856.

9. Bibliografía Euskara III con índice alfabético y cronológico. 314 fitxa.

10. Bibliografía Bascongada IV. 96 fitxa.

11. Bibliografía Euskara V: del V.P. Agustin Cardaveraz. 12 fitxa.

12. Bibliografía Euskara VI. 40 fitxa.

Ikusten denez, aldian-aldian egindako bibliografia da eta ez Jose Ignacio Aranak bakarrik burutua, laguntzaile batzuen letra desberdinak ere agertzen baitira, ez asko, egia esan.

Hitzaldi honetarako denbora mugatua izan dudanez, eta behar bada larregi zirikatuko nuen zuen pazientzia, ezin izan ditut eman nahi nituen beste xehe-tasun. Nahi duenak jarrai dezala ikerlana, unibertsitateko tesia betetzeko material haina daude Arana bibliografoaren inguruan eta. Hala biz.

JOSE INAZIO ARANA JESUITAREN BIZITZA (1838-1896) - I

Azkoitia, 1996-XII-20

Patxi Altuna

1. AURRETIKOAK

Berak utzi digu luzaki eta zehazki idatzia bere bizitza ia 1.300 orrialdeko izkribu gaurdaino inoiz argitaratu gabe eta EGUNARIA deritzan batean. Esan gabe doa artikulu honetan hori izango dela ene iturburu ia bakarra. Bai halaber, eskuizkribuaren zati txiki batez bakarrik baliatuko naizela artikulu labur hau egiteko eta ondoren etorriko direla, Jainkoa lagun, beste artikulu batzuk.

Bere bizitzaren berri emateaz gain jakinarazten dizkigu bere bizitoki aniztetako gertari politikoen oihartzunak, idazten ari den liburuen froga-zuzenketak, beste euskaltzale eta euskalariekin dituen harremanak, eta abar. Ez da beraz ikerlanik egin behar Aranaren bizitza kontatzeko, hautalana egin behar da. Ez baita dena garia bere izkribuan, lasto ugari ere badago eta ordu askotako lana da bata eta bestea bereiztea.

Nik artikulu honetan bere bizitzako lehen 29 urteen, berak EGUNARIAren Lehen Parte deitzen duenaren berri emango dut. Helburu batekin, batez ere: Jose Antoniok esan duen bezala, joan zen mendean euskalaririk onenetakoa eta ezagunenetakoa izan zen Aita Jose Inazio Arana Irazusta Azkoitiarraren bizitza eta obra ezagutaraztekoarekin. Bonapartek, d'Abbadiek, Duvoisinek, Intxauspek, eta Lardizabalek, Agirrek, Urruzunok, Arzakek, Campionek, Soroak, Arresek eta abarrek, hala nola, Manterolak, Asteasuko Agirrek eta Sabino Aranak behin eta birritan kontsultatu zuten gizonaren oroitzapena ez dadin gure artean itzal eta suntsi.

Aita Villasantek honela deskribatzen du Aita Arana bere Euskal Literaturaren Historian, 284. or.: “fue sin duda de los más profundos conocedores de la literatura y bibliografía vascas. Cultivó también asiduamente la poesía”. Honela ere bai: “Uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1880...” (ib.).

Lehenago, Aita Arana hil eta berehala, Aita Felipe Zugazagak, Aranarekin Loiolan bizi izanak, Hilberri bat argitaratu zuen R.M. Azkuek eskatuta, honek sortu berria zuen *Euskaltzale* aldizkarirako. Aita Zugazagaren idazlana EGU-

NARIAren lehen orrialdeetatik hartua da eta horregatik du enearekin antz pixka bat lehen lerroetan. Nik hark baino luzexeagoa idatzi dut, baina bien iturburua bera da, luze-laburrak gorabehera.

Irakurleak horri antzeman diezaion, jakin beza izkribuak bi zati handi dituela. Lehenak, gazteleraz idatziak, bere aldetik hiru atal ditu. Lehen atala, 48 orrialdekoa, aitonen eta gurasoen eta bere jaiotzaren berri ematetik hasi eta 1867. urtera luzatzen da. Hori da ene gaurko artikulua gaia. Bigarren atala urte horretatik hasi eta 1872garrenearainokoa da eta 195 orrialde hartzen ditu. Eta hirugarren atala 1873an hasten da eta 1884an bukatzen eta 474 orrialde besarkatzen. Beraz, 717 orrialde dira danera.

Hori gazteleraz idatziriko lehen zatia, nik euskaraz gatzatua, zeren bigarren zatia, 1884an hasten dena, osorik euskaraz idatzia baitago eta bera da izkribuaren 4. zatia bere osoan: 1884-1892. Alegia, ez du barne-zatirik, baizik urte bakoitzaren bukaerak eta berriaren hasierak seinalatzen dituzte mugak, azkena 1891garren abenduaren azken eguna. Eta hor amaitzen da EGUNARIA, gezurra badirudi ere, zeren badakigu 1896an hil zela. Aspertu egin ote?

Jose Antoniok bere lan ederrean esan digu Azkue liburutegian daukaten Aranaren *Ensayo de una Bibliografía Bascongada*-ko 1363 fitxetatik azkena Azkuek 1896an argitaratutako *Proyecto de Ortografía*-rena dela. Hortik ondorio hau ateratzen du: badakigu Jose Inazio Arana hil arte jarraitu zela biltze lanean.

Areago dakigu, hil zen arte aritu zela EGUNARIA idazten ere. Hona zergatik. EGUNARIA hasi aurreko orrialde zenbaki erromatarrez markatuetatik XXV.ean hitz hauek irakurtzen ditugu:

“1892. De exercitiis an. 1892, vide EGUNARIA, el 7 de Setiembre de 1892. Propositorum compendium.

1893. De exercitiis et propositis vide EGUNARIA, 24 de Set. 1893.

1894. De exercitiis et propositis vide EGUNARIA, 7 de Set. de 1894. Asmo doneak.

1895. De exercitiis et propositis, vide EGUNARIA 7 de Dic. de 1895.

1896. De exercitiis et propositis 1896 vide EGUNARIA 22 Septembris.”

Latin erraza da hori. Ikusten denez, bere bizitzako azken bost urteetako Gogojardunen berri jakiteko, EGUNARIAko hor ipintzen diren orrialdeetara igortzen gaitu. Beraz idatzi zuen azken bost urteetako EGUNARIA ere. Non dago, ordea? Badakigu 1891ko azkenaldean Lagundiko Probintzialak eta Erromako Agintariek zigortu zutela bidaliz bizitzera Burgosko Oñara, iada orduko Leongo Teologia Fakultatearen ordezkoko bihurtura. Hona orain gure hipotesia: Durangotik Oñara 1891garren urteko azkenaldean zokoratzean, konfiantzazko lagun bati utzi ote zion Durangon orduarterainoko EGUNARIA, Oñan zer

gerta ere, eta horri eskerrak salbatu eta guganaino heldu ote da? eta aldiz Oñan azken bost urteetan idatzi zuena, hil ondoren, betiko galdu?

2. HAUR ONGI HAZIA (1838-1854)

Azkoitian sortu zen 1838ko maiatzaren 26an, Elizak San Felipe Neriren festa ospatzen duen egunean, berak bere EGUNARIAn urteoro gogorazi ohi digun bezala. Aiton-amonen berri emanez hasten da. Aitona Jose Franzisko de Arana zen, jatorriz Larraulgoa; “Azkoitian berriz Baroi-etxekua edo Baroikua, gaurdaino dioten bezela”, diosku bilobak. (Irakurleen ezagutzarako diot neure aldetik “Baroikua” bezala “Dukekoa” izeneko etxea ere bazela eta badela Azkoitian, “Aingeru Guardako” ermita baino goraxeago, EGUNARIAn behin baino gehiagotan aipatzen dena). Haren lehen emazteari Gabriela Larrañaga zeritzan eta bi seme izan zituzten, Jose Manuel eta Franzisko. Gabriela gazterik hil, ordea, eta aitona berriz ezkondu zen Maria Antonia Larramendirekin, zeinek beste seme bat, Jose Inazio, eman baitzion, iloba jesuitari izena emango ziona.

Hiru semeetatik bi, Jose Manuel eta Jose Inazio, etxean omen zeuzkan berrekin; “Franzisko berriz Valladolidko Kanzillari Errealaren aldean kargudun”. Hiruretan zaharrena, Jose Manuel, gure Jose Inazio jesuitaren aita, Albisturen ezkondu zen 1835eko urtarrilaren azken egunean, Artola zeritzan Amezketakako auzo edo baserri bateko alaba Josefa Dolores de Irazustarekin.

“Bitartean”, dio izkribuak, “D. Carlos Vgarrenaren aldeko gerra aurrera zijoan Zumalacarregi Euskalerrian buru otsandiko zala, eta Jose Manuel Aranak ere” —aitak, alegia— “armetara joan bear izan zuen...”.

Zortzi seme-alaba izan zituzten, zazpi seme eta alaba bakarra, gazteena. Gure Jose Inazio danetan bigarrena zen eta, berrogeita hamazortzi urte bakarrik bizi izan bazen ere, senide guzietan gehiena bera bizi izan zen. Beste anaia bat ere, Jose Antonio, hirugarrena, jesuita egin zen eta gazterik Manilara destinatu zutelarik, han hil 26 urte zituela. Jose Joakin, laugarrena, herri-apaiz izan nahi zuela eta Arantzazun, Iruñean eta Salamankan aritu zen ikasten, Jose Inazio bezala, baina 1859ko udan Azkoitian hil zen uztailearen 3an. Umetan hil ziren Jose Luis, Jose Remigio, Jose Miguel eta Maria Luisa, araba txikia. Jose Inazioz gain urte mordoak, 44, bizi izan zen bakarra Antonio Maria zen, zortzi senideetan azkenaurrekua eta urte askotan zehar Jose Inaziori munduan gelditu zitzaion senide bakarra. Ez da harritzeko suharki maite eta saminki deitoratu izatea haren heriotza, Durangon biharamunean jakin zuenean. Diodana sines-teko, aski bedi jakitea Aita Probintzialak hiru egunerako etxera joaten utzi ziola eta ondoko egunetan lagunak dolumin-karta piloa eskuratu zitzaizkion; hiru bakarrik aipatzeko, Arzac, d’Abbadie eta Sabino Aranarena.

Umetan Trokotxoko eta Aranburuko etxekoandreak izan zituen inude Jose Inaziok. Lauzpabost urte zituela hartu zuen Sendotzako sakramentua eta ez zituen edozein izan aita-amabitxiak: Konde Valleko senar-emazteak, alajaina, Murua jauna eta Gaitan de Ayala anderea. Ondoren gurasoek Jose Inazio, urte gutxitan etxean lau seme-alaba metatu zitzaizkielako edo, Amezketara bidali zuten haztera, hangoa baitzuen ama.

Bitartean aitaren anaia Jose Inazio Azpeitiko Paula de Unanuerekin ezkondu zen. Hiru alaba izan zituzten eta hirurak munduratu ahala hil, neska txiki zirela. Izeba Paula alargun hau Jose Inazio jesuitak oso kuttuna zuen eta elkarri egingo dizkiote etengabe eskutitzak, EGUNARIAren kontaerak dirauen bitartean. Hiru alabatxoak ez ezik, senarra ere laster galdu zuen, 1856an, kolera denboran.

Lehen letrak herriko maistra Gabriela San Jose elizondoan bizi zenarekin ikasi zituen eta sei urteko zela maisu jaun Barrutia zeritzanaren eskolara pasa. Eskola zaharretik, Lagundiak han zuenetik, Elizatariko berrira aldatu zen laster, baina kontu ateratze eta esku letrak —hala deitzen ditu berak— hobeki ikas-teko, D. Fr. Jose, Marsalgoan bizi zen fraidearekin eskolak hartzen hasi zen. Oroitzen da nola, oso mutiko zela, joan zen aitarekin Bilbora behin edo bitan; baita ere nola izan ziren urte haietako batean, 1849an, Azkoitian Probintziako Junta edo Batzarrak.

Osasun erkin samarragatik —ikusiko dugu bizi guzian izan zuela aski makala— edo etxeko semeen zama pixka bat arintzeagatik, Ezkiogara jo zuten gurasoek, ahaidea zuten eta hango maisu zen Jose Maria de Azpiazurengana. Gainera amaren izeba zahar batzuek ere han bizi ziren. Zortzi edo bederatzita urte zituen orduan mutikoak eta hamalau hilabete egin zituen Ezkiogan. Ormaiztegira inoiz edo behin Meza entzutera jaixten omen zen, “nun Zumalakarregi apaiz jaunaren meza aitzen zuen”. Han zegoela gertatu omen zen Errapitako karlisten altxaera eta inguru hartan ere zerbait mugitu omen zen bat edo beste.

1849garren urteko udan Azkoitira eramán zuten gurasoek berrira eta ordu batzuetan “erakuste apartekoak hartu-azi ziozkaten” semeari Barrutia maisuarekin; baita dibujo-eskola batzuek ere Eizagirre jaunarekin. Hainbat seme-alabaren amaren osasuna akitua eta unatua zegoen nonbait eta 1850garren urtean ustegabeen ama hil zitzairen, aita Bilbon zen egunetan preziski.

Asko luzatu gabe, 1850ean, aita berriz ezkondu zen Asteasuko emakume Josefa Antonia Udakiolarekin eta denbora gutxian bi alaba izan, Nikolasa eta Justa, eta, handiagoa dena, urte gutxiren buruan, mutiko batez erditzean, hil zitzaion bigarren emaztea ere. Juana Acha, Rafaeltxo, eta Patxi “Tole” Usabiaga ere maiz agertzen diren ahaideak dira.

Albistur izan zuen hurrengo ikastokia gure Jose Inaziok. Han ba omen zen apaiz koadjutore D. Esteban Zelayeta, gramatika irakasten aritzen zena. Jose

Inazio joan orduko, beste bat, Billabonako Pedro Manuel Echabeguren, gero jesuita egin eta Puerto Ricon hil omen zena, ari omen zen harekin gramatika ikasten. Elkarrekin urtebete bizi eta jardun eta, D. Estebanekin gramatikaz gainera, D. Felix de Eleizgaray herriko organistarekin eta haren seme D. Toribio, gero Gasteizko Katedralean organista izango zenarekin, ikasi omen zuten musika ere. Diodan bidenabar Eleizgaraytar organistak orduan eta gero ia gaurdaino Azpeitiarrak izan direla.

Hurrengo pausua, hurrengo ikastokia —inongo maisuen ikasgaiak ikasten baitzituen nonbait denbora gutxian— Aranzazu izan zen, eta han Fray Domingo de Albeniz irakasleak, Azkoitiko semeak, irakatsi zizkion Giza-zientzia edo Humanitate direlakoak eta latina. Hamasei laguneko taldea aritu omen zen urte hartan Albeniz irakaslearekin gai horiek ikasten eta hango bakean eta bakar-dadean aurkitu omen zuen la “cuna dichosa de su vocación religiosa”. Tiple on-ona zen beste semea ere hara igorri omen zuen aita gramatika eta musika ikastera eta ez omen zien gutxi gozarazi hara joaten zirenei “con su magnífica voz de tiple”.

Arantzazutik Iruñera: hala erabaki omen zuten gurasoek. Baina ohar gaitzen puntu batean: Baroico diru-egoera ez zen, itxura guzien arabera, nolana hiko. Jose Inazio Iruñera bidaltzeko, Jose Antonio tipleak senideetan hiru garrenak Aranzazun aurrera segitzeko eta laugarrena Jose Joakin ere urte hartan Humanitateak ikasten hasteko diru boltsa handi samarra behar zen. Kontua da gure Jose Inaziok eta bere lagun Etxabegurenek jesuita izateko erabakia hartua zutela eta Loiolan lekua eskatua. Hango Buruek, Aita Moreyk eta A. Olaskoagak, bata hartu zuten, baina Jose Inaziori Iruñean urtebete ikasteko eta orduan hartuko zutela esan. Hamabost urte bakarrik zituen.

Aranak berak non edo non “Batzar Hazitegi” deitzen duen Iruñeko Seminario Konziliarrean bi gairen matrikula egin zuen 1853-54 ikasturtean: 3. mailako latinarena eta gerkeraren hastapenena. Laster egin zituen lagun bizi zen etxe bereko kideak: bata inprimaria Nikasio de Goienetxe eta bestea Juan Bautista Olaetxea, gero Ikastegietako erretore izango zena. Eguberrietan beste lagun nor zen ez dioen batekin etxerantz abiatu ziren egun seinalatua haiek gurasoekin igarotzeko, eta hara non egiten duten topo Guardia Zibilekin Lekunberrin. Hitz bi egin eta aurrera joaten utzi zieten eta iluntzerako Tolosan ziren lo egiteko eta gure Jose Inazio Azkoitian biharamunerako.

Egun batzuk han igaro eta Iruñera berriz tipi-tapa 1854. urtean ia sartua. Ez zitzaion berehalakoan iritsi hain irrikatzen zuen hurrengo uda. Loiola zuen bere ametsa. Ez du azterketa konturik aipatu ere egiten. Etxera itzultzeko garaia heldu zitzaizenean, trabak aurkitu zituztela, hori bai. Esparteroren altxaera ger-tatu berria eta hiritik ateratzen ez uzten, San Nikolas atea itxiagatik. Halako batean gauzak baretu zirenean eta San Nikolas atea ireki, hor dihoaz bi gazte, kilometro batzuek bereizten dituzten bi herrixketan, Loiolan eta Errexilen, gero urte asko biziko ziren eta elkarren lagun min eta elkarren laguntzaile izango

ziren apaiz Juan Bautista Pagadizabal —gero Errexilgo Erretore izana— eta gure Jose Inazio. Azpirozko aldapan Donostiatik Iruñera zihoan tropa-andana batekin egin zuten topo. Bidaniara iritsi zirenean, han laguna utzi eta jarraitu zen azkoitiarra bere herrirantz.

3. HERRITIK JAURTIKIA (1854-1856)

Lehen lana Loiolako agintariak zirikatzea izan zen. Ez zeukan ahaztua zer agindu zioten. Baina hitza jateko asmorik ez izanda ere, ohartzen zen Jose Inazio urtebetean jesuitentzat —eta beretzat— gauzak asko okertu zirela, agintariek zalantzak izan zitzaizketela eta bere Loiolan sartzea arrisku handian zegoela. Egunetik egunera handitzen eta zabalagotzen zihoazen Gobernuak jesuitak Espainiatik jaurtikiko zituelako marmarrak. Hori gertatzen bazen, kito Arana jesuita izateko hartzea, ordukoz bederen!

Baina ez; marmarrak marmar, irailaren 11an sartzen utzi zioten eta jesuita izaten hasten eta hamabi egunen buruan sotana jantziarazi, baina ez beste orduarteko nobizioek soinean zeramaten bezalakoa, baizik jesuita frantsesek jantzi ohi zutena, beldurrez hara abiatu behar izan zezaten egun gutxiren buruan. Halaz eta guztiz ere, ezer gertatzen ez balitz bezala, hilabeteko gogojardunak egiten hasi ziren, jesuita berriek betidanik egin behar izaten dituztenak. Ez zituzten oraindik hamabost egunetakoak eginak, bertan behera utzi eta erbestera abiatzeko pardelak egiten hasi behar izan zutenean. Azaroaren 27an abiatu zen Jose Inazio Loiolatik beste lagun taldetxo batekin. Irunen geldialditxo bat egin zuten Lardizabaldarrek hala nahita; hauek “en un mirador junto al camino real, obsequiándolos” hartu omen zituzten. Baionatik gauerdian atera eta goizaldera iritsi omen ziren Akizera, egun gutxiren buruan Hagetmau-ra aldatzeko.

Etxe berrian nola edo hala kokatu zirenean, gogojardun Loiolan erdi eginei martxoaren 6an ekin zieten berriro nobizio sartu berriek eta dohatsuki amaitu. Udaren azken aldean Nobiziaduko lehen urtea burutu zuen bigarren gozategin berriekin hasteko; alegia, urtebetean ikusi gabeko ikasgaiak eta liburuak berriro hartu eta Humanitateak eta gerikera ahan-tzi samarrak berriztatu, Erretorikari eta Poetikari ekin ahal izateko. Bi urte ondoko boto erlijiosoa 1856ko irailaren 14an egin zituen eta gero ere Erretorika eta Poetika ikasten jarraitu, harik eta hurrengo udan, 1857koan, bien azterketak egin zituen arte. Berak ez du horrelako konturik esan ohi, baina sines dezakegu atsegin handiz aritu zela gai haiek ikasten, gero Euskal Poetika liburu bat idatziko zuena. Horrenbestez amaitua zuen Lagundiko Juniorado deritzan lehen ikasketa aldia.

Bigarrenari ekin baino lehen, Hagetmau utzi eta Filosofia hiru urtez ikas-tera Salamankara joan behar zutenek, hara abiatu baino lehen, Akademia Poliglota delako saio handi-eder bat eskaini nahi izan zieten oraindik han geldit-zen ziren “junior” gazteagoei agur egiteko, eta bisita egitera etorri zitzaien

Aita Probintzial Olaskoagari ongi etorria emateko. Han entzun ziren bospasei hizkuntzetan olerki eta hitzaldiak. Gure Jose Inaziok ere parte hartu zuen eta, Poetika ikastean aldeko izan zituen Musei (Oihenartek bezala) azken agurra emanez eta Salamankan zain zegokion Filosofiaren ohoreak kantatuz, *Poema* bat egin zuen, berak dioskunez, guk dakigun bere biziko lehena, gero ondoko urteetan egingo zituen ehunka neurtitzen aitzindaria.

4. TORMES ONDORA (1857)

Garai hartan Lagundiak ez zituen bere probintziak orain bezala zatituak. CASTILLA probintzia zerizten Galiziatik hasi eta Nafarroaraño guziei, Leon, Zamora, Salamanca, Palencia, Burgos eta Errioxa barne. Junioradoa guziek Loiolan bezala Filosofia guziek Salamancan egiten zuten. Batera bizi ziren, beraz, gailegoa eta nafarra, Zamorakoa eta Santanderkoa.

1857ko uda aurrera zihoan eta zeuden tokitik Salamankaraño joateko zortzi egun edo behar zituzten. Horiek horrela zirela, irailaren lean edo 2an, ez zaio ongi gogoratzen, abian jarri ziren kotxeetan eta Irundik 4ean pasa ("notaron al punto la diferencia de trato, de modales y de costumbres entre España y Francia") eta Gasteiz, Miranda, Burgos ("a las 7 de la tarde del domingo 5"), Dueñas, Palencia, Torquemada ("do una jícara de chocolate costó 4 reales"), Valladolid, Tordesillas eta Toro zeharkatuz, Zamorara ostegun 9aren goizeko 5etan iritxi ziren. Ordubeteko atsedenenaren ondoren 6,30etan kotxeetara igo berri eta "andando por malos caminos, prados y bosques con gran traqueteo" hilaren 9aren arratsaldeko 3etan heldu ziren azkenean Salamanka dontsura.

Bizimodu berria hasi zuen han Jose Inaziok, bere bete-betekoa, igande eta gainerako jai egunetan apaiz ziren Aitekin kartzelara eta gaixotegietara eta batez ere haurrei Kristau Dotrina irakastera ateratzen baitziren (Jose Inaziok gero biziko den toki guzietan gogoz eta suharki egingo dituen lanak). Eguberriak etxeko giro gozoan igaro eta udaberrian jesuita teologo amerikar bat han apaiztu zelarik, hari zorionak emanez *Octava Real* bat egin omen zion Jose Inaziok.

Ez zion ezerk susmarazten osasunak batbatean karrak egingo zionik. Filosofiako lehen ikasturtea eta ondoko azterketak ustez ongi eginda gero "tuvo J(ose) I(gnacio) A(rana) en los días inmediatos un ataque fuerte y repentino de sangre, que junto con los grandes calores de aquellos días degeneró en ataque cerebral que, gracias a Dios, con prestos y eficaces remedios de sangrías, nieve, etc. se pudo atajar, aunque en pocos días quedó el enfermo casi esqueleto por la mucha sangre extraída; pero recuperado casi a los 15 o 20 días con los continuos cuidados de los Superiores, en especial de los PP. Gomez y Beltrán y el médico Marcelino Rodríguez y con algunos baños de la misma ciudad de Salamanca, se hallaba en buena convalecencia al fin de Junio y principios de Julio de 1858".

5. LOIOLAN ERI (1858)

Hori ikusirik Nagusiek bertantxe Loiolara igorri zuten Jose Inazio “a restablecerse mejor con los aires naturales y baños de mar”. Uztailaren 21ean abiatu ziren y “llegó algo cansado de tanto traqueteo de coche y bastante flaco a Loyola el 29”. Bi hilabete eta erdi bakarrik bizia zen erbestera baino lehen Loiolako etxe handian. Ez zitzaion, halere, berria irudituko, baina jendez urritua bai, batez ere jesuita gaztez, han ez baitzen gehiago nobiziorik ez juniorrik.

San Inazio egunean ez zuen Elizako elizkizun handia ikusi gabe gelditu nahi izan, nahiz ez zen beheko jende artean eseri, baizik goiko balkoe-tribunetako batean. Ia damutu zitzaion joana: ordu eta hiru laurdeneco sermoia egin baitzuen apaiz gazte zela jesuita sartutako nobizio argi-zoli Nepomuzeno Lobbok gero Probintzial izango zenak.

Sorterriko aireei eta inguruko paseoei eskerrak hobekuntza nabaritzen eta pisua handitzen joan zen egunetik egunera, baina “siguió algunos días J.I.A. con la cabeza delicada”. Hala izan behar! Pixkabana bere oldezko lantxoak egiten hasi zen tarteetan, haatik, inguruko moja-konbenturen batetik neurtitzak eskatzen zizkiotenean, adibidez. Azkoitiko Santa Klara bere jaiotetxe ondoko Konbentuko Abadesak eskatu zion egin zitzaion, otoi, Asisko Franziskoren zaurien gainean, eta bai egin ere.

Zer esanik ez, eguraldi ederra egiten zuen arratsaldeetan etxeakoak eta gainerako lagunak ere bisitatzen zituela, emeki-emeki ibiliaz eta beti Ordenako Anai lagun bat aldamenean zuela, LAGUNDIKO Arauek agintzen zuten bezala. Orduan ikasi zuen bere anaia Jose Antonio eta Jose Joakin aurreko urteetan Carrionen ikasten arituak zirela eta lehenak jesuita izateko gogoia zuela eta bigarrenak herri-apaiz izatekoa, eta uda hartantxe joatekoak zirela bata Hagetmau-ra nobizio izatera eta bestea Iruñera, non izan baitzen D. Vicente Menterola jaunaren Erretorika ikasle. Albiste horiek orduan lehen aldiz ikastea eta bere etxeko berri hori baino gehiago ez izatea ez da harritzeko, seguru baita erbestera joan zenetik ez zuela etxeko eskutizik hartu ez eta berak etxera idatzi.

Etxera joan zen arratsalde horietako bateko pasadizu polit bat kontatzen digu. “En el corredor de casa que da al río tenían los dos hermanos en la pared o poste dos señales de su altura; en la primera tenía José Antonio escrito en la raya «cum Pampelone veni» (Iruñetik etortzean, alegia) y llegaba hasta la frente de José Ignacio con fecha 10 de Julio de 1857, esto es, la altura de 163 cms., y en la segunda «cuando fui a Pamplona», señal de José Joaquín, fecha 25 Sept. de 1858 y llegaba a la altura de José Ignacio menos 3,50 dedos, o sea, 164 cms., de modo que José Ant. tenía de alto el 20 de Julio de 1857 163 cms. y José Joaquín el 25 de Sept. de 1858 164 cms., teniendo ese mismo año José Ign. (1858) la altura de 169 ó 170 cms.”.

Ezin esan taxu oneko gaztea ez zela. Hor daukagu ezin hobeki pintatua gure Jose Inazioren izateko modua: ezer itzurtzen ez zitzaion pertsona, dena ikusten zuena eta kontatzeko orduan xehetasun zalea. Udan oporretan itsas-bazterterra hurbiltzea aspaldiko ohitura da hemengo jesuiten artean (Bakio eta Getaria 50 azken urte hauetako lekukoak) eta Loiolakoek garai hartan Zumaian alokatu ohi zuten etxe bat hartarako, non ez zen bat edo beste arrazoi bereziak gatik eta baimen bereziarekin beste lekuren batera joaten, Betelura adibidez, Arana bera bezala uda batean, ikusiko dugunez. Taldetxoka joan ohi ziren Loiolatik Zumaia eta Jose Inaziori abuztuaren 10ean joateko esan zioten beste lauzpabost lagunekin. Hamabost egun oso eman zituen han eta “con aquellos baños, alimentos sanos, descanso y paseos de 11 a 26 de Agosto se puso muy fuerte J.I.A. y como si no hubiera estado enfermo”.

Egun horietako batean Getariko Bikario jaun D. Eusebio Echanizek, beste apaiz D. Miguel Oyarzun, azpeitiarrak, gero jesuita sartuko zenak eta Getariko alkate Larrumbide jaunak Askizatik jira bat egin zuten eta San Antongo gaztelua ikustera eraman alkateak. Elkanoren oroitarriak dituen latinezko hitzek bertso hau iradoki zioten Aranari:

Fede biziarekin
 Biotza alaiturik
 Eta jakinduriaz
 Burua orniturik,
 Getarian jaun andi
 Sebastí Elkanok
 Mundu guzia aurrea
 Ibilli du itsasoz.

Ezagutzen dugun Aranaren lehenbiziko bertsoa da. Uste baino lehen itzuri zitzaizkion opor egun haiek eta 26an berriz Loiolara itzuli zen. Irailaren lehen egunean hasi zituzten han humanista eta erretorikoek bere ikasketak, Aranak urtebete lehenago Hagetmau-n burutuak zituenak. Bere gisa aritu zen Salamankan etendako Filosofiako bigarren ikasturteko gaiak irakurtzen (“empieza sus estudios privados”, dio berak), baina baditu bestelako denbora-pasak ere; esate baterako, euskarazko eskola partikularrak ematen dizkio Aita Gobernari, zenbait bisitariri Etxe Santua deritzaguna ere erakusten die, hala nola Gaztelu, Goikoetxea jaunei eta Oyarzungo beste bati, baieta Manterola senar-emazteei. Hilaren 14an Puig nobizioak lehen botoak egiten zituela eta OCTAVA REAL bat egin zion eta, egun gutxiren buruan, irailaren 27an, Napoleon enperadorea eta bere emazte Eugenia izan zirenean Loiolan bisitan, Etxe Santua eta gainerakoa astiro ikusi eta aldegiterrakoan “dejó una limosna la Emperatriz”.

6. SALAMANKAN BERRIRO (1858-1860)

Urriaren 4an, astelenean, gutxiena uste zuen eta biziki poztu zuen albistea eman zion A. Blas Olano erretoreak: osoro sendatua ikusten zutela medikuek

eta itzul zitekeela Salamankara bere ikasketak jarraitzera. Biharamunean abiatu ziren hura eta Madrida zihoan Anai Zabalo. “Para el viaje del H. Arana y Zabalo, éste a Madrid, tuvieron 1.500 reales”. Bidaiaren xehetasun guziak konstatzen ditu. Hona batzuk: “7, miércoles, tarde. Salida de Vitoria para Valladolid por Burgos a las 7; dos asientos de diligencia cuestan 440 reales y se pagaron”. “Asiento de Arana de Valladolid a Salamanca costó 130 reales en el interior”, eta abar. Hilaren 10ean heldu zen Salamankara.

Beharrik ez zuen ikasturterik galdu; esan nahi baita, 1858-59 ikasturtean Filosofiako 2. maila ikasi zuen eta 1859-60an 3., zegokion bezala. Hil horretako egun batean, ez dio zeinetan, Manterola jaunak bere Doktor tesia irakurri eta defendatu zuen “en el salón llamado el General”, eta han izan ziren ikusten eta entzuten Arana eta bere ikaskide batzuk: “hizo un discurso latino y argumentación con brillo; había estudiado antes en Toledo y era natural de San Sebastián”.

Ikasturtean barrena ez ziren eskas izaten bertsoak eta olerkiak egiteko paradak, eta ugarienak eta hoberenak Eguberrietan, arratseko 7ak aldean etxeko antzerki saloian etxeko lagun guztiek, apaiz zirenek eta ez zirenek, elkarrekin jostatzeko eta olgatzeko bizpahiru ordu pasatzen zituztenean. Eguberri haietan Poesiazko Akademia batean Jose Inaziok latinezko ELEGIA bat eskaini eta irakurri zion Aita Vinader-i Guzman el Bueno-ren gainean. Aurrerago, Loiolako Basilikan behin ordu eta hiru laurdeneko sermoia entzun zion Lobo Nepomuceno apaizari, botoak egin zituela eta, Aranak Hamalauko bat egin zion.

Orain arte ez digu esan etxeko Akademia eta gainerakoetan bertso edo olerkirik inoiz euskaraz egin zuenik, baina beste honetan bai: Salamankako Apezpiku berri Sr. Justo Rodrigo, gero Burgosko Artzapezpiku ere izanari, Poesiazko Akademia txiki bat eskaini omen zioten eta Aranak gatzeleraz eta euskaraz egin neurtitzak.

Nobiziadoa bukatzean eginiko botoak urtean bitan berritu ohi zituzten eta, hori zela kausa, Erretorika ikasle guztiak behartuak zeuden guztien gelaz-gela pasatzen zen kuaderno batean poesia bat idaztera, aurreko egunetan moldatua, noski, ez bertatik bertara asmatua. Loiolan daude gordeak urte askotako halako kuadernoak. Haietatik hartu eta argitaratu nuen behin Orixek parada bertsuan gerkeraz eta are hebreeraz eginiko bat, besteak beste. Orain bada, Errege egun inguruan “De laudibus castitatis” gai harturik latinez EGLOGA bat eiho zuen gure Aranak. Garagarrilean Aita Jauregi Probintzial berriaren bisita hartu zutelarik, hari ere OCTAVA REAL bat dohatu zion eta igandero izaten zuten, nahiz eta Junioradoa atzean utzia izan, gerkeraz eta latina lantzeko —eta lantzeko modurik onenetakoa neurtitzak egitea zen— “Academia de lengua” zerritzaten eskola.

Lehen Manterola jaunak Doktoratua bezala, uztailaren 13an Pedro Aldalur azkoitiarrak Eliz-araudi edo Canonesko lizenziatura atera zuen, horretarako

agiriko azterketa bat eginez. Han izan zen entzule —nola ez!— gure Azkoitiko seme Jose Inazio.

Ezin hobeki etorri zitzaizkion ikasturte latzaren nekeak arintzeko, irailaren hasieran Salamankatik gertu dagoen Nuestra Señora del Cueto deritzan tokian izandako udako oporrak. Hango “leche, fresas, paseos” gogoratzen zaizkio bat-tik bat. Bai halaber Ermita hartako aldare nagusiko burni-hesian irakurri zituen bertsoak:

De aqueste campo tesoro
De todo el cielo alegría
De tierra exempta María
Se escribe con letras de oro
Dulcemente se penetra
Que en gracia y hermosura
Como flor es fina y pura
MARIA al pie de la letra.

Oporretatik itzuli, ia segidan hileroko gogojardunak amaitu eta bihar-munean hasten du Jose Inaziok ikasturte berria (1859-60), Filosofiako azkena. Urteberri arteko konturik ez du kontatzen; bai haatik Gabonak ondoren berriz eskolak hasi eta aita Vinaderri bere ikasleek egin zioten Akademia batean latinezko bi olerki egin zituela berak ere. Egun haietakoxe batean hartua izan behar zuen Loiolatik bere anaia Jose Antoniok idatzita eskutitz bat, non esaten baitzion: “Empiezan a sacar los Tercios Bascongados para la guerra de Africa” eta bospasei hilabeteren ondoan beste bat berarena, esanez: “Banderas de los Tercios Bascongados depositadas en Loyola”. Hori dela eta, “hizo por estos días en verso José Ignacio una pequeña improvisación sobre «Los españoles en Marruecos»”, baita bertsotxo batzuk ere beste nobizio batek botoak egitean.

Filosofia ikasketak amaitzean, hiru urte haietan ikasitako gai nagusi eta oinarritzkoenen “De universa Philosophia” zeritzan programa bat ematen zituzten Agintariek. Han egon ohi zen bildua 50-edo ikasgaietan, “Thesis” izen-datuetan, Filosofiaren muina eta mamia (“53 en total”, dio, “contando astronomía, física, etc.”), eta hura gainditzea beharrezko zen, Eliz-mailan Lizentziatu izateko. Ongi eta ohorezki garaitu zuela diosku Jose Inaziok garagarrireko egun batean eta Jainkoari eskerrak emateko latinezko Oda bat egin zuela.

Albiste txar zaparradak eraso zion Azpeiti-Azkoititik batbatean. Ikusi dugu lehen ere haren etxean heriotzak herrestan gertatu zirela, ama, esaterako, gazterik hil zitzaiola, aita Bilbon zen bitartean, eta bigarren aldiz ezkonduakoa aitak bere bi alabatxo, umetan hilen, bideari jarraitu ziola aurki kolerak harra-patuta. Bada orain, Paula izebaren eskutitz batek diotsa bere senar, gure Jose Inazioren izen bereko osaba Jose Inazio hil dela, baieta honen alabatxo Dolores 14 urtekoa ere. Hori bakarrik ez, Jose Joakin anaia, herri apaiz izateko ikasketak egiten ari zena, Azkoitian hil zela uztailaren 3an eta azkenik bigarren ama ere, ugazama, Josefa Antonia Udakiola hil berean hil zela.

Ikasturtearen nekeak arindu behar bazituen lehen, orain horietaz gainera albiste triste haiek bihotzean egin zioten zauria sendatzen eta barneko bakea aurkitzen saiatu behar zuen ahaleginean. Ez zioten alde horretatik kalterik egin igaro udako toki berean, Santa Maria del Cueton, eman zituen opor-egunak. Han ere tolestatu zituen zenbait bertso: bat Teologiara aurreratu zitzaizkion lagunei eginiko bertsozko karta; bestea San Inazio egunean Loiolako Santuari egina. Nonahi kanporatzen zaio bor-bor olerki eta neurtitzetarako duen grina ezin hezizkoa eta bizi guzian iraungo diona.

7. CARRIONEN (1860-63)

Etapari berriari ekiteko garaia heldu zaio gure Jose Inaziori. Hornitu da gazterik asko letrazko jakinduria ez gutxiar. Bete berriak ditu 22 urte eta orain arte berretzat ikasten aritu izan bada, ondoko urteetan inori irakasten aritu beharko du. Hau da “maisualdi” edo “maisu txiki aldi” garaia deitzen zaiona. Lagundiak jesuita gaztea igortzen du, Filosofia bukatu eta apaiz egiteko Teologiari ekin aurretik, bere Probintzian dituen ikastetxeetatik batera: ea nola moldatzen den mutiko taldexka bati ikasi dituen gaietatik hau edo hura irakasten.

Palentziako Carrion delako herrixkan Jesuitek orduan zuten ikastetxera bidali zuten, 50 urte handi geroago Orixe ere egingo zutenera, eta ertaineko mutikoei gramatika eta latina eta antzeko gaiak irakastea suertatu zitzaion lehen ikasturtean, 1860-61ean. Abiatu baino lehen abuztuaren 15ean Ama Birjinari Oda txiki bat egiten dio, agur moduan, eta egun bereko arratsaldeko 6etan abiatzen da kotxean bere helbururantz. Ez doa bakarrik, beste bi gazte ditu bide-lagun. Biharamuneko goizeko 7etan heldu ziren Valladolida (hala dio Jose Inaziok behin eta berriz izen horren adlatiboa), handik trenez Palentziara eta Fromistara, eta handik zaldi banatan Carriona zuzentzeko, non hartuak izan omen baitziren arraiki.

Han ere olerkiak olerkien gainean eta neurtitzak neurtitzen gainean egiteko parada izango du, batzuetan Jaialdi agirikoetan mutikoen harridura ez txikiarekin. Irailaren 27an bere anaia Jose Antoniok Loiolan Nobiziadu ondoko bo-toak egin behar dituela? Olerki gaztelerazko bat Jose Inaziok Palentziatik zorionak emanez. Palentziarako Apezpiku berria, Jeronimo Fernandez, hautatu dutela eta bisita egitera joatean, ikastetxeko mutikoek jaialdi bat eskaini nahi diotela zorion eta poz-agurrak emanez? Jose Inazioren bertso saio bat ezin falta. Irailaren 30ean, San Jeronimo egunean, bere santu-eguna ospatzen duela Apezpikuak? Etxeko jesuita guztiak bazkaritan zorionak eman eta Jose Inaziok eta bestek neurtitzak eskaini. Ikasturte bukaeran ohitura dela etxeko eta kanpokoan aurrean Literatur-Ekintza bat egin dezaten mutikoek, beren irakasleek lagundurik noski, txosten, olerki eta lantxo batzuk irakurritz? Urte hartako gaia

“Eliza erasotua eta San Pedro” izan zen eta hartarako bi Oda prestatu behar Jose Inaziok: bata frantsesez eta bestea latinez.

Udako oporrik aipatu gabe, ustez osasunez ongi zebilen seinale, hurrengo ikasturteko eginbeharrak zein izan zituen kontatzen digu: bat, ikasleen begirale jolas-orduetan; bi, maila txikikoetan inoiz eritasunez edo gertatzen ziren irakasle hutsuneak bete, haiek ordezkatzuz, eta azkenik lehenbiziko aldiz, guk dakigula, baina gero urteetan zehar ia biziko den etxe guzietan izango duen kargua, hau da, etxeko liburuzain izatea.

Leridatik Jose Escolá apaizak, “Director de la Academia Bibliográfica Mariana” omen denak eskatzen dizkio euskarazko neurtitzak eta, hartu bezain laster, bai berak, bai Aita Probintzialak zorionak ematen dizkiote. Txolarteetarako beste egiteko batzuk kausitu ditu: argazkigintzan aritu, italiera ikasi Don Nicolas Nicolairekin eta litografia pixka bat ere bai Anai Alcalarekin.

Orduarte eginiko literatur-lan guztiak deus ez ziren uda hartan bere gain hartu zuen obrarekin berdinduz: “empieza también a componer la TRAGEDIA DE S. PELAYO”. Aurrerago ere izango dugu honen berri, orain hasi baizik ez baitu egin. Olerki samalda darraikio ondoko 1861-62ko ikasturteko hilabeteetan: Abenduko Ama Birjina Orbaingabe sortuaren egunerako; urteoro bezala Eguberrietako arrats luzeetako jostaldi eta antzerkizunetarako; Salamancan ohoreskatu nahi duten Terueleko Apezpiku berri D. Francisco de Paula Ximenezentzat, San Jose egunean bere santu-eguna ospatzen duen Aita Probintzial Jose Maria Jauregientzat, eta, gehiagoren artean, ikasturtearen amaieran izan ohi zela ikusi dugun Akademiarako “una despedida «ADIOS, CARRION» cantada muy bien por los músicos dirigidos por D. León de Elorza”. Berea dela ez dio, baina hala izateko itxura guztiak ditu beste honako honek ere: “Por Julio hizo Arguiñano Pablo imprimir la marcha de S. Ignacio en vasco y castellano”.

Hona eta hara Gaztela lehorreko eremu zelaiak arakatzuz, mutikoekin txangoak eginik eta, ibili eta ibili, inoiz bazterra jotzen ez duen eguzki ederra hartuz, udako oporrak beste inora mugitu gabe etxean eta etxe inguruan eman, eta ustegabeen ikasturte berria hasteko eguna “mais txiki” aldiko azkena, gainean dute. Ez digu esaten nolako eginbeharrak dituen ikasturte berrian, 1862-63an: eskolak eman, liburutegia zaindu ala zein beste.

Joan urtean bezala Abenduko Ama Birjina Orbangabe sortuaren eguna ezin neurtitz batzuek egin gabe utzi. Aurten neurtitz batzuk baino zerbait gehiago egingo du: “Canción para cantar en el comedor de los colegiales en honor de la Concepción Inmaculada”. Leridatik berriz ere D. Jose Escolá bertso eske du eta aurten beste gehiagoren artean Soneto bat igortzen diola diosku, ez ordean euskaraz den, lehen bezala, ala gazteleraz. Pazkoaldian “hubo día de campo en la dehesa a una legua del Colegio”.

Hilabete baten buruan bi eskutitz hartzen ditu Azkoititik D. Fernando de Echeberria delako apaiz batek eginak; ez diosku nor den, baina bai zer diotsan: “sobre la versión del Evangelio de San Juan al vascuence. Concurso al efecto con premio por la Diputación, según decreto del 30 de Abril”. Beste Anai Chopitea delako batek kartaz galdegiten dio “Eneco, Iñigo, Ignacio” izenen arteko erlazioaz. Zer erantzun ote zion! Puerto Rico-ra destinatua doan Anai Garcia-Frutosi Soneto bat igortzen dio agur eginez.

Ikasturtea amaitu, mutikoak Leonen azterketak egin ondoren nor bere etxera sakabanatu eta Jose Inazio “maisú txiki” aldia osoro bukatu, Leona doa ongi merezitako oporrak hartzera beste zenbait lagunekin, eguerdiko 12etan abiatuz, “unos a pie, otros en tartana a voluntad... Pasando por Moratinos y San Nicolás llega la caravana, después de pasar el Páramo de Campos en parte a Sahagún a las 7,30 del oscurecer, quedándose en una posada estrecha de mediano nombre, donde no hay camas para todos y se cena gato por liebre”. Sahagundik lehen gauan atera eta goizeko 10etan iritsi ziren Reliegora, “en cuya única posada no hay comida alguna y apenas de beber, mátanse gallinas a palos en el corral y se preparan con huevos, y se hace el rancho bueno”. (Ezin uka gazteleraz oso egoki idazten duela!). Iristen dira azkenean 29ko arratsaldean, Leongo jesuiten San Marcos Ikastetxe zoragarriara, egungo egunean Eliza eta Ostatu noble-ospetsu dena. “Partido de pelota el domingo, filósofos contra teólogos; ganan éstos...”.

Hamabost egun-edo han igaro ondoren, opor-egun luzeagoak hartzeko Sandovala joateko esaten diote, non ematen baititu egun batzuk filosofoekin, beste batzuk teologoekin. Han ditu gehiagoren artean bere lagun min Anai Zesareo Txurruka eta Eugenio Uriarte, filosofia ikasi berriak horiek ere, eta haiekin egiten ditu paseoak eta txangoak inguruko tokietara, batez ere Lancia-ko aztarnategira, non aurkitzen baitute inskripzio zaharra duen katilu bat. Eta orain zer?

8. BERRIZ ERI (1864-1865)

Teologia ikasten hastea dagokio Leongo San Marcos ikastetxe handian eta hiru urteren buruan apaiz egitea. Urteroko zortzi eguneko gogojardunak beti bezala irailaren azken egunetan egin omen zituzten, baina gezurra badirudi ere, ikasturte berriaren lehen eguna, Meza Nagusian “Veni, creator Spiritus” kantatu eta gero, “lectio brevis” izaten zenekoa eta jesuita gaztea Apaiz egiteko bidean ipintzen zuena, ez du aipatu ere egiten.

Azaroaren hasieran Aita Probintzial Jauregiren bisita dute eta, egun batzuen ondoren aldegiterakoan, bazkal ondoko kafea Liburutegiko aretoan hartuz Agur egiten diotenean, Soneto edo Hamalauko bat eskaintzen dio Jose Inaio. Hil beraren 8an Leongo burnibidea estrainatzen dute hirian hots eta ospe

handiarekin (“son convidados el P. Rector y otros del Colegio”) eta gure Jose Inaziok, hori dela kausa, beste Hamalaukoa egiten du. Eskatzen dion edozeini bertsoak egiteko prest dagoela esan behar: Manresatik abendu 8ko Akademiarako bi olerki eskatzen dizkiote eta igortzen ditu “2 composiciones en verso para un alumno del Colegio”.

Eguberriak ospatuz sartzen dira Urteberrian, 1864an. Errege egunez “se tuvo un pequeño Ensayo o Academia de lengua inglesa dirigida por nuestro Profesor de Inglés Hno. Longini, italiano”. Beti gazteleraz egiten ibili gabe, italieraz ere egitea oso ongi iruditzen zitzaion segurki Jose Inaziori, eta are hobeki, euskaraz ere egiten balitz halako zer bait. Aurrerago biziko den bi ikas-tetxetan ikusiko dugu asmo hori burutan aterako duela eta asteroko euskarazko eskolak ezarriko eta “saio”-ren bat, berak dioen bezala, agirian egingo.

Aipatu ditugun gaurko Eliza eta Ostatu noble-ospetsuaz gain, bazuten Leonen jesuitek beste “Misioetako ikastetxe” izendatu bat, Loiolan Carlos IIIak, 1767an handik jesuitak jaurtiki eta gero, ezarri zuena bezalakoxea: misioetarako prestatuko ziren apaizak eta erlijiosoak hazi eta altxatzeko ikastetxea. “Las glorias del reino de León” izenpean antolatu zuten ikasturte bukaeran Saio edo Akademia bat eta Aranek ekarri zuen bere aletxoa: (“Discurso preliminar, 3 partes y 25 composiciones; la 12 y 13 recitadas por J.I.A.”). Azpeititik D. Miguel Oyarzun apaiz gero jesuita egingo zenak kartatxo bat idazten dio “sobre las canciones bascongadas del caballo blanco de José Gros”. Azpeitiko “graziosoren” batek ipiniak, seguru asko.

Maiatza zen eta bere EGUNARIAN ez da zortzi hilabete horietan Teologia hitza bera ere agertu, 1864ko gertaeren berri ematean. Ez digu Teologia ikasten hasi eta ari dela esan, ez zein gai dituen lehen ikasturtean kontatu; eta hara nola jakiten dugun modurik estrainioenean, baietz, Teologia ikasten aritu dela eta ikasi dituen gaietatik bi zein izan diren ere bai. Honela kontatzen du berak: “A fines de Abril cayó gravemente enfermo J.I.A. con ataque cerebral, pero, gracias a Dios, con sangrías por los pies y otras partes y otros medios, salió del trance, quedando sumamente delgado y débil, y fue poco a poco con leche, etc. restableciéndose. Se hallaba muy mejorado a fines de mayo”. Eta ia hurrengo lerroan: “Por junio restablecido bastante empezó J.I.A. a repasar las materias de Teología dogmática y moral, pero en los exámenes no se examinó más que de moral, en atención al tiempo pasado por la enfermedad...”.

Sei urte igaro dira buruko lehenbiziko odol-kolpeak eman zionetik; biak garai bertsuan, udaberri azkenean, ikasturtearen hondarrean, gaitzak haren gorputza makalenik harrapatu zuen momentuan. Harritzekoa da, halere, zein laster, erabat sendatzen ezkada ere, hobetzen den bederen, eta indarberritzen. Harritzekoa da halaber nola orain, buruko odol-kolpea dela-eta, ia bi hilabete erdi egon ondoren, ikasten dugun Teologiako bi gai berrikasten ari dela, nahiz azterketa batarena bakarrik egingo duen. Zorigaitz hori izan ez balu, geldi gintezkeen jakin gabe.

Uda eta oporrak hurbil daudelako eta bere herriko aideak eta giroak, eta batez ere Zumaiako bainuek on handia egingo diotelako, Loiolara joateko esaten diote bere Buruek: “disponiendo los Superiores que para mejorar se pasara a Loyola y de allí a los baños de Zumaya”. Abuztuaren 10ean heldu zen Loiolara eta handik egun gutxitara joan Zumaiara beste lagun batzuekin: Aita Goiriarena, Garciarena, etab. Ez du denbora alferrik galtzen eta bainuak hartzeaz gain, besterik ere egiten du: arrain batzuk harrapatu eta Austriako jesuiten Ikastetxe Linz deritzan hirikora igorri Aita Hinderkhor (?) alemaniar naturalistari. Leongo lagunek Lanciako aztarnategian egiten ari diren aurkikundeen jakinaren gainean daukate: antzinako inskripzio batzuk eta Domizianoren txanpon bat. Berari Loiolan liburutegiaz ardura dadin agindu diote, beste lantegirik gabe, eta Katalogoan zeregin haxe bakarrik azalduko da: “curat valetudinem”, alegia, osasuna zaintzea.

Loiolako egunak luzeak dira, neguan batez ere, zeregin handirik ez duenarentzat. Hala izan behar 1865. urte hartakoak ere Jose Inazioarentzat. Sartuko zuen ordu mordoxka liburutegia zaintzen eta eskutitzak idazten ere bai, eta hartzen zituenei erantzuten. Ehunka eskutitz aipatzen du bere EGUNARIAN. Egiteko horietan harrapatzen du 1865garren urteak eta Valentzian Zigorraga Jose bere laguna apaiz egiteko dela-eta, Oda bat igortzen dio. Handik egun batzuetara Probintzial berri Aita Labarta Loiolara doala bisita egitera, eta hari ere neurtitzak. Aita Labarta honek denbora gutxi iraun zuen Probintzial; Erromako Aita General Becks-i ken zezan eskatu zion eta hark kendu eta Aita Felipe Gomez ordezeko izendatu. Berezi xamarra zen. Nafarroako Artaxonan jaioa, Nafarroa “reino por sf” izendatu ohi zuen. Lagundi guztiko profeso zaharrena zen; ia ehun urte zituela hil zen Madrilén, eroso ostatatua Bergarako Kondesaren etxean.

Hurrengo batean Carriondik idazten diote bere barruan poz emango zion albiste bat kontatuz. Carrionen bigarren ikasturtearen hasieran tragedia bat oratzen hasia zela esan zigun, eta ez genuen gehiago haren berri izan, baina dirudienez ixilean eta izkutuan xarra-xarra jarraitu zen gero ere lanean, zeren hara nola meztutzen duten handik Uztailaren 2an bere “El joven Pelayo” izeneko tragedia antzeztu zutela “con buen resultado”.

Abuztuan Isabel II. bere seme-alaba eta ama Cristinarekin datorkie Zarauztik bixita bat egitera. “A la entrada en la iglesia para la misa echó vivas uno de los hijos de Hurtado Mendoza, pero sin ser casi correspondido”. Entzun duzue nola Jose Antonio Aranak bere txostenean aipatu dituen eta nola bibliografia aldetik interesgarri direla esan duen Jose Inazioaren zenbait obra. Bada horietako bi lanen aipamenak egiten dizkigu Abenduan: “Dic. 1865, 1.º dic., carta del H. Lizargarate desde Roma sobre CLAROS VARONES GUIPUZCOANOS S.J.”. Ez ahanztz, Jose Antoniok esan digun bezala, 1871an burutu zela liburuaren inprimaketa Tolosan. Bada orain badakigu noizko zegoen iada Jose Inazio hasia liburu hori prestatzen edo materialak biltzen, baieta Anai Lizargarate ere lankide izan zela, Jose Antoniok esan digun bezala.

Beste liburuaren aipamena hau da. Aurreko hitz horien ondoren honako beste hauek idazten ditu: “Td. (latinezko «idem», «halaber» edo, beste eskutitza ere hartu duela, alegia) de Churruca desde León sobre el TRATADO DE VER-SIFICACION BASCONGADA”. Nolanahi aditzen direla hitz hauek, bistan da gutxienez irakasten digula lan hori ere Jose Inazioren asmoen arteko bat zela eta buruan zerabilela. “De Churruca desde León sobre”: agian hitz horiek Anai Txurrukaren jakin-nahia bakar-bakarrik adierazten digute, eta ez nahitaez orduko “TRATADO” delako hori egina zegoela, baina nolanahi ere 1872ko data, nik FONTES-en 1992an argitaratu nuenak daramana eta Jose Antoniok errepikatu diguna, bukatua zegoeneko data dateke segurki, eta ez inola ere Jose Inazioren buruan eta gogoan —gutxienez!— ernatu zenekoa. Ez da dudarik 1865ean iadanik ernatua zuela eta Anai Txurrukak horren berri bazuela.

9. LOIOLAN GELDI (1866)

1866ko urtarrilari Loiolan ematen dio hastea. Frantziako Toulouse probintziako Aita Nagusia iristen da egun batzuetarako Loiolara eta bazkalondo batean kafea hartzean frantsesezko bertso batzuk egiten dizkio. Baina berea ez da frantsesa, eta ez gaztelera, euskara baizik, eta orain arte ez bezala, EGU-NARIAn tarteka-marteka euskarazko zatiak itzurtzen zaizkio.

Manuel de Soreasu Mirakil baserrikoak urtarrilaren 7an 91 urte egin omen zituen, beste batzuen ustez gehiago, eta batbatean euskarara aldatzen du solasa: “Apirilaren bostian karobiko arriya prestatzen zegoan sendo ta pizkor bere ilobakin”. Denbora gutxi barru gauza bertsua egiten du; Urtiagaberri baserrira txangoa egin duela esan ondoren, honela dio: “Martitako azpian sortaldean dago Urtiagaberri. Emen bizi dira irukiak: Magdalena, Joxe Mari ta Ventura Gabilondo, ta zazpi-bat urteko senide koxkorrak dira. Beren ama da Agustina de Soraluze ta aita berriz Emeteri Gabilondo”.

Albiste txiki multzoa metatzen zaio hurrengo egunetan. Erromatik bi hilabeteren buruan Anai Lizargarateren bi eskutitz hartzen ditu. Azkoitiko Balda baserrian, San Inazioren amaren jaiotetxean, sua izan zen ekainaren 7an: “no hubo gran perjuicio y se sacó fuera el archivo”. Azkoitian Gipuzkoako Batzar Nagusiak egon ziren bilduak eta uztailaren 7an Loiolako jesuita gazte ikasleek literatur Saio bat eskaini zieten: “Acuden los Junteros y otra mucha gente principal del país y de fuera. Sale bien”. Jose Maria Lardizabalaren eskutitz bat hartzen du Zaldibitik. Gero harreman handiak izango dituzte —ez ahanztz Loiolatik erbestera bidean Lardizabalenean egin zutela geldialdia Irunen; lehendik familia ezaguna zuten seinale—. Abuztuaren lean, bezperan, San Inazio egunean, baino festa handiagoa izaten den egunean, Loiolan sermoia On Bizente Manterolak egin zuen eta Jose Inazio Aranak Oda bat moldatu goizeko Meza Nagusia gai zuela. Manterolari berari bidali omen zion gero. Leongo bi laguni igortzeko “Ama Birjinaren Konzepzioko Ofizio laburra” delako liburuxka li-

tografiatzen du Loiolan; ez du esaten, baina berak euskaratua, dudarik gabe. Erreskada luze hau amaitzeko, Urriaren 12an Hazparneko apez Juan Leon Lizardi euskaltzaleak bisitatzen du.

Hemen amaitzen da, 1866. urtearen bukaeran lehen esan bezala, Jose Inaziok berak EGUNARIAREN lehen partea deritzana. Berrogeita zortzi orrialde izan dira guztira. Horrenbestez Jose Inazioren aurtzaroa eta gaztaroa ongi ezagutu ditugula esan dezakegu. Ezagutaraz ziezazkigukeen onenak ezagutarazi dizkigu. 28 urteko gizaseme egin da.

Baina Jose Inazioren izaeraren beste zenbait alderdi ere ezagutu dugu, dudarik gabe. Bertsozaletasuna eta bertsogintzarako erraztasuna, euskaraz nahiz gazteleraz hainbeste olerki, Oda nahiz Egloga nahiz Octava Real, oratzeko. Izpiritu ernea, 28 urterekin Bibliografiari eta Poetikari dagozkion bi liburu hasiak edukitzeko. Hurrengo lanetan hobeki ezagutuko dugu, halere.

JOSE IGNACIO ARANAREN “RESEÑA HISTORICA DE LA LENGUA CANTABRA O BASCONGADA”. PERTSONA-IZENEN ZERRENDIA

Endrike Knörr,
Iratxe Zorrozuia,
Nerea Larrañaga eta
Leire Vergara

“Uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1880”. Hitz hauetaz hasi zuen Luis Villasantek José Ignacio Aranari eskaini zion atala (1). Eta arrazoi osoa zuela ezin uka daiteke. Euskara eta literatura ongi ezagutzen zituen Aranak, bere garaian gutxi bezala, zalantzarik gabe.

Bi lan nagusi burutu zituen euskal literaturaz José Ignacio Aranak. Haie-tako bata argitaratu gabe dago oraindik: *Ensayo de una bibliografía bascongada*, Euskaltzaindiaren liburutegian dagoena. Bestea argitaratu zuen, titulu honekin: “Reseña histórica de la lengua cántabra o bascongada”, eta Henaoren *Averiguaciones cantábricas* birrargitaratu zenean, 1895ean, 6. liburukiaren eranskinean ezarri zuten, euskarari buruzko Aranaren beste zenbait lanekin batera (2).

“Ilustración II” izena daraman parte honek halako zirriborro itxura du, inondik ere. Lekukotasun zaharrenen aipamenak ageri dira aurrenik, idazle zerrrendari ekin baino lehen, baina erditsuan gramatikaz eta fonetikaz mintzo da egilea, azken aldean idazleen gainean berriro aritzeko. Zirriborrotasuna gorabehera, ordea, anitz dira hogei orrialdeko lan honetan aurkitzen diren berriak eta xehetasunak.

Zerrenda soilak argi erakusten du Aranaren jakituria. Tresna eta bitarteko gutxi izaki, harrigarria da zinez eskuratu zuen informazioa. Hango eta hemengo idazleen izenak dira, bai eta ikerleenak (Ribary, Luchaire, adibidez). Gainerakoan, garbi dago ondoko euskalaritzan kasu gehiago egin balitzaio lan honi, ilunpean gelditu den izkuturen bat lehenago argituko zatekeela. Ikus, esaterako, Baratziatez dioena: “el cura basco-alabés” (3). Argikizun dugu puntu bat baino

(1) L. VILLASANTE: *Historia de la literatura vasca*, 2. argit., Oñati 1979, 283.

(2) Euskal idazleen beste zerrenda bat, askoz laburragoa, sartu zuen Aranak *San Ignacio Loyolakoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz* liburuan (Bilbo 1872).

(3) E. KNÖRR: “Baraziat Duranako semea”. *Euskera* 30:1, 1986, 207-214.

gehiago, zernahi gisaz. Adibidez, J. Antonio Butrón y Mújica arabar jesuitaren berri ez omen du inork.

Gizalan guztietan bezala, zer esanik ez, akatsak ditu honek ere. Bernat Etxepare, adibidez, Beraskoizko egiten du Aranak, Leizarragaren sorterria hari egotziz (“el nabarro de Briscur” [sic]), eta Intxauspe lapurtar (“el basco-la-bortano”).

Noiz idatzi zuen jesuitak lan hau? Esaten dituenen zenbait gauzarengatik, badirudi Henaoren birrargitalpena prestatzen ari zenean bukatu zuela. “La reciente obra *Monumenta Linguae Ibericae* de Berlín, 1893”, dio, egilea, hots, Hübner, aipatu gabe.

Lehen eskuko argibide ugari aurkitzen da orrialde horietan. Besteak beste direla, Galindez audioarra, Ruthen liburuaren itzultzailea, ageri da (4).

Gure izen zerrenda egiterakoan Aranaren testua jarraitu dugu zorrozki. Hala ere, irakurlearen mesedegarri hutsak zuzentzen saiatu gara inoiz, bai eta argibidea osatzen ere. Argibide osatzeaz denaz bezain batean, Lopez nafarraren izena sartu dugu, demagun; kasu hauetan kortxete artean ageri da izena. Ponte izenen bat ere erantsi dugu, baina gehienak Aranak berak dakartza.

PERTSONA-IZENEN ZERRENDA

Abbadie, d' , 101,104
 Adema, 95
 Aguirre, Domingo de, 95
 Aguirre, Juan Bautista de, 93
 [Aimery Picaud], 89
 Aizpitarte, 105-106
 Aizkibel, 106, 107, 109
 Aldaz, Miguel de, 92
 Antia, 94
 Añibarro, 93, 106, 107
 Arambillaga, 92
 Aramburu, Juan de, 92
 Arana y Goiri, Sabino, 96, 102
 Araquistain, 95
 Arbelbide, 95
 Archu, 101
 Argainarats, Pedro de, 92
 Arguinzoniz, Antonio de, 106

(4) E. KNÖRR: “Otro texto de Llodio. El libro de Ruth por Ignacio Galíndez (1872)”. J.L. Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. Gasteiz 1985, II, 1055-1062.

Arrese y Beitia, 95
Arruc, 94
Artiñano y Zuricalday, 93
Artola, José de, 96
Artola, Ramón de, 95
Arzac y Alberdi, 95
Arzadun, Martín de, 92
Astarloa, Pablo Pedro, 93, 100, 106, 109
Astarloa, Pedro, 89, 93
Astigarraga y Ugarte, 94, 101
Axular, Pedro de, 92
Azcarate y Otegui, 95
Azcue, Eusebio M.^a de, 94
Azcue, Resurrección M.^a de, 96
Azpiazu, José Antonio, 94
Baratzart, 92
Baroja, 95
Bartolomé de Santa Teresa, Fray, ikus Madariaga.
Bazterrechea, Agustín, 92
Becerro de Bengoa, 108
Belapeire, 92
Beobide, 95
Beriain, Juan de, 92
Bermingham, 94
Bernaola, 94
Bizcarrondo, 95
Bonaparte, 94, 101, 107, 109
Butrón y Múgica, Joseph Antonio, 92
Camió, 95, 102
Capanaga, 92
Cardaberaz, 92, 100
Chaho, 101, 108
Chourio, 92
Churruca, 91
Claret, 95
Cortés Osorio, 100
Darreche, 94
Darrigol, 101
Dasconaguerre, 94
Detchepare, ikus Etchepare
Dodgson, 107, 108
Duhalde, 94
Duvoisin, 94, 101, 107-108
Echabe, 100

Echebarria, Ezequiel, 95
Echeberri y Tone, 92
Echeberria, José Cruz, 94
Echeberria, Juan [de Sara], ikus Etcheberri
Echegaray, Carmelo, 95
Echegaray, Jose Vicente, 94
Echenique, Bruno, 95
Echezarreta, 94
Eguren, 94, 101-102
Elizalde, Francisco, 92
Elizalde, Juan de, 92
Elizalde, Tomás de, 94
Elizamburu, 94
Elizegui, 95
Elizondo, 95
Elso, 91
Erro, 89
Etcheberri, Joanes de [de Sara], 92, 100,105
Etcheberri y Tone, Pedro de, 92
Etchepare [Bernat], 92
Etchepare [Pierre], 95
Ezcurra, Pedro de, 92
Ezenarro, Dominga y M.^a Manuela de, 91
Fita, 89, 90, 102
Floranes, 90
Florez, 89, 90
Franchistegui, 92
Galarmendi, 95
Galindez, Ignacio, 95
Garat, Juan Bautista, 94
Garat, S.P., 108
Garita-Onandia, 96
Gasteluzar, 92
Gése, ikus Gèze
[Gèze], 102
Giraldo, 90
Goenaga, 94
Gorostegui, 95
Guerra, Juan Carlos, 96
Guerrico, 94
Guilbeau, 95
Haraneder, 92
[Haramburu], ikus Aramburu
Harrispe, 95

Harriet, [Martin], 100
Hervás, 89, 101
Hiriart, 107
Hiribarren, M[artin], 94, 108
[Hübner], 89
Humboldt, [Wilhelm von], 89
Inchauspe, 94, 101
Iñarra, 96
Iraola, 95
Irigoyen, José Francisco, 109
Iriondo, 95
Isascun, Miguel de, 92
Isasti, Lope de, 90, 91, 100
Iturri, 89
Iturriaga, 94, 101
Iturriza y Zabala, 89, 101
Iturzaeta, 95
Iza y Aguirre, 95
Iztueta, 91, 94
Jauregui, Agustín, 95
[Joannategui], ikus Juanategui
Juanategui, 95
[Lacoizqueta], ikus Lacoizquieta
Lacoizquieta, 109
Lardizabal, 94, 101
Larragan, 95
Larramendi, 88-89, 92, 93, 100, 105, 107, 109
Larregui, 92
Larroca, 95
Lersundi, José, 95
Lersundi, José Antonio, 95
Lizarraga, Joanes, 91, 94
Lizarraga, Joaquín, 94
Lopez, Eusebio, 107
[Lopez nafarra], 92
Luchaire, 102
Macatzaga, 95
[Madariaga], 94
Madina y Uribe, 95
Manterola, José, 89, 95, 102, 103, 108, 109
Marineo Sículo, 90
Marquinez, 106
Materre, Esteban, 92
Meagher, 92

Mendiburu, 92
Michel, Francisque, 104
Micoleta, 100
[Misericordia], Luisa de, 92
Moguel, Juan José, 94
Moguel y Eguizabal, Vicenta, 94
Moguel y Urquiza, Juan Antonio, 89, 93, 94, 101, 109
Moret, 100
Mortara, 96
Munibe, 92
Muguerza, 107
Nonbela, 103
Novia de Salcedo, 107, 109
Oihenart, 92
Olaechea, 92
Orcaiztegui, 95
Oregui, 95
Otaegui, Claudio de, 95
Otaegui, Felipe Aguustín de, 93
Pagoaga, 106
Pauvreu, ikus Pouvreau.
Perochegui, 100
Pott, 109
Pouvreau, 92, 100, 104
Poza, 100
Pradere, 95-96
Ribary, 102
Risco, 89
Rodriguez, 92
Salaberri [de Ibarrola], 101
Samper, 95
Santa Teresa, ikus Madariaga
Soroa, 95
Ubillos, 92-93
Ugarte, 109
Unzueta, 94
Uranga, 96
Uriarte, 94
Urruzuno, 95
Urte, 92, 100, 104
Van Eys, 104, 108
Velasco, 89
Venegas de Figueroa, 91, 92
Vinson, 102, 104

Zabala, Alfonso M.^a, 95
Zabala, Juan Mateo, 101, 106
Zaldibia, 100
Zengotita, 95
Zuazua, Pío, 105

**AITA POLIKARPO IRAIZOZKOAREN
MENDEURRENEKO OSPAKIZUNAK**

Iraizotz, 1997-III-22

PILOKARPO IRAIZOKORAREN MENDEURRENA

(Prentsaurrekoa, Iruñea, 1997-03-12)

Nafarroako ordezkartzan

*Andres Iñigo,
Nafarroako ordezkaria*

Egun on eta gure ongi etorri guztioi.

Orain dela bi hilabete edo, Euskaltzaindia —aurtengo egutegia onartu eta gero— Iraizozko herriarekin eta Ultzamako udalarekin harremanetan jarri zen, bere X. Jardunaldien eta Aita Polikarpo Iraizozkoaren mendeurrenaren ospakizunaren berri emateko.

Lehendabiziko momentutik egiaztatu ahal izan genuen aipatutako herri eta bailararen interesa eta jarrera paregabea, berehala ulertu baitzuten, Iraizozko seme honek, bere lan zabal eta goi mailakoaren bitartez, gure ondare kulturalaren altxorrik preziatuenari, euskarari alegia, eman zion bultzada eta kategoriagatik, ongi merezia duela bere mendeurrenean oroitzapen eta omenaldia. Ez bakarrik atzera begiratzuz haren lan haundia mires dezagun, baizik eta aurrera begiratzuz ultzamar guziek, belaunaldi berriek batez ere, ondare kultural hori, hizkuntza, euskara, ikasi ezezik elkarren arteko biziaren harreman guztietarako eguneroko tresna izan dezaten.

Antolakizun lanetan, erraztasun eta laguntza osoa eman diote —Nafarroako ordezkartza honen bitartez— Euskaltzaindiari, bai Iraizozko herriak bai Ultzamako Udalak. Hemen ditugu beren ordezkariak, Julio Indaberea, Ultzamako alkatea eta Alfontso Gartzia Etxandi, Iraizozkoa. Biei gure eskerrik zintzo eta beroena.

Jardunaldiak martxoaren 21 eta 22an, Aita Polikarporen sortetxea izandakoan —Iraizozko eskola ohian, egun Ikuztegi elkarte kulturalaren egoitzan,— ospatuko ditu Euskaltzaindiak.

Mendeurrenaren egitaraua 22an izanen da 12:30etan. Bertara gomitatzen zaituztete Euskaltzaindiak, Ultzamako Udalak eta Iraizozko herriak. Egitarau horrek bi zati izanen ditu:

1) Herriko etxean ekitaldi nagusiak bi hitzaldi izanen ditu, bata Iraizozko semea den Jesus Golderazek emanen duena “Aita Polikarporen goratzarretan”

titulupean, eta bertzea Frantzisko Ondarra euskaltzain osoak, Aita Polikarpok Akademian utzitako aulkia hartu zuenak, omenduaen “bizitza eta lanen berri” emanen digu. Hauetaz gain parte hartuko dute Ultzamako alkateak, Euskaltzainburuak, bertako Eredu abesbatzak eta Migel Angel Arba musikagile eta kantariak, Aita Polikarporen *Ori’ko txoria* olerkia abestuz.

2) Aita Polikarporen sortetxean: Iraizozko alkateak eta Euskaltzainburuak Aita Polikarporen oroitzapenetan egindako oroitarria desestalko dute. Ekintza honetan txistulariek, dantzariak, Ultzamako haur-bertsolariak eta Eredu abesbatzak hartuko dute parte.

Galderarik egin nahi izanez gero, hemen dituzue zuei erantzuteko prest Jesus Golaraz eta Frantzisko Ondarra hizlariak.

* * *

Buenos días y nuestra bienvenida a todos los medios de comunicación que habéis venido a este acto informativo.

No habrán transcurrido aún dos meses desde que Euskaltzaindia, una vez aprobado su calendario de actividades de 1997, se puso en contacto por primera vez con el pueblo de Iraizotz y con el Ayuntamiento de Ultzama para informarles de la celebración de las X Jornadas internas de la Academia y del homenaje que tenía programado realizar al Padre Policarpo de Iraizotz con motivo del centenario de su nacimiento.

Ya en aquel primer contacto, pudimos constatar tanto el interés con el que acogieron la idea de la celebración de las Jornadas de Euskaltzaindia como su entrega total en la organización del homenaje al Padre Policarpo. Ellos han sido más conscientes que nadie de que la relevancia de este irraizotzarra —que ha enriquecido nuestro patrimonio cultural, elevando con su amplia obra el nivel literario de nuestra lengua—, bien merecía un justo reconocimiento a través de un homenaje. Un reconocimiento y un homenaje encaminados no solamente a reconocer a un autor y su obra en el pasado, sino como impulso y estela a seguir para todos los ultzamarras, especialmente para las nuevas generaciones, para que valoren su propio patrimonio cultural, poniendo en práctica no sólo el aprendizaje sino la utilización de su lengua propia como vehículo de comunicación habitual.

El interés manifestado por el Ayuntamiento de Ultzama y el pueblo de Iraizotz se ha traducido en una disponibilidad y ayuda total a Euskaltzaindia, a través de esta delegación en Navarra. Aprovecho la presencia de Julio Indaberea y de Alfontso Gartzia Etxandi, alcaldes de Ultzama y de Iraizotz, respectivamente, para manifestarles el agradecimiento más sincero por parte de la Academia.

Antes de pasar a comentar el programa del homenaje, cabe señalar que las X Jornadas internas de Euskaltzaindia se van a celebrar los días 21 y 22 de

marzo en Iraizotz, precisamente en la casa nativa del P. Policarpo, en el local que fue la escuela del pueblo, actualmente habilitado en la sociedad cultural denominada Ikuztegi.

Los actos de la celebración del centenario del P. Policarpo tendrán lugar el día 22 a las 12:30 horas, a los cuales les invitan Euskaltzaindia, el Ayuntamiento de Ultzama y el pueblo de Iraizotz. Se desarrollarán en dos partes:

1) En la casa del concejo de Iraizotz, cuyo acto central serán dos ponencias. Una a cargo de Jesús Golderaz, iraiizotarra, que versará sobre el “Elogio al P. Policarpo” desde la perspectiva de su pueblo nativo, y la otra a cargo de Frantzisko Ondarra, académico de número —que ocupó precisamente la silla que dejó vacante el homenajeado—, quien nos acercará a la “Vida y Obra del P. Policarpo”. En este acto también tomarán parte el presidente de Euskaltzaindia, el alcalde de Ultzama, el coro local Erestu y el compositor pamplonés Miguel Angel Arbea que interpretará una composición propia sobre el texto del poema *Ori'ko txoria* del P. Policarpo.

2) En la casa nativa del P. Policarpo: Consistirá en el descubrimiento, a cargo del presidente de Euskaltzaindia y del alcalde de Iraizotz, de la lápida con la que las tres instituciones que organizan y les invitan a este acto quieren dejar constancia de este homenaje. Intervendrán, asimismo, txistularis, dantzaris y bertsolaris txikis de Ultzama y la anteriormente mencionada coral Erestu.

Si desean hacer alguna pregunta, tienen a su disposición a los ponentes Jesús Golderaz y Frantzisko Ondarra.

AITA POLIKARPO IRAIZOZKOA

Iraizotz, 1997-03-22

*Julio Indaberea Osinaga,
Ultzamako alkatea*

Ultzamar guzien partetik gure ongi etorri maitekorrena iraizozko Aita Polikarporen omenaldian parte hartzera etorri zareten guziori. Egun honek erranahi berezia du guretako.

Aita Polikarpo, Iraizozko seme jator hura, geroan ere ultzamar guziendako eredu izan dadila euskararen alorrean.

Esker mila, hemen zaudeten guziori.

AITA POLIKARPOREN GORATZARRETAN

Iraizotz, 1997-03-22

Jesús Goldaraz

Herriko seme naizenez, plazer handia da niretzat, herriaren ordezkari gisa, gaur Euskaltzaindiak Aita Polikarpori egin nahi dion omenaldian parte hartzea. Haren bizitzaren azalpen ttikia edo, hobeki errateko, haren ezaugarri batzuk aipatu nahi nituzke. Eta ez da erran beharrik iraizotzarrek eta Ultzama guziak gogotik bat egin dugula omenaldi honekin.

Herriko Etxe honetatik hagitx hurbil, hor giblean, jaio zen orain dela ehun urte, urtarilaren hogeita hamaikan, egunotan lanean ari izan zareten etxean be-rcean. Eta gauza bitxia da hori dela herrian izenik ez duen etxe bakarra, segur aski garai batean, Aita Polikarporenetan zehazki, eskola izan zelako. Izan ere, maisuaren etxea zen garai hartan.

Lehendabizi Altsasun, Zangozan, Hondarribian eta Iruñean ikasi zuen; gero, Filologia Erromanikoaren ikasketak Zurich burutu ondotik, Kaputxino Ordenaren idazkari nagusi izan zen Erroman eta, azkenik, Lekarozen eman zituen bere azken urteak. Erraten ahalko genuke hauek izan zirela bere bizitza eta sormen literario oparoaren mugarri nagusiak.

Niretzat gizon kuttuna izan da Aita Polikarpo. Neronek ezagutu nuen eta harremanak izan udaro, Erromatik etorri eta bere familiarekin egun batzuk pasatzen zituenean. Ordurako bere senideak, batzuk Erripan, bertze batzuk Burlatan eta bertzeak Iruñean bizi baziren ere, gure etxean bere bisitaldiaren zain egoten ginen eta bai bera zintzo etorri ere. Izan ere, gure amaren bular-anaia baitzen. Orduan jabetu nintzen bere apaltasun eta sakontasunez, bere hurbil-tasun eta herri sustraiez.

Bai gure amari, bai bere arreba Josefari (hemengo aunitz oroituko zarete herrietako bestetan sukaldari ibiltzen zen kemen eta adore handiko emakume hartaz) bie, bada, entzun izan nien aunitzetan nola joan behar izan zuen ttiki-ttikitatik *artxaiko* herriko etxe batera; horrela deitzen zitzairen gure artean orain dela gutti arte hainbertze mutikoentzat ohiko izan den eginkizun horri, jakina. Eskola eta hezkuntza ez zen gaur bezain beharrezkotzat jotzen eta ez zitzaion gaur eguneko garrantzirik ematen.

Arrazoi honengatik eta, hau ere biei entzun izan nien, gaztelaniaz mintzatzeke zeukan zailtasunagatik bota omen zuten Iruñeko Seminariotik “motza” zela eta deus guttiz jabetzen zela argudiatuz.

Ez zekiten zer ari ziren. Ez zioten antzik eman gaztetxo haren gaitasunari; esku artean izaki eta ez aintzat hartu berehala halako emaitzak ematen hasiko zen landugabeko altxor hura. Orduan, Altsasuko Kaputxinoetara jo behar izan zuen.

Arañotz eta Elordi, Amati eta Alzugain, Arranbilleta eta Sorota, Labaki, Aranttota, Expondape, Esatri, bere etxearen gibelaldean, izan ziren, bertzeak bertze, bere-beretzat hartu eta bizitza osoan gogoan izan zituen Iraizozko leku-izenak.

Bere lan literarioa goraiatu nahi den egun honetan, Iraizoztik begiratuta, ezin aipatu gabe utzi bere sorterriari erakutsi zion maitasuna eta atxikimendua. Inon baino hobeki adierazten du urrutitik idatzi zuen olerki honetan:

ORI'KO TXORIA

Zeruan eder ilargia
izarren aitzindari;
aren ondoan artizarra
goizean da nabari.
Aiek zerutik beira daude
nere sorterriari:
ni berriz basabazter ontan
nigarretan naiz ari.

Zoritxarrean lekutu naiz
jaio nintzen txokotik
zoriona bilatu naiez,
atsegin ondotik;
aunitz erritan ibili ta
leiatu naiz gogotik;
baina biotzak eztu onik,
nion eztu gozorik.

Txoriak ere kantatzen du
baratzeko esian:
“Ori'ko txoria laket da
beti Ori-mendian”;
uda ta negu, gau ta egun
an bizi da lorian.
Nik ere bizi ta il nai dut
sortu nintzen tokian.

Oi erri maitea, zu zaitut
orai nere gogoan;
zure izen xoragarria
maiz dadukat agoan;
gaez ere zutaz ari naiz
beti amets gozoan:
Jaunak berriz jarriko al nau
laster zure altzoan!

Ikusten duzueenez, jatoritasuna dario. Herrimina eta Iraizozmina, bada, bi- zipen iraunkorra izan zen gure gizonarengan.

Euskarari, bere ama hizkuntzari ere bere ahalegin eta gorespen hoberenak eskaini zizkion, berak, 1977an, hitz hauek idatzi bazituen ere:

“Umilki aitortu behar dut agerian dagoena: ez dut nere bizitza luzean burrunba handia ateratzeko haineko lanik bururatu euskeraren alde. Ez nezaiokeen euskerari nahiko nukeen bezainbat denbora eman, ez nuen euskera bezain sakonki eta hetatuki ikusteko eta ikertzeko egokierarik. Halaz ere, badirudit eus-

keraren alde zerbaitño egin dudala, era nuen guzietan gogotik mintzatuz, idatziz, predikatuz; hots! besterik ez bada, euskerari onerizteko eta eusteko etsenplu ona emanez.”

Ez da nire egitekoa une honetan, hori Patxi Ondarrak eginen baitu, bere lan literario zabalaren aipamena egitea, “Urtsuia” eta “Irisarri” izengoitiak erabiliz, liburu, itzulpen eta aldizkarietan idatzi zuena. Bakar-bakarrak olerkari alderdia aipatu nahi nuke eta batez ere hamalaudunak sortu zituenekoa —berak 140ren bat egin zituela dio—. Koldo Mitxelenak berak goraipatzen du Aita Polikarpoz ari denean; honela dio:

“... a quien se deben unas finas traducciones de poetas románticos alemanes y últimamente, bajo el seudónimo de «Irisarri», una serie de sonetos perfectos, acaso los mejores que se han escrito en lengua vasca” (*Historia de la Literatura Vasca*, p. 153).

Eta eskerrak emanez bukatu nahi dut.

Eskerrak gaur hona etorri zareten guziei, zuen presentziak haunditu egiten baitu nolabait gaur omentzen ari garenen irudia.

Eskerrak ultzamarrei eta irazioztarrei bereziki, iraganean bezala, eta Aita Polikarpo da horren adierazpen eta eredu hoberena, etorkizunean ere ahalkizun izanen delakoz gure artetik euskara suspertuko duen bizigarri berria sortzea.

Horretarako euskaldun aski bagara Ultzaman bertako hizkerari eusteko, batez ere, elkarren artean, Aita Polikarpok zioen bezala, “era dugun guzietan gogotik mintzatuz” ahalkerik gabe.

Ildo beretik, gure inguruan sortu eta sortuko diren egitasmoak aintzina eramanez, errate baterako, *pulunpe* aldizkaria bultzatuz, irрати berri baten aurre-proiektua bideratuz, Ultzamako haur eta gaztetxoei hemengo euskara ere irakatsiz, denon artean solastuz...

Eskerrak Euskaltzaindiko kideei, ohorea izan baita guretzat zuek hona etortzea eta egun hauetan gure artean lan egitea. Eta Aita Polikarporen altzoak onartu zaituztela eta, zuen etxean bezala egon bazarete, atsegin hartuko dugu. Harro gaude Euskaltzaindiko liburuetan Iraizotz eta Ultzama, geroan, euskararen aldeko lanen topagune eta lekugune izan zirela agertuko baita.

Eskerrak bereziki Iraizozko Aita Polikarpori edota, nahi baduzue, berak horrela sinatzen baitzuen, Aita Polikarpo Iraizozkoari. Bai gaur, bai etorkizunean badugu nori begiratu, norengandik ikasi, nori jarraitu, bera baitugu euskararen pizkunderako akuilu. Eta gaur eskerrak haren etxeokoa zaretenei zabaldu nahi dizkizuegu. Zuen bitartez berari gure oroimen eta goratzarrea.

Polikarpok, grekeraz, fruitu ugari eta oparoa ematen duena, erran nahi omen du. Denok, bada, Polikarpo izan gaitezen euskararen alorrean fruitu zabalak emanez.

1897an Iraizotzen jaioa eta 1980an Lekarozen hila eta ehortzia. 83 urteko ibilaldi bizi eta mamitsua.

Belateko gainak, mandazainen pausaleku garai batean, kontrabandisten pausaleku geroago, ultzamar eta baztandarren arteko mugarri natural beti, oihu, irrintzi egin dezala hemendik harat, Aita Polikarpori gustatuko litzaiokeen saskontasunez eta adierazi gure hizkuntzari zion eta diogun maitasuna eta haren jaiotzaren mendeurrenaren oihartzun goxoa.

Bertzerik ez.

AITA POLIKARPOREN BIZITZA ETA OBRAK

Iraizotz, 1997-03-22

Frantzisko Ondarra

Bigarren milaurtea akitzen ari dela, hemeretzigarren mendearen amaieran jaio zen Agustin Zarrantz Bermejo-ren mendeurrena ospatzen dugu gaur hemen. Eskola-maisuaren umea A. Polikarpo Iraizozkoa bilakatu zen gero: fraide apal, sendagailarik egiten ez zekiena, langile neka-ezina, euskal idazle eta euskaltzale zinezkoa.

1. BIZITZA

Bildurik gauden etxe honetan etorri zen mundura Agustin 1897 urteko urtarrilaren 31.ean. Aita Migel Zarrantz Goldaratz izan zuen, Errotz herrian —Arakilen— 1852 urtean jaioa; ama Priska Bermejo Irisarri, Orba ibarreko Puiu-koa. Aitaren aldetiko aiton-amonak Arakilgo Ekai eta Basaburuko Uda-bekoak ziren, eta amaren aldetikoak Valtierra eta Mañerukoak. Aita eta ama pontekoak Juan Agustin Lasaga eta Frantziska Barberena, Iraizozkoak eta bertan bizi zirenak, izan zituen. Zarrantz deitura Satrustegitik —Arakilen— zetorkion. Hemezortzigarren mendeko lehen laurdenean Frantzisko Zarranzkoa, Satrustegiko semea, bertako alaba zen Magdalena Juanenarekin ezkondu zen. Mende horretako Zarrantzarrak eta beren emazteak Arakil eta Ollo ibarretakoak dira, eta hurrengo mendekoen emazteak Basaburua eta Orba ibarretakoak.

Gazte-gazterik hil ziren beste zenbait kontuan hartu gabe, zazpi ume izan zituzten Migel eta Priskak: Anjela, Juan, Tomas, Josefa, Martin, Agustin eta Margarita. Iraizozko maisu luzaro izan ondoren eta Agustin bost urteko mutikoa zela, hil zen aita eta maisua. Harez gero, eskola gutxi izan zuela dio berak.

Hamaika urterekin, euskaldun hutsa den bere jaioterria utzirik, Altsasura doa kaputxinogai latina eta beste ikastera lau urtez —1908-1912—. Hasieran oztopo handiak jasan behar izan zituen, gaztelania gutxi zekielako. Zangozan bi urte —1912-1914— igaro zituen, profesio erlijiosoa eta bosgarren latin urtea egiten zituela. Hondarribian hiru urtez —1914-1917— filosofia ikastaroa buztzen du, bidenabar ahantzixea zeukan euskara berreskuratzen eta hemeretzi

urterekin —1916an— lehen olerkia argitaratzen duela, eta bere kabuz alemana ikasten duela, zoko batean aurkitu duen gramatika baten bidez. Teologiako lau urteak Iruñean ikasten ditu —1917-1921—, eta 1921 urteko martxoaren 26.ean apaizten da. Teologoek urtean behin ateratzen duten *Auras del Arga* argitalpenean urtero agertzen du olerkiren bat.

1922an Joakin Larreglaren musikarekin eta Alberto Pelairearen testuarekin *Himno de Navarra a San Francisco Javier* agertzen da, 25 urtekoa den Iraitotzen euskal itzulpena daramala. Urte horretan eta hurrengoan, 1922ko urtariletik 1923ko iraila arte, Zugen —Suitzan— du egoitza, Euskaltzaindiak emandako beka baten bitartez filologia erromanikoa estudiatzen duela Zürich-eko Unibertsitatean, irakasleen sinestamenduak eskuratuz.

Iruñean dugu 1923-1930 arteko urteetan, komentuko bibliotekazain dela, eta apaiz lanetan diharduela etxean eta inguruko herrietan: predikatzen eta jendea aitortzen. Belatetik hegoaldeko herri euskaldunetan 1927-1930 arteko urteetan predikatu zituen zenbait sermoi gordetzen dira: Baraibar, Gartzaron, Etxaleku, Iraitotz, Lizaso, Aralar, Madotz, Eugi eta Lekunberrin, garai horretako hiru bakarrik gordetzen direla erdaraz predikatuak: Iruñeko komentuan, Urdaotz-Zolinar, eta Lekunberrin 1929an. Nafarroako herrietan bildutako hitz asko aldi honetakoak izan daitezke. 1925 urtetik hasita, 25 urtez moldatu zuen Euskalerriko eta Aragoiko komentueta erabiltzen zen liturgia egutegia.

Erizkizundi Irukoitza-n esku hartzen du eta Nafarroako hogeit hamar herritan betetzen du eginkizun hori. *Iruugarrengo Prantziskotarra*-n hasten da 1924an argitaratzen, gero 1934an liburu bezala agertu zen Jesukristoren bizia. Eten gabe dihardu *Zeruko Argia*-n, *Euskal Eснаlea*-n ere ageri dela behin bere luma. Ez da beraz harritzekoa 1930eko apirilaren 24.ean euskaltzain urgazle izendatzen badute, data horretan kaputxinoek euskaltzain oso bat: A. Intza, eta hiru urgazle dituztela: Gure Polikarpo, Kaparrosoko Zelestino —B. Arrigaray— eta Oieregiko Bonabentura —ik. *Euskera*, 1930, 319-320—. Erdararendako ere aurkitzen du astirik, eta bi liburu itzultzen ditu alemanetik.

Lekarozen dugu 1930 urtetik 1949ko abendua arte. Hemen ere itzultzen ditu alemanetik beste bi liburu, 1949 eta 1950ean agertuak. Baina eginkizun nagusia irakaskuntza du: latina, grekoa, alemana etab. irakasten ditu, mutikoen zaintzen ere aritzen dela. 1931n edo Madrilen alemana emateko gaitasun agiria lortzen du. Euskal mundua zabalagoa da hemen, eta A. Etxalarren eskutik *Euzkadi* irakurtzeko aukera du. Predikatzen ere jarraitzen du. Baina orain, Aralar utzi gabe, Belatetik ipar aldera dauden herrietan aitortzen eta predikatzen du, beti euskaraz. Idatzirik utzi zuen paper batean ikusten dugunez, 1948an 33 sermoi predikatu zituen eta hurrengoan 40, horrez gain jendea aitortu eta meza eman behar zuela. Bi urte horietan hilabetero Arizkunera joaten da hango kristauak konfesatzera, eta ostiralero hango mojak, ostiraletako joan-etorria oinez egiten duela, eta arratsaldean eskola ematen duela. Sermoigintzan etab.

1941etik aurrera ari da batez ere, 1931-1934a arteko sermoirik ez duela gorde, ezta 1936 eta 1938 urteetarik ere.

1934an Jesukristoren bizia agertu zuen, *Imprimatur* eta *Sarrera* 1932ko abendukoak badira ere. 1933an igande eta jaiegunetako ebanjelioak eman zituen, eta *Yakintza* aldizkarian alemanetik itzultako bost poema 1934-1935 urteetan. 1934an A. Olazararen *Gimnasia Lekarotz* euskaratzen du. *Zeruko Argian* jarraitzen du, aldizkariaren hasieratik bukaeraraino —1919-1936— 172 aldiz ageri dela bere izena. Aldizkariaren eranskin gisa, zatika argia ikusten zuen *Lapurren Menpean* izeneko kontakizun historikoa, 1934an bukaturik zeukana, mozturik geratu zen harekin batera 1936an, baina orain *Klasikoak* bilduman oso-osorik agertuko da. Aldizkari beraren eranskin bezala, *Bi artzainak Eguberri gauean* agertu zen 1935ean alemanetik itzulia. Marmorezko lauzatan badu xixelaturik gurutze-bide bat: Lekarozen dagoen Legate mendian kalbario bat eraiki zuten Errepublikara garaian kaputxinoek, A. Migel Altzokoa zela eragilea eta Polikarpo esaldi laburren idazlea.

Espainiako guduak Alemanian arrapatzen du, 1936ko uda Krefeld hiriko komentuan igaro baitzuen alemana hobetzen —1936ko 7-12-etik 9-26/27.erairaino—. Bi urte direla gudua bukaturik, Azkuek 1941 urteko apirilaren 14.ean idazten dio Euskaltzaindia berpizteko ordua ailegatu dela eta euskaltzain izendatu dutela. Baina ez du onartzen, asko pozten bada ere horrekin “gure hizkuntza gaixoari diodan maitasunaren handiaz”. Bere Ordenak anitz sufritu duela, zenbait erlijiosok gure hizkuntza, edestia, folklorea etab. landu dituztelako. Oroit dadila bere euskaltzain-kide A. Intza on-onarekin ‘buenísimo’ gertatuaz, eta ulertuko duela bere nagusiek ez badire beren erlijiosoek horrelako lan motatan parte har dezaten aldekoak. Hain berri eta ezatsegin den eskarmentua kontuan hartzen badu, konprenituko duela hori errepikatzeko gogorik ez izatea. Argi dago kokildurik dagoela, besteak beste, Lekarozko fraidekide anitz handik jaurtikiak izan direlako eta euskal aldizkariak desagertu direlako. Euskal arloan ez du ezer agertzen, baina, goian esan bezala, bi liburu itzultzen ditu alemanetik —1949 eta 1950ean inprimatuak—.

1949ko abenduaren 23.ean ailegatzen da Erromara eta 1972 urteko urria arte han du bere lantokia. Askaturik sentitzen da han eta berehala hasten da bere gogo-bihotzeko duen eginbeharrean. 1951n Donemiliagako euskal esaldiak ukitzen ditu, 1952an *Arimaren zuzendaria* —itzulpun lana— ematen du, 1954an *Euzko Gogoa*-n eta 1964an *Olerti*-n ageri dira bere hamalaukoak, Iri-sarri ezizen berriarekin, eta 1957an gurutze-bide labur bat, oraindik ere gure herrietan erabiltzen dutena.

Italiaratu zenean, berekin eramán zituen euskal zer guztiak, 1953ko gutun batek dioskunez: “... Amaika aldiz idatzi zidatek egiteko zerbait, salmoen itzulpena bukatzeko; asmo oiekin etorri ninduken Erromara; neure euskerazko lantxo guziak: itzaldi, neurtiz, iztegi-gai, ekarri nizkian onara, astiorduetan oiek

lantzeko ta apaintzeko, iñoiz argitaratzeko era izango bazen ere. Baiña ezér gutxi egin diat zoritxarrez”.

Kaputxinoek Erroman duten Kuria Jeneralean bizi da denboraldi honetan guztian. Lehenbizi, gaztelaniaz mintzatzen direnendako Idazkariorde Jeneral egiten du —1949-11-16.ean— Klemente Milwaukee-ko Ministro Jeneralak, eta Hirugarrendar Ordena Kaputxinoaren Kontseilu Jeneraleko kide gero —1950-1-24.ean—. Hirugarrendar Ordenaren Idazkariorde izendatzen du Benigno Sant’Ilario Milanese-ko Ministro Jeneralak —1952-6-27—, eta Ordenako Idazkari Jeneral 1952-12-5.ean, 18 urtez eramaten duela kargua, 1970-10-1.an liberatzen duen arte Paskoa Rywalski Ministro Jeneralak. Egun horretan bertan, sortu berria duten eta *latinista* deitzen duten kargua leporatzen diote, bera bihurtzen dela lehen *scriptor litterarum latinarum*-a.

Erroman, ia 23 urteko egonaldian, lan eskerga zertu zuen. Idazkari Jenerala izateaz gain, bi kapitulu edo batzarre jeneraletako idazkari izan zen —1958 eta 1964—, kargu horrek sinestu-ezineko lana suposatzen duela. Ordenaren aldizkarietan eten gabe idazten zuen latinez, Ordenako santuen ofizioak prestatu, koruan erabiltzen diren liburuak zuzendu, zenbait Kongregaziotan esku hartu, Eliza Osoko meza-liburuko irakurgaiak berraztertu etab. Ba omen zituen berrikusi 10 mila eta gehiago orrialde inprimatu. Lan horri erantsi behar zaio eguneroko gutunketa, arazo arruntak eta ez arruntak ahanzi gabe. Rywalski Jeneralak, 1972ko urriaren 30.ean idatzi zuenez, ez zen irteten Kuriatik, ezpada Mojei laguntzera meza ematen eta aitortzen, eta Erromako elizak bisitatzera. Beste hau ere esaten du: “Zilegi bekigu eranstea, euskararen inguruan burututako lanengatik, hizkuntza horren akademiko izan zela izendatua”. Izendapen hau 1968-12-4.ean izan zen.

Aipatu dugun urteko hurrengo egunean Lekarozera abiatzen da. Han eza-gutu genuenok badakigu oso nekaturik ailegatu zela. Hala ere ez zuen astirik galdu eta berehala murgildu zen atzeraturik zituen euskal gauzetan, *Euskera* eta *FLV*-en azaltzen zirela bere fruituak: XVIII mendeko bertsoak, Lizarragaren hiztegia, *Iruñea* ala *Iruña* hautatu behar den, *Yaniz* dela *Salinas de Oro*-ren euskal izena, zein den *dario* etab. adizkien partizipioa, eta *erho*, *eho* ‘hil’ aditzaz. Ez zioten ordea utzi bakean, eta beste lanik ere egin behar izan zuen, bere-bereak zituenak burutu gabe laga behar izan zituela. Bere azken lana, Iruñeari buruzkoa, *FLV*-era bidaltzeko prest zeukan eta hil zen urtean bertan agertu zen. Inori lan eman gabe itzali zen 1980ko apirilaren 5.ean.

2. BERE LANEN SAILKAPENA

1. Euskararen alorrean 15 bat mila lerro utzi zituen hitz-neurtuz, eta hitz lauz ere anitz idatzi zuen, maizenik erlijiozko gaiak erabiliz. *Irugarrendo Prantziskotarra* eta *Zeruko Argia* izan ziren bere plaza nagusiak, *Euskal Eснаle*-ak,

Yakintza, Euzko Gogoa eta *Olerti*-k ere ezagutzen zutela bere luma. 1978an —ik. JAI, Fondo Pertsonala, N.2.ko gutuna— hitz-neurtuzkoak biltzen eta gehienak berkopiatzen eta aldatzen dituela ikasten dugu, hamalaukoak *h* eta guztirekin bermoldatzen dituela. Ikus bere lanen sailkapena:

a) Berak ondutako bertsoak, anitz musikarako testuak direla. Aipatzekoak dira hamalaukoak, Irisarri ezizenarekin *Euzko Gogoa* eta *Olerti*-n, eta bere izenarekin *Kristo gure Jauna eta andredena Maria* liburu sarituan agertuak, multzo handia osatzen dutela argia ikusi ez dutenek.

b) Itzulitako bertsoak, anitz latinetik: liturgiako himnoak eta besterik; alemanetik ere anitz, eta bakartxoren bat grekera (?) —anacreontenak—, italiera, frantsesa eta katalunieratik.

c) Bibliako salmoak, bederatzi ez beste guztiak, hitz-neurtuz euskaratuak, 1935-11-2.erako 120 bat itzuliak zituela —A. Julen Igorrekoari Txinara bidalitako data horretako gutuna—.

d) Hitz lauz ere idazten du, hala nola *Irugarrenko Prantziskotarra*-n Jesukristoren bizia, eta *Zeruko Argia*-n ipuinak etab., argitara gabeko ipuinik badagoela. Argitaratueta Jesukristoren bizia da luzeena, bere bihotzekoena, gehien irakurria izan dena eta *Orotariko Euskal Hiztegia*n etab. aipatuena. Bazuen berak guzti horren berri, eta iritsi zuen estimuak biziki pozten zuen eta honako hau idatzi zuen: “Zenbait euskalzalek eta euskal-idazlek aitortu izan didate, erdi ahantzia zeukaten euskera, liburutxo hortan berritu zutela”. Baina eransten du: “Ez ziren noski ale guziak saldu; 1936-an saldu gabe zeudenak ondatu ziren, ez dakit nora...” —Euskera, 1980, 498—. Hondatu zirela dio, hondatu zituztela esan beharrean, eta ez dakiela “nora” eta hiru puntu. Baina badago oraindik lekukorik, nora joan zen eta zertarako baliatzen ziren paper mehe-fin hartaz oroitzen denik, eta euskaltzain izendatu zuten urteko udan zer gertatu zen badakienik.

e) Predikuak dira lehen aipatzekoak argitara gabeetan. Badira 240 bat, makinaz 1.430 orr. betetzen dituztenak, orrialdeko 28/29 lerrodunak. Hiru ez beste guztiak euskaraz daude, hiru horiek eskuz eginak, euskarazko denak makinaz daudela. Baztango euskararen moldatu omen ditu —Euskera, 1980, 500—, baina ez da hori egia osoa. Badira ere hiru antzerkitxo neskatoek antzezteko onduak.

2. Ikerlanak. Alor honetan ez zuen ezer argitaratu Erromara joan aurretik.

a) Haruntz ailegatu bezain laster, Donemiliagako esaldiez idatzi zuen —Lekarozen zertua segur aski— *BAP* aldizkarian, Menéndez Pidal, Tovar, Urquijo eta Lafitte-ren azalpenak txartzat jotzen zituela, eta Mitxelena —*Textos arcaicos vascos*, 41 hh.— eta Irigoienek —*FLV*, 51 (1988), 5 hh.— funtsean ontzat ematen zutela. —Erromatik Lekarozera ailegatu zeneko berri eman dugunean, ipini ditugu gainerako ikerlan argitaratuak—.

b) Argitaratu gabeko materialik badago utzi zituen paperetan. Nafarroan herriaren ahotik hartutako hitzak eta zenbait liburu klasikotik jasotako hitz eta esaerak, berak asmatu eta bildutako etimologiak, etab. Nafarroako hitz-mor-doska bat bidali omen zuen Euskaltzaindira Erromara joan aurretik —*Euskera*, 1980, 500—.

Argitara gabekoez, bai ikerlan eta bai predikuez ari zela, galdera hau bota zuen: “Nora joango dira argitaratu gabeko guzi hoiek?” —*Euskera*, 1980, 500—. Lasai egon dadila, oraingoz ongi gorderik daude, eta hauek ez dira hon-dat, goian aitatu hura bezala.

3. Besteri laguntzen. Goian esandako zenbait gauza besteri laguntzen bu-rutu zituen, hala nola Joakin Larreglari, eta *Zeruko Argia*-n beren abestiak agertzen zituzten Donostia, Elduaian eta Olazarani, soinuari egokituriko testuak prestatzen edo itzultzen. Lekarozko bigarren egonaldian ere izan zuen nori la-gundu.

a) Errezu da horren lekuko. Maiz ageri da Donostia-ren musika lanetan haren izena laguntzaileen artean: soinuen testuak finkatzen, batez ere herri kan-tutegian, testu berriak sortzen edo itzultzen, euskaraz ere kantatuak izateko mo-duan, etab. Italiatik ere lagundu zion egiteko hauetan, Lekarozera atzera itzuli baino lehen. Erants dezagun ez zela A. Errezu beste inorengan fidatzen arazo horietan.

b) A. Intzak ere hitz egin dezake. *Nafarroako euskal-esaera zarrak* li-burua osatu, moldiztegirako garbi idatzi eta inprentako frogak zuzendu zizkion. Gainera, bazuen Intzak bere bizialdiaren hondar urteetan azken nahia dei ge-nezakeena. *Irugarrengo Prantziskotarra* eta *Zeruko Argian* hainbeste lagundu zion Jautarkolen olerkiak nahi zituen argitaratu. Ehun bat poema bazituen bil-durik, hitzaurrea buruturik zeukan, baina ez zen gauza makinaz behar bezala aurkezteko bere fruitua, oker-montio gaitzak pilatzen zirela. Horregatik edo, ezin izan zuen argitaratu, Donostiako Aurrezki Kutxa-k agindu omen zion di-ruaz baliaturik —Erburuk Polikarpori bidali gutuna: 1978-12-3—. Lan hizu-garria ari zaiola ematen Intza, diotso Polikarpok —1979-3-15.go gutuna— ia bapatean itsutu den Intzak duen idazkariari, beti aurkitzen duelako olerkietan zuzendu behar denik. Beldur dela Kutxa-ri eman dion kopia ere hutsez beterik egongo oten den. Horrela ezin dela argitara eman, eta Kutxa-koa berreskuratu behar litzatekeela. Ez duela adorerik, Intzak nahi duen eta beharrezkoa den bezala, handik eta hemendik ibiltzeko olerkien orijinalen bila, non eta noiz izan diren emanak jakiteko, etab. Esan behar dugu, hala ere, hilik bere laguntzailea hurrengo urtean eta bera ere zendurik, biek hartu lana ez dagoela galdurik, ongi gorderik baizik. Gainera, Intzak eskaturik, beste fraidekide gazteago eta ado-retsua batek jarraitu zuen bilketei esker, badugu orain 150 bat poemek osatutako bilduma ederra, baina argitara gabea, jakina.

c) Hirugarren lekukoa —ez dugu besterik aipatuko, horien eskabideak er-derara itzultzekoak baitziren— Iruñeko Elizabarrutiko Bikario-ordeko zen Pe-

dro M.^a Zabaltza da. Besteak beste, Nafarroako Elizaren Orduen Liturgiarako euskal irakurgaiak prestatu baitzituen —1980-4-8.go gutuna— latin, gaztelania eta frantsesetik, 1976 urtean hasita.

4. Bukatzeko.

Anitz idatzi zuen berak maiteena zuen hizkuntzan, eta ederki, bere ize-narekin: Iraizozko Polikarpo aita, eta Urtsuia eta Irisarri ezizenekin izenpetzen zuela. Aldizkarien bidez eta elizetan ematen zituen predikuen bitartez euskal kristauai janari gustagarri eta probetxugarria eskaintzen ahalegindu zen. Hitz-neurtuzkoek ere hori zuten helburu nagusizat, baina ertilari bezala ere ontzen zituen poemak eta itzultzen, eta behin eta berriz berrukitzen zituen. Hitz-biltzaile saiaturia izan zen, eta euskalki gehienetako eskuizkribu zaharren gorde-tzaile arduratsua. Euskalki guztietako berbak baliatzen zituen, ez zuelako maite ez garbizalekeria ez mordoilokeria.

Fededun zintzo eta jatorra baitzen, ez zitzaion atsegin gertatzen *Egan* al-dizkarian agertzen zen zenbait gauza. Mitxelenari honako hau esan zion gutun batean: “Bai, aspaldi oartua naiz EGAN’go zenbait idazleri ta irakurleri elizako usaiak eztiela onik egiten noski, bestelako ustel-kiratsak atseginago dituztela. Orain urte bat edo bi direla, protesta bat ere bidali gogo izan nuen or agertu zen tragedia itsusi baten kontra” —1966-4-21—.

Sermoigintzan eta erlijio literaturan itzal handiko ereduak izan zirela garai haietan, dio Mitxelenak, eta Juan B. Eguskitza eta A. Polikarpo azaltzen ditu —*Literatura*, 153—. Eta alemanetik itzulpen finak egin zituela eranstean du, eta hamalaukoak goraki laudatzen ditu. Jesukristoren biziaz ari dela, Aingeru Iri-garai-k ulergarria eta atsegingarria zela esan zigun, gipuzkerarekin batera na-farrera eta lapurtera ere erabiltzen zituela —*RIEV*, 1935, 387 hh.—. Mitxelenak ere azpimarratzen du: “Aita Iraizoz-ek erabili ohi zuen nafar-kutsuko euskara” —iker-2, 446—.

Olerkari bezala, A.S. Onaindia-k dioskunez, “samur eta sen aundikoa” da —*Mila euskal-olerki eder*, 992—. Guk sentimena eta debozioa, eta deskrip-ziorako joera, ikusten ditugu, baita hizkuntzak aurkezten dituen baliabideak erabiltzeko trebetasuna ere, onomatopeiak barne.

Salmoen itzulpenaz txoraturik omen zegoen Lauaxeta, ez omen zuen beste hizkuntzetan ere horrelakorik ikusi: hala idatzi omen zuen *Euzkadi*-n eta berari eta besteri esan ere. Alemanetik itzulitako hiru olerkiz hau esan zuen: “Ale-manerazko testuen itzultzaileak, A. Iraizoz-ek, kultura gorako ertilariak, eus-karaz idatzi den Jesukristoren bizitza ederrenaren autoreak, alemanerazko oler-kari hobenen poema lirikoen itzultzaileak, egiazko euskal bitxiz mukurutu gaitu” —*Euzkadi*, c. 1936—. Lehenago zera esan du eresi horietako bati buruz: “A. Iraizoz-ek lan bikain bat egin du P. Gerhardt-en testuarekin ... Oso zaila deritzagu gauza beteagorik burutzea”. Eta beste hau ere: “Iraizoz’en lanok zo-ragarriak dira”.

Prosa- eta olerkigintzan gozo eta samurra, laztasunik eskaintzen ez duena, salmoetan salbu beharbada, berak dioen bezala horien itzulpena zailagoa eta jori eta jasoagoa izan zelako. Ikus ditzagun esandakoen frogagarri zenbait poematxo.

1. *Txorien artean nausi* da lehenbizikoa. Arga-ren ondoan izan da konpondua, urretxindorrek hor abesten baitute, eta olerkaria alai, doatsu eta poztari ageri zaigu.

Txorien artean nausi
erretxiñola kantari;
kantatzen du ain ederki
goizik argi-asteari;
oi! aren txinta ederrak
txoraturik nau ni yarri.

Zeruan eder ilargi,
izarrak ere an dizdiz;
ni egon naiz ainbat aldiz
aiei begira emerik
nere gelako leiotik
bai guzi au txoraturik.

Gazte naiz eta kantari,
erretxiñola iduri;
alai, doatsu, poztari,
parregile ta yostari;
guziekin adiskide,
eztut kezkarik bat ere.

Orain bukatzera noa,
kantatu dizut naikoa;
lagun bekigu Jainkoa
beti zintzo ibiltzera,
Berak digula gau ona,
gero betiko zerua.

2. *Agur, oi Maria* du izena onomatopeia eta deskripzioz ederturiko hamalauko saritu honek.

Eliza-dorreetan dilindan zagozen
ezkila pozgarri din-din-dandaria:
burdinazko mihiz "Agur, oi Maria!"
txintxa zazu gora, egin soinu ozen.

Airean barrena hegaka zatozen
txori xauli arin txio-txintaria:
eztarri legunez "Agur, oi Maria!"
txinta zazu alai ahalik gozoen.

Oskarbian gauez izarrek dil dil dil,

daldaraka belar, lore ta hostoek,
mendian behera xirripek pil pil pil:

Aingeru sainduak zeru garaietan,
lur behere hontan kristau on zintzoek:
"Agur, oi Maria!" kanta orok betan.

3. *Gure Herria* deitu hamalaukoak Euskal Herriari dioen maitasuna erakusten du. Erroman izan zen moldatua eta *Euzko Gogoan* agertu zen 1954an.

Oi gure Herri hau zein dagoen zapal!
nagusi arrotzek gain hartu digute;
herria dariela hortxe dihardute:
elkarri oihuka, oro aho-zabal:

"Aup, Euskal Herria soil dezagun ta gal,
suntsi bedi haren izena" darauste;
hainbat kristau on hil edo bota dute:
apez, gizon, mutil, andre, neskatx'argal.

Hoben egin dugu, Jauna, egia da,
zure legea maiz oinkatu baitugu,
zuzenez dagoku zure zigorrada.

Halere gu beti zureak gaituzu:
gu zure menpeko, zu gure Jaun bakar,
bertze nagusirik guk ez dugu behar.

4. On litzateke horrekin bukatzea, baina eman dezagun akitzeko *Euskara, jalgi hadi plazara* hamalauko saritua, Korrika Euskal Herria osoan barna laster egiten eta euskara plazaratzen ari dela. 1954an *Euzko Gogoan* agertua hau ere.

Jalgi hadi berriz kanpora, Euskara,
oi Euskara zahar eta beti guri;
ager hadi garai, errege iduri,
gure mendi, zelai, herri, hiritara.

Ondikotz! Luzegi egon haiz plazara
ezin jalgiz etxe-zokoan beltzuri;
hire ume onek negar ta zinkuri,
etsaiek artean irri ta karkara.

Erauntz ezak, erauntz doluzko zurdatzaz,
joan duk (agian betiko!) ekaitza,
zeruan agertu iguzkia diz diz.

Jaik hadi, Euskara, gazte lerdan arrai;
jauntzi ederrenez apaindurik orai
jenden aitzinera jalgi hadi berriz.

BIBLIOGRAFIA

I. ARGITARATUAK

a) Euskaraz edo euskarari buruzkoak

1. "Jesus maiteari".
Irugarrenko Prantziskotarra, 1916, 261. orr. Beste lan asko adizkari horretan 1913-1936 arteko urteetan hitz-neurtuz eta hitz-lauz, hasieran Ursuya eta gero Urtsuya ezizena erabiliz.
2. "Laetare Doctor inclite".
Auras del Arga, 1918, 6. orr. Beste bi olerki eta hitz-lauz lantxo bat aldizkari horretan 1919 eta 1920 urteetan, I'tar P.A. (= anaia) eta I'tar P. An. erabiliz.
3. "Udazkena".
B. de Arrigarai. *Euskel-Irakaspidia o sea Gramática del Euskera*, 1919, 272. orr.: Ursuya.
4. "Jesus Aurtxo".
Zeruko Argia, 1919, 6. orr. Aldizkari horretan Urtsuya, Urtsuia eta Iraizoz'ko Polikarpo A. izenekin 172 bat lan, gehienak hitz-neurtuz, eman zituen 1919-1936 arteko urteetan, eta bigarren aldiko 1954-1957 urteetan 5 hamalauko. 1919-1936koak ik. *Euskera*, 1981-1, 501 hh.
5. *Himno de Navarra a San Francisco de Xavier. Letra de Alberto Pelairea Garbayo. Música de Joaquín Larregla. Versión euskera del P. Policarpo de Iraizoz capuchino*. [1922]. Honela hasten da: "Gora dezagun guztiok".
6. "Nere lorategia".
Euskal-Esnalea, 1926, 12-13.
7. *Urte guziko Igande ta Jaiegunetako Ebangelioak. Erriarentzako liturgia. 1933'ko argitaldia* (Data, estalkian) ... *Iraizoz'ko Polikarpo A. Kaputxinoak*. Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan. Iruña'n (83 orr., [2], 15 zm.). Beharbada bi agerraldi izan ditu.
8. *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itzez atera ta Iraizoz'ko Polikarpo A. Kaputxinoak euskeraz yarría*. Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan Iruña'ko Kaputxinoetan. 1934 (XI-558 orr., 15 cm).
9. *Gimnasia Lekarotz. Pedagógico-rítmica. Método sueco Kumlien-Ling. Letra vasca de P. de Iraizoz. Música de Hilario Olazarán de Estella*. Tolosa: Editorial de Música Vasca. 1934 (18 orr., 33 cm).
10. *Lapurren menpean*.
Zeruko Argia-n eranskin gisa agertu ziren zatika 1934 urtetik edo aurrera 112 orr. Iruñean Kaputxinoen irarkolan. Dima-ko Fernando Soloeta kaputxinoaren *Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo*, Buenos Aires, 1936 urtean azaldu zenaren itzulpena da, 1934 (sic) urtean bukatu zuela itzulpenaren hondar orrialdea.

11. "Goraintzi!"
Yakintza, 9 zenb, 1934, 175. orr. Beste lau olerki alemanetik itzuliak 1934-1935 urteetan.
12. *Bi artzainak Eguberri gauean.*
Zeruko Argiaren Izpiak I ... "Des Knaben Wunderhorn" liburutik Iraizoz'ko P.A.-k euskaratua. [1935] (8. orr., 16,5 cm).
13. "Las palabras vascas en las Glosas Emilianenses".
BAP, 1951, 525-526.
14. *Arimaren zuzenbidea.*
Donosti'ar Gabriel Aita Kaputxinoak egiña ta Iraizoz'tar Polikarpo Aita Kaputxinoak euskaratua. Imp. Lib. Enc. Montepío Diocesano. Vitoria. [1952] (107 orr., 14,5 cm).
15. "Erlea ta usoa".
Aita Onaindia. *Milla euskal-olerki eder*. 1945, 992-993 orr. Beste hiru olerki eta salmo bat liburuan.
16. "Iainkoa ta Goñi".
Euzko Gogo, 1954, 51. orr. Irisarri ezizenarekin beste 37 hamalauko 1954-1958 arteko urteetan.
17. *Gurutze Bidea.*
Iraizoz A. Kaputxinoa ... Iruñea, 1957 eta berriaz 1958an.
18. *Obras musicales del Padre Donostia.*
P. Jorge de Riezu ... I. *Navidad*, 1960; II. *Pascua*, 1965; III. *Jesucristo*, 1966; IV. *Marial*, 1966; V. *Santoral*, 1976; VI. *Lili eder bat*, 1962; IX. *Larre Gorrian*, 1971.
19. "Simeonen berri txarrak".
Olerki, III-IV, 1963, 10-11. Beste 20 hamalauko Irisarri ezizenarekin 1963-1964 urteetan.
20. "Erho, eho (matar)".
FLV, 11, 1972, 149-151.
21. *Nafarroa-ko Euskal-Kantu Zaharrak.*
P. Jorge de Riezu ... Iruñea-Lekaroz, 1973. Liburu honen *Eskaintza* Polikarpok egina da.
22. *Nafarroa-ko Euskal-Esaera Zarrak.*
Intza'r Damaso Aita ... Iruñea, 1974. Polikarpok egina da *Liburu onen egilleaz lau itz hitzaurre* gisakoa, 9-10.
23. "Versos euskéricos del siglo XVIII".
FLV, 22, 1972, 65-75.
24. "Bizargin maltzurra".
Diario de Navarra egunerokoan agertua 1977-11-25.ean edo. Besterik ere agertu zen, Angel Irigaray-k zeraman sailean.

25. "Documento de Joaquín Lizarraga sobre bailes publicado por José María Satrústegui en FLV".
FLV, 27, 1977, 495-498.
26. "Verbo vasco por «manar, fluir» erion ala jario".
Euskera, XXIII, 1978-1, 215-218.
27. "Vocabularito y fraseología de Joaquín Lizarraga (I)".
FLV, 29, 1978, 245-297; (II), 30, 1978, 461-486; (III), 31, 1979, 121-162; (IV), 32, 1979, 303-332.
28. *Kristo gure Jauna eta andredena Maria*.
Leopoldo Zugaza, argitaldaria, irrisiko zorta, 1979 (52 orr., 24 cm).
29. "Yániz = Salinas de Oro".
FLV, 34, 1980, 5-10.
30. "Nombre vasco de Pamplona: Iruñea, Iruña, Iruñe?".
FLV, 35-36, 1980, 427-434.
31. "Jaundone Mikel Aingerua".
Egan, 1-6, 1980-1981, 29-32. Bost hamalauko, lehenago ere argitaratuak izan zirenak.

b) Erdaraz

1. *Los Ideales de S. Francisco de Asís*.
P. Hilarino de Lucerna ... Pamplona, 1926. Alemanetik itzulia. Beste edizio bat Buenos Aires-en, 1948an.
2. *Consejos a los Misioneros de China*.
Pamplona, 1927. Alemanetik itzulia.
3. *Jesús de Nazaret*.
Hilarino Felder ... Buenos Aires, 1949. Alemanetik itzulia.
4. *Crítica de Asia sobre el Cristianismo del Occidente*.
Thomas Ohm ... Buenos Aires, 1950. Alemanetik itzulia.
5. *El Caballero de Cristo Francisco de Asís*.
P. Hilarino Felder ... Barcelona, 1957. Alemanetik itzulia.
6. *Analecta Ordinis Fratrum Minorum Capuccinorum eta Tertius Ordo* kaputxinoen aldizkarietan lan asko eta asko daude, berak latinez batez ere eginak.

II. ARGITARA GABEAK

a) Euskaraz edo euskarari buruzkoak

1. Predikuak. Badira 243 sermoi euskaraz.
2. Ipuinak eta izkirimiriak. 41 bat dira argitara gabe daudenak edo non izan ziren argitaratuak ez dakigunak —beste 26 badakigu non izan ziren emanak—.

3. Herriarengandik bildutako hitzak.
4. Liburuetatik bildutako hitz eta esamoldeak.
5. Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-tik hartutako esaerak.
6. Etimologiak: berak asmatuak edo handik eta hemendik bilduak.
7. Toponimia. Leatxen etab. 1768 urtean erabiltzen zituztenak, *Amayur* astekarian Julio R. de Oyaga-k argitaratuak.
8. 1614 urteko *Credoa* dakarren liburuaren zenbait fotokopia eta latinez egindako liburuaren laburpena.
9. Bataio izenak nola euskaraz. Erroman 1910ean emandako erabaki baten aldakia makinaz.
10. Gutunak. Polikarpo, Mitxelena, Damaso-Erburu (de Jautarkol), Villasante, Euskaltzaindia, M. Izeta, Timoteo (Plaza), Antselmo Legardakoa, Elias Labio Labianokoa, Akesolo eta Irigaray-renak.
11. Villasantek moldaturiko Axular-en hiztegiak zenbait iritzi.
12. Lizarrako kale izenez.
13. Nafarroako Orduen Liturgiarako irakurgaiaren itzulpena latinetik etab. c. 1976an.

b) **Erdaraz**

1. Latinez zenbait otoitz-gai Ama Birjinaren festetarako etab.
2. Gaztelaniaz 3 sermoi.
3. Gaztelaniara itzuliak Esteban Adoingoa kaputxinoaren euskal predikuak.
4. Gaztelaniara itzulia Juan Berakoa kaputxinoaren prediku bat.

ERANSKINA

R.M. Azkuek jakinarazten dio 1941 urtean gutun baten bidez A. Polikarpori euskaltzain izan dela izendatua, baina honek erantzuten dio ez duela onartzen izendapena. Hona hemen gutunak:

A. Azkuek Polikarpori
Bilbao, Ribera 5.
14-IV-1941
R.P. Policarpo de Iraizoz

Apreciado amigo: Tengo mucho gusto en participarle la agradable noticia de que esta Academia empieza ya a revivir por iniciativa de la Junta de Cultura de esta nuestra Diputación.

Como no quedamos aquí más que tres miembros de ella (dos, residentes en San Sebastián, Urquijo e Inzagaray, y este servidor) fui allá hace algunos días con objeto de preparar la reconstitución de esta nuestra Corporación.

Por ahora, según indicación de la Junta de Cultura, no figurarán entre nosotros los vasco-franceses; y los nueve, que a esta nuestra región corresponden, serán en adelante, además de los tres citados, D. Juan Carlos de Guerra, D. Nazario Oleaga, D. Juan Iriyoyen, usted, y Pablo Zamarripa y otro que todavía no está elegido.

Si, como es de suponer, acepta V. este nombramiento, hágamelo saber prontito. De paso podría V. citarme nombres de músicos vascos capuchinos, con datos biográficos y noticias de sus composiciones para que puedan figurar en un Diccionario de música que están preparando en Barcelona.

La primera Junta académica tendrá lugar aquí a fines de este mes.

Afectuosos recuerdos a los P.P. Echalar, Begoña y otros conocidos míos.

Suyo affmo. en el Señor...

R.M. de A.

* * *

B. Polikarpok Azkueri

Lecaroz (Navarra)

19 de abril de 1941

Sr. D. Resurrección M.^a de Azkue, Pbro., Presidente de la Academia de la Lengua Vasca
Bilbao.

Respetado Señor y querido amigo: Su carta del 14 me ha sorprendido con la grata noticia de que la Academia de la Lengua Vasca, que usted preside, comienza a revivir y va a reanudar sus actividades, interrumpidas estos últimos años. Conociendo mi grande amor a nuestra pobre lengua, comprenderá usted lo mucho que me ha alegrado esa noticia. Debo agradecerle también el honor que me ha hecho al nombrarme para formar parte de la Academia; no creo haber adquirido tantos méritos como para aspirar a esa distinción; quedo pues muy agradecido.

En cuanto a aceptar ese cargo que me ofrecen, eso ya es otra cuestión; no me parece prudente aceptar el nombramiento. Ante todo, como no soy independiente sino que soy hijo de obediencia, no podría dar ese paso sin contar con el permiso de mis Superiores. Ahora bien, aunque no he tenido tiempo para consultarles sobre el particular, creo interpretar su voluntad al no aceptar su ofrecimiento. Pertenezco a una Orden Religiosa, que ha tenido que sufrir mucho, porque algunos de sus miembros se han dedicado al estudio de nuestra lengua, historia, folklore etc. Recuerde usted, por no citar más, el caso de su antiguo colega nuestro buenísimo P. Inza... Con una experiencia tan reciente y tan desagradable comprenderá usted que no haya ganas de repetirla; y por lo mismo comprenderá usted también que nuestros Superiores no sean partidarios de que sus Religiosos tomen parte en esas actividades que en sí, claro está, no tienen nada que sea

impropio de un Religioso. Y tampoco le extrañará que yo personalmente tenga pocos ánimos para trabajar en ese sentido.

Espero pues que se dará usted cuenta de nuestra situación y que no llevará a mal mi negativa a aceptar el nombramiento que han hecho en mi favor.

Respecto a los músicos capuchinos, yo, como no soy músico, aunque no dejo de tener afición a la música, mal podría cumplir con su encargo. De los PP. José Antonio de S.S. y Olazarán de Estella, tiene usted los datos en la Enciclopedia Espasa; de otros Padres (P. Elduayen, P. Legarda, P. Tolosa) hemos encargado ya que recojan los datos necesarios, pero deben tardar en recogerlos, porque algunos de esos Padres no están aquí.

Y nada más, sino felicitarle a usted de todo corazón porque a pesar de sus años aún sigue usted con tantos arrestos para trabajar por nuestras cosas. Yo le admiro a usted. Que Dios le conserve aún muchos años la vida y esas energías de joven.

Es lo que de todo corazón le desea su affmo. in Christo Iesu.

P. Policarpo de Iráizoz (errubrika)

AITA POLIKARPO IRAIZOZKOA

Iraizotz, 1997-03-22

*Alfonso Garcia Etxandi,
Iraizozko alkatea*

Aita Polikarporen sortetxean paratu dugun *oroitarri* hau izan dadila gaur egin diogun omenaldiaren *oroitzapena*.

Ziur nago etorkizunean euskera lanetan berak lagunduko edo kulunkatuko gaituela.

Testu hau irakurriko dugun aldiero euskararen aldeko apustua eta lekuko izanen da.

Amaitzeko, esker haundiz Iraizozko herriari egin duen lanagatik.

Esker mila.

AITA POLIKARPO IRAIZOZKOAREN MENDEURRENA

Iraizotz, 1997-03-22

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Agintari ohoragarriak,
euskaltzain anderea,
euskaltzain jaun kideak,
hemen dauden jaun andereak, agur!

Ene hitzalditxo hau hasi baino lehen nahi nuke irakurtu goiz honetan hartu dudan telegrama: “Gogoz elkartzen natzaizue Iraizozko Aita Polikarpo kaputxin naparrari, zu buru zaituen Euskaltzaindiak egiten dion omenaldian Ultzamako udal eta Iraizozko Kontzejuarekin batera. Nafarroako eliza poztan da betetan gure kaputxino ospetsuak elizgizon bezala, euskararen alde egin zuen lan estimagarria oroit eta aintzat hartzerakoan. Fernando Sebastian”.

Oixtion, hemen bertan, aipatu baita Orhiko xoria, heldu zait gogora Iparaldeko erran zahar bat: “Orhiko xoria Orhin laket”. Nafartarra naizelakotz, seigarren merindadekoa noski, Nafarroan laket nago eta Euskaltzaindia ere. Alabaina Euskaltzaindiak biltzen ditu zazpi euskal herrietako kideak, nafartarrak barne eta, beraz, zazpi euskal herrietan laket dago. Iaz, preparatzen genuelarik aurtengo egitaraua, pentsatu dugu lehenik zendu zela duela ehun urte Antoine d’Abbadie euskal letren mezenas haundia eta eskainiko giniola kongresu edo biltzar haundi bat datorren irailean Hendaian, apailatuz biltzar hori Eusko Ikaskuntzarekin eta Euskal Herriko Unibertsitate guziekin.

Baina oroitu gara ere, duela ehun urte sortu zela hemen Aita Polikarpo Iraizoz eta zor geniola omenaldi bat euskaltzain izandakoari. Karia horretara bildu da bi egunez, hemen bertan, Iraizoz-en, Euskaltzaindia. Atzo goizean gure hilabeteko lana egin dugu hiztegi batua arakatuz eta gero, Alfonso Irigoien euskaltzain zenaren ordeztu bertz euskaltzain bat hautatuz. Goiz honetan gure artean baitago agurtzen dut Andres Urrutia bizkaitar euskaltzain berria. Bi urtetarik Euskaltzaindiak egiten baititu Barne Jardunaldiak, aurtan hemen egin ditugu, hain zuzen Aita Polikarpo sortu den etxean. Datozen bi urtetan zer lanetan ariko garen, nola, zer diren gure helburu orokorrak, zer martxa izanen den Euskaltzaindiarena. Goiz honetan bukatu gure biltzarra, etorri gara gela honetara Aita Polikarpo-ren ohoratzeko.

Ez dizuet erranen nor zen Aita Polikarpo jadanik horretaz mintzatu baitira Goldaraz jaun apezra eta Aita Ondarra euskaltzaina. Aldiz, nahi nituzke eskerrik bizienak bihurtu bai Ultzamako Udalari, hamalau herri biltzen dituen Udalari eta bai Iraizozko Kontzejuari. Hemen ateak zabalik aurkitu ditu Euskaltzaindiak, ongi etorri ederra egin zaio. Gainera har ditzatela eskerrik beroenak Ultzamako eta Iraizozko elkarte guztiak, besta eder hau apailatu duten guziek, bere kantuekin xoratu gaituztenak.

Bai, Euskaltzaindiaren izenean eskertzen zaituztet denok, bihotzaren erditik.

**EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK
ETA ADIERAZPENAK**

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

SANTUTEGIKO IZEN OHIKOENAK

AURKEZPENA

Euskal izendegien historiaz

Euskaraz santuen izendegia finkatzeko lana ez da oraingoa. Sabino Aranak eta Luis Elizalde ere, duela ehun urte, argi ikusi zuten euskarak onomastika arlo honetan erabakizun zuen arazoa, ez baitzen gisa, hain nortasun nabarmeneko hizkuntza, pertsona-izenei dagokienez, inguruko erdaren morroi egotea. Garai hartan, ordea, ez ziren oraindik agertu gaur ezagutzen ditugun dokumentu zahar eta lekukotasun asko, lehenagoko euskal izenen berri ematen digutenak. Horrexegatik, biltzeari ez baina asmatzeari ekin behar zioten orduko aitzindariak. Haiek asmatutako izenek (*Josu, Jon, Miren, Joseba, Koldo...*) arrakasta handia izan dute pertsona-izen gisa eta, alde horretatik, gure Herriak egiaz sentitzen zuen premia betetzera zetozen, onomastika-beregaintasuna lortzeko. Gaur egun zinez esan daiteke Arana-Elizaldek asmatu eta proposaturiko izen horietako asko gure gizartean aski errotuak eta finkatuak direla, eta, beraz, pertsonen euskal izentzat onartu behar dira.

Halere, pertsona-izen horiek ez dute inoiz lortu santuen izenak baztertzea, eta *Jesukristo, Ama Birjina* eta haren senarra, kasu, ez dira euskaraz *Josu, Miren* eta *Joseba, Jesus, Maria* eta *Josef* baizik. Santutegiko arlo hau, beraz, oraindik erabakitzeke zegoen eta Euskaltzaindiak, hutsune hori bete nahi izan du.

Santutegia zer den

Santuen izendegia Testamentu Zaharreko eta Berriko, eta kristaubidean nabarmenduriko pertsona dohatsuen izenez osatua da. Izen horiek, jatorriz, judu, greko, erromatar eta —kristautasuna hedatu ahala— germaniar, eslaviar eta Europako gainerako herrietako izen bereziekin aberastu ziren. Izen horiek, ordea, jende ezberdinen ahoetan erabiltzearen bortxaz, tokian tokiko aldakuntzak izan dituzte, haien hizkuntzen ezaugarri eta aldaketa fonetiko berezien arabera. Horrela, latinezko *Petrus*-etik *Piero/Pietro, Pierre, Pedro, Pere, Peter, Piotr, Petre* eta *Butros* gisako aldakiak sortu dira italieraz, frantsesez, gaztelaniaz, katalanez, alemanez, errusieraz, georgieraz eta koptoeraz.

Santuen euskal izenak

Euskaraz ere, izen horiek euskaldunon fonetika bereziaren iragazkitik pasa eta aldatuak dira. Eskuarki, zenbat eta santua zaharragoa eta gure Herriko debozioan errotuagoa egon, are aldatuago eta euskal fonetikara moldatuago agertzen zaigu haren izena ere. Arrazoi beragatik, Aro Berriko santuen izenekin eta gure artea duela gutxi heldurikoekin aldaketa txikiak gertatzen dira.

Euskal fonetikara egokituriko eta euskaldunen artean luzaro erabilitako santu-izen horiek maiz agertzen dira Euskal Herriko atsoititz, dokumentu zahar eta erlijio liburuetan. Alde horretatik Nafarroako artxiiboak bereziki aberatsak izan zaizkigu Erdi Aroko euskal izenak nolakoak ziren jakiteko. Trentoko Kontziliotik aurrera (1545), Elizak Estatuen hizkuntza ofizialak eredu hartu zituen bere san-

tutegirako, eta harrezkero lehenagoko herri-izen ezofizialak baztertzuz joan ziren. Ofizialtasunik ezak aldean gizarte-bazterketa ohi dakar, eta jendearen usadioan ordurarteko izen normal eta ohikoak pixkanaka bigarren mailako gaitzizentzat hartu, jakite urriko eta maila apaleko pertsonen ezaugarri, eta lotsarren, euskarazko izen jator zaharren orde, erdarazko berriak nagusitzen hasi ziren. Hori dela eta, eliz artxibo eta erregistroetan, azken mendeotan ia beti erdal formazko izen hutsak agertzen zaizkigu, frantsesez zein gaztelaniaz, administrazioaren eta notaritza-paperetan bezalaxe.

Euskara hizkuntza ofiziala ez izateak berekin lekukotasun idatzi gutxi ekarri du. Hori dela eta, dokumentuetan maiz erdal izenak (latinezkoek edo erdarazkoek) euskarazkoak ezkutatzen dizkigutela frogatu da eta horrek, noski, anitz kasutan beste horrenbeste gerta zitekeela susmarazten digu, Koldo Mitxelena berak ongi azpimarratu zuenez. Hortaz, dokumentu idatziez gain, leku- eta etxe-izenetan agertzen diren santu-izenen doakienez, tokian tokiko tradizioa ere kontutan hartu behar izan dugu, eta sarritan ustegabeko altxor ezkutuak aurkitu ere bai.

Aspaldiko urteotan, ordea, euskara hizkuntza ofiziala da eta gero eta eremu zabalagoak besarkatzen ditu. Idazleek eta, oro har, erabiltzaileek normaltze-bidean aurkitzen duten oztipo nagusienera bat historian ere ez dagoenak ez izatea ohi da, eta santuen izenak, erlijio liburuetarako ez eze, biblioteketan, historiari aipamen, kale-izen edo herri jaietarako ere behar-beharrezkoak izaten dira. Eta maiz, nora jo ez dakitela, idazleek erdal izenak hartu behar izan dituzte, Iparraldean frantsesezkoak eta Hegoaldean espainierazkoak, gure hizkuntzaren duintasunaren eta batasunaren kaltean.

Euskaltzaindiak, Euskal Herriaren zerbitzurako erakundea den aldetik, sentiberatasun berezia erakutsi du beti euskaldunen hizkuntz premien aurrean. Hori dela eta, euskal pertsona-izenak lege barruan jartzea errazteko, aspaldian argitaratu zuen bere euskal izendegia, J. M. Satrustegiren lanari esker moldatua. Bide berean, oraingoan, arazo honi irtenbide egokiagoa emateko eta gizartetik datozkion eskariei erantzun nahirik, Euskaltzaindiak gure artean tradizio handia duten santu-izen batzuk hautatu eta gaurko euskal ortografiara egokiturik, lehen zerrenda hau eskaintzen du, ondoan beste batzuekin osatzeko asmoarekin.

Jatorrizko santuaren arabera, izen batzuk gizonezkoenak dira (*Adam, Alberto, Artur, Lukas, Tomas, Xabier...*) eta beste batzuk, aldez, emakumezkoenak (*Ana, Arrosa, Barbara, Eva, Margarita, Susana, Teresa...*). Zenbaitzuek, ordea, historian zehar genero-mozioa garatu dute eta halaxe heldu zaizkigu tradizioz: *Agustin / Agustina, Aurelio / Aurelia, Henrike / Henriketa, Joanes / Joana, Mikel / Mikela, Paulo / Paula, Valentin / Valentina, Zezilia / Zezilio*, adibidez. Azken horiek, jakina, egokiak dira genero biak izendatzeko, eta ontzat hartuko ditu Euskaltzaindiak hurrengoan argitaratuko duen pertsona-izenen zerrendan. Halere, oraingo hau santuen arabera ematen dugu. Hori dela eta, *Joanes* (Bataiatzailea)ren ondoan *Joana* ere azaltzen da (*Joana Arc*-ekoagatik), baina hurrengorako uzten ditugu *Zezilio*, *Inozentzia* edo *Mikela* modukoak, genero horretako santurik ez delako.

Era berean, zerrenda honetako izenez gainera, badira beste batzuk, lokalak, hipokoristiko, afektibo edo txikikariak (*Beñat, Betti, Patxi, Ganix, Manex, Pello, Gaxuxa, Dunixi, Antoni...*) eta Arana-Elizaldeek sortuak (*Iñaki, Kepa, Koldo, Jaione, Miren, Ikerne...*). Horiek ere, iturburuko santuak izendatzeko egokiak ez diren arren, tradizio handia duten batzuk salbu *Bladi* eta *Murtuts* Iparraldean, esaterako, aspaldiko urteotan finkaturik dauden heinean, ontzat ematekoak dira pertsona-izen gisa erabiltzeko. Azkenik, *Ama Birjinaren* adokazioko toponimo ezagunekin batera (*Begoña, Arantzazu, Leire, Ainhua...*), azken urteotan, santuenak izan ez arren, hedatu direnak ditugu (*Ainara, Hodei, Ibai, Haritz, Itsaso...*), eta horrelakoak ere hurrengo zerrendan bilduko ditu Euskaltzaindiak, ponte-izen gisa.

Hau, beraz, geure Herriari eskaintzen diogun lehen emaitza besterik ez da, pausoz pauso osatzekoa.

IRIZPIDEAK

Santuen euskal izenak finkatzeko orduan, euskararen eta euskaldunen hizkuntz duintasuna gidari hartuta, beharrezkotzat jotzen da gure Herriaren tradizio zahar eta propioa berreskuratzea, izen horiek, ahal den neurrian bederen, gaurko gizartearen txertatu edo berpizteko. Ongi gogoan dugu ofizialtasunik ezak luzaro eta sistematikoki baztertu dituela euskal pertsona-izen propioak, eta horregatik, arlo honetako izenak aukeratzeko irizpideak beti ezin izan daitezke ohiko euskal hitz batzuk erabakitzeke erabili diren berberak, hitz berezi hauek nola heldu zaizkigun eta nola dokumentatzen diren kontutan izanik. Bestalde, une honetan batasunaren bila gabiltzala, begien bistan dago frantsesaren eta espai-

nicararen ofizialtasun eskusiboak nolako amildegia ezarri duen gure artean (*Pedro / Pierre*), behialako *Petri* batzailearen kaltean. Beraz, oraingo bitasun-egoeratik irten nahirik, santuen euskal izen ereduak hautatu eta erabakitzeo, ondoko irizpideok hobesten dira:

1. Santuen izenek gaur egunean hizkuntza mintzatuan (*Eztebe, Maria, Josef*), gure literatura klasikoan (*Jakue, Petri, Paulo*), deituretan (*Martinena, Petrirena, Mikeltorena*), antroponimian (*Joañes, Aingeru, Gaitan*) hagiotoponimian (*S. Jurgi, Santi Mami*) eta oikonimoetan (*Mikelarena, Lukasena, Teresategi, Mamikoete...*) utzi duten lekukotasuna. Zenbat eta euskal forma bat maizago agertu, areago hartu behar da kontutan.

2. Formari dagokionez, erarik hedatuena, tradizio zaharrena eta amankomunena dutenak hobetsiko dira, ezagutzeko erraztasun eta itxuraren duintasun-arrazioak ere kontutan harturik.

3. Santu-izen hautatuez landa aurkitzen diren bigarren mailako aldakiak (txikigarriak, hipokoristikoa, forma lokal, gutxi erabili edo dialektalak) eredutat hartzen ez badira ere, gaur-egungo pertsona-izen gisa erabili litezke, eta beste zerrenda batean argitaratuko dira; adibidez: *Adame, Aña, Beñat, Betiri, Bitor, Ganix, Manex, Pello, Txanton, Xipri...*

4. Ipar eta Hegoaldeko forma amankomunak, oinarritz, gainerako aldakiak baino onargarriagoak dira (*Abraham, Agustin, Ana, Arroza, Jakue, Jesus, Maria*).

5. Ipar-Hegoalde eremuak kontutan harturik, euskal izena alde biotako batean gorde eta beste eremuan erdarazkoa besterik ez dagoenean, euskarazkoa hobetsiko da (*Eztebe* eta ez *Esteban*), baldin izen hori erabat zaharkitua ez badago (*Kostobaro / Kristobare*, adibidez), euskal fonetikari propioki ez dagozkion aldaketek desitxuratu egia, herri-mintzairan edo dialektalismoengatik oso erositua eta beste eremuko euskaldunentzat ezagutzina ez bada (*Bixintxo, Inixio, Murtus, Fernando, Petiri, Urrufino*). Kasu hauetan, dialektalismo eta fonetismo gabeko forma eredu dokumentaturik egonez gero, horixe hartuko da eredutat (*Bizente, Fernando, Fruktuoso, Magdalena, Ignazio, Petri, Rufino*).

6. Ipar eta Hegoaldean gaur egungo forma bakarrak erdarazkoak izan eta batera baldin badatoz horietatik hobetsiko dira: *Felix* adibidez, eta ez *Eriz*.

Ambos se reconocen recíprocamente capacidad legal para suscribir en nombre de sus respectivas instituciones el presente *Convenio* de cooperación, para cuya mayor comprensión

EXPONEN

Que las dos entidades, cada una en su ámbito respectivo, comparten un común interés en la preservación y promoción del vascuence, constituyendo un objetivo común para las dos la consecución de una estima cada vez mayor hacia el euskara por parte de los habitantes de nuestra ciudad, el aumento del número de personas que lo conocen y la potenciación de su uso, tanto en lo que se refiere al número de hablantes como a la calidad lingüística del habla.

Por todo ello, y teniendo en cuenta esta coincidencia de objetivos y de ámbitos de trabajo y dada la especial atención que necesita el vascuence a efectos de la consecución de estos objetivos, se impone reconocer la necesidad de establecer una relación fluida entre las dos entidades, basadas en el mutuo respeto y colaboración.

Por otra parte la Ley Foral 18/1986 de 15 de diciembre del vascuence, en su artículo 3.3.º designa a la Real Academia de la Lengua Vasca como institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas aplicables en la Comunidad Foral.

Teniendo en cuenta todos estos razonamientos las dos entidades,

ACUERDAN

Subscribir el presente *Convenio* con respecto a las siguientes cláusulas:

1. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia asesorará al Ayuntamiento de Pamplona en cuestiones de materia lingüística.

2. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia seguirá facilitando tanto desde sus servicios generales como desde la propia delegación de Navarra en Pamplona, la información y asesoramiento requeridos por los ciudadanos.

Del mismo modo impulsará actividades de difusión cultural, cursos, conferencias, etc. en colaboración con las entidades e instituciones correspondientes.

3. El Ayuntamiento de Pamplona consignará en el presupuesto municipal ordinario de cada año una aportación, que en el presente ejercicio será de 900.000 pesetas.

4. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia entregará al Ayuntamiento de Pamplona dos ejemplares de la publicaciones, revistas y diferentes ediciones que promueva la entidad y versen sobre temas incluidos en el ámbito del presente *Convenio*.


5. El presente *Convenio* tendrá vigencia desde su firma hasta el día 31 de diciembre de 1997, pudiéndose prorrogar el mismo de modo automático salvo la denuncia de cualquiera de las dos partes, realizada con dos meses de antelación a la fecha de finalización.

6. En caso de prórroga automática la aportación económica municipal será incrementada en el mismo porcentaje en que lo hayan sido los presupuestos municipales ordinarios para el ejercicio correspondiente.

Y en prueba de conformidad con todo lo arriba expresado, firman el presente *Convenio*, en el lugar y fecha anteriormente señalados.



Por Euskaltzaindia / Academia de la Lengua Vasca,



Por el Ayuntamiento de Pamplona,

IRUÑEKO UDALAK ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA

Iruñean, 1996ko abenduaren 30ean bildu dira D. J. Javier Chourraut Burguete, Iruñeko Udalaren alkatea eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Biok aitortzen diote elkarri ordezkatzan duten erakundearen izenean *Hitzarmen* hau sinatzeko ahalmena, eta hitzartutakoa hobe uler dadin honako hau

ADIERAZI DUTE

Bi erakundeek, bakoitzak bere lan arloari dagokionez, interes bera dutela euskara gorde eta sustatzeko eta bien helburuak direla gure hiriko biztanleek euskara gero eta estimu handiagoan izatea, ezagutzen duten lagunen kopurua handitzea eta euskararen erabilpena indartzea, hala hiztun kopuruari dagokionez nola hizkeraren kalitatearen aldetik.

Horiek horrela, eta kontuan hartuz bi erakundeak bat datozela helburuetan eta lan arloetan, eta helburu horiek lortzeko euskarak neurri bereziak behar dituen bezala, derrigorrezkoa da aitortzea bi erakundeek arteko harreman errazak ezartzeko beharra, elkarrekiko begirunean eta lankidetzan oinarritutako direnak.

Beste aldetik abenduaren 15eko Euskarari buruzko 1986/18 Foru Legeak, 3.3 artikuluan Euskaltzaindia izendatzen du erakunde aholku emaile ofiziala Foru Erkidegoan indarra izan behar duten hizkuntz arauak ezartzeko.

Kontuan hartuz zio hauek guztiak, bi erakundeek honako *Hitzarmen* hau izenpetzea

ERABAKI DUTE

Honako klausula hauekin:

1. Euskaltzaindia Iruñeko Udalaren erakunde aholku emailea izanen da hizkuntz gaiei dagokienez.
2. Euskaltzaindiak hiritarrek eskaturiko informazioa eta laguntza eskaintzen jarraituko du, bere zerbitzu orokorretatik nahiz Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkaritza-tatik.

Halaber, kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu dagozkion erakunde eta elkarteekin elkarlanean arituz.


3. Iruñeko Udalak diru-ekarpena esleituko du urtero bere ohizko aurrekontuan, eta ekarpen hori 900.000 pezetakoa izanen da 1996ko urtealdirako.

4. Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen aldizkari edo edizio ezberdinetatik bi ale emango dio Iruñeko Udalari, beti ere *Hitzarmen* honen esparruari dagozkion gaiei buruzkoak direnean.

5. Hitzarmen honek indarra izango du izenpetzen den unetik 1997ko abenduaren 31ra bitartean. Automatikoki luzatuko da, bi aldeetatik batek amaiera data baino bi hilabete lehenago denuntziazten ez badu.

6. Luzapena automatikoa izanez gero, Udalaren diru-ekarpena dagozkion urtealdirako handituko da udal ohizko aurrekontuak izandako gehikuntzaren portzentaia berean.

Eta *Hitzarmen* honetan azaldutako guztiarekin bi erakundeak bat datozela adieraziz *Hitzarmen* hau izenpetu dute arestian aipatu datan eta lekuan.



Euskaltzaindiaren aldetik,



Iruñeko Udalaren aldetik,

**AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA/IRUÑA
IRUÑEKO UDALA-R.A.L.V./EUSKALTZAINDIA**

*Pamplona/Iruña, 19-02-1997
Javier Chourraut Burguete,
alcalde*

**INTERVENCION DEL SR. ALCALDE EN LA RECEPCION
A LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA
VASCA / EUSKALTZAINDIA**

Miércoles 19 de febrero de 1997. Salón de Recepciones. 12,30 horas

Señor Presidente de Euskaltzaindia,
Señores académicos y miembros correspondientes,
Señores corporativos,
Señoras y señores,

Buenos días,
Ongi Etorriak.

El Primer Congreso de Estudios Vascos, se celebró en la antigua Universidad de Oñate en 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. El Ayuntamiento de nuestra ciudad contribuyó con una aportación económica para el desarrollo de aquel congreso en el que nació la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

La creación de Euskaltzaindia recogía un sentimiento generalizado que desde el siglo XVIII se venía manifestando por parte de la intelectualidad amante de la *lingua navarrorum*, favorable a conservar y potenciar el idioma vasco, así como a fomentar su investigación lingüística.

Me gustaría recordar hoy que entre los cuatro académicos nombrados por el Congreso, estaba un pamplonés el insigne literato Arturo Campión.

Un Arturo Campión que junto a Oloriz, Altadill e Iturralde y Suit, entre otros, configuran lo que se ha denominado la generación de oro de las letras navarras.

Estos intelectuales, que fueron miembros de la Asociación Euskara de Navarra, derrocharon su saber en pro de la lengua propia de este pueblo, de sus costumbres y de lo que entendieron particular y característico de su Historia.

Este grupo de autores nos legó a las siguientes generaciones un conjunto importante de escritos que revelan la profunda pasión que sentían por su tierra. Indudablemente el mismo espíritu que animó a los fundadores de la Asociación Euskara a finales del siglo diecinueve contribuyó a la creación de la Real Academia de la Lengua Vasca, que hoy tenemos el honor de recibir.

Sería muy prolijo destacar la inmensa labor que a lo largo de estos años ha realizado la Academia en pro del vascuence. Sí me gustaría destacar entre ellos, no obstante, la tutela y restauración del idioma vasco en todos los órdenes sociales; su investigación y la formulación de las leyes gramaticales; la elaboración de un lenguaje literario unificado en léxico, gramática y grafía, o el trabajo en pro de la capacitación de la lengua, como medio de expresión de la comunidad a todos los niveles.

Son también conocidas las actividades de Euskaltzaindia, entre las que pueden subrayarse la edición del boletín *Euskera*, que en sus dos épocas, desde 1920 a 1936 y, posteriormente, desde 1956 hasta la fecha, ha publicado numerosos trabajos gramaticales y dialectológicos de prestigiosos académicos. Es justo mencionar igualmente los numerosos premios de poesía, novela, teatro y ensayo que la Academia ha promovido, además de los Congresos en torno a la lengua vasca.

En consecuencia, para el Ayuntamiento de Pamplona es motivo de orgullo y satisfacción la firma de un *Convenio* de colaboración con una entidad que tanto se ha significado por la preservación, normalización y fomento del euskera, uno de los elementos más relevantes de nuestro patrimonio cultural.

En virtud del *Convenio* que acabamos de suscribir, ambas entidades nos comprometemos a aunar esfuerzos, desde las respectivas responsabilidades y competencias, en la promoción del euskera.

Ojalá que este *Convenio* contribuya a respaldar, si quiera modestamente, la labor científica y cultural desarrollada por la Real Academia.

No quisiera dejar pasar esta ocasión sin agradecer a los presentes su dedicación en pro de la lengua y cultura vascas. Mi reconocimiento especial también para los navarros que, desde la fundación de la entidad, han aportado sus conocimientos en favor de la Academia. Entre ellos, además del citado Campión, cabe recordar a los académicos Padre Dámaso de Inza, Angel y Pablo Irigaray y Eladio Esparza.

Todos ellos llevaron a cabo una encomiable labor, continuada en nuestros días por dignos sucesores como José María Satrústegui, que fue secretario de la Corporación, y los actuales académicos Francisco Ondarra, Pello Salaburu, Francisco Zabaleta, y los miembros correspondientes José Luis Lizundia y Andrés Iñigo, sin olvidar a otros miembros correspondientes con los que hoy tenemos el placer de contar.

Para concluir, no me resta sino animarles a proseguir con la fecunda labor de la Academia, dando respuesta a las necesidades que día a día reclama la situación de una lengua que todos queremos viva, desde la profesionalidad y el rigor científico sobre los que ha cimentado la Institución su merecido prestigio.

Muchas gracias. Eskerrik asko.

BARNE TXOSTENA

HILEROKO BATZARRETAKO LAN BANAKETAZ GOGOETA

Bilbo, egoitza, 1997-04-25

*Patxi Goenaga,
idazkaria*

1. ARAUGINTZA INDARTU BEHARRA ETA HORRETARAKO OZ- TOPOAK

Iraizozko bileran aipatu zen batasungintzari edo araugintzari bultzada emateko premia. Ikusi zen zail zela oraingo lan egiteko moduarekin egiten dena baino gehiago egitea. Nolanahi ere, oker ez banago, osoko bilerak emankorrago egiteko premia ikusi zen.

Araugintza lanari bultzada emateko orduan batzorde batek ematen du due-la giltza, Euskara Batukoak, alegia. Lanari irtenbidea ematea lortzen bada, Euskaltzaindiak esku bete lan izango du eta, horrenbestez, orain sartzen diren baino ordu gehiago sartu beharrean aurkituko gara. Horrek ekar dezake arratsaldeetan ere bildu beharra, adibidez.

Argi dago Euskaltzaindiaren azken hilabeteetako lana —araugintzari dagokionez— hiztegi eta onomastika kontuetara mugatu dela. Horren arrazoia begien bistakoa da: batzorde horiek izan dira erabakigaiak landu eta aurkeztu dituztenak. Hala ere, jendeak beste zerbait gehiago ere eskatzen dio Euskaltzaindiari. Gramatika aldetik hainbat galdera eta eskari iristen dira batzordera, adibidez. Beraz, batzorde honek badu zer egin. Eta hain zuzen, Iraizotzen esan zen bezala, gramatika batzordea prest dago, datorren urtean zenbait arau-gai lantzeko eta aurkezteko. Horrek lan berezia eskatuko dio batzordeari baina prest gaude ohiko lanarekin batera, eta hori erabat moztu gabe, Leioako bilera prestatzeko egin behar izan genuen bezala, eta poliki-poliki, zenbait puntu landu eta Euskaltzaindiaren eskuetan jartzeko.

Dena den, horrek ere Euskaltzaindiari lan handiago emango dio, bai Euskara Batuko batzordeari, bai Euskaltzaindiari berari. Lan-gehitze horri erantzuteko bide bakarra, nik uste, ordu gehiagoz saiatzea da.

Hau Iraizotzen harrotu zen gai bat da eta irtenbideren bat eman behar zaio. Kontu hau, dena dela, araugintzari dagokio eta honek, esan bezala, giltza nabarmena du Euskara Batuko batzordean.

2. BATZORDEEN LANA EZAGUTZERA EMAN

Baina Euskaltzaindiak bestelako lanak ere baditu eskuartean. Hain zuzen, hor ditugu gure batzordeak, Euskaltzaindiaren lan esparru osoa besarkatzen dutenak: dialektologia, ahoskera, gramatika, literatura, hiztegi-gintza, etab. Euskaltzaindiaren barruan, eta lan akademikoarekin zer ikusi argia duen beste esparru bat ere bada: biblioteca, alegia. Hauetan denetan lan egiten da eta seriozki egiten dela pentsa daiteke, gainera. Baina Euskaltzaindiak zenbateraino eza-gutzen du bere batzordeen lan hori?

Batzordeak Euskaltzaindikoak ez ezik Euskaltzaindiarenak ere badirenez, ez litzateke gaizki etorriko, hauek ere Euskaltzaindiari, euskaltzainen bilkurari alegia, beren lanaren nondik norakoak azaltzea noizean behin. Gramatika batzordea hartuko dut adibide gisa —ez, nahitaez, eredu gisa—. Batzorde honek bere emaitzak liburu gisa ematen ditu. Liburu hauek, egia da, euskaltzainen eskuetatik pasatzen dira argitara aurretik. Beraz, Euskaltzaindiaren nolabaiteko bedeinkazioa hartzen dute, urrun samarretik bada ere. Baina, nire ustez, euskaltzainok sakonagotik ezagutu beharko genuke batzorde honen, eta gainera-koen, lana. Ez litzateke bakarrik batzordeari zor zaion konfidantza ematea. Hori hor dugu. Zerbait gehiago da. Lana hurbilagotik ezagutzea eta, behar denean, hobekuntzak eskaintzea batzordearen emaitzari. Hori, orokorrean. Baina, bada, bestalde, oso eztabaidagarri diren gaiak gure lanean. Beñat Oihartzabalek, adibidez, Iraizotzen izenordain erresuntiboen kontua aipatu zuen. Hori bezala, beste hainbat aipa litezke, non batzordeak, mila eztabaidaren ondoren, agian aski badaezpadakoa den bide bat irekitzea proposa dezakeen. Eta horrelakoetan on litzateke euskaltzainon iritzia ezagutzea eta euskaltzainek ere alde z aurretik ongi jakitea zer den nolabait “bedeinkatzen” ari diren lan jadanik bedeinkatu hori.

Uste dut batzordearen eta euskaltzain osoen artean aipatu dudan komunikazioa badago, kaleratuko den fruitua ere askoz sendoagoa eta serioagoa izan-go litzatekeela. Aurkezpen hau zuzenean egingo litzaike euskaltzainei, bes-telako batzordeetatik iragan beharrik gabe, normalean. Ez, noski, behar diren iragazkiei ihes egiteko —bestela ere batzordearen lana ez baita horrelakoetatik pasatu—, baizik benetan goi mailako arau izateko asmorik ez duten arren, eus-kaltzainen oniritzi sendoagoa lortzea litzatekeelako helburua, azken batean. Ja-kina, aurkezpen honen ondorioz, arauen bat eman beharra sortuko balitz, ohi-ko bidetik eraman beharko litzateke azkenean.

Gramatika Batzordearena aipatu dut, araugintzarekin zerikusi zuzena duen lan bat, alegia. Baina beste batzordeek ere gauza bera egin behar luketela uste dut. Eta batzordeek ez ezik bestelako sailek ere bai, biblioketak esaterako. Kasu honetan, pentsa liteke zuzendaritza berriak asmo berriak ekar ditzakeela eta, euskaltzainek, agian, datozkeen aire berri horien jakitun izatea ez litzateke ton-takeria.

Horrenbestez, batzordeek ere aldika-aldika, beren arangurak eta kezak agertzeko besterik ez bada ere, on litzateke zenbait txosten aurkeztea. Era desberdinekoak izan litezke: gramatika batzordearen kasuan, esaterako, araugintzatik oso hurbil egon litezke; beste batzuetan aski izango litzateke gauzak zertan diren noizbehinka kontatzea. Hots: batzuetan etor daiteke arau proposamen bat —eta hori egingo duela agindu du gramatika batzordeak— eta besteetan, arauak ezartzeko inongo asmorik gabe ere, on da batzordeek Euskaltzaindia beren lanaren jakitun edukitzea.

3. EUSKALTZAINEN BESTELAKO LANAK

Pentsatzekoa da, gauzak ongi dabiltzanean, batzordeek ongi irizten diotenari euskaltzainek ere ongi iritzi behar diotela. Horrenbestez, euskaltzainen arteko eztabaidak ere, normalean, ez dira izango ezin atertzuzkoak. Esan nahi baita: batzordeak ongi aztertu duena, normalean, ontzat emango du Euskaltzaindiak. Horrela uste dut doazela, gainera, gauzak, araugintzari dagokionez. Baina, normalena euskaltzainok batzordeen lana onestea bada, euskaltzainon lana, garrantzitsua izanda ere, aski agorra gerta liteke. Zenbaiti behintzat hala irudi lekiok, zeren, azken batean, bestek egindako lanari oniritzia ematea besterik ez bailitzateke izango gure lana. Hori beharrezkoa da, baina horrezaz gainera, bestelako lanak ere izan ditzakegu eskuartean eta lan horien berri euskaltzain kideei agertzeko eta haiekin eztabaidatzeko beharra izan dezakegu. Euskaltzainak ez gara mutuak eta denok dukegu zer esana gai batez ez bada beste batez. Horrenbestez, nire proposamena da araugintzaz aparte, edo araugintzaz gainera, bestelako gai akademikoei ere bide ematea gure bileretan.

Euskaltzainek, araudiaren arabera, beti dute eskubidea txostenak aurkezteko. Horrenbestez, batzordeetan eta abarretan orain arte landu diren arloez gainera bestelakoak ere landu ditzakete eta gainerako kideen aurrean aurkeztu. Hau, egin daiteke, eta, etxe honetara iritsi berriaren lotsagabekeriaz, uste dut egin egin behar litzatekeela.

Urgazleek ere egin ditzakete horrelako lanak.

Hitz batean, euskaltzainen bilerei eduki gehiago ematea izango litzateke kontua, eduki akademiko handiagoa.

4. PROPOSAMEN BAT

Txosten aurkezte eta berri emate hau onarturik, egin beharreko galdera hau litzateke: nola finkatu zein txosten aurkeztu? Proposamen gisa honako hau egin liteke, adibidez:

— Euskaltzain osoek beren kabuz aurkez litzakete, beti ere plan orokor baten barruan eta inprobisaziotik ihes eginez. Planning bat beharrezkoa litzateke.

— Urgazleek ere aurkez litzakete. Kasu honetan, hala ere, bi baldintza hauetariko bat ezar lekieke: a) edo Euskaltzaindiak —zuzendaritzak, adibidez— espres agindutako lan bat izatea edo b) batzorderen baten euskarria eta abala izatea. Hemen sartuko litzateke aipatu dudan batzordeen berri-emate hori. Pentsa liteke, urtean behin adibidez, bere lanaren berri euskaltzain osoen aurrean eman beharra ezartzea batzorde bakoitzari.

Nolanahi ere, honek urteko agenda behar bezala antolatzea eskatuko luke, jendeak behar den denbora izan dezan txostena aurretiaz prestatzeko.

Beste arazo bat da txosten hauek non sartu. Bazkalondoko bilerak ez dira izaten onenak honelako iharduera akademikoetarako, baina bistan da lan gehiago egin behar bada, arratsaldeak ere baliatu beharrekoak ditugula. Araugin-tza bera ere azkartzea lortzen bada, denbora atera beharko da. Beraz, lehen erabiltzen zen formularen antzekora iritsi beharko genukeela dirudi. Dena den, hilerok egin beharrik ere ez dago, hasieran behintzat. Agian, hasteko, egin daiteke bi hilabetetik behin. Kontua, nolanahi ere, agenda egokia egitean datza.

Beste galdera bat hemen uzten dudana zuen eztabaidarako honako hau da: bilerak irekiak izan behar dute ala euskaltzain osoenak bakarrik? Gaia nolakoa, bilera ere halakoa izan liteke. Nik uste.

Eta hori zen gaur, Zuzendaritzako kideen eskariz zuen gogoetarako ekarri dudana gaia.

BATZAR AGIRIAK

Bilbon, 1997ko urtarilaren 31n

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
E. Knörr, euskaltzainburuordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
F. Krutwig,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi,
eta L. Villasante euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea
eta M. Gorrotxategi, Onomastika batzor-
de idazkaria (1.1. gaian)

Joan Corominas euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri ere eman du. Hurrengo bilkura batean irakurriko da haren hilberri txostena. E. Knörr jauna arduratuko da txosten horretaz.

b) Bestalde, Ibon Sarasolak agertu berri duen hiztegia aipatu du Euskaltzainburuak. CD-ROM eran ere izango omen da aurki kalean.

Hizkuntz arauak:

1.1.1. eta 1.1.2. Santutegiko izen ohikoenen zerrenda.

Miren Azkarateren eskariz, gai zerrendako 1.1.1 puntua (*Santutegiko izen ohikoenak finkatzeko irizpideak onartzea*) eta 1.1.2 puntua (*Santutegiko izen ohikoen bigarren zerrenda Hiazinta-Zuria onartzea*) batera tratatzen dira.

Lehendabizi, P. Ondarra jaunak aurkeztutako oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak. *Ursula* eta *Zelso* izenak, batzordeak salbuespentzat ematen ditu. Ondarrak salbuespenik

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzako batzar aretoan, 1997ko urtarilaren 31n, goizeko 10etan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko bilkurari. Ondoko zutabeen aipatzen diren kideak etorri dira.

Aurreko agiriak onartzea.

Abenduko bilkuren behin-behineko agiriei J. L. Davant, E. Knörr eta J. Haritschelhar euskaltzainek ohar xume batzuk egin dizkiete. Jaso dira. Gainerakoek ez dute oharrik egin eta horrela eman dira ontzat aipatu agiriak.

Euskaltzainburuaren hasiera hitzak.

a) Lehendabizi, Euskaltzainburuak azken hilabeteen gertatutako heriotzen berri eman du eta Euskaltzaindiaren izenean dolumina agertu beren aitaren heriotzategatik Patxi Goenaga euskaltzainari eta Lutxi Alberdiri eta M.^a Pilar Lasarteri, amarenagatik.

ez du nahi eta *Urtsula* eta *Zeltso* proposatzen ditu. P. Altunak proposamen honi halako herri-kutsu larregizkoa hautematen dio. E.Knörrek, gai honek azterketa berezia eskatzen duela dio. Komeni al zaio euskarari, sozialki, *-ts-* idazkera hainbeste zabaltzea? -galdetzen du. Azkenik, bateko eta besteko iritziak entzun ondoren, bozkatu egiten da, honako emaitza honekin: Batzordearen proposamena bere horretan —beraz, salbuespen eta guzti— uztearen aldeko: boto bat. Salbuespenik ez egitearen alde: 13 boto. Zuri: 3 boto. Hortaz, *Urtsula* eta *Zeltso* onartzen dira. Onomastika batzordearen oharra ere behar bezala aldatuko da, horrenbestez.

Ondarraren bigarren oharra zenbait izenek duten eta beste zenbaitek ez duten azken *-s-*ari dagokio. Hemen ere ez da salbuespenik nahi. Denak *-s-*ekin hobe. Nolanahi ere, *Juda* / *Judas* bikotea gordeko da bi izen desberdin diren heinean. Behar bada, honelako beste kasuren bat ere izan liteke. Botoetara jo da eta 16 izan dira Ondarraren bigarren ohar honen aldekoak eta bat ere ez kontra.

Ondarraren gainerako ohar guztiak ez dira onartzeko modukoak ikusi, salbu 8.a. Horrenbestez, *Marina* / *Marino* bikotea erantsiko zaio zerrendari.

Ondoren, Haritschelhar jaunak aurkeztutako oharrak aipatu dira. Ortografiari dagokionak dira eta denak ontzat emanak ditu jadanik batzordeak.

Miren Azkarate andreak hitz amaieran zenbait izenek zerrendan erakusten duten bitasunaz(— / -o) galdetzen du. M. Gorrotxategi jaunak erantzuten dio zerrendako adibideak irakurriz. Denak *-o* bukaera dutela ematea onartzen da. Horretarako, bere garaian emandakoak zuzendu egin behar dira eta denak *-o-*ekin eman.

Bigarren eta hirugarren oharrak bertan behera uzten ditu egileak berak. Laugarrena, berriz, onartzen zaio. Beraz, *Kristobal* agertuko da zerrendan. 5. oharrari gagozkiola, berriz, *Marko* forma bakarra onartu da. Eta 6., 7. eta 8. oharrak ontzat ematen dira. Beraz, *Paskoal* emango da, eta *Petri*. 9. oharrean *Saturdi* izenak aski lekukotasun ba ote duen galdetzen du ohargileak. Baietz erantzun zaio. Eta azkenik, *Bittor* santu izentzat eman beharraz galdetzen da. Jadanik kendua dagoela erantzun zaio.

Azkenik, santu izendegiaren esparruan beti ere, X. Kintanak *Augustin* / *Agustin* bikoteaz galdetzen du. *Agustin* onartzen dela erantzun zaio.

Eztabaida honen ondoren, P. Salaburuk zerrenda osoa bozkatzea eskatzen du. Hala egiten da. Hona hemen emaitza: alde, 16 boto, kontra bat ere ez, eta zuri, 2 boto.

Salaburuk dio oso gogor egiten zaiola *San Hiazinto* bezalakoak zerrenda honetan ikustea eta batzar-agirian bere iritzia jasotzea eskatzen du.

Erabaki hauek guztiak, behar bezala diskete batean bildurik, Onomastika batzordeak P. Salabururi helaraziko dizkio.

1.2.1. *Hiztegi batuko akats-dun* eta *saindu/santu* hitzen formak hautatzea.

Akastun forma proposatzen du batzordeak. Hortaz, *erreus*-en sarreran 'akastuna' ezarriko da. Bestalde, *akastun* sarrera ere agertuko da dagokion lekuan.

Santu / *saindu* bikotea dela eta, lekukotasunen arabera, gipuzkerazko eta bizkaierazko testuetan *santu* da erabiltzen dena. Horrenbestez, batzordeak forma hau proposatzen du. Alboan, *Saindu Ipar*. eramango luke. X. Kintanak *saindu* forma tradizio luzeagokoa litzatekeela dio. Betolazak ere *santu* dakarrela erantzuten dio Ibon Sarasolak,

beraz ez dela zuzena Kintanaren baieztapena. Nolanahi ere, Kintanak batzordearen erabakia errespetatzen duela dio nahiz eta beretzat boto partikularra gorde.

Eztabaidaren ondoren, hortaz, batzordeak *Espiritu Santu* forma proposatzen du. Denak ados batzordearen proposamen honekin.

1.2.1. *Hiztegi batuko esponja-expres* zerrenda.

Zerrenda honi oharrak egin dizkiote P. Ondarrak, X. Kintanak eta E. Knörrek.

Kintanaren oharrak aztertu dira lehendabizi. *Estasi* hitza dela eta, *ekstasi* proposatzen du. Sarasolak erantzuten dio esanaz lehenago erabakitako zerbait harrotzen hastea litzatekeela hori eta, beraz, lekuz kanpo dagoela. Kintanak kontu hau beste bilera baterako uztea proposatzen du. Hala ere, bozkatu egin da batzordearen proposamena eta hau izan da emaitza: bai: 12 boto; ez: 5 eta zuri: 3. Beraz, ez da onartzen Kintanaren proposamena.

Eszeptiko / espektiko eztabaida etorri da gero. Kintanaren proposamenaren kontra, puntu honetan, frantsesa eta gaztelania bat datozela aipatu da eta Euskaltzaindiak berak ere maileguak aipatzerakoan, bere garaian, *eszeptiko* hitza eman zuela adibide gisa. Bozkatu da eta honako emaitza izan da: batzordearen proposamenaren alde: 15; kontra: 2; eta zuri: 4.

Etخابere proposatzen du Kintanak, batzordearen kontra. Tradizioa, bere apurrean, bestelakoa dela erantzuten zaio. Botoetara jo da. Batzordearen proposamenaren alde: 15; kontra: 2; zuri: 2.

Eukalitu hitzak ere ekarri du eztabaida. Bi bozketa egin dira: a) *-pt*-bai ala ez, lehendabizi. 18 boto izan ditu baieztakoak eta bat ere ez, ezeztakoak. b) ondoren amaierako *-o / -u*-ri buruzko bozketa egin da. Emaitza honako hau: *-pto*-ren alde: 13 eta kontra: 3. Beraz, *eukalpto* forma onartu da.

Eurrez-i buruz, Kintanaren proposamena onartzen da: *eurrez Bizk. 'ugari, franko'*

Eusko/euskotar hitzei buruzko eztabaida etorri da ondoren. Bozkatu ondoren, honako emaitza izan da: batzordearen proposamenaren alde: 15; kontra: 1 eta zuri: 3. Kintana jaunak bere protesta agirian jasotzea eskatzen du. Horrenbestez, jaso gelditzen da.

P. Ondarraren lehendabiziko bi oharrak ontzat ematen dira. 3.a ('*etsamina*') aurreago ezatabaidatuko da. Eta 4. oharra dela eta, batzordeak berak *etzinalde* hitza zerrendatik kentzea erabaki du.

Ondoren, E. Knörren oharrak aztertu dira. Honek "*esponja h. belaki*" ezartzea eskatzen du. Batzordeak biak parekotasun ematea ikusten du bidezko. Hala onartzen da.

Esposatu dela eta batzordeak bereari eusten dio. Kintanak eta Satrustegik biak, *esposatu* eta *ezkondu*, ontzat ematea eskatzen dute. Botoetara eraman da eta batzordearen proposamenak 15 boto izan ditu. Kontra: 4 eta zuri: 2. Beraz, zerrendan dagoen bezala gelditzen da hitza.

Espresuki / espreski bikotea izan da hurrengo eztabaidagaia. Batzordea, berez, biak onartzearen aldeko agertzen da. Bozketa bat ere egin da, baina, azkenean, lekukotasun egokiak behar zirela eta arazo osoa hurrengo bileran erabakitzeko utzi da. Hortaz, batzordeak ordurako ekarriko du proposamen berria.

Exkax eta etsaigo hitzei buruz, batzordeak bereari eusten dio eta hala onartzen da.

Hurrengo eztabaidagaiak honako hauek izan dira: a) *estropozo / estropezu*-ri buruz euskaltzainek beren iritzia eman dute eta azkenean denak ados jarri dira *estropezu* formaren alde. b) *estutasun / estuasun* bikotea dela eta, batzuentzat bi hitz direla argi dago. Dena den, hitz hauek soka luzea ekar dezaketenez, proposamena hurrengorako uztea eskatzen du batzordeak.

Denbora faltaz, *etsamina* hitzetik aurrerakoak hurrengo bilerarako uzten dira.

Hiztegi batuko *ez-fotografo* zerrenda banatu da ondoren, hurrengo bilerarako aztergai.

2. A. Irigoien euskaltzainaren hutsartea.

Azken bileran erabaki bezala, gogoeta egiteko unea da hau. Euskaltzainburuak Miren Azkarateri ematen dio lehendabizi hitza. Kontua da zernolako sotsalaia edo, izan beharko lukeen euskaltzain berriak. Horretarako, Euskaltzaindiak dituen premiak ikusi beharko lirateke.

X. Kintanak uste du bizkaitarra izatea komeniko litzatekeela. M. Azkaratek ihardesten dio esanaz arauak aldatu baziren, ez zela izan gauzak ez aldatzeko, alderantziz baizik.

E. Knörrek lan egingo duen jendea behar dela esan du eta ez, nahi eta ez, pertsona “notableak”. Horrenbestez, Euskaltzaindiak hutsuneak non dituen ikusi behar da. Dena den, kontuan hartu beharreko tasunak honako hauek izan litezke: idazle izatea; administrazioa ezagutzen duen jendea; gestiorako jendea; nolako adina duen, etab.

Gogoetak gogoeta, orain arte hautagairik ez da aurkeztu hutsunea betetzeko.

3. Batzordeak hornitzea.

Euskaltzainburuak aurkeztu du batzordeen osakera berria, zuzendaritza taldeak txutua. Eranskinean ageri dira zerrendatuak batzordeok.

4. Eskuartekoak.

Andres Iñigo Nafarroako ordezkari izatea onartu da.

“Euskaldun unibertsa” delako sarirako Euskaltzaindiak Bernardo Atxagaren izena proposatzea onartu da, nahiz eta horretarako, idazlearen baimena lortu beharko den.

AEK-k Korrikari Arantzazun eman nahi dio hasiera. A. Villasante nolabait omendu nahi lukete, bide batez. Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen dute ekitaldiari nola-halako “distira” eman nahian. Euskaltzaindiaren osoko batzarrik ezin da egin egun horretan, baina agian Jagon sailekoena edo antola litekeela esan da.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga

Bilbon, 1997ko urtarrilaren 31n

J. Haritschelhar
E. Knörr
P. Goenaga
J. A. Arana
P. Altuna
M. Azkarate
P. Charritton
J. L. Davant
X. Kintana
F. Krutwig
E. Larre
J. M. Lekuona
B. Oihartzabal
Tx. Peillen
J. San Martin
eta L. Villasante euskaltzainak
eta X. Aranburu
A. Arejita
G. Aurrekoetxea
R. Badiola
L. Baraiazarra
S. Garcia Trujillo
J. L. Goikoetxea
M. Gorrotxategi
A. Iñigo
X. Kaltzakorta
J. L. Lizundia
A. Muniategi
J. Oleaga
K. Rotaetxe
M. Ruiz Urrestarazu
eta P. Uribarren
euskaltzain urgazleak.

Bilbon, Euskaltzaindiaren Egoitzako Hitzaldi Aretoan, 1997ko urtarrilaren 31n, arratsaldeko lauretan eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren batzar irekiari. Euskaltzainburuaren agurraren ondoren, idazkariak goizeko bileraren berri eman du labur-labur. Gero euskaltzainburuak hitza eman dio X. Kintanari, Alfonso Irigoien euskaltzain zenaren hilberri txostena irakur dezan. Txosten hau Federiko Krutwig jaunarekin batera taxutu du.

Hitzaldian zehar Alfonso Irigoienek bizitzaren eta lanaren zertzeladak aletzen joan dira: sorrera, familia, haren zaletasunak (pintura eta euskultura), euskal arloan egindako lanak etab.

Bigarren hitzaldia Jose Antonio Aranaren eskutik etorri da. Arana jaunak, Azkuek sortutako *Euskalzale* aldizkariaren mendeurrenean, agerkari horrek izan zituen gorabeherak oroitarazi nahi izan ditu, hitzaldi interesgarri eta atseginean.

Azkenik, euskaltzainburuak hitz batzuek egin ditu eta entzuleak, aretoan antolatutako erakusketa ikustera gonbidatu. Hain zuzen, *Euskalzale* aldizkariaren mendeurrena dela eta, joan den mendeko euskal aldizkariaren erakusketa paratu du Euskaltzaindiak aretoan bertan.

Batzarra arratsaldeko bostak inguruan amaitu da.

Donostian, 1997ko otsailaren 28an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
 E. Knörr, euskaltzainburuordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 P. Altuna,
 M. Azkarate,
 P. Charritton,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 X. Kintana,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 B. Oihartzabal,
 F. Ondarra,
 Tx. Peillen,
 P. Salaburu,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 eta L. Villasante euskaltzainak
 eta
 J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea

Donostiako Udaletxean, 1997ko otsailaren 28an, goizeko 10etan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko bilkurari. Ondoko zutabea aipatzen diren kideak etorri dira. J.M. Lekuonak ezin etorria adierazi du.

Aurreko agiriak onartzea.

Urtarrileko batzarren behin-behineko agiriari E. Knörr-ek eta M. Azkarate euskaltzainek zenbait ohar egin dizkiete. Jaso dira eta horrela eman dira ontzat bi agiriak.

1. Hizkuntz arauak.

1.1. Hiztegi batuko esponja-expres zerrenda onartzea amaitu.

Lehendabizi, aurreko bilkuran erabakigai gelditu zen *espres/espresuki/espreski* hirukoteari buruz batzordeak ekarri duen proposamen berria aztertu da. Honako hau izan da delako proposamen hori: *espresuki*, Adb.; *espres*, Izond./Adb. *Es-preski* hitza ez litzateke emango. Besterik gabe onartu da proposamena.

Estuasun / estutasun bikoteari buruz, batzordeak lehengo proposamenari eusten dio. Hots: *estutasun* bakarrik agertzea, eta bi adiera ematea. Eztabaida luzearen ondoren, bozketa egin da. Batzordearen proposamenak 5 boto lortu ditu alde, 7, kontra, eta 5, zuri. Beraz, ez da onartu. Bigarren proposamen bat aurkezten da: bi sarrerak eman, *estutasun*-i lehentasuna emanaz. Hots: *estuasu*n* *e. estutasun* alde batetik, *estutasun*, bestetik. Proposamen berri honen aldeko botoak 11 izan dira. Kontrakoak, 4 eta zuri, 3. Beraz, horrela onartua gelditu da.

Etsamina forma dela eta, hitz hau batez ere Iparraldean erabiltzen dela esan da. Hegoaldean, badu ordain oso erabilia: *azterketa*. Horrenbestez, *etsamina* forma da proposatu eta onartu dena. Eta horrekin batera, *etsaminatu*.

Etsenplu hitzaren kasuan, honako ohar hau bakarrik erantsiko zaio sarrerari: 'adibide, eredu', bat hobetsi gabe.

1.1.2. *Hiztegi batuko ez-fotografo* zerrenda onartzea.

Zerrenda honi E. Knörr-ek, J. L. Davant-ek eta X. Kintanak egin dizkiete oharrak.

E. Knörr-en lehenbiziko oharra (*ez* izena ere izan daitekeela, alegia), besterik gabe ontzat eman da. *Ezagutza* egin-i buruzkoa ere onartu da. *Ezagutza*-ren azpian sartuko da. *Ezdeus* sarreran izen nahiz izenondo izan daitekeela adieraztea ere onartu da. *Ezen* ez-i ere azpi sarrera emango zaio.

Ezin dut etorri bezalakoei sarrera emateari uko egin zaio. Baina aditzik gabe ematen denean, *ezin du* esan behar dela aipatu da eta sarreran horrela adieraztea onartu da.

Faksimile-ri buruz, batzordeak idazkera horren ondoan *facsimile* ere onartzen du.

Faborez eta *mesedez* biak parekotzat ematea onartu da.

Gainerako oharrak ez dira onartu.

Davant jaunaren oharrak direla eta, batzuk jadanik erabakiak dira eta besteak gero-roko eztabaidan ebatziko dira.

X. Kintanak *ezeuki* + *e. ezeduki*-ren ordeaz, *ezeuki** *e. ezeduki* jartzea eskatzen du eta hala onartu da.

Ezpata-ren sarreran ageri diren *ezpata(-)dantza* bezalako idazkerez eztabaida izan da. Sarasolak, *ezpatadantza* baturik idaztea onartu aurretik gaurko erabilera zein den jakin beharko litzatekeela esan du. Horretarako, EEBS-ko datuak kontsultatu beharko liratekeela. Horrenbestez, erabakia hurrengo bileran hartuko da, behar bezala oinarriturik.

Forjari hitza sartzea onartu da.

Batzordeak, bere aldetik, *flanela* eta *fondo* (diruzkoa) eranstea proposatu du. Lehenbizikoa sartzea onartu da eztabaida labur baten ondoren. *Fondo*-hitza dela eta, E. Knörr-ek *funis* hitzaren tokia aztertzea proposatzen du eta mahai gainean uztea eskatzen hurrengo bilera arte. Hala onartu du batzarrak.

Film ala *filme* behar duen eztabaidatu da ondoren. Arrazoi desberdinak eman dira, fonologikoak, usadiozkoak, etab. Azkenean, botoetara jo da. *Film* formaren alde, 14 boto. *Filme*-ren aldekoak, 3. *Filma*-ren aldeko bat ere ez, eta zuri, 2 boto.

Honen haritik, *filmoteka* hitzari buruzko erabakia hurrengo bileran hartzeko utzi da.

Fluor hitzaren inguruko eztabaida etorri da gero. Bozketaren emaitza honako hau izan da: *fluor*-en alde, 15 boto; kontra, 1 eta zuri beste bat.

Foral hitza zerrendan sartua ageri da. Batzordeak dioenez, bere garaian Euskaltzaindiak polizia izenen zerrendan sartu zuelako. Polizia mota bat ezezik izenondo gisa ere zenbaitetan erabilgarri gertatzen dela aipatu da. Horrenbestez, *foral* sarrera onartu da izena nahiz izenondo dela adieraziz.

Zerrenda berriak aurkeztea.

Hurrengo bilerarako Hiztegi Batuko *fotokonposaketa-gainalde* zerrenda eta Exonomasitikako *Mundu zabaleko uharteak* zerrenda aurkeztu dira. Salaburu jaunak gal-

degin die Onomastika batzordeko kideei ea pertsona izen normalak aztertzen ari diren. Baietz erantzun zaio.

Bestalde, Onomastika batzordeak, lehen onaturiko santu izenen zerrendari aldaketa-gehipen zenbait ezarri dizkio (*Antolin-Tiburtzio* bitartekoak). Hauek ere hurrengo bileran aztertuko dira.

Hemen bilera eten egin da Donostiako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinadura ekitaldiari leku egiteko.

Donostiako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena.

Donostiako Udalak Euskaltzaindiari bere lanetarako bulegoak uzteko akordioa sinatu dute ondoren alkateak eta euskaltzainburuak. Ekitaldi hau kazetarien aurrean egin da.

Ramon Exezarreta zinegotziaren hasierako hitzen ondoren, alkateak hartu du hitza Euskaltzaindiaren eta Donostiako udalaren artean gero eta sakonagoa izatea nahi lukeen lankidetzara erakusgarritzat aurkeztuz sinadura ekitaldia. Donostiako udala euskarari buruz gero eta konpromiso handiagoa hartzen ari dela esan du. Hau dela eta, Aholku Kontseilu bat abian jartzeko asmoa aipatu du eta horretarako Euskaltzaindiaren laguntza espero duela. Bi erakundeek arteko adiskidantza aipatuz eta udalaren laguntza osoa eskainiz amaitu du euskaraz eta gaztelaniaz egin duen hitzaldia.

Alkateari euskaltzainburuak erantzun dio egun honetan sinatzen den akordioak berekin dakarrenagatik eskerrak bihurtzeko eta etorkizunerako adierazi dituen asmoengatik sentitzen duen atsegina azaltzeko.

Azkenik, idazkariak goizeko bilkuran, eten den arte, tratatuaren berri eman die kazetariei. Bereziki, Euskaltzaindian betetzeko dagoen hutsunerako aurkeztu diren hautagaien berri eman die. Hautagaiak onartuak izan diren galdetu du kazetari batek eta erantzun zaio, artean aurkeztu baino ez direla egin. Onartzen diren ala ez gero ikusiko dela eta bozketa, berriz, Euskaltzaindiak martxoan Ultzaman egingo duen bileran egingo dela.

Ekitaldiaren ondoren, euskaltzainek lehengo gai-zerrendari ekin diote atzera.

2. Frantziako Estatu Kontseiluaren erabakia hizkuntza minoritarioez.

Frantziako Estatu-Kontseiluak Frantziako hizkuntzei buruz eman duen iritzia dela eta euskaltzainburuak agiri bat aurkeztu du Euskaltzaindiak onar dezan. Hainbat herri-tarren eskariz bere iritzia eman behar izan duela, baina Euskaltzaindiak ere bere iritzia ematea bidezko eta beharrezko dela. Dokumentuaren idazkerari eta mamiai dagozkion zenbait ohar egin dira eta horrela onartu da testua (ik. eranskina). Zuzendaritzak agiri hau, frantsesera eta gaztelaniara behar bezala itzulirik, egoki irizten dien erakundeetara helaraziko du.

3. Alfonso Irigoienek hutsartea hornitzea.

Euskaltzainek hiru hautagai aurkeztu dituzte: Andres Urrutia jauna aurkeztu dute L. Villasantek, J.A. Aranek eta E. Knörrek. Andolin Eguzkitza jauna, Federico Krutwig-ek, Piarres Xarritonek, Txomin Peillenek eta Xabier Kintanak aurkeztu dute. Eta higararren hautagaia, Andu Lertxundi izan da. Honen aurkezleak J. M. Lekuona, P. Sa-

laburu, J. San Martin eta Ibon Sarasola izan dira. Aurkezpen honen berri jadanik kazetariei ere eman zaie.

Nolanahi ere, hautagaien onarpena dela eta, idazkariak, araudiaren 34. artikulua eskuetan, hautagaitza bat merezimenduen zerrendarik gabe aurkeztu dela aipatu du eta euskaltzainen iritzia eskatu. Zerrenda hori prestatzen ari direla erantzun zaio eta berehala izango duela Euskaltzaindiak bere esku. Batzartuek ontzat eman dute erantzuna eta, horrenbestez, hiru hautagaiak aurkeztutzat ematea onartu da.

Hurrengo bileraz.

Hurrengo bilera Iraizotzen izango dela gogorarazi zaie euskaltzainei. Aste Santuadela medio, gainera, aurreratu egin da. Martxoaren 21 eta 22an bilduko da Euskaltzaindia: ohiko bilera martxoaren 21 goizean izango da eta, ondoren X. Barne Jardunaldiak, A. Polikarpo Iraizozkoaren omenezko ekitaldi batekin amaitzeko larunbat eguerdian.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga

Iraizotzen, 1997ko martxoaren 21ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
 E. Knörr, euskaltzainburuordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 P. Altuna,
 M. Azkarate,
 P. Charritton,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 X. Kintana,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 B. Oihartzabal,
 F. Ondarra,
 Tx. Peillen,
 P. Salaburu,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 L. Villasante,
 P. Zabaleta
 eta A. Zavala euskaltzainak
 eta
 J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea
 eta J.J. Zearreta, ekonomi eragilea.

Iraizotzen (Ultzaman), Kontzeju etxean, 1997ko martxoaren 21ean, goizeko 10 eta erdietan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroako bilkurari. Ondoko zutabea aipatzen diren kideak etorri dira. J. A. Arana Martijak ezin etorria adierazi du. E. Knörr jaunari eman dio ahala.

Aurreko agiria onartzea.

Urtarrileko batzarraren behin-behineko agiriari E. Knörr eta M. Azkarate euskaltzainek zenbait ohar egin dizkiote. Horiek jasorik ontzat eman da agiria.

Doluminak.

Euskaltzainburuak Lourdes Oñederra euskaltzain urgazle eta Ahoskera azpi-batzordearen buruaren gurasoen istripuzko heriotzaren berri eman du eta Euskaltzaindiaren izenean dolumina adieraztea eskatu. Hala egitea onartu da.

1. Hizkuntz arauak:

1.1.1. Exonomastika: Santutegiko ohiko izenak: Antolin -Tiburtzio bitarteko gehigarria onartzea.

Inork oharririk helarazi ez duenez, besterik gabe eman da ontzat gehigarri hori.

1.1.2. Exonomastika: Mundu zabaleko uharteak: Adamen Zubia - Ithaka onartzea.

Zerrenda honi buruzko oharririk ere ez da iritsi. Hala ere, zenbait akats nabarmen zuzendu beharra ikusi da: *Balear uharteak*, eta ez **Balera uharteak* (2. orr.). *Faroeetan / Faroeetako* eta ez, **Faroetan / Faroetako*; *Frantzisko Josef* eta ez **Frantzisko Josefeen*, (4.orr.). *Haizealdeko uharteak* eta ez **Haizaldeko uharteak*, edo *Haizeboko uharteak* eta ez, **Haizepeko uharteak* (5. orr.). Bestalde, 5. orrialde honetan bertan, *Îles du Vent* eta *Îles sus le Vent* frantses deiturak ere zalantzaragarriztat jo dira eta ziurtatu beharrekoak. Gauza bera gertatzen bide da beste frantses izenekin ere.

Beste zenbait ohar, mamiari zuzenago dagozkionak izan dira. Batetik, *artxipelago*-ri dagokionak hiztegi batuarekin badu zerikusia eta eztabaidatu beharrekoztat jo da. Gauza bera gertatzen da *lurralde* hitzarekin (cf. '*Suaren lurraldea*'). Finkatu behar da hau ere. Hiztegi Batuko lantaldeak ekarriko du honi dagokion txostena eta hurrengo bileran eztabaidatuko da.

Ohar hauek gorabehera, ontzat eman da zerrenda.

Ondoren, Exonomastika batzordearen *Mundu zabaleko uharteak (Jamaika ...)* ize-neko zerrenda aurkeztu da. Ohi bezala, oharra aurkezteko epca hilaren 20a artekoa izango da.

1.2.1. Hiztegi Batuko *ezpata(-)dantza*), *filmoteka*, *fondo* hitzak erabakitzea.

Ezpatadantza hitzari buruzko txostena aurkeztu da. Txosten horren argitan, eta kon-tuan izanik *ezpata dantzaz* gainera beste *dantza* asko direla, batzordeak bere proposa-mena lehengoan uztea proposatzen du, hots: *ezpata-dantza* nahiz *ezpata dantza*. Sa-trustegi jaunak hitz horrek bere bidea egina duela uste du eta nahiago lukeela baturik idaztea, baina batzordearen arrazoiak entzun ondoren, onartzen duela proposamena. Hala onartu da.

Filmoteka hitzaz ere aurkeztu da txostena. Proposamena da hitz hori mikrofilmen gordailua adierazteko gordetzea. Gainerakoan, *e. zinemateka* oharra eranstea. Hortaz, bi adiera izango ditu: 1. 'mikrofilm bilduma'. 2. * *e.zinemateka*.

Ondoren, *fondo* eta *funts* hitzen arteko auziaz izan da eztabaida. Badirudi 'fondo' hitza banka munduan aski sartua dagoela eta bildur izateko da ea *funts* bezalako bat onartzeko prest egongo ez ote diren. Batzuek biak onartzearen aldeko agertu dira. Era guztietako argudioak mahairatu dira. Knörr jaunak Euskaltzaindiak duen pedagogiazko eginkizuna ere aipatu du *funts*-en alde agertuz. Azkenean honako proposamen hau bozkatu da: "*Fondo, h. funts*". Hona hemen bozketaren emaitza: proposamenaren alde: 13 boto; kontra: 6; zuri: 3. Beraz, aipatu proposamena onartu da.

1.2.2. Hiztegi Batuko *fotokonposaketa-gainalde* zerrenda onartzea.

Aurkeztutako oharren eztabaidarekin hasi baino lehen, I. Sarasolak euskaltzainek eskuartean duten zerrendari, aurreko bileran onartutakoaren arabera, zuzenketa bat egin behar zaiola adierazi du: *franela* inolako oharrik gabe agertu beharrean, honela behar duela, alegia: *franela* * *e. flanela*.

Ondoren, E. Knörr-ek eta Tx. Peillen-ek egindako oharra eztabaidatu dira.

Knörr jaunak *freno* hitzaren ordez *galga* hitza proposatzen du. Azken hitz honek oraindik ere indar osoa ote duen ez bide dago argi. Azken urteotako datuak zein diren ikusi arte erabakirik ez hartzea eskatu da. Horrenbestez, hurrengo bilerarako utzi da eztabaidagai hau.

Fruta hitzari buruzko oharra ez da onartu, zerrendan agertzen dena aski delakoan.

Fuera hitza beharrezkoa ote den galde egiten du Knörrrek. Zerrendan, hitz hori, behar dituen ohar eta debekuekin agertzen dela erantzun zaio eta ongi dagoela dagoen bezala.

Fuselaje-ri buruzkoa ere ez da onartu, zerrendan ematen den informazioa hobetsiz.

Gabon hitzaren inguruko proposamena ontzat eman da nolabait. Honela gelditu da azken erabakia: Gabon Heg. 1. 'gau on'; 2 pl 'Eguberri'.

Peillen jaunaren oharrak direla eta, lehenbizikoa, *fotokonposizio*-ri buruzkoa, ez zaio onartu, beraz zerrendan dagoen bezala onartu da. Bestalde, *fotokopia*, *fotosintesi*, *franko*, *fresa* eta *furgoneta*-ri buruzko oharrak direla eta, hurrengo bueltarako uztea erabaki da.

Frantziman hitzari buruz, honako hau onartu da: *Frantximant Ipar*. Eta *futbol-zelai* dela eta, hitz hori *futbol*-en azpisarrera gisa ematea erabaki da. *Futbol(-)zelai*, hortaz.

Hurrengo bilerarako zerrenda ere aurkeztu da: *Gainazal-garaño*. Oharrak egiteko epea hilaren 20an amaitzen da, ohi bezala.

2. Alfonso Irigoien euskaltzainaren hutsartea hornitzea.

Aurkeztutako hiru hautagaien bozketa egin aurretik, X. Kintanak hartu du hitza, besteak beste berak sinatutako hautagaitzaz hitzegiteko. Euskaltzainburuak hitza kendu dio berehala eta eztabaida labur bat izan da, prozedurazkoa, hautagaitza aurkezteko baldintzak argi badaude ere, ez baita gauza bera gertatzen kontrakoarekin, alegia, aurkeztutako hautagaitza erretiratu nahi izanez gero jarraitu beharreko bideaz. Nolanahi ere, bere garaian aurkeztutako hiru hautagaien gainean proposatu da bozketa.

Lehenbiziko bozketaren emaitza honako hau izan da: A. Lertxundik, 10 boto. A. Urrutiak, 10 boto. A. Eguzkitzak, 3 boto. Horrenbestez, inork ere ez dituen behar diren botoak lortu, bigarren bozketari ekin zaio. Hona hemen bigarren bozketa honen emaitza: A. Lertxundik, 10 boto. A. Urrutiak, 12 boto. Eta A. Eguzkitzak, boto bat. Beraz, Andres Urrutia izango da Alfonso Irigoienek lekua beteko duen euskaltzainberria.

3. 1996 urteko diru kontuen errendapena.

J. J. Zearreta ekonomi eragileak eman du, puntuz puntu, 1996 kontuen berri, euskaltzainen zalantzak argituz eta azalpenak emanaz.

Kontu errendapen honek hizpidea emanik, Xarritton jaunak esan du argitalpenei buruzko propaganda orritxoak gaizki eginak daudela: maiz ez omen da lan baten egilearen izenik aipatzen, hori delarik egiatan interesgarriena dena sarritan. Bestalde, Altunak galde egin du ea nola jakin daitekeen edizio baten funtsak zertan diren, zenbat ale gelditzen diren etab. Honi erantzun zaio esanaz funts horiek ordenatzen ari direla biltegian, horretarako apalategia ere erosia delarik. Hemendik aurrera inbentarioa automatizatzeke moduan izango omen gara eta horrela, zehatz-mehatz jakingo, zertan diren gauzak.

Azkenik, Ondarrak galdetu du ea Euskaltzaindiak zuen zulo hura handituz doan ala txikituz. Emaitza aski orekatua izan denez, zuloa ere pentsatutako bidetik txikituz doala erakutsi du egindako kontu errendapenak.

4. Eskuartekoak.

4.1. Euskaltzaindiaren adierazpena.

Azken bileran Frantziako Estatu Kontseiluak hizkuntzei buruz emandako iritziaz Euskaltzaindiak onartutako adierazpenari egin zaion zabalkundeaz hitzegin du euskal-

tzainburuak. Agiri hori frantseseratu da eta zabaldu. Chirac jaunari eta gainerako Gobernu kideei eta Frantziako eta Europako administrazioako zenbait kideri ere bidaliko zaie.

4.2. *Izabako udalaren eskaria.*

Izabako udalak Bernardo Estornes Lasa jauna *Bianako Printzea* delako sarirako hautagai aurkeztu du eta Euskaltzaindiari eskari horrekin bat egitea eskatu zaio. Atxikimenduzko gutun hori egitea onartu da Estornes jaunaren eragile-lana aipatuz bereziki.

4.3. *Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Giza eta Gizarte-Zientzien saria.*

Joan den urtean egin zen bezala, zuzendaritzak aurten ere L. Villasanteren curriculum-a aurkeztea erabaki du. Erabaki honen berri eman die euskaltzainburuak euskaltzainei.

4.4. *Bibliotekario berria.*

Ezarritako frogu guztiak gainditu ondoren, Pruden Garcia izan da azkenean hautatua eta honen berri eman du euskaltzainburuak.

Hau dela eta, Salaburu jaunak galdetu du ea Euskaltzaindiak noiz hartu duen lanpostu hau hornitzeko erabakia. Lizundia jaunak erantzun dio Gasteizen egindako azken bileran erabaki zela deia egitea. 26 mailarekin ateratzea zuzendaritzak erabaki zuela. Salaburuk erantzun dio maila kontu honek ere Euskaltzaindiaren erabakia izan behar zuela.

4.5. *Batzorde horniketa.*

Aurreko bileran onartutakoari zenbait aldaketa/gehiketa egin behar zaizkiola esan du euskaltzainburuak. Alde batetik, Hiztegi Batuko lantaldeari Koro Navarroren eta Miriam Urkiaren izenak gehitzea proposatu eta onartu da. Bestalde, Ahoskera azpibatzordearen idazkari izateko, Pilartxo Etxeberria proposatzen da Iñaki Gaminderen ordeiz. Hau ere onartu da. Eta azkenik, Herri Literatura azpibatzordearen arduradun izateko prest agertu ez direnez ez A. Zavala ez, E. Larre, J. M. Lekuonaren izena proposatu du euskaltzainburuak eginkizun horretarako eta hala onartu da (ik. eranskina).

5. *Azken ordukoak.*

Korrika-n parte hartzeko eta kilometro bat Euskaltzaindiaren izenean egiteko norbaiten izena ematea eskatu da. X. Kintana ikusi da horretarako egokiena eta horrela onartu.

E. Knörr-ek M. Oñatibia jaunaren heriotzaren berri eman du eta Euskaltzaindiak bere dolumina agertzea bidezko litzatekeela adierazi. Hala egitea erabaki da.

Eta honenbestez, ordu biak direla, amaitutzat eman da goizeko bilera.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga

Bilbon, 1997ko apirilaren 25ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
 E. Knörr, euskaltzainburuordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 M. Azkarate,
 P. Charritton,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 X. Kintana,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 J. M. Lekuona,
 B. Oihartzabal,
 P. Ondarra,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 A. Urrutia,
 L. Villasante,
 eta P. Zabaleta
 euskaltzainak
 eta
 J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea
 eta Mikel Gorrotxategi, Onomastika bat-
 zordeidazkaria.

Bilbon, 1997ko apirilaren 25ean, goizeko 10ak eta laurdenetan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko bilkurari. Ondoko zutabea aipatzen diren kideak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute honako kide hauek: P. Altunak, Tx. Peillenek eta Pello Salaburuk.

1. Aurreko agiriak onartzea.

Aurreko hileko bi agiriak, inork oharrik egin ez baitu, ontzat eman dira besterik gabe.

2. Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuak ongi etorria egin dio Andres Urrutia euskaltzain berriari bere izenean eta euskaltzain guztienean. L. Villasante jaunari ere zorionak eman dizkio lortu berri duen Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutzaren aurtengo 'Euskadi' sariagatik.

Azkenik, Sarasola jaunari ere eskerrak eman dizkio, agindu bezala, euskaltzain guztiek oparitzat jaso berri duten Hiztegiagatik.

3. Hileroko batzarretako lan banaketaz gogoeta.

Ondoren, zerrendako gaien hurrenkera aldatuz, mahaiburuak idazkariari eman dio hitza hileroko bileretan egiten den lanari buruz bere txostena aurkezteko. Proposamena da araugintza lana indartzeaz gainera, Euskaltzaindiaren bestelako lan akademikoei pisu handiagoa ematea. Horretarako batzordeei sarriago eman beharko litzaieke hitza eta baita euskaltzainei ere. Ondorio gisa, bilerak, zenbaitetan behintzat, arratsaldera ere luza-tzea ekarriko du horrek, beti ere agenda egokia prestatuz.

Euskaltzainburuak erantzun dio esanaz bart bildu direla Euskara Batuko batzor-dearekin eta hauek hitz eman dutela hemendik aurrera hilean bi bider bilduko direla: hilaren bigarren ostegunean eta bilera egun bezperan. Horrela, seiehun bat hitz "atera-tzeko" moduan izango direla eta, horrenbestez, hauek "liseritu" beharko dituela Eus-kaltzaindiak ere bere hileroko batzarretan.

Goiz eta arratsalde lan egiteari ongi iritzi diote bilduek. Kintana jaunak esan du bilera irekiak izango liratekeela urgazleak geureganatzeko bidea. Xarritton jaunak planing-a egitea eta batzordeei hitza ematea azpimarragarritzat jo ditu. Adibidez, ordua dela esan du Ahoskera batzordekoak zerbait esaten has daitezen, “j”-ren ahoskeraz, esaterako. Bestalde, Euskaltzaindiaren sail bat asko hazi dela uste du, Iker saila, alegia. Ekonomi batzordea ere bai. Baina Jagon saila ez omen da hazi. Gai honetaz ere go-goetatxoren bat egin beharko litzatekeela uste du Xarrittonek.

4. Hizkuntz arauak.

Exonomastika: Mundu zabaleko uharteak (Jamaika-Zipre) onartzea.

P. Ondarraren oharrak aztertu dira. *Novaia Zembla* dela eta, *Zembla Berria* deitura onetsi du batzarrak. Horrela joango da, hortaz, zerrendan.

Halaber, *Principe uhartea* deitura onartu da, bitasunetik ihes eginez.

Puerto Rico eta *Mallorca*, *Menorca*-ri buruz ere eztabaida luzea izan da. Bozkatu dira biak, bakoitza bere aldetik, eta honako emaitza izan da: *Puerto Rico* idazkerak 18 boto izan ditu alde. *Mallorca*-k, 13. Idazkera horretan gelditu dira, horrenbestez, uharte horien izenak.

Artxipelago hitzaren arazoa.

Martxoko bileran hitz honen arazoa airean gelditu zen hurrengo bilera batean erabakitzeko. Corpusean denetik ageri da. Hala ere, nazioarteko forma nagusia *artxipel* dela dirudi eta, horrenbestez, *artxipelago* hitza proposatzen da. Honek, hala ere, ez du esan nahi *uhartedi* hitza ezin erabil daitekeenik.

Eztabaidan zehar, beste proposamen bat sortu da: *uhartedi* eman lehenbizi eta aipatutako ohar horren antzekoa gero. Botoetara jo da. Lehenbizi, batzordearen proposamena bozkatu da. Bost boto lortu ditu. Ondoren, *uhartedi* hitzari lehentasuna ematearen aldeko proposamenaz eskatu zaie iritzia euskaltzainei. Proposamen honek 14 boto lortu ditu. Beraz, *uhartedi* izango da lehen mailako hitza. Dena den, *artxipelago* hitza ere hiztegian A letraren barruan sartu beharko da. Behar diren oharrak behar den momentuan egingo dira.

Lurralde hitza ere eztabaidarako utzi zen, ‘tierra’ hitzaren ordain gisa. *Suaren lurraldea* gordetzea proposatzen da. Hori omen da, bere urrian, testuetan dabilena. *Suaren* ala *suzko* behar ote duen ere galdegin da. Satrustegi jaunak dio dudarik ez dela “del fuego” dela. Horrenbestez, *Suaren Lurraldea* onartzen da. Horrek esan nahi du *lurralde* hitzarentzat ere adiera hori onartzen dela.

Hiztegi Batuko gainazal-garaño zerrenda onartzea.

Aurkeztutako zerrendari P. Ondarrak eta E. Knörrek egin dizkiote oharrak.

Knörr jaunaren oharrak direla eta, *gaindikza* sartzea ez da onartu. Zerrendan da-goeneko *gaindika* eta *gainezka* jasotzen dira eta horiek oraingoz aski direla pentsatu da.

Bestalde, hitz honek bidea emanda, Zabaleta jaunak ahoz egindako proposamena onartuz, *gainka* eta *gainkatu* hitzei sarbidea ematea ongi ikusi du Euskaltzaindiak.

Gainera hitzari buruz oharrean eskatzen dena ez da onartu. *Gainerateko* hitza falta dela dio Knörren oharrak. Onartu da. "Ipar. h. gainerako" oharra duela sartuko da.

Gainetu eta *gainordoki* hitzak hurrengo pasaldirako utzi dira.

Gaitzigarri sartzeko eskabidea ez da onartu. Batetik, tradizio urria duelako eta, bestetik, jada *gaitzitu* hitza ageri delako zerrendan. Aski litzateke hori. *Gaitzitu* hitzaren sarreran adibide bat eranstea eskatzen du Knörrek. Onartu da eta honako hau izango da adibidea: "Bikarioaren jokoa biziki gaitzitu zitzaion Oxalderi".

Gaixo-ri buruz eskatzen dena jadanik jasoa dago zerrendan. *Gaixotegi*-ri buruzkoa, berriz, batzordeak uste du ez dela behar. Oraingoz aski dela forma soila ematea, adieretan sartu gabe.

Gakotu hitzarekin batera *gakatu* ere aipatzea onartu da. Baina honako ohar hau eramango luke alboan: "* e. gakotu". *Gako*-ri buruzko eskaria ez da onartu.

Galapan hitza hurrengo pasaldirako utzi da.

Galdegin hitza testu idatzietan baturik ageri omen da. Horrenbestez, *galde* egin idazkera kontuan hartzeko eskaria ez da onartu. *Galdekizun* hitzaren esanahia ezartzeko eskariari ezetz erantzun zaio. Oraingoz dagoen bezala uztea hobe dela, alegia.

Ganderailu hitza ere onartu da, honako ohar hauek alboan dituela: "Ipar. h. argimutil. 2. h. kandelario." Dena den, *argimutil* hitza bera ere sartu ez zenez, biak geroko uztea erabaki da, hurrengo pasaldirako.

Ganga hitza ere dagoen bezala uztea erabaki da, arkitekturan ez ezik, anatomian ere erabiltzen dela adieraziz.

Gantzatu hitza hurrengorako utzi da. *Garaño* hitza berriz, Knörren oharra gora-behera, zerrendan datorren bezala uztea onartu da.

Azkenik, *garaje/garage* hitzaz izan da eztabaida. Botoetara jo da eta hamazazpi izan dira *garaje* formaren aldekoak. Beraz, forma hori dagoen dagoenean agertuko da zerrendan.

Nolanahi ere, arazoa behin eta berriz mahai gaineratzen denez, *g/j-ri* buruzko txosten bat ekarriko da aurki.

Onoreen, zerrendan eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertzeari ekin dio batzarrak.

Corpusak ematen duen informazioa kontuan harturik, *gaizpide/gaizbide* bikotearen artean *gaizpide* onartu da.

Onoreen, *ganbara* hitza izan da eztabaidagai. Hitz honetaz idatzizko oharrak Knörr jaunarena eta P. Ondarrarena izan dira. Iparraldean bi forma nagusi ditu: *ganbera/ ganbara*. Hegoaldean, berriz, *ganbara* beste zerbait da. Aurkezten den proposamena da bi formak jasotzea berezko joera piska bat bortxatuz bada ere. Hala onartu da.

Gar hitzaren kasuan, *gar/kar* bikotea proposatzen da. Baina irudizko adierarako *kar* forma hobestea onartu da. Horrenbestez, bigarren adierarako "h. kar" oharra erantsiko zaio.

Bestalde, *gara* hitza ere eztabaidagai izan da. Zerrendan ematen den adieraz gainera, bigarren bat ematea ontzat eman da. Honela: '2. Ipar. * e. (tren)geltoki'.

Garaile/garaitzaile bikotea jasotzea onartu da. Biak emango dira maila berekotzat.

Gero, *galga* hitzaren inguruan izan da eztabaida. Azkenean, honela formulatu da hautua: “Freno, h. galga” jarri ala biak parekotzat eman? Bozkatu da eta biak parekotzat ematearen aldekoak bi boto izan dira. *Freno* hitza baino *galga* hobestearen aldekoak, berri, 13 boto izan dira. Horrenbestez, *galga* bere horretan utziko da. Hitz honekin batera, azpisarrera gisa, *galga eman* ere jasoko da. Eta *freno* bere lekuan sartu beharko da aipatu oharra ondoan ezarritz.

Hiztegi batuko hurrengo zerrendaren aurkezpena

Hurrengo bileran aztergai izango den zerrenda (*garandu-gogoangarri*) banatu da eta aurkeztu, eztabaidarako utzi diren hitzak bereziki azpimarratuz. Beti bezala, oharrak aurkezteko epea hilaren 20a artekoa izango da.

4. Baraiaingo Udalaren deialdiaz Nafarroako Epaitegi Gorenak 1997ko otsailaren 20an emandako epaiari buruzko Euskaltzaindiaren adierazpen proposamena.

Patxi Zabaleta euskaltzainak aurkeztu du Nafarroako euskaltzainen artean prestatutako behin behineko testua. Honi zenbait iruzkin eta ohar egin zaizkio. San Martin jaunak testuaren hasieran Euskaltzaindiari errege dekretuak berak egotzen dizkion egin-kizunak hitzez hitz jasotzea komeni dela esan du. Urrutia jaunak azken paragrafoari gogorregi irizten dio eta aldatzeko eskatu du. Beste zenbait euskaltzainen iritziak entzun ondoren, Zabaleta eta Urrutia euskaltzainen esku utzi da behin betiko testua lantzea (Ikus eranskina). Jadanik jendea Euskaltzaindiaren adierazpen honen zai omen dago eta lehenbailehen zabaltzea komeni dela aipatu da. Euskaltzainburuak euskaltzain nafarrei eskatu die testuaren zabalkundeaz arduratzea. Iruñetik bertatik egingo da prentsa-zabalkunde, zuzendutako testuaren disketea hara helaraziz.

5. Eskuartekoak.

5.1. Nafarroako Toponimia eta Mapagintza izeneko lana helarazi dio Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari.

Euskaltzainburuak Euskaltzaindi osoaren izenean Nafarroako Hizkuntz Politikako zuzendari nagusi den Perez de Viñaspre jaunari eskerrak bihurtzeko proposamena egin du eta hala onartu da.

5.2. EHU-ko Ingeniari Eskolaren gonbitea.

Ingeniariaren Eskola honek aurtien ehun urte egiten dituela eta gonbitea egin dio Euskaltzaindiari urriko batzarra bertan egin dezan. Euskaltzaindiaren bileraz gainera ekitaldi akademiko bat antolatu nahi dute eskola horretako irakasle izan zen Pompeu Fabren eta Koldo Mitxelenaren omenez. Euskaltzaindiak aho batez onartu du gonbidapen hau eta hala adieraziko zaie gutunaren sinatzaile agertzen diren unibertsitateko arduradunei (J. A. Legarreta jaunari eta Miren Azkarate andreari).

6. Azken ordukoak.

Azkenik Euskaltzainburuak EAJ-ko ordezkariekin egindako bileraren berri eman du. Hain zuzen, duela zenbait hilabete, Euskaltzaindia gonbidatu zuen EAJ alderdiak. Atzo gonbitea itzuli zaie eta zuzendaritzako kideek eta alderdi politiko horretako ordezkariak bilera izan dute. Euskaltzaindiaren asmoak, lanak eta egoitza erakusteko parada izan dutela adierazi du euskaltzainburuak.

Bestalde, J. M. Satrustegi jaunak esan du Amadeo Marcoren biografia argitaratu dela eta, ziur aski, Euskaltzaindiari interesa dakiokela aleren batzuk eskuratzea. Haritschelhar jaunak baietz erantzun dio eta, behar bada, euskaltzain guztientzat ere interesgarria izan daitekeela.

7. In Memoriam Joan Coromines.

Duela zenbait hilabete hil zen Joan Coromines euskaltzain ohorezkoaren omenezko txostena irakurri du E. Knörr euskaltzainak, filologo handiaren bizia eta lanak eta Euskal Herriarendako eta euskararendako erakutsi zuen jaiera gogoratuz.

8. Biblioteka zuzendari berriaren aurkezpena.

Azkenik, Euskaltzaindiak kontratatu duen biblioteka zuzendari berria, Prudentzio Garcia jauna, aurkeztu zaie euskaltzainei. Arana jaunak egin du kontratazio honetarako eraman den prozeduraren laburpen gisako bat eta ondoren euskaltzain guztiek izan dute aukera zuzendari berria agurtzeko.

Eta honenbestez, ordu biak direla, amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga

Donostian, 1997ko maiatzaren 30ean

E. Knörr, euskaltzainburuordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 P. Altuna,
 P. Charritton,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 X. Kintana,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 J. M. Lekuona,
 B. Oihartzabal,
 P. Ondarra,
 Tx. Peillen,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 A. Urrutia,
 eta L. Villasante,
 euskaltzainak

eta Donostian, Foru Diputazioaren jau-
 regian, 1997ko maiatzaren 30ean, goize-
 ko 10ak eta laurdenetan, eman zaio
 hasiera Euskaltzaindiaren hileroko bil-
 kurari. Ezkerraldeko zutabea aipatzen
 diren kideak bildu dira E. Knörren bu-
 ruzagitzean. Ezin etorria adierazi dute
 honako kide hauek: J. Haritschelharrek,
 M. Azkaratek eta Pello Salaburuk.

Aurreko agiria onartzea.

Aurreko hileko agiriri ohar xume batzuk
 egin dizkio E. Knörrek. P. Ondarrak bere
 izena zerrendan ezartzea eskatu du. Zu-
 zenketa horiekin, agiria ontzat eman da.

Doluminak

Mahaiburuak berrikitan gertatu den J.J.
 Zearreta ekonomi eragilearen amaren he-
 riotzaren berri eman du eta Euskaltzain-
 diaren dolumina erakutsi.

1. Hizkuntza arauak.

1.1.1. Hiztegi Batuko garandu-gogoangarri zerrenda onartzea.

Euskaltzainek aurkeztutako oharrak aztertzeari ekin aurretik, batzordeak berak, I. Sarasolaren ahotik, zerrendari bi sarrera gehiago eranstea proposatu du: batetik, *geu-reganatu* hitza erantsi behar zaio eta, bestetik, *gramoren* sinboloa den *g* sarrera ere bere tokian agertuko litzateke.

Onorene, E. Knörrek aurkeztutako oharrak aztertzeari ekin diote euskaltzainek.

Oharren artean, *garaino/garaño* auzia berriz aztertzea eskatzen da. Sarasolak eran-
 ztuten dio, datu berririk ez denez, batzordeak lehengoari eusten diola. Horrela utzi da,
 beraz, kontua.

Garbigailu-ren ondoan *ikuzkailu* hitza ere sartzea eskatzen du ohargileak. Honek,
 hala ere, arazo bat du, *ikuzgailu/ikuzkailu* formen arteko hautua egin behar baita. Bes-
 tetik, *ikuzi* hitzaren estatusa ere erabaki beharko litzateke. P. Charrittonek azaldu du
ikuzi eta *garbitu* ez direla gauza bera: ikuztea urez egiten da. Horrenbestez, gero ikusi
 beharko da kontu hau.

Garbitasun hitzaren bigarren adiera bat ('documentos personales') ezartzeko eskaria ez da ontzat eman, lehenbiziko buelta honetarako behintzat.

Zerrendan *kardu* forma hobesten da *gardu*-ren kaltetan. Honen zergatiak galdegiten du Knörr jaunak. *Kardu*-ren nagusitasuna argi dagoela erantzun zaio. S. Martin jaunak esan du *gar* hitzarekin zerikusia duen *gardu* hitz bat ere badela. Hala balitz, geroko utzi beharko litzatekeela erantzun zaio.

Kartzela/gartzela hitz bikotearen kasuan, zerrendan ez bezala, E. Knörrek g-dun forma hobetsi beharko litzatekeela dio. Erantzuna izan da testuetan *gartzela* formarik ez dela ia ageri. *Kartzela* da nagusi. Iparraldean *presondegi* formak hartu du lehentasuna. Gainerakoan, Arestik sartu zuen *gartzela* forma eta hortik sortu bide da gaurko nahastea. Hala ere, gaur egun *kartzela* forma nagusitzen ari da. Horrela geratu dira gauzak.

Gartak hitza sartzea eskatzen da oharretan. Bigarren pasaldirako uztea proposatzen du batzordeak eta hala onartu da.

Gaskoiera hitza dela eta, hitz zerrenda honetan ez da hizkuntza izenik sartu orain arte. Onomastika batzordearen kontua da eta batzorde horrek landutako zerrendetan agertuko dira horrelakoak. Hortaz, Euskaltzaindiak hizkuntzen izenak (ofizialenak eta bestelakoenak) erabakiko ditu eta hauek gero erantsiko zaizkio zerrendari, argitaratzen denean.

Gatzandel, *gatzitu*, *gau*, *gaztigatu*, *general*, *gereta*, *gerizpe* eta *gerok* hitzei buruzko ohar-eskariak ez dira onartu.

Gerraontzi/gerrauntzi bikotea dela eta, Sarasola jaunak esan du batzordea *ontzi/untzi* bereizketarik ez egitearen aldeko zela eta *ontzi* forma nagusitzat ematearen aldeko. Nolanahi ere, datorren bileran aztertuko da berariaz gai hau, garrantzizkoa baita.

Gestio/festio bikotearen arteko hautua erabakitzeko dago oraindik. Hau ere hurrengorako, hortaz.

Gibelatu hitzaren bigarren adiera ('handicapé') jasotzea eskatzen da. Hitza jasoa dago zerrendan. Ez du ematen adieretan sartu behar denik, guztiz parekoa litzatekeen *atzeratu* hitzaren kasuan ere ez baita horrelakorik egin. Beraz, hitza dagoen dagoenean utzi da.

Giboi sarreran 'zimino mota bat' dela adieraztea erabaki da.

Giputz/gizpuzkoar hitzen falta nabaritu du Knörr jaunak. Erantzun zaio horrelakoak ez direla zerrenda honetan sartu. Gero, hizkuntza izenekin bezala, Onomastika batzordearen erabakiak sartzerakoan sartuko dira horrelako hitzak.

Gizon hitzaren ondoan giza- forma sartzeko eskariari buruz, esan da horrelakorik ez dela orain arte egin. Hitz osoak eman dira beti.

Gizakoi hitzak ez bide du nahiko lekukotasun eta, horrenbestez, bigarren pasaldirako uztea proposatu da.

Goait hitzari buruz izan da ondoren eztabaida. 'Zain egotea' baino zerbait gehiago da, antza: 'zelatan egotea' edo. B. Oihartzabalek adibideak eskatu ditu.

Governail hitza sartzea ez da onartu. Frantseskada hutsa denez, bigarren pasaldirako ere ez litzateke izango on.

Gobernutiar hitza bigarren pasaldirako utzi da.

Gaza/gasa hautua dela eta, Iparraldeko erabilera bada nazioarteko formarekin bat datorrena, hori eman beharko litzateke nagusitzat. Beraz, hau izan da proposamena:

gasa* e. gaza 'chun mota'.

Bozkatu da proposamena eta aldeko 15 boto lortu dituenek, ontzat eman da. *Gaza* sarrera, jakina, bere horretan utziko da zerrendan.

Gimnasia/gimnastika eztabaida argitzeko ere bozkatu egin da. Batzordearen proposamenak, *gimnastika* hitza hobesten duenak, 16 boto lortu ditu. Horrenbestez, onartua gelditu da.

Ondoen, *girstino* hitzaz galdetu zaie euskaltzainei, forma horri zenbateraino eutsi nahi dioten jakiteko asmoz. Kristau hitzaren erabat parekotzat ematea onartu da. Beraz, multzo berekoak diren lau hitzetan "h." ikurra ezabatu egingo da.

Eta jaso diren aldaketa hauekin onartu da zerrenda.

1.1.2. *Hiztegi batuko gogobete-hautsarazi* zerrendaren aurkezpena.

Gogobete-hautsarazi zerrenda aurkeztu da ondoren, hurrengo bileran aztergai izanongo dena. Beti bezala, hilaren 20rako aurkeztu behar dira oharrak.

Zerrendarekin batera, *ontzi/untzi* eztabaida argitzeko, euskaltzainei hitz hauei buruzko lekukotasun-bilduma banatu zaie. Auzi hau ere hurrengo bileran ebatziko da.

1.2.1. *-Go atzizkiaz proposamena aurkeztea.*

LEF batzordetik datorren proposamen hau eskuetan jarri zaie euskaltzainei. Berez, aurkezpena egitea zen asmoa, besterik ez, baina astia badela ikusirik, txostena eztabaidatzea erabaki da.

Hona hemen testuari ezarri zaizkion aldaketak:

Lehendabizi, izenburua bera honela geratu da: "*-Go atzizkia eta izen multzokariak*". Lehendabiziko paragrafoa, berriz, honela: "Batez ere Iparraldeko euskalkietako den atzizki honek *-a* organikoa izan du garai batean eta oraino ere badu, zubereraz. Hala ere, azken garaietan, *-go* forma nagusitu baita, honela onartuko da euskara batuan. Bi adiera nagusi izan ditu tradizioan zehar..."

Eta, azkenik, arauaren laburpena honela formulatua geratu da:

"Hau da, beraz, Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetatko irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak*, etab.

2. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria, ikasleria* edo *bezeria*.

3. *-Go* atzizkia erabil bedi:

- ofizioa, lanbidea, adierazteko: *artzaingoa*, *zurgingoa*, etab.

- tasuna adierazteko: *euskaldungoa*, *ahaidegoa*, etab.“

1.3. Euskaltzaindiak azken batzarrean emandako hizkuntz arauak.

Arau hauen artean *mundu zabaleko uharte nagusien zerrenda* aurkitzen da. X. Kintana jaunak zenbait huts badirela aipatu du eta zuzenketa proposatu: 2. orrialdeko 2. oharrean *nominatibo* ageri den lekuan *absolutibo* jartzea, eta leku berean, *Faroeetan*, *Faroeetara* barik *Faroeetan*, *Faroeetara* ezarri. Gauza bera 8. eta 13. orrialdeetan. 9. orrialdean, berriz, *Haizeldeko uharteak* ez, *Haizealdeko uharteak* baizik.

1.4. *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaratzeko irizpideei buruzko erabaki-proposamena.*

Onomastika batzordearen txosten hau banatu zaie euskaltzainei hurrengo bileran eztabaidatzeko.

Dena den, Euskara Batuko batzordearen iritzia zein litzatekeen azaldu du I. Sarasolak. Pertsona-izen klasiko hauekin zerrenda itxi bat egitea da helburua. Ohiko jokabidea euskaraz latinez duten forma berean ematea izango litzateke, salbu oso arruntak eta ezagunak diren kasuetan. Azken kasu hauekin osatu behar da, hain zuzen, zerrenda itxi hori.

Ondoren, M. Gorrotxategi jaunak egin du txostenaren aurkezpena. Euskaltzainei eskatzen zaiena da zerrenda mugatu hori, jatorrizko formatik zerbait bereizten diren hitzen zerrenda, alegia, osatzeko aplikatu behar diren iritzia finkatzea.

Kontu hau ere hurrengo bileran eztabaidatuko da. Oharrak, orain ere, hilaren 20rako bidali behar dira.

2. Eskuarztekoak.

Madrileko Kultura Ministerioak deitzen dituen Sari Nazionaletarako epaimahai-kideak eskatuko dituzte laster eta horretarako izenak proposatzeko beharra agertu du Lizundia jaunak. Hori dela eta, Premio Nacional de las Letras Españolas delakorako J. M. Satrustegi proposatzea onartu da. Gainerako sarietarako ordezkariak hurrengo batean aukeratuko dira. J. San Martín jaunak gogorazi du, dena den, inor Euskaltzaindiaren izenean doanean, erakundea behar bezala ordezkatu eta gure izen ona behar bezala zain-tzen saiatu behar duela.

3. Azken ordukoak.

Mahaiburuak Mariano Izeta jauna Baztango seme kutun izendatu dutela adierazi du eta, izendatze hau dela eta, Euskaltzaindiaren izenean zorionak ematea proposatu du.

J.M. Satrustegik, *Diario Vasco* egunkarian Latxaga jaunari egindako elkarrizketa bat dela medio, Euskaltzaindiari buruz esandakoak ekarri ditu mahai gainera. Euskaltzaindiak ez al du -galdetu du Satrustegik- komunikabideen aurrean zerbait egin behar bere burua babesteko? X. Kintanaren ustez, Euskaltzaindiari marketing piska bat falta zaio. San Martín jaunak esan du DV-ren burura jo behar dela esan du. On litzatekeela egunkari horretako buruekin elkarrizketa serio bat egitea gauzak bere neurrian jartzeko. Euskaltzaindia ez da iristen komunikabideetara zuzen litzatekeen neurrian eta hau kon-

pondu behar da. Adibidez, Barañaingo arazoaz egindako adierazpena ez dute egunkariak bere osoan eman. Horrelakoen aurrean zerbait egin beharra ikusi da.

P. Charrittonek beste zenbait puntu atera nahi izan ditu. Batetik, Baionako elizbarrutiak ireki berri omen duen 'centre de catéchèse' delakoarentzat *katetxe* euskal ordaina (?) asmatu omen dute. Hau dela eta, Euskaltzaindiak zerbait adierazi behar omen lieke honetan ardura dutenei.

Iruñean hizkuntza gutxituen egoeraz izan den sinposio batean izan omen da gonbidaturik, Nafarroako Ateneoan. Ateneo honetan bertan, geroago, beste biltzarren bat ere izan omen da baina oraingoan euskarari eraso egin omen zaio. Charrittonek hori onartezintzat jo du eta Euskaltzaindiak horrelakoen aurrean zerbait egin behar lukeela adierazi du. Satrustegik erantzun dio esanez, Ateneoa zerbait irekia dela eta bateko eta besteko iritziak eta erasoak botatzeko leku gertatzen dela.

Bestalde, aldizka-aldizka zabaltzen den *Albistorria* dela eta, Charritton jaunak bi puntu azpimarratu nahi izan ditu: a) orri hori euskaltzain oso guztiei helarazi behar litzatekeela eta b) on litzatekeela, gainerako berrien ondoan, xifra zenbait ematea ere, Euskaltzaindiaren diru gorabeherak azalduz. Lizundia jaunak erantzun dio orri hori dagoeneko euskaltzain gehienen eskuetara iristen dela, baina inolako arazorik ez dagoela euskaltzain oso guztiengana helarazteko. Eskatzen diren xifrez, berriaz, zuhurtziaren agindupean egon behar dugula eta ez dela on horrelako orri batean zenbait diru kontu azaltzea. Kontu horien berri euskaltzainek izango dute, baina ez, nahitaez, albiste orri batean.

Azkenik, Charritton jauna kexu agertu da edozeinek eskura dituen hiztegieta zuzenez eta neke handirik gabe kontsulta litezkeenak argitzeko beregana jo duelako Exonomaстика batzordeak. Erantzun zaio berak eskaini zuela bere burua testua berrikusteko.

Bide batez, Sarasola jaunak *Albistorri* deitura gaitzetsi du. Hobe litzatekeela *Albiste orri*.

X. Kintanak gogorarazi du garai batean Bilboko Aurrezki Kutxa Munizipalak urtero ikerketa sariak banatzen zituela, baina Bizkaiko bi kutxek bat egin zutenetik ez dela gehiago horrelakorik egiten. Hau dela eta, zerbait egin behar omen litzateke.

Eta besterik gabe, ordu bata eta erdietan amaitu da Euskaltzaindiaren batzarra.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga

Bilbon, 1997ko ekainaren 27an

J. Haritschelhar, euskaltainburua
 E. Knörr, buruordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 P. Altuna,
 P. Charritton,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 X. Kintana,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 J. M. Lekuona,
 B. Oihartzabal,
 Tx. Peillen,
 P. Salaburu,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 A. Urrutia,
 eta L. Villasante,

Bilbon, Euskaltzaindiaren Plaza Barriko egoitzan, 1997ko ekainaren 27an, goizeko 10ak eta laurdenetan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko batzarriari. Ezkerraldeko zutabea aipatzen diren kideak bildu dira. Ezin etorria adierazi dute honako kide hauek: M. Azkaratek eta P. Ondarrak.

Aurreko agiria onartzea.

Aurreko hileko agiriari inork ez dio oharrik egin, eta, horrenbestez, ontzat eman da.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuaren hasierako hitzak X. Kintana zoriontzeko izan dira, Georgiako Nazio Akademiako ohorezko kide izendatu berri baitute. Xabier Kintanak zorionak ezezik, beste euskaltzainen txaloak ere jaso ditu.

1. Hizkuntza arauak:

1.1. Exonomastika: "Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaratzeko irizpideei buruzko erabaki-proposamena" onartzea.

Euskaltzainburuak Andolin Eguzkitza eta Gidor Bilbao jaunei eman die hitza proposamena aurkez dezaten. Aurreko bileran aurkeztutako proposamenari egindako aldaketa azaldu dituzte. Proposamena konplexua da, tradizio asko dira eta desberdinak. Horregatik, gai hauek euskararen normalkuntzan nahiko eztabaida sortu dute. Aurkezten den zerrendak ba omen ditu arazoak. Zergatik ageri dira izen batzuk, adibidez, eta beste batzuk ez. Bestalde, izenak osorik eman ala ez, arazo izan liteke: *Ciceron* ala *Marco Tulio Ciceron*, adibidez? Bestalde, *Marko*, *Luzio* eta antzekoak ere kanpoan utzi dira.

Bestalde, proposameneko irizpideei hertsiki jarraituz, ondorio harrigarri samarrak lortzen dira. Adibidez, *Agamemnon*, 'm' eta guzti ateratzen da. Edo *Ulixes*, 'x'-rekin. Horregatik, horrelakoak nahi ez badira, bigarren iragazkiren bat ezarri beharko litzateke horrelakoak zerrendatik kanpo uzteko.

B. Oihartzabalek hartu du ondoren hitza eta Euskara Batuko batzordearen irizpidea gogorarazi du, hots: orokorra litzatekeen legea formulatu beharko litzateke lehenbizi,

zeinen arabera emango liratekeen latin eta grekozko pertsona izenak. Honi, maiztasun handia duten eta erabileraren poderioz euskarara egokituak izan diren izenen zerrenda mugatu bat erantsi beharko litzaioke. Hain zuzen, aurkeztu den zerrenda itxia izanda ere, zabalegia irizten dio B. Oihartzabalek.

A. Urrutiak legelarien izenak falta direla somatzen du. Ibon Sarasolak, berriz, zerrenda honek, zenbait izenen kasuan behintzat, jende arruntari kultura orokor zabala eskatzen diola esan du.

Bateko eta besteko iritziak eman dituzte zenbait euskaltzainek. Azken batean, badirudi eskatzen dena zerrenda bakar bat egitea dela. Alegia, alde batetik irizpide orokorrak eman behar dira, edozein izenentzat aplikagarri liratekeenak eta honekin batera, irizpide horien aplikazioaren emaitza gisa nahiz euskarara egokitzeak sortu diren izenekin zerrenda bakar bat egin behar da.

Forma baten ordaina ematen denean, alboan beste hizkuntzetan gauzak nola diren esatea komeni dela ere aipatu da. Erabakia hartzerakoan lagungarri izango litzateke hau. Bestalde, zenbait arlo berezitako (lege munduko, medikuntzako, eta abarretako) izenetan, delako izena zerrendan aurkitzen ez bada irizpide orokorreki egingo zaie jaramon.

Nolanahi ere, irizpide horiek berformulatuko ditu batzordeak eta eskatutako zerrenda bakarra ere hurrengo bilerara ekarriko. Hortaz, hurrengo bileran hartuko da izen hauei buruzko erabakia.

1.2.1. *Hiztegi batua*: **gogobete-hautsarazi** zerrenda onartzea.

Gaurko zerrendako hitzak eztabaidatu aurretik, aurreko batzarrean zintzilik utzitako zenbait hitz ekarri dira mahaira.

Ontzi/untzi delako auziaz I. Sarasolak esan du euskaldunek historian ez dituztela bereizi sukaldeko tresna den ontzia eta uretan ibiltzen diren ontziak. Bereizketa azken garai hauetakoa dela. Egia dela azken urteetako usadioan oinarri hartuta nolabaiteko presiopean jar daitekeela Euskaltzaindia, bereizketa egitera bultzatuz. Lehen ere antzeko prezedenteak izan direla (*hauk/hauek*, adibidez) baina gauzak azken batean gainditu direla. Literatur testuetan (A. Lertxundirenetan edo K. Eizagirreneretan, adibidez) ez da bereizketarik egiten. Eskoletako testu liburuetan bereizketa egiten bada ere, gehiago baliu bide dute literatur testuek eta hauei eman behar zaiela lehentasuna. Horrenbestez, batzordea, kide bat izan ezik, bereizketarik ez egitearen aldeko azaltzen da.

X. Kintana jaunak bere kontrako iritzia azaldu du eta argudioak eskaini ahoz eta idatziz. *Ukitu/hunkitu* edo *itxi/hertsi* bezalako fenomenoaren pareko omen litzateke *ontzi/untzi* bereizketa.

Beste zenbait euskaltzainek ere parte hartu dute eztabaidan. Dena den, eztabaida zaharra eta ezaguna denez eta alde bateko eta besteko arrazoiak ere berriak ez direnez, botoetara eramaten da hautua. Forma bakarraren alde, 11 boto. Bi forma bereiztearen alde, 5 boto eta zuriz, boto bakarra. Beraz, forma bakarra ematea onartu da.

Ondoren, forma hori *o*-duna ala *u*-duna izan behar duen botatu da. Hamaika boto izan dira *ontzi* formaren alde, bat ere ez *untzi*-ren alde eta hiru boto zuri. Horrenbestez, *ontzi* forma bakarra erabaki da.

Inarra/ginarra eztabaida izan da ondoren. Lekukotasunak kontuan harturik, *ginarra* forma proposatzen da, *-a* organiko eta guzti. Hala onartu da.

Zerrendari dagokionez, E. Knörrek eta Tx. Peillenek aurkeztu dituzte oharrak.

E. Knörren oharretatik batzordeak honako hauek eman ditu ontzat: *gogoetatu*-ren sarreran adibide bat ezartzea; *gora* izenondo ere badela; *gotzain*-en ingurukoak ere onartu dira, *apezpiku* eta gainerako eratorrien baliokidetzat emanaz. Hala ere, *gotzaindu* hitza zerrendatik ezabatzea proposatzen du batzordeak; *gotzaingo*, berriz, *apezpiku* hitza-
ren familiako ordainik gabe uztea. *Greko*, *greziar*, *greziera* sartzea onartu da. *Haina* sarreran adibide hau sartzea onartu da: 'nor ere etorriko baita, haina ene laguna da'. Gainerako oharrak ez dira ontzat eman: kasu batzuetan zerrendan esaten dena aski delakoan eta sarrera berriak proposatzen direnean bigarren pasaldian jasotzekoak direlakoan. Horrela onartu da.

Peillen jaunaren oharretatik honako hauek onartu ditu batzordeak eta euskaltzainek ere bai: *gogoramen* sartzea; *gol* hitza sartzea. Orobat, *gontz* hitza, honako ohar honekin: Ip. pl. 'atearen erroak'. Sartzea onartu da, halaber, *gotortasun*, *granito*, *hankabiko*, *hararte* 'haitzen arteko igarobidea'. Gainerakoak bigarren pasaldirako utzi dira.

Bestalde, *gorriño* hitzaren sarrera zuzendu da. Honela: gorriño 'gorrixka'. *Gorritzta* ezarriko da, bestalde, zerrendan ageri den *gorrixta*-ren ordez.

Gogoeta-ren kasuan, *gogoeta egon* azpisarrera ere sartzea onartu da.

Gorrina/*gorrin*/*gorni* hitzen inguruan izan da ondoren eztabaida. *Gorrina* forma hobetsi dute euskaltzainek, hitz honek bi adiera dituelarik: a) 'elgorria' eta b) 'landareen gaitza'.

Satrustegi jaunaren proposamenez, *guraskide* hitza sartzea onartu da, honako adiera honekin 'ezkonlagunen gurasoak elkarrekiko'.

Eranskide hitza ere proposatu du baina hau bigarren pasaldirako egokiago ikusi da. Modu berean, A. Urrutiak *hainbanatu* eta *goitapen* hitz berezituak aipatu ditu. Hauek ere bigarren pasaldirako utzi dira.

Ondoren, *gohaindu*/*gogaindu*-ren inguruan izan da eztabaida. Bai E. Knörrek, bai Tx. Peillenek, *gogaindu* forma hobesten dute. Hala ere, lekukotasunen aurrean, *gohaindu* formaren alde lerratzen da batzordea. Euskaltzainek ere hala onartzen dute, Ipar. dela adieraziz eta *gogaitu* -ren baliokide.

Golf hitza dela eta, Charritton jaunak honen ordez *kali joko* hitza proposatzen du. Euskaltzainek ez dute ikusten arrazoirik *golf* hitza baztertzeko. Horregatik, bere sarrera izango du, ondoan *kali jokoa* dela emango da aditzera.

Golko/*kolko* hitz parearen aurrean ere eztabaida izan da. Alde batetik, ea doblete gisa gorde behar ote den ala ez. Forma bakarra onartzekotan, zein litzatekeen erabaki beharko litzateke. Azkenean, hamabi boto atera ditu bi formak gordetzearen aldeko jarrierak. Beraz, *golko* hitza onartu da geografiarako eta *kolko* forma, berriz, besterako. Puntu honetara iritsirik, Kintana jaunak *untzi/ontzi* eztabaidan hartu den erabakiagatik bere desadostasuna eta protesta agerian jartzea eskatu du eta aktan jasorik uztea.

Gorabehera hitza ere eztabaidarako utzia izan zen. Batetik, marraren erabileraz Euskaltzaindiak emana duen araua hartu beharko litzateke kontuan. Baina hitz hori izendua dagoenez eta hala erabiltzen denez, marrarik gabe eta baturik idaztearen aldeko agertu da zenbait. Hala onartu da. *Gutxi gorabehera* eztabaidatu da ondoren. P. Goe-

nagak hiru osagaiak parekotzat ikusten ditu eta dena hitz bakarrean idaztea proposatzen. Botoetara jo da eta *gutxi gorabehera* idazkerak irabazi du: 13 boto izan ditu proposamen honek. Beraz, forma hori erabaki da. Bestalde, *gorabehera* hitzaren bi erabilerak argitzeko adibide bana ematea erabaki da.

Gorbata ere hizpide izan du Euskaltzaindiak. Hegoaldeko forma dela adierazi beharko litzatekeela esan da. Kontu hau argiegi ez dagoenez, hurrengo bilerarako utzi da *g-* ala *k-* forman idatzi behar ote den erabakitzea.

Gustu/gusto bikoteaz ere erabakia hartu beharra aurkeztu zaio Euskaltzaindiari. Hau ere botoetara eraman da, zenbait arrazoi entzun ondoren, -u forma hobestea proposatzen du E. Knörrek, bizkaieran eta Iparraldeko euskalkietan aurkitzen den era kontuan hartuz. *Gustu* formaren alde agertu dira 18 boto. Forma hau onartu da, hortaz. Bestalde, *gustuko* azpisarreraren ondoan, *gustura* ere sartuko da.

Guti/gutxi forma pareta dela eta, biak ontzat ematea erabaki da. Horrenbestez, zerrendan, *gut-*ren sarreran ageri den oharra aldatu egingo da, 'h.' oharra kenduz.

Hamalaudun sarrera bere horretan uztea erabaki da.

Hatsantu sarreraren ezarriko den ohar bakarra honako hau izango da: 'Ipar. hatsanditu.'

Euskaltzainak *harmonium* hitzaren alde agertu dira denak. Hitz honen haritik, *harmonizazio* eta *harmonizatu* ere aipatu dira. Hauei buruzko erabakia hurrengo bileran hartuko da, lekukotasunen arabera. *Hainbatu*-ri buruzkoa ere berdin.

1.2.2. Hautsezin-iguzki zerrenda aurkeztea.

Ohiko legez, hurrengo bileran onartuko den zerrenda banatu da. Oraingoan, hileroko batzarra ere ohi baino lehenago izango denez, oharra uztailaren 15erako egon behar dute batzordearen esku.

2. 1998ko aurrekontuen aurkezpena.

Euskaltzainburuak 1998ko aurrekontu proiektua aurkeztu du zenbait argitasun emanaz. Hurrengo bileran eztabaidatu eta onartuko da.

3. Eskuartekoak.

3.1. Literatur sari nazionalerako ordezkariak hautatzea.

Aurreko urteetan bezala, Madriletik Euskaltzaindiari egin zaion eskariaren berri izan dute euskaltzainek. Premio Nacional de las Letras Españolas delakorako jadanik J. M. Satrustegi hautatu duenez Euskaltzaindiak, gainerako sarietarako epaimahaiki-deak dira hautatu beharrekoak. Jadanik Zuzendaritzak egina zuen bilera bat Euskal Idazleen Elkarte eta Itzultzaileen Elkarte zenbait pertsonarekin irizpideak batzeko eta sari horien ibilbidea behar bezala finkatzeko. Honako hauek izan dira hautatuak: poesia arlorako, Felipe Juaristi; narraziogintzarako, Karlos Otegi; saiakerarako, J. San Martín;

antzerkigintzarako, Jon Kortazar; haur literaturarako, Arantza Urretabizkaia; eta itzul-pengintza sarirako, Koro Navarro.

4. Azken ordukoak.

Euskaltzainburuak gogorarazi du uztailaren 16an emango zaiola Villasante jaunari Euskadiko Kutxaren eta Eusko Ikaskuntzaren aurtengo 'Euskadi' Saria. Ekitaldia Donostian izango da, Miramar jauregian, arratsaldeko 7.30etan. Euskaltzain guztiak bereziki gonbidatuak daudela esan du.

Bestalde, joan den urteko *Oroiti-dazkiaren* behin-behineko bertsioa, *Euskera* aldizkariaren azken alea eta Joseba Lakarrak prestatu duen *Refranes y Sentencias*-en argitalpen berriaren kopia bana jaso ahalko dutela euskaltzainek bilera amaieran.

J. M. Satrustegi jaunak esan du azkenean Nafarroako Euskararen Aholku batzordea bildu dela. Abian jarria da, hortaz.

Kintana jaunak F. Krutwig-ek Bilboko Bidebarrieta kulturgunean jaso berri duen omenaldia aipatu du azkenik.

Eta ordubiak eta laurdenetan, amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga

Donostian, 1997ko uztailaren 18an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
 E. Knörr, buruordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 P. Altuna,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 J. M. Lekuona,
 P. Ondarra,
 P. Salaburu,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 eta P. Zabaleta
 euskaltzainak
 eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
 tzailea,

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioa-
 ren jauregian, 1997ko uztailaren 18an,
 goizeko hamarrek eta hogeitabostean,
 eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hi-
 leroke batzarrari. Bilduen izenak ezke-
 rraldeko zutabeen jasoak ageri dira. Ezin
 etorria adierazi dute, berriz, honako eus-
 kaltzain hauek: P. Charritonek, X. Kin-
 tanak, Tx. Peillenek, A. Urrutiak eta L.
 Villasantek.

Aurreko agiria onartzea.

Aurreko hileko agiriari inork oharrik egin
 ez dionez, ontzat eman da.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuak hartu du lehenbizi hi-
 tza. Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko
 Kutxak L. Villasanteri eman dioten saria
 dela eta, sari emate ekitaldia atzeratu egin
 dela. Irailaren 10ean izango dela.

1. Hizkuntza arauak.

1.1. Exonomastika: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoaen zerrenda onartzea.
 Euskaltzainburuak Andolin Eguzkitzari eman dio hitza batzordeak prestatutako txostena
 irakurtzeko. Ondoren Gidor Bilbao jaunak hartu du hitza: zerrenda laburra eskatu omen
 zitzaien aurreko bileran. Hala eraman omen zuten batzordera, baina gero zerrenda hori
 luzatu beharra ikusi zela esan du. Nolanahi ere, zerrendari luzeegi iritziz gero, labur
 daiteke geroago.

Lehengo txostenari egin zaizkion aldaketak honako hauek izan dira, Bilbao jau-
 naren arabera: lehen grekozko izenetan goi mailarako eta ikerlanetarako latina hartzen
 zen iturritzat, orain grekozko nominatiboa da proposatzen dena. Horrela, *Likurgus* ez,
Likourgos baizik. A. Eguzkitzaren arabera, *Likurgos* ere zilegi litzateke, erdibide gisa.

Haritschelhar jaunak adierazi du izen ezezagunetarako latina eta grekoa hartu di-
 tuela batzordeak, ezagunetarako, berriz, espainera hartu dela.

Eztabaidaren ondoren, eta proposamenaren onarpena nolabait bideratzeko, zatikako
 galderak jarri dira mahai gainean. Lehenbizi, ea izen ezagunen eta hain ezagun ez di-

renen artean bereizketarik egin behar den ala ez. Esate baterako, *Ammianus*-ekin edo *Ciceron*-ekin nola jokatu behar den. Bereizketa egitea onartu da.

Bigarren, hain ezagunak ez diren izenak jatorrizkotik hurbil egon behar badute, nola jokatu latinezkoekin eta grekozkoekin? Latinezkoetan ez litzateke problemarik izango. Grekozkoetan, bai, antza. Adibidez, *Alkaios* bezalakoekin zer egin?. Hau dela eta, El-huyar-eko zerrenda aipatu da. Zerrenda hau onartzeak zer arazo izango lukeen aztertu beharko omen litzateke. Ibon Sarasolak galdegin du ea Euskaltzaindia prest egongo litzatekeen zerrenda hori ontzat emateko, behar diren egokitzapenak eginez. Aipatutako zerrenda hori onartzeak nahiko bidezko dirudi. Nolanahi ere, Satrustegi jaunak proposatu du batzordeño bat eratzea, honek egin dezan proposamen zehatza. Batzordekideek hitz eman dute irailean bilduko direla eta hurrengo bilerara ekarriko dutela azken proposamena.

1.1. *Hiztegi Batuko hautsezin-iguzki* zerrenda onartzea.

Gaurko zerrendari dagozkionak eztabaidatzen hasi aurretik, Ibon Sarasolak aurreko bileran zintzilik utzitakoak gogorarazi ditu.

Gorbata hitza dela eta, tradizioa ez da erabat argia, baina gaurko joera *gorbata* formaren aldekoa litzatekeela esan du. Hori da, hortaz, batzordearen proposamena. Hala onartu da.

Harmonizazio eta *harmonizatu* hitzak sarrarazteko egin zen proposamenari buruz, batzordearen iritziz, alemanez ere horrelakorik ez denez, hobe da hitzok bigarren itzulirako uztea. Onartu da proposamena.

Gauza bera egin da aurreko bileran mahaigaineratutako *hainbanatu* hitzarekin. Hau ere bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Ondoren, *hautsezin-iguzki* zerrendari egindako oharra aztertzeari ekin dio batzar-
rak. Oharrak A. Urrutiak, X. Kintanak eta E. Knörr-ek aurkeztu dituzte.

Urrutia jaunaren oharretan ematen diren *hazaita*, *hazama*, *hegalkin*, *hipotekatzaile*, *hutsal(du)*/*hutsalgarri*/*hutsalkor*, *ibilge(tu)* eta *igortzaile* bigarren itzulirako uztea proposatu du batzordeak eta hala onartu euskaltzainek.

Hazibide eta *haziera* hitzak direla eta, bi adiera ematea iradokitzen da oharrean. Sarrera zerrendan dagoen bezalaxe uztea egokiago ikusi da adieretan eta sartu gabe.

Helmen sarreran *helmenean* ere aipatzea on litzatekeela dio oharra. “*Helmenean jarri, egon*” azalpen gisa sartzeari onartu da.

Heredatu hitza dela eta, *jarauntsi*-ri lehentasuna ematea eskatzen da. *Jarauntsi* gehitzea onartu da.

Heredero-ren baliokide ez omen da *oinordeko*. Zuzenbide arloan *jaraunsle* eta *oinordeko* bi gauza desberdin omen lirateke. Ez da onartzen oharra, ‘sucesor’ esateko *ondorengo* bai baitugu. Horrenbestez, *heredero*-ren sarrera dagoen dagoenean uzten da.

Herentzia-ren kasuan, “jaraunspena, ondoriotasuna” gehitzea onartu da.

Herri-ren azpisarrerara gisa ematen direnez gainera, ohargileak, beste batzuk ere ezartzea eskatzen du. Ez da ikusten honen premiarik eta, horrenbestez, ez da onartzen.

Heterogeneo eta *hezur* sarrerei buruzko oharrak ere ez dira ontzat ematen.

Histu sarrerari, oharrean eskatzen denaren arabera, honako hau gehituko zaio: “kolora bizienak histen dira eguzkitan”.

Hitzez-hitzezko(tasun) sartzeari xehetasun gehiegitan sartzea litzatekeela irizten dio batzordeak. Horrenbestez, bazterrera utzi da eskaria.

Hizpa(tu)/hizpaketa sartzea ez da onartu. Hitz hauen arrastorik ez omen dago testuetan.

Horrenbestez lokailuari sarrera ematea onartu da. Baina *horretarako* bezalako hitz batentzat ez litzateke lekurik izango hiztegian.

Ibaiertz eta *idazpen* hitzak sartzea onartu da.

Idoi-ren sarrerari bi adiera bereiztea onartu da: 1. ‘zingira’; 2. Ipar. ‘iraina’.

Ifrentzu-rentzat adibideren bat eskatzen da. Honako ohar hau gehitzea onartu da: ‘txanpon, oihal, ... baten atzeko aldea’. Bestalde, aurreko zerrendan *infrentzu* ageri da, *-n*-ekin. Zuzendu egin behar da.

E. Knörr-en oharretara pasatuz, *hautu* sarrerari bi puntu ezartzea onartu da: 1. A. hautu, haututzen, ...; 2. Iz. ... Baina *hautuz*, *hautuzko* azpisarrerak lekuz kanpo omen daudelakoari ezetz iritzi dio batzordeak eta ez da onartu Knörr-en oharra.

Hauzu hitza sartzea onartu da, honako ohar honekin: *hauzu** e. *haizu*.

Hazi hitzean aditza eta izena izan daitekeela aipatzea onartu da.

Haztatu eta hedamen hitzak zerrendan dauden bezala uztea erabaki da.

Hegalda izena sarrarazteko eskaria ez da onartu, baina *hegaldata* aditzaren erregimena zein den adieraztekoa bai: “da” aditza dela esango da.

Hegatu sarrerari ere zein erregimen duen adieraziko da: *ez da* eta *du*, oharrean eskatzen zen bezala, *da* soila baizik.

Hein hitzaren izentasuna hobeki markatzeari buruz, hori, dagoeneko jasoa dagoela esan da.

Herio sarrera dagoen bezala uztea erabaki da.

Heriosuhar hitzaren ondoan, oharrean aipatzen diren adibideak ezarriko dira eta adizlagun dela ere esango da.

*Herts*i, zerredan dagoen bezala utziko da.

Zerrendan ageri ez den *hilberri* hitzak ekarri du ondoren eztabaida. Izen gisa jasotzea onartu da. Hala ere, *hilberri* eta *hil berri* (‘Norbaiten hilberria’ vs. ‘norbait hil berri da’). *Hiletsi* eta *hilgarrriki* sartzeari buruzko eskaria ez da onartu. *Hiliki* bigarren itzulirako uztea onartu da.

Hola eta *holatsu* hitzei buruz, oharrak *honela*, *horrela* eta holakoak hobestea eskatzen zuen. Bergara ondoko taulan *honela*, *horrela*, ... datorrela aipatu du Knörr jaunak. Bateko eta besteko arrazoiak entzun ondoren, botoetara jo da. *Hola*, *honela* eta *horrela* parekotzat ematearen alde bozkatu dute hamabost euskaltzainek.

Hona hemen-en ondoan *hona non* ere sartzea ontzat eman da. *Horra hor-en* ondoan *horra non* sartzea, berриз, ez da onartu. *Hortaz-i* dagokion adibidean, berриз, lokailu horren aurrean koma bat ezarriko da.

Hotsandiko eta *iaio* hitzei buruz Knörr jaunak egindako oharra (azken hitz honen kasuan hiru silaba eginez irakurtzeko arriskua aipatzen da) ez dira ontzat eman.

Iberiera eta *iberiko* hitzak sartzea onartu da.

Bigarren itzulirako utzi dira *idorrean* (*diru idorrean*) sarrera eta *iguriki* izen izan omen daitekeelako kontua ere.

Igeri-ren sarreran, oharrean 'ibaia igeri igaro' barik 'ibaia igeri zeharkatu' ezartzea onartu da, kakofonia saihesteko. Dauden-daudenean uztea erabaki da, berриз, *igarle* eta *igogailu* sarrerak.

Xabier Kintanak aurkeztutako oharrei dagokienez, *horma* h-rik gabe ematea ez da onartu.

Aurreko ohargileaz esandakoaren arabera, *iaio* hitzari buruzko oharra ez da onartu. Ez da onartu *igongailu* sarrerari buruzkoa ere. *Igongailu* hitza Bizkaian asmatua ez (oharrean aldarrikatzen den bezala), baizik P. Mujikak asmatua omen da. *Igogailu* bere horretan utzi da, hortaz.

Idazti-ri buruzko oharra dela eta, sarrera aldatzea erabaki da. Honela gelditu da: *Idazti, h. liburu*.

Odoren, zerrendan eztabaidarako utzitako sarreraren banan-banako azterketari ekin diote euskaltzainek.

Herskailu hitzak "galdetzeko" oharra zekarren. Egin beharreko galdera hori ez da egin, nonbait, eta hurrengo bilerarako argitzekotan gelditu da.

Hezetu hitzak "eztabaida" oharra zuen, baina ohar hori zuzena ez dela erabaki da eta bertan behera utzi da. *Hontz* hitza ere modu berean markatua zetorren zerrendan. Hala ere, Kintana jaunaren oharra gorabehera, forma horrexen aldekoa izanik, ez da eztabaidan jarri hitz hori.

Hozkailu /*hozgailu* auziari buruzko eztabaidan bidezkotzat eman dira X. Kintanaren arrazoiak eta *hozkailu* forma onetsi da.

Hozpera/*hozbera* eztabaidan *hozbera* forma egokiagotzat eman da.

Idatzaldi/*idatzaldi* eztabaidan, E. Knörr-en oharriari corpuseko datuak kontrajarri zaizkio. Batzordea *idatzaldi* formaren aldeko agertzen da eta forma hau hobestea erabaki du Euskaltzaindiak. Honela izango da oharra: *Idatzaldi, e. idatzaldi*.

Iduri hitzaz, *irudi* hobestea erabaki da: *Iduri iz., Ipar. h., irudi*. Eta "iduri du eri dela" adibidearen baliokidea honela ematea: "badirudi eri dela".

Igan /*igo* eztabaidan, biak parekotzat ematea erabaki da. Hortaz, "h." ezabatuko da. *Igon* sarrerarik ez dela dio X. Kintanaren oharra. Sartzea erabaki da: *igon* e. igo*.

Igaz/iaz eztabaidara bere arrazoiak ekarri ditu X. Kintanaren oharra. Batzordearen ustez, hala ere, gauzak ez bide daude erabat argi eta, badaezpada, erabakizun utzi da hurrengo bilerarako.

2. 1988ko Aurrekontuen onarpena.

Euskara Batuko batzordearen aurrekontua bikoiztu beharra aipatu da, bilkurak ere bikoiztu egin baitira. Gainerakoan, inork ere oharrik ez zuzenketarik eskaini ez duenez, ontzat eman dira aurrekontu hauek.

3. Eskuaratekoak.

3.1. Abbadieren kongresua.

Lizundia jaunak A. Abbadieren omenez egingo diren ekitaldien programa eta prestatikizunen xehetasunak eman ditu. Euskaltzainak bereziki gonbidatuak daudela esan du. Hala ere, bakoitzak, dagokion orria erabiliz, izena eman behar duela.

4. Azken ordukoak.

Xabier Kintanak, gutun baten bidez, bilerara etortzerik izan ez duenez, gure artean berrikitan izandako zoritxarrezko gertaerak direla eta, Euskaltzaindiak ere zerbait esan dezala eskatzen du. Euskaltzainburuak dio Euskaltzaindia ez dela horretan sartu behar, nahiz eta euskaltzain bakoitzak, berekasa, baduen bere iritzia azaltzeko eskubide osoa. Iritzi bereko agertu dira beste zenbait euskaltzain ere. Horrenbestez, eskaria ez da kontuan hartu.

Ordubiak laurden gutxitan eman da amaitutzat batzarra.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga

JASOTAKO TXOSTENAK

ONOMASTIKA

EUSKARAZ FEMENINOAK EGITEKO IZAN DIREN BIDEEZ

1997-I-23

Andres Iñigo
Patxi Salaberri,
Onomastika batzordeko kideak

Egungo egunean izen toponimikoak umeei jartzeko dagoen joera bizi samarra dela erran daiteke. Honek arazo franko sortzen ditu izen horiek andronimo edo ginekonimotzat hartu beharrak diren erabakitzeke garaian, toki ize-nek, berez, generorik ez dutelako. Gai honi irtenbide bat emateko modua, gure ustean, euskaldunok historian zehar ibili izan ditugun eskuarteek baliatzea da-teke, era honetara lasterketak saihesten baitira, nork lehenago bere umeari izena paratuko, izen hori maskulinoa edo femeninoa izan dadin.

Badakigu, dena den, garai batean ibiltzen ziren gauza asko egun ez direla ibiltzen, hainbat bide eta prozedura modaz pasatu eta zaharkiturik daudela, eta euskaldun askorendako harrigarri gerta daitezkeela. Zernahi gisaz, beharrak eragiten, eta beste biderik ez denean dugunari edo genuenari lotu beharko, deus zentzuzkorik eginen badugu.

Hemen aurkezten ditugun datuak -dokumentazio historikotik atereak di-rabestek beste datu anitzez osa ditzake, guk ez baitugu erabateko eta behin-betiko lana egiteko xederik izan. Hortaz, eta besterik gabe, ekin diezaigun euskaldunok femeninoak egiteko baliatu ditugun bideak ikusteari. Hona he-men:

a) Generoaren mozioaren erabilera, hau da, bukaeran -a jartzea. Honekin batean **-o**, **-u** edo beste bokal edo kontsonante bat agertzen da maskulinoa egiteko, baina **Mari**-z mintzatzean ikusiko dugun moduan, femeninoa izan da gure artean genero markatua, “berezia” bestela erran:

— **Aioro**: *Ayoro Garçatoyñ* (Garde, LPN, 478) / **Aiora**: *Pedro d’Ayora* (Zangoza, LPN, 484).

— **Antso**: *Anso Gascueco*, *Anso Olacarizquetaco* (Ollakarizketa, XIII. m., GPrior., 119); *Anso fernandez de beorteguj* (Urrotz, 1591); **Antxo**: *Ancho Berari* (Orreaga, LPN, 488) / **Antsa**. Ikus beherago *Santso*, *Santsa*.

— **Apalo**: *Apalo* (Art., 1173, 136) / **Apala**: *Apala* (Abaigar aldean, 1206, CDIrache, 256).

— **Auru:** *Auru* (bi pertsona diferente, *GPrior.*, 108, 110); **Auriol:** *Don Auriol*, *Garcia Auriol* (Zaraitzu, XI. m., *Vasc.*, 33-34); **Auriolo:** *Auriolo Gardeleiz* (Zaraitzu, 1037, *Vasc.*, 34); **Aurubilitu:** *Aurubilitu de Alhegi* (sic) (Aiegi, 1072, *CDIrache*, 64); **Orio:** *Don Orio de Johan Lopiz* (Larraga, *LPN*, 309); **Oriol:** *Oriol Garçeiz* (Castro, 1128-1129, *CDIrache*, 139) / **Auria:** *Auria de Essabacoiz* (Etxabakoitz, 1196, *GPrior.*, 82), *Auria Cuuri* (Abaurrea, *LPN*, 475); **Aurubita:** *Aurubita Gomiciz de Exauarri* (Etxabarri, XII. mendearen hasieran, *CDIrache*, 101); **Oria:** *Oria* (Zazpe, *LPN*, 469); **Oriola:** *Tota Oriola* (Leire, 1121, Irig., 244).

— **Bazkoare:** *Bazcoare d'Oricain* (*LPN*, 565); *Bazcoare Ilurde* (Lizarra, *LPN*, 611) / **Bazkoara:** *Bazquoara Çauala*, *byuda* (Zirauki, *LPN*, 591).

— **Beltxo:** *Belcho de Echeuerria* (Eraul, 1255, *Iran.*, 231); *Belcho de Yriurre* (Lizarra, 1255, *Iran.*, 251); *Belcho de Auarçuça* (*Iran.*, 262) / **Beltza:** *los fillos de Berasco de Echarri et de Belça Çuria*, *su muger* (Etxarri-Aranatz, 1255, *Iran.*, 247).

— **Domingo, Domingo:** *Domingo Lopez de Egozcue* (Beruete, XIII. m., *GPrior.*, 112) / **Domenga:** *Johan, fijo de Domenga* (*Iran.*, 225); *Domenga Zubico* (Galar aldean, XIII. m., *GPrior.*, 107); **Dominga:** *Dominga Lastia* (Aritzala, 1205, *GPrior.*, 135).

— **Domiku:** *Domicu Ezquerria* (Zizur zendea, 1162an, *GPrior.*, 33); *Domicu de Ochacar* (Beorburu, 1222, *GPrior.*) / **Domeka:** *Domeca de ollo* (Hiriberri-Deierri, 1563); *Domeca de yrurre*, *Domequa de ariçaleta*, *Domeca de tirapu* (Zirauki, 1573-74).

— **Eneko:** *Eneco Arçaia* (Ororbia, XIII. m., *GPrior.*, 105); *Enequo Uascoariz* (Galdio, *LPN*, 364) / **Oneka:** *Onecha Legarrecoa de Esparça* (Espartza-Galar, 1199, *GPrior.*, 102).

— **Esteben:** *Esteuen* (Ibiriku-Egueskoa, *LPN*, 458); *Esteuen* (Badoztain, ib., 459) / **Estebenia:** *Esteuenia Fornera* (Zangoza, *LPN*, 484); *dona Esteuenia Martiniz* (Esnots, ib., 510); **Estebania:** *Esteuania* (Zirauki, *LPN*, 373).

— **Frantzes:** *Françes de Larraga* (Lizarra, *LPN*, 611) / **Frantzesa:** *dona Françesa* (Lizarra, *LPN*, 608).

— **Joan:** *Johan Çarquo* (Zuñiga, *LPN*, 356); *Johan Balça* (Biloria, ib., 358); **Joane:** *Johanne lepoa* (Gauza, ib., 363); *Johanne Gorria* (Ibero, ib., 555); **Joanet:** *Johanet d'Arçi* (Iruñea, ib., 549); **Joaneto:** *Joaneto de oztiz* (Ostiz, 1608); **Juane:** *Juane perez hijo de Juane Perez* (Zirauki, 1571) / **Joana:** *Johana d'Oilleta* (Zangoza, *LPN*, 485); **Joaneta:** *Joaneta de Labayen viuda* (Malerreka, 1566); **Juana:** *Juana Maria de Lerga alias moldesco* (Elo, 1687).

— **Jordan:** *don Jordan* (*GPrior.*, 83, 1196); **Jurdan:** *don Jurdan* (Eraul, 1176-1178, *Iran.*, 225); *Jurdan* (Miranda, *LPN*, 620) / **Jordana:** *Jordana de*

Cabaneta (Zufia, 1196, *GPrior.*, 83); **Jurdana**: *Jurdana xoanerena* (Malerreka, 1540); *Jurdana de Astiz* (Alli, 1576)

— **Mantzio**: *Mancio Manz de Uilela* (Irig., 233); **Mantzio**: *Manço Oxoiz* (ib.) / **Mantzia**, **Maintzia**: *Mancia Gorria* (Art., XIII-XIV); *Maincia* (Berroeta, XIII. m., *GPrior.*, 112); *Maincia iacueiz* (Ausano, Imotz, XIII. m., *GPrior.*, 118).

— **Markes**: *dona Maria de Marques* (Andosilla, *LPN*, 262) / **Markesa**: *Marquesa de Araçuri* (Aratzuri, 1234, *GPrior.*, 248); *Marquesa* (Orreaga, *LPN*, 488).

— **Marko**, **Markolo**: *Marcolo de la Cuesta* (Villatuerta, *LPN*, 286) / **Marka**: *la de Marca Royz* (Los Arcos, *LPN*, 333).

— **Mikel**: *Miquel de Oierza* (Galar aldean, XIII. m., *GPrior.*, 108); **Mikele**: *Miquel Iturriquo* (Galar-Zizur aldean, XIII. m., *GPrior.*, 114); *Miquel de burunda* (Jaitz, 1518); **Mikelo**: *Miquelo Veynça* (Saldias, *LPN*, 570) / **Mikela**: *Miquela de muru*, *Miquela de blascoain* (Etxarri-Etxauri, 1544).

— **Nabar**: gizona eskuarki. Cf. *Navarr d'Altarrabia mon marit* (Iruñea, 1253, *GPrior.*, 347); *Nauar Periz* (Elizagorria, *LPN*, 628) / **Nabarra**: emakume izena; cf. *Navarra* (Zizur edo Galar zendean, XIII. m., *GPrior.*, 114); *Nauarra* (Lizarra, *LPN*, 610).

— **Otsando**: *domno Ossando* (Esteribar, *Vasc.*, 34); **Otxando**: *Ochando de Azqueta* (Iguzkitza, 1196, *GPrior.*, 81) / **Otsanda**: *Ossanda Arçeiz* (Ororbia, 1248, *GPrior.*, 319); **Otxanda**: *Ochanda* (Etxeberri, 1255, *Iran.*, 245); *Ochanda Murieta* (Zufia, XIII. m., *GPrior.*, 122); cf., alabaina, *don Ochanda* (Iruñea, *LPN*, 548). Hau erratu bat dateke.

— **Paskoal**: *Pascoal Camarrguaiz* (Oteitza, *LPN*, 308); **Paskal**: *Pascal de Larrain*, *Pascal de Çulloeta* (Iruñea, *LPN*, 545); *Pascal* (Goñi, 1518) / **Paskoala**: *Pascoala* (Villatuerta, *LPN*, 307); **Paska(l)la**: *dona Pascalla d'Ayorbe*, *dona Pascalla* (Iruñea, *LPN*, 545); *Pascala de Urdiayn* (Etxarrentxulo, 1577). Ikus gorago aipatu dugun **Bazkoare** / **Bazkoara** pareta.

— **Petri**: *Petri de Orçaiz mayor*, *Petri de Orçayz menor* (Ihabar, 1564); *Petri de guendulayn* (Gendulain-Esteribar, 1613); **Betri**: *Betri de Gorritz*, *Betri de Gorritte* (Beriaín, 1276, *GPrior.*, 459, 450); **Petrisko**: *Petrisko de Legarre* (Lesaka, *LPN*, 567); **Petro**: *Petro Enecoiz* (Zizur aldean, XIII. mendea, *GPrior.*, 104) / **Petra**: *Petra* (Lerin, *LPN*, 629); **Petruxka**: *Petruxca Pastor* (Zangoza, *LPN*, 484).

— **Sanduru**: *Sanduru d'Arlegui* (Arlegi, XIII. m., *GPrior.*, 114); *Sanduru* (Antsoain, 1240, *GPrior.*, 281); *Sanduru* (Iruñea, *LPN*, 547); *Sanduru* (Zubitza, ib., 555); **Sandoru**: *Maria Garçia, fija de Sandoru* (Zubiurrutia, *LPN*, 376); **Sandor**: *Sandor Oritrena* (Zirauki, 1283, *Vasc.*, 39); *Sandor Mendigorrico* (Artaxona, *LPN*, 293) / **Sandora**: *Sandora* (Aberin, *LPN*, 284, Villatuerta, ib., 307).

— **Santso:** *Sanso Undico* (Art., 1157; 221); hau berau *Sanz Unduico* moduan ere opatzen dugu (ib., 1158-59, 235); *Sanso Arceiz* (Barañain, *GPrior.*, 1195); *Sanso Miqueleyz*, (Uterga, 1226, ib., 192); **Santxo:** *Sancho Dorreco*, *Sancho Muruco* (Zizur aldean, XIII. mendean; *GPrior.*, 105); *Sancho de Echeverria alias Sancho Andi* (Eugi, 1630); **Santz:** *Sanz Azariz* (Art., 1103, 164); *Sanz Ortiz* (ib., 1157, 222); *Santz Diaz d'Esparza cerqua Pomplona* (Espartza, Art., 1312, 317) (1); **Santzo:** *Sanzo Torreundocoça* (Art., 1158, 234); *Sanzo Ortiz d'Eliçaldea* (ib., 1173, 240) / **Santsa:** *Sansa Erdinuriz* (Galar aldean, ustez, XIII. m., *GPrior.*, 107); **Santxa:** *Sancha de Berrioçaar* (Berriozar seguraski, XIII. m., *GPrior.*, 106); **Santza:** *Sanza Levita* (Art., 1157, 223).

— **Semen:** *Semen Açnareiz de Çolina* (Zoliakoa, ustez, 1198 inguruan, *GPrior.*, 100); **Semeno:** *Semeno Miqueleiz* (Barañain, 1195, *GPrior.*, 79); *Semeno Larracecoa* (Zizur zendean, 1199, ib., 103); **Xemen:** *Xemen Galuarra* (Arroitz [Arronitz], *LPN*, 278); *Xemen Sanz* (Puiu, *LPN*, 455); **Xemeno:** *Xemeno Yçurra* (Arroitz, *LPN*, 277); **Semero:** *Semero Gomiz* (Erro, 1226-1233, *GPrior.*, 199); *Semero Surra* (Etxarren, 1227, *GPrior.*, 200) / **Semena:** *Semena Gardeliz* (*GPrior.*, 8, XI-XII); **Semera:** *Semera Erassungo* (Beruete, XIII. m., *GPrior.*, 112).

— **Zurixe** (Irig., 17); **Zurilo:** *Çurilo* (Ilarregi, XIII. m., *GPrior.*, 111); **Xurio:** *Xurio de gorriti* (Oskotz, 1552) / **Zuria:** *dona Çuria* (*LPN*, 543); **Zurixa** (Irig., 117)... Cf., gainera, *Maria Curia de Olcoç* (Olkotz, 1210, *GPrior.*, 144).

Genero mozioa ibiltzeak beti ez du funtzionatzen, guztiz ere euskarak sortzeko orde egokitu baizik ez dituen izenekin:

— **Martia, Martixa:** gizonak; *Martixa de Joangorena* (Ihaben, 1552); **Martie** ere baden arren: *Martie andia de labayen* (Labaien, 1537).

Baina ez hauekin bakarrik:

— **Gartzia:** *Garcia Lascarra*, *Garcia Urdina*, gizonak biak (Artaxona, *LPN*, 296-297) (2).

Beste batzuetan **-a**-dun izenak **ø**-dunen kideak dira, eta femeninoak:

— **Añes:** *Agnes Çapata* (Calchetas? Erbiti?, 1260 inguruan, *GPrior.*, 396); *Agnes Martineiz Subiça* (Zubitza?, 1275, ib; 457); izen hau bizirik dago oraindik Luzaiden (Añes erraten da (3) / **Añesa, Iñesa, Inesa**.

(1) Hau patronimiko moduan ere ibili izan dela dirudi, izentzat ezezik (beste izen asko bezala, bestalde); cf. *Sanz Sanz* (Art., 1111, 181); *Galin Sanç* (ib., XII. m., 250). Berezko patronimikoetako bat **Sanutz** zen, besteak beste: *Semero Sanuz*, *filio Sanz Sanz* (ib.).

(2) **Gartzia** giza izena ohi bada ere, behin bederen emazteki izentzat opatu dugu, ez dakigu erratu baten ondorioz edo bestela: *Garcia, turrонера* (Lizarran, *LPN*, 611).

(3) Herri honetako gure informatzailea Bartzelona etxeko Peio Kamino Kaminondo izan da. Lizarran irudiz gizona zen *don Aynnes* ageri zaigu (*LPN*, 606), baina beste batzuetan bezala, hemen ere zatiketa faltsu baten aitzinean gaudeke.

— **Isabel:** *dona Ysabel* (Iruñea, LPN, 540) / **Isabela:** *donna Ysabela* (Biu-run, LPN, 523); *doña Isabela* (Malerreka, 1565).

— **Katalin:** *Catalin michelarenecoa* (Etxaleku, 1548) / **Katelina:** *Catherina de erasso* (Jaitz, 1472); *Catelina de olza* (Satrustegi, 1575); **Katerina:** *Catherina de bidaurre* (Estenotz, 1524).

— **Sol / Sola** (Irig., 260).

— **Zuri:** *Curi d'Eieca filia Domingo Ausano* (Burutain, 1240, GPrior., 287) / **Zuria:** *Semen d'Eieca eta mater eius Çuria* (ib., 286. Itxuraz *Curi d'Eieca* bera da).

Zenbaitetan, hipokoristikoezin bereziki, **-o** bukaera femeninoetarako ere ibiltzen da:

— **Auriko:** *Auria*-ren hipokoristikoa; *Aurico, es muda et pobra* (Adoain, LPN, 472).

— **Graxiko:** *Grazia*-ren hipokoristikoa; *Grayssico* (Orreaga, LPN, 488).

— **Maiorto:** *Maiores*-ren hipokoristikoa; *Mayorto de Aoyca* (Auza, 1537).

— **Mariko, Txariko:** *Maria*-ren hipokoristikoak; *Marico d'iriart* (Orbaizeta, LPN, 474); *Michelco fijo de Chariquo* (Bera, ib., 529).

— **Otxandako:** *Otsanda*-ren hipokoristikoa; *Ochandaco* (Orreaga, LPN, 488).

Maskulinoetarako bezalaxe:

— **Axeariko:** *Azeari*-ren hipokoristikoa; *Axearico* (Orbaizeta, LPN, 474).

— **Mikeleko, Mitxelko:** *Mikele, Migel*-en hipokoristikoak; *Michelco, hierno de Çiguyllu* (Doneztebe, LPN, 529); *Miqueleco* (Amabainen, ib., 559).

— **Otxoko:** *Otsoa*-ren hipokoristikoa; *Ochoco* (Girgillano, XIII. mendea, itxuraz, Iran., 237); *Ochoco Ferrero* (Orreaga, LPN, 488).

— **Peruko:** *Peru*-ren hipokoristikoa (*Peruco d'Eroz*, sic, Larunbe, LPN, 559).

b) **Andre** (edo **Andere**-ren, tarteka) aposizioaren erabilera, maskulinoetako **jaun**-en (eta noizbehingo **aíta**-ren) aldean. Batzuetan, halere, badi-rudi aposizioak aitzinetik zehaztua zegoen generoa nabarmendu besterik ez duela egiten (erdarazko **dona**-k bezala), hau da, ez duela generoa definitzeko balio:

— **Andreantsa:** *Andranssa* (GPrior., 1226, 197; Oltza zendea itxuraz); *Andre Ansa* (Nabaskoze, LPN, 504); **Andresantsa:** *Andre Sansa Ortiz* (Art.,

XII. mendea, 250). Cf. *dona Sancha Martiniz* (Iruñea, LPN, 550) / **Jaunantso:** *Jaun Anso Ortiz* (Larrageta, XIII. m., GPrior., 126); *Jaun Anso Miqueleiz* (Uterga, 1226, GPrior., 191).

— **Andrebeltza:** *Andre Belça* (Adoain, LPN, 472) / **Jaunbeltza:** *Jaun Belça* (Arraitza, 1235-1236, GPrior., 256).

— **Andredomeka:** *Andre Domequa* (Etxabakoitz, 1212, GPrior., 148) / **Jaundomiku:** *Jaun Domicu* (Larrageta, XIII. m., GPrior., 126), *Jaun Domicu* (GPrior., 191).

— **Andregartzia:** *Andre Garcia et su fijo* (Lizarra, LPN, 606) / **Jaungartzia:** *Jaun Garcia Biurrun* (Art., 1157, 225).

— **Andrelopa, Andrelopitz:** *Andre Lopa* (Art., 1104, 170); *Andre Lopiz* (Otsagabia, LPN, 504. *Andreo* “Andres”-etik ote?) / **Jaunlope:** *Jaun Lope*, Artaxona (1157, 229).

— **Andreoneka:** *Andre Oneca* (Otazu, XIII. m., GPrior., 128) / **Jaunekoko:** *Jaun Enequo* (Sagues, 1168, GPrior., 39).

— **Andresemera:** *Andere Semera* (Art., 1158-59, 235); *Andre Semera* (Barbatain, 1190. inguruan, GPrior., 68) / **Jaunsemeno:** *Jaun Semeno de Barasoain* (Olendain, 1229, GPrior., 206); **Jaunsemero:** *Jaun Semero de Gorriz* (Leire, 1109; Irig., 275).

— **Andreumea:** *Andre Humea Martiniz* (Aribe, LPN, 473) / **Jaunumea:** *Jaun Umea* (Etxalatz, 1243, GPrior., 293).

— **Andrezuria:** *Andre Zuria* (Barbatain, 1190 inguruan, GPrior., 68). Cf. *Dona Blanca* (Iruñea, LPN, 550) / **Aitazuria:** *Ayta Çuria* (Lizarra, LPN, 611); **Jaunzuria:** *Jaun Çuria* (Labio, 1197, GPrior., 95). Maskulinoen kasuan aposizioa beharrezkoa dela irudi du, **Zuri(a)** hutsa emakume izena baitzen. Ikus A puntua.

Batzuetan ez dugu, dakigunez, **Aita** edo **Jaun**-dun aldaerarik **Andre**-dunaren aldamenean, baina erran bezala ez dugu erabateko azterketarik egin, eta beraz, badaiteke halako batean falta diren horiek azaltzea, non edo han:

— **Andrealbira:** *Andre Albira* (Art., 1173, 239). *Albira*, nolanahi ere, gizon izena ere izan zitekeela irudi du. Cf. Aratzuriko *don Albira Arceiz* (1200 inguruan, GPrior., 92). Banaketa ustel baten ondoreia ere izan liteke hau, halere.

— **Andreapala:** *Andre Apala* (Etxabakoitz, 1196, GPrior., 83).

— **Andreauria, Andereauria:** *Andre Auria* (Art., 1157, 221); *Andere Auria* (Art., 1158-59, 235); *Andre Auria* (Uztarroze, LPN, 478).

— **Andrebita** (Leire, Irig., 268).

— **Andredota:** *Andredota Enecoiz* (Galar zendea aldean, XIII. m., *GPrior.*, 113).

— **Andregaila:** *Andregaila*, Lintzoain (*LPN*, 468); *Andregaila* (Artanga, Urraulgoitin, *LPN*, 471); *Andregaila* (Iruñea, ib., 540).

— **Andregoto:** *Andregoto Galindones* (Lizarra, 1024, *CDIrache-I*, 7); *filia Andregoto*, *Pizarra Tota* (Art., 1156, 219); *Andregoto filia de Orti d'Assiain* (Etxalatz, *GPrior.*, 295).

— **Andremanztzia:** *Andre Mancia* (Art., 1110-1119, 190).

— **Andre maria:** *Andre Maria* (Art., 1158, 232); *Andre maria de agorreta* (Doneztebe, 1541).

— **Andreona:** *Andrehona d'Echevarne* (Nafarroa Beherea, *LPN*, 672).

— **Andreurrika:** *Andre Urraca Lopez* (Art., 1158, 229). Hau *dona Urraca Lopez* bezala ere aurkitzen dugu (Art., 1179, 246).

Zenbaitetan ez dugu maskulinoen **jaun**-dun formen **andre**-dun aldaera femeninoen orik:

— **Jaunanaia:** *Jaun Orti filius Jaun de Anaie* (Olendain, 1229, *GPrior.*, 206). Cf. *Anaia Chipi* (ib.).

— **Jaunazeari:** *Jaun Aceari Ortiz* (Larrageta, XIII. m., *GPrior.*, 126); **Jaunazari:** *Jaun Azari* (Art., 167, 1103).

— **Jaunbeila:** *Jaun Veila* (Leire, 1137, Irig., 275).

— **Jaunberasko:** *Jaun Berasco Ydoy* (Mañeru, 1228, *GPrior.*, 203).

— **Jaunjoane:** *Jaun Johanne* (Bera, *LPN*, 567).

— **Jaunmartin:** *Jaun Martin* (Art., 1156); *Jaun Martin de Soliaga* (Art., 1157).

— **Jaunmikele:** *Jaun Miquela Gomeça* (Uterga, 1226, *GPrior.*, 191, 219).

— **Jaunorti:** *Jaun Orti Semeroz de Azqueta* (Art., 1157, 222). *Orti Semero(i)z de Azqueta* bezala ere ageri da (Art., 1156-1157, 217); *Jaun Orti* (Art., 1158, 229); *Jaun Orti Lopeiz* (Art., 1158, 233); *Jaun Orti Enequoiz* (Sagues, 1168, *GPrior.*, 39).

— **Jaunotsoa:** *Jaun Oxo de Ponte Regina* (Leire, 1139, Irig., 275). Badugu, dena den, *Mario(t)soa* (ikus beherago).

— **Jauntellu** (Irig., 261).

c) **Mari(a)**-ren erabilera. Hau oso arrunta da pertsona izen maskulinoekin, ginekonimoak antolatze aldera, baina toponimoekin ere maiz opatzen

dugu, toponimo horiek etxe, herri eta bailara izenak direlarik, gehienbat. Hemen, goitiago erran gisan, garbi ikusten da genero markatugabea maskulinoa dela, eta femeninoa tankeratzeko, oraingo honetan, **Mari(a)-z** baliatzen ginela euskaldunok. Kasuren batean, **Mariamigel**-en modukoetan, andronimo baten aldaera femeninoa gabe **Maria Migel** izen-deiturak izan ditzakegu: cf. *Maria Miguel, Martin Miguel eta Taresa Miguel*, hirurak *Miguel de Leoz*-en umeak (*GPrior.*, Erriberri, 1288, 540-541). Hona hemen datuak:

c.1. Andronimoekin:

— **Mariandres** (Andres): *Maria Andres* (Ituren, 1718, *LCRI*; Zubieta, 1770-1855, *LCRZ*).

— **Marianton, Mariantxon** (Anton, Antxon): *Mari anton* (Doneztebe, 1645).

— **Mariabaptista** (Baptista): *Maria Baptista* (hiru aldiz azaltzen da Iturenen 1718an, eta hamabi aldiz Zubietan, 1770-1855 epean; *LCRZ*).

— **Mariaesteban, Mariesteban, Mariestebe** (Esteban, Estebe): *Maria Esteban de oyarcun* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria esteban* (Doneztebe, 1566); *Mariesteban de Alcarí* (Goizueta, 1649); *Maria Esteban* (Zubieta, 1770-1855, *LCRZ*).

— **Mariafermin** (Fermin): *Maria Fermin* (Ituren, 1718, *LCRI*).

— **Mariajoan, Marijoan, Mari joango, Mariajuan, Marijuan** (Joan, Joango, Juan): *Maria Johan* (Bidaurreta, 1518); *Maria Johan* (Ziritza, 1524); *Maria Johan de Oteyça*, *Maria Johan de Arrechea*, *Maria Juan* (Doneztebe, 1538); *Maria Juan* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria Joan de Cabaleta*, *Maria Joan Charracorena* (Doneztebe, 1566); *Maria Jn.º corcollena*, *Maria Jn.º delgorriaga* (Doneztebe, 1566); *Maria joan de Sarasa* (Garisoain, 1576); *Marijoan de barberarena* (Oieregi, 1615); *Marijoan de ardayz* (Ardaitz, 1626); *MariJoan de Lecumberri* (Esteribar, 1630); *Marijoan de echeberria* (Goizueta, 1645); *Mari Joan de Jançi* (Doneztebe, 1645); *MariJuan de Zaualeta* (Leitza, 1649); *Maria Juan* (hiru aldiz agertzen da, Ituren, 1718, *LCRI*).

— **Mariamartin, Marimartin** (Martin): *Maria martin* (Eritzegoiti, 1549); *Maria Martyn petricorena* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria martyn hija de pierres* (Doneztebe, 1566); *Maria martyn* (Doneztebe, 1570); *Mari martin de ayala* (Lizarra, 1587); *Maria martin de ardanaz* (Urdaitz, 1607 inguruan); *Maria martin de yrayçoz* (Gerendiain-Ultzama, 1608); *Marimartin* (Lantz, 1612); *Marimartin de Lecumberri* (Esteribar, 1630); *Marimartin* (Ezkurra, 1647); *Marimartin ochoa* (Otsagabia, 1650); *Maria Martin* (hiru aldiz agertzen da, Ituren, 1718, *LCRI*).

— **Mariamantias** (Matias): *Maria Matias* (bi aldiz dokumentatu dugu Zubietan, 1770-1855 epean, *LCRZ*).

— **Mariamigel, Marimigel** (Migel): *Maria Miguel dermyaga moça, Maria Miguel de Joannes de goyçqueta, Maria Miguel de Legargorri* (Doneztebe, 1566); *Maria Miguel Caconena* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria miguel de herassun* (Doneztebe, 1570); *Maria miguel de garissoayn* (Garisoain, 1576); *Maria miguel de yrigoyen* (Ituren, 1590); *Mari Miguel de Ygal* (Uxue, 1608); *Marimiguel de Yllarraz* (Ilarratz, 1634); *Maria Miguel* (bi aldiz agertzen da Iturenen 1718an [LCRI] eta beste bi aldiz Zubietan, 1770-1855 epean, LCRZ).

— **Mario(t)soa** (O(t)soa, Otxoa): *Maria osoa de eraso* (Irurtzun, 1590); cf. *Osoa de Iguçcunea* (Aranguren aldekoa, 1198 inguruan, GPrior., 100); *Ochoa de Amesqua* (Zufia, XIII. m., ib., 122).

— **Mari(a)urdin**: *Mari urdin de herbinea* (Erbiti, 1551); *Mari(a) urdin sabatena, Maria urdin martinena* (Doneztebe, 1566); *Maria Urdin* (Ziaurritz, 1639); *Maria Urdin* (Ituren, 1718, LCRI).

c.2. Patronimikoekin:

Zenbaitetan ez da garbi ageri **Mari**-ren gibelean dagoena zer den, espero zitekeen patronimikoa, edo patronimiko itxura duen izena (ikus **d** puntuan dioguna):

— **Mariperitz**: *Mari periz gastearena* (Ituren, XVI. mendea). Cf. *Mari-peritzenea* etxe izena (Etulainen, orain).

c.3. Toponimoekin:

— **Mariarano** (Arano, herri izena): *Mari arano Joancorena, Maria arano muger de eztebe de gaztelu, Mari arano hija de adame, Mari arano Lopetorena, Maria arano de joancote* (Doneztebe, 1566); *Maria arano Joancorena, Maria arano de Çubieta* (Doneztebe, 1570).

— **Mariamendaro** (Mendaro, Gipuzkoako herria): *Maria mendaro de Narbarte* (Malerrekako Oteitza, XVI. mendea).

— **Mariasunbil** (Sunbilla, herri izena): *Maria Sunbil* ("Sunbil", XVI. mendea).

c.4. Oikonimoekin:

Puntu honetan etorkiz pertsona izenak izanagatik ere, goizdanik etxe izen bilakatu direnak aipatuko ditugu:

c.4.1. **Mari(a)** + gizon izena:

— **Mariagartzia, Marigartzia, Marigartx(o)**: *Marigarcianena* (Ostitz, 1726-27); *Mariagarcianenea* (Irurita, 1726-27); *Marigarzia* (Arano, 1726-27); *Mariagarciaarena* (Lekunberri, 1726-27); *Marigarchenea* (Leitza, 1726-27).

— **Mariamartin, Marimartin**: *Marimartinena* (Arraioz, Ondarra, 1726-27); *Mariamartinena* (Artika, 1726-27); *Marimartinena* (Erratzu, 1726-27);

Marimartiñena (Erratzu, 1826); *Marimartinenea* (Bera, 1726-27); *Marimartiñena* (Legasa, 1726-27).

— **Mariamigel, Marimigel:** *Mariamiguel* (Ituren, 1564tik aitzina, *THVSL*, 534); *Miguelico marimiguelena* (Zubiri, 1601); *Marimiguelena* (Etxaleku, 1726-27); *Marimiguelenea* (Etxalar).

— **Mariandres:** *Mariandresenea* (Adios, 1726-27).

— **Mariantxon:** *Marianchonena* (Elgorriaga, 1572tik aurrera, *THVSL*, 489).

— **Mariapetriko:** *Mariapetricorena* (Ituren, 1607tik aurrera, *THVSL*, 534).

— **Mariesteban:** *Mariestebarena* (Ituren, 1767az geroztik); *Mariestebanbaita* (Ituren, 1788az geroztik, *THVSL*, 534-535).

— **Marijoango, Marijuan, Marijuanto:** *MariJoangorena, Mariguangoe-nea, Marijuangonea* (Goizueta, Hern.); *Joanes de Alssua Marijoango* (Goizueta, 1648); *Marijuanena* (Etxaleku, 1726-27); *Marijuantorena* (Elbete, 1726-27); *Marijuanena* (Elizondo, Ondarra, 1726-27).

— **Marioitz:** *Marioycena* (Ituren, 1655etik aitzina, *THVSL*, 535).

— **Mariurdin:** *Mariurdinena* (Etxaleku, 1601); *Mariurdinarena* (Iurita, Ondarra, 1726-27). Cf. *Churdinena*, Etsaingo etxea, 1640an; *Urdinena*, Berroetako etxea, 1726-27an (Ondarra).

c.4.2. **Mari(a)** + patronimikoa (pertsona izena?):

— **Mariperitz:** *Maripericena* (Erratzu, Ondarra, 1726-27), *Mariperitzenea* (Etulain, orain).

c.4.3. **Mari(a)** + auzo, herri edo haran izena:

— **Maritxalar** (Etxalar herri izena?): *Marichalarrena* (Elbete, 1726-27).

— **Mariaoitz** (Aoitz, Auza?, herri izena) *Martin de Maria Aoyz* Goldaratzen 1578an, Maitzení egun.

— **Mariarano** (Arano, herri izena): *Joanes de mari arano* (Arribe, 1569).

— **Mariarraioz** (Arraioz, herri izena): *Maria Arraiocena* (Elbete, Ondarra, 1726-27).

— **Mariarraitz, Mariarraitza** (Arraitz, Arraitza herri izenak?): *Mariarraycena* (Sorauren, 1605); *Maria Arrainzarena* (Muru-Azterain, 1726-27).

— **Mariartze** (Artze, Donamaria): *Joanes de Mariarce* (Artze, 1590).

— **Mariauza** (Auza?, herri izena): *Mariauzarena* (Luzaide, 1726-27).

— **Maribaztan** (Baztan, bailara izena): *Maribaztanena* (Elgorriaga, 1626tik); *Maribaztanea* (Elgorriaga, 1665etik; Azterainen: Jimeno Jurfo, *TCPPC*); *Maribastanena* (Larraitzar, 1726-27).

— **Maribertiz** (Bertiz, jauretti eta bailara izena): *Miguel de Maribertizena* (Legasa, 1573); *Maribertizena* (Legasa, 1726-27).

— **Maribergara** (Bergara, toponimo txiki eta nagusia): *Maribergarenea* (Doneztebe, 1797).

— **Mariezkurra** (Ezkurra, herri izena): *Mariezcurrena* (Ezkurra, 1566, 1646); *Mariezcurrena* (Etxaleku, Ezkurra, Iraizotz, 1726-27).

— **Marigartzarun** (Gartzarun, Gartzaron, herri izena): “Pedro de yabarr alias de mary garçarun vez.º de yabar” (Ihabar, 1564).

— **Marigetze** (Getze, Nafarroako bi herriren izena): *Mari Gueçerena* (Arlegi, 1655; Jimeno Jurfo, *TCPCG*).

— **Marigorriti** (Gorriti, herri izena): *Marigorritinea* (Lekunberri, 1726-27).

— **Marilesaka** (Lesaka, herri izena): *Marilesaquena* (Leitza, 1726-27).

— **Marisubitza** (Subitza, herri izena): *Mari Subizarena* (Galar, 1723).

c.5. Bestelakoekin:

c.5.1. Pertsona izen moduan ageri da:

— **Marigabon** (Irig., 164).

— **Marikatzalin**: *Katzalin* berez emakume izena da.

— **Mariona** (Irig., 235).

— **Maittipi, Mariaundi, Marittipi**: bizirik, Luzaiden.

— **Mariarbel**: *Maria arbel* (Doneztebe, XVI. mendea).

— **Mariaxuri, Marizuri**: *Maria xurj* (Nuin, 1546); *Mari çuri* (Lesaka, 1609).

c.5.2. Oikonimo bilakatua opatzen dugu:

— **Mariaurra** (cf. Aurgutia): *Mariaurra* (Luzaide, 1878); *Màrjaurràinja* (euskaraz) / *Casa Marjáurra* (erdaraz) egun.

— **Maribelo**: *Maribeloarena* (Ituren, 1684tik aitzina, *THVSL*, 534).

— **Maribeltz**: *Maribelcenea* (Arizkun, 1826).

— **Marieder(ko)**: *Mariedercorena* (Ituren, 1661tik aurrera, *THVSL*); *Mari Ederrena* (Subitza, XVI. mendetik aitzina; *TCPCG*).

— **Marimotx:** *Marimochenea* (Azpilkueta, 1825).

d) Patronimikoetan oinarria bide duen -i(t)za, -(t)za bukaera (lehen puntuarekin zuzenean loturik dago beraz) (4):

— **Anitza** (berezia, femeninoa den *Ana*-tik abiatzen bada, Lersundik nahi bezala).

— **Beltranitza**

— **Domekoitza, Domikutza**

— **Joanitza**

— **Lopeitza, Lopitza**

— **Txopeitza**

— **Mikelitza**

— **Maritza** (cf. *Mariz Ezquerria*, Izarbe ibar aldean, itxuraz, XIII. m., *GPrior.*, 113).

— **Monotza, Munutza** (Munio-tik): cf. *Munuza Ortiz, Monoza Ortiz*, Galar aldean itxuraz, XIII. m., *GPrior.*, 108, 110).

— **Nekoitza** (*Eneko*-tik).

— **Otxoitza**

— **Peritza, Perotza** Periza de Olazeregui (Sunbilla, 1726, LCRS).

— **Saustitza** edo **Sostitza** (cf. Saustin).

e) Beste bide bat -sa, -xa erabiltzea da:

Beti → **Betixa:** *Betissa* (Zizur edo Galar zendean, XIII. m., *GPrior.*, 114).

Orti → **Ortixa:** *Orti Moza de Azterain, Orti Unzuquo* (Zizur zendean, 1162an, *GPrior.*, 33) / **Ortixa:** *Ortissa de Enassurieta* (Mañeru, 1230, *GPrior.*, 217).

Pedro, Peru → **Pedruxa:** *Pedrusa* (Eultz, 1255, Iran., 253).

Hala ere, inoiz edo behin **-xa** duen maskulinoa opatzen dugu:

(4) Honen hedadura eta iraupenaz honela dio F. del Valle Lersundik "Una forma del femenino y el valor de la letra «ch» como diminutivo en los nombres de los guipuzcoanos de los siglos XV y XVI", *RIEV*, 24, 1933, 176-181 lanean:

"Por otra parte el estudio de este asunto me planteaba dos interrogaciones de interés. ¿En qué zona del país vasco (sic) se usó esta forma de construir el femenino de los nombres? ¿En qué época nació esta costumbre y cuándo desapareció? Es indudable que tal forma, aunque no muy generalizada, se usó en casi toda Guipúzcoa, en los siglos XV y XVI y que desapareció en el XVII."

Jaun Lopexa: *dona Maria Lopiz, filla de Jaun Lopeysa* (Iran., 261).

Prozedura hau **-(e)sa** atzizkiaren bidezkoa) oraindik bizirik dago Iparraldean, eta hainbat izen arrunt eta (erdi)bereziren iturburu izan da eta da. Azkeneko horien artean Luzaideko adibide gutxi batzuk aipatuko ditugu, denak oikonimoen ganean eraikitakoak: *Bartzelona* (etxe izena) → *Bartzelona* (etxe-ko nagusia) / *Bartzelonesa* (etxe-ko andrea); *Peiomoxorenea* (*Pèyomoxóinja*) → *Peiomoxo* (etxe-ko jauna) / *Peiomoxosa* (etxe-ko andrea); *Ttipittorenea* (*Ttipit-tóinja*) → *Ttipittwa* (etxe-ko jauna) / *Ttipittósa* (etxe-ko andrea)...

Bukatzeko diogun maskulinoak egiteko, **Jaun**-en erabileraz gainera, del Valle Lersundik aipatzen duen **-o** erabiltzeko joera izan dela, gorago ikusi bezala: **Angelo, Anxelo, Gartzio, Marto** (= Martin, del Valle Lersundiren arabera), **Mikeo, Mitxeo, Otsando** (≠ Otsanda)...

LABURDURAK ETA ITURRIAK

1726-1727: Urte hauetako Nafarroako etxeen apeoa, Nafarroako Artxibo Orokorra.

Art.: José María Jimeno Jurío, *Documentos Medievales Artajoneses, PV*, Iruñea, 1968.

CDIrache: Jose María Lacarra, *Colección Diplomática de Irache*, CSIC, Zaragoza, 1965, bi ale.

GPrior.: Santos A. García Larragueta, *El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII, PV*, Iruñea, 1957, bi ale.

Hern.: Vicente Hernandorena, "Goizueta'ko Etxe eta Baserri'en Izenak: 1616 urtetik - 1925'ño", *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, X. zkia., 1978, 75-90.

Iran.: José María Jimeno Jurío, "El Libro Rubro de Iranzu", *PV*, 120-121, 219-269, 1970.

Irig.: Alfonso Irigoien, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1994.

LCRI: *Libro de la Cofradía del Rosario de la villa de Ituren (1718)*, Iturengo eliza artxiboa.

LCRS: *Libro de la Cofradía del Rosario de Sumbilla*, Sunbillako eliza artxiboa.

LCRZ: J.I. Tellechea Idígoras, "Libro de la Cofradía del Rosario de la villa de Zubieta (1770-1855)", *PV*, 1970, 271-280.

LPN: Juan Carrasco, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Universidad de Navarra, Iruñea, 1973.

Ondarra: Patxi Ondarra, "Apeo de Baztán (1726-27)", *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, 44. zkia., 1984.

TCPCC: José María Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

TCPCG: José María Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1987.

THVSL: Andres Iñigo Ariztegi, *Toponomástica histórica del valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1996.

Vasc.: José María Lacarra, *Vasconia Medieval. Historia y Filología*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1957.

Bestelako datuak: Aipatu iturri eta agiri bildumetan azaltzen ez diren datuak hurrengo notariotzetatik ateraiak dira: PR-Atarrabia (Atarrabiako Protokoloak), 1. eta 82. karpetak; PR-Donztebe, 7, 15, 16, 17, 18, 19 eta 25. karpetak; PR-Elo, 11. k.; PR-Gares, 1. eta 2. karpetak; PR-Goizueta, 1., 2. eta 6. karpetak; PR-Jaitz, 1. eta 5. karpetak; PR-Hiriberri-Arakil, 1., 2. eta 4. karpetak; PR-Lizarra, 1, 1-bis, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 8-bis, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16, 17 eta 18. karpetak; PR-Uharte-Egues, 39, 40, 41, 42, 43, 44 eta 60. karpetak; PR-Urrotz, 3, 3-bis eta 4. karpetak; PR-Zirauki, 1. eta 2. karpetak.

EUSKALTZAINDIAREN IRIZPENA SOPELAKO HERRI IZENAZ

Bilbo, 1997ko urtarrilaren 28an

*Mikel Gorrotxategi Nieto,
Onomastika batzordearen idazkaria*

Euskaldunek mendez mende erabilitako izena eta egun erabiltzen dena, bai herrian bertan eta baita Ingurukoetan ere, Euskaltzaindiak aspaldian hobetsi zuena **Sopela** da, *Sopelanatik* euskal fonetikaren legee jarraituz eratorria, euskaraz, bai toponimian baita hiztegi arruntean ere, bokalen arteko *n* erori edo desagertzen baitzen, Koldo Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* liburuan ongi azaltzen den arteko moduan.

Bokalen desagertze hau ez da soilik leku izenetan gertatu hitz arruntetan ere bai, berba hauek euskal hitz jatorrak edo beste hizkuntzetatik hartutakoak diren kontuan hartu barik.

Toponimoetan, eta herri-izenei mugatuz, nahiz eta joera hau leku izen guztiekin gertatu, besteak beste hauek ditugu: *Galdakao* (*Galdacano*), *Lemoa* (*Lemona*), *Aramaio* (*Aramayona*), *Lazkao* (*Lazcano*), *Zestoa* (*Cestona*), *Arroa* (*Arrona*), *Minao* (*Miñano*), *Dorrao* (*Torrano*), *Zolia* (*Zolina*)...

Berba arruntetan ere suma daiteke aldaketa hau eta gaur egun *ardaua* edo *ardoa* eta *gazta* esan arren *ardandegi*, *ardantza*, *gaztanbera* eta *gaztanur* esaten da, aintzinean *n* zegoela eta hitzak **ardano* eta **gaztana* zirela adieraziz.

Esan bezala maileguetan (beste hizkuntzetatik hartutako berbak) ere ikus dezakegu jarrera hau, eta adibide batzuk baino ez aipatzearren latinetik aintzina hartutako hitz hauek ditugu: *katea*, *area*, *koroa*, *ohore*, *balkoi*,... gaztelaniaz oraingoz jatorrizko *n* daukatenak: *cadena*, *arena*, *corona*, *honor*, *balcon*,...

Euskaltzaindiak ez zituen hizkuntza osoari ez zegozkion tokian tokiko aldaketa fonetikoak onetsi herri izenak emateko, eta ondorioz ez zituen *Zestua*, *Lemoize* edo *Arguia*, onartu *Zestoa*, *Lemoiz* eta *Arrigorriaga* baizik, bai ordea euskara osoaren legeen arabera eratuak dauden izenak.

Kontsonanteen erorketa hau ez da oster, kasu guztietan gauzatzen, ez da, esaterako, atzizkietan egiten: *Perurena*, *Osabene*,... ezta egun *-n-* izanda ere atzinako *-nn-* (*n* geminatua) zenean ere, bai beste hizkuntzatik hartutako hi-

tzetan: *anhue edo Joan/Doniane*; baita euskal hitz jatorretan ere: *anaia, unai, ene, arrano*, etab. Gogoratu behar aitzinean bai euskarak bai latinak grafikoki irudikatutako *-nn-* soinua zutela.

Beraz, **Sopela** da egun ofiziala den *Sopelana* herriko euskal izen jatorra eta hau bere deklinabidea: *Sopelako, Sopelatik, Sopelan, Sopelako* eta *Sopelara*. Bestalde gentilizioa *sopelaztar* da.

Amaitzeko gogoratu behar da Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen 10. artikulua arabera, toki izenen jatorrizko hizkuntzaren idazkerari men egingo zaiola, izenok oso desberdinak ez direnean salbu, *Vitoria/Gasteiz, Arrasate / Mondragon* esaterako.

DICTAMEN DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA SOBRE EL NOMBRE VASCO DE SOPELANA

Bilbao, 28 de enero de 1997

*Mikel Gorrotxategi Nieto,
secretario de la comisión de Onomástica*

El nombre utilizado secularmente, hoy en día en uso, por la totalidad de los vasco-hablantes del municipio de Sopelana, así como los limítrofes, nombre dictaminado por Euskaltzaindia, es **Sopela**, forma derivada de Sopelana por pérdida de consonante *n* entre vocales, de acuerdo con las leyes fonéticas del euskera, como se explica correctamente en el libro de Luis Michelena *Fonética Histórica Vasca*.

La pérdida de la consonante no se da sólo en la toponimia sino también el léxico común, sean palabras patrimoniales del euskera o préstamos de otras lenguas.

Dentro de los topónimos, y limitándonos a los nombres de municipios tenemos, entre otros: *Galdakao* (*Galdácano*), *Lemoa* (*Lemona*), *Aramaio* (*Aramayona*), *Lazkao* (*Lazcano*), *Zestoa* (*Cestona*), *Arroa* (*Arrona*), *Dorrrao* (*Torrano*), *Zolia* (*Zolina*), *Miñao* (*Miñano*)...

En el léxico común se puede detectar este proceso y aunque las formas para *vino* (*ardoa*, *ardaua*) y *queso* (*gazta*) carecen de *n* intervocálica en los compuestos sí aparece, diciéndose *ardandegi*, *ardantza*, *gaztanbera* y *gaztanur*, denotando claramente la existencia de la *n* y las antiguas formas **gaztana* y **ardano*.

Como se ha dicho, este proceso también se da en los préstamos y por ejemplo tenemos estas palabras tomadas del latín: *katea*, *area*, *korroa*, *ohore*, *balkoi*,... que en castellano mantienen la *n* original: *cadena*, *arena*, *corona*, *honor*, *balcón*.

La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia no admitió las variantes locales producidas por fenómenos que no son generales a la lengua, como podría ser el caso de *Zestua*, *Lemoize* o *Argüia* por *Zestoa* (*Cestona*), *Lemoiz* y *Arrigorriaga*, sí en cambio, los nombres formados de acuerdo a las leyes de la totalidad del euskera.

Esta pérdida de consonante no se da en todas las situaciones, no ocurre por ejemplo en los sufijos: *Perurena*, *Osabene*, ni en los casos en los que la actual *n* fuese una *-nn-* (*n* geminada), ya fuesen estas palabras propias del euskera: *anaia*, *unai*, *ene*, *arrano*... o préstamos: *anhue*, *Doniane* (*Juan*). Hay que recordar que en la antigüedad tanto el euskera como el latín disponían del sonido representado por *-nn-*.

Por lo tanto **Sopela** es la forma euskérica del actual municipio de Sopelana, siendo su declinación la siguiente: *Sopelako*, *Sopelatik*, *Sopelan*, *Sopelako* y *Sopelara*. Asimismo el gentilicio es *sopelaztar*.

Finalmente hay que recordar que de acuerdo con el artículo 10 de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera se respetará siempre la grafía de la lengua originaria de los topónimos, excepto en el de aquellos en los que ésta sea sensiblemente diferente como *Vitoria/Gasteiz*, *Arrasate* / *Mondragon*.

Mikel Gorrotxategi Nieto, Licenciado en Filología Vasca, miembro correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y secretario de la comisión de Onomástica de esta Institución.

CERTIFICA:

Que en lengua vasca el nombre de la Junta Administrativa cuya forma oficial única ha sido hasta ahora *Berricano*, perteneciente al municipio de Zigoitia, es **Berrikano**. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *berrikanoar*.

Que así figura en la obra preparada por esta Comisión y editada por el Gobierno Vasco, *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco / Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak*, Vitoria/Gasteiz, 1986.

Que la forma más antigua de que se dispone parece ser *Verricano*, en la conocida lista del obispo de Calahorra, Jerónimo Aznar, del año 1257, forma que, salvada la inicial, pues se lee *Berricano*, se repite en la misma centuria, en la lista de los pueblos alaveses que contribuyen al cerco de Tarifa, de 1294, testimonios ambos recogidos en el libro *Toponimia alavesa, seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses*, del académico de honor de Euskaltzaindia Gerardo López de Guereñu Galarra, publicado por esta Real Academia en 1989.

Que es probable haya existido una forma sin nasal, **Berrikao*, a juzgar por los topónimos *Berrikagana*, *Berrikane*, *Berrikari* y *Berrikasoloa*, que pueden verse en la citada obra.

Que dicha probabilidad, a nuestro juicio, no puede avalar actualmente la propuesta de *Berrikao*.

Que, por todo ello, la Comisión se ratifica en la forma **Berrikano**, señalada en la publicación oficial arriba mencionada.

Que de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, que ordena respetar en todo caso la grafía vasca del nombre, salvo que las formas en las dos lenguas sean sensiblemente diferentes, en el que ambas tendrán consideración oficial, es procedente la grafía única **Berrikano**.

Y para que conste y surta efectos, expide el presente Certificado, en Bilbao, a veinticuatro de enero de mil novecientos noventa y siete.

V.º B.º E. Knörr,
presidente de la Comisión

Mikel Gorrotxategi,
secretario de la Comisión de Onomástica

* * *

Mikel Gorrotxategi Nieto, Licenciado en Filología Vasca, miembro correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Institución.

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, estudiando el asunto del nombre del Ayuntamiento de Legutiano / Villarreal de Alava, se ha ratificado en su propuesta de **Legutiano** como forma oficial.

Que **Legutiano** es, como se sabe, el nombre de la población existente antes de la concesión de la carta-puebla por el rey Alfonso XI de Castilla en 1333, en que se cambió a *Villarreal*.

Que el nombre romance prevaleció completamente, como su forma usual euskérica *Billerle*, quedando **Legutiano** sólo en la memoria de los historiadores y personas cultas, tales como Landazuri, Rodríguez Ferrer (residente en la villa) y Becerro de Bengoa. “Villarreal, la antigua Legutiano”, escribe éste en sus Descripciones de Alava.

Que **Legutiano** comenzó a extenderse a principios de este siglo, particularmente tras la inauguración, en 1913, del centro social de un partido, en cuyo letrero se leía “Legutianoko batzokia”.

Que **Legutiano** es la forma más apropiada para la denominación del municipio y de la villa, más bien que Legutio, forma analógica (con el modelo cercano de Otxandio, sin duda), pero del que no se ha encontrado testimonio oral ni escrito, al contrario que *Billerle*.

Y para que conste y surta efectos, expide el presente Certificado, en Bilbao, a veinticuatro de enero de mil novecientos noventa y siete.

V.º B.º E. Knörr,
presidente de la comisión
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi,
secretario de la comisión
de Onomástica

* * *

Mikel Gorrotxategi Nieto, Licenciado en Filología Vasca, miembro correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Institución.

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica ha estudiado el asunto del nombre del municipio de La Rioja Alavesa.

Que es conocido que dicho nombre ha sido tradicionalmente *Baños de Ebro*, al que durante mucho tiempo se añadió *de Navarra*, por haber pertenecido éste, como toda la comarca al Reino de Navarra.

Que *Baños de Ebro* ha sido la forma oficial hasta ahora, por ser el castellano la única lengua oficial de la Administración.

Que este nombre tiene un equivalente en lengua vasca: **Mañueta**, que empezó a emplearse, junto a aquél, a partir de 1979, figurando **Mañueta** (escrito Mainueta), junto a Baños de Ebro, en el *Nomenclátor de los municipios del País Vasco/Euskal Herriko udalen izendegia*, editado por Euskaltzaindia, Bilbao, 1979.

Que **Mañueta** figura en la obra preparada por esta Comisión y editada por el Gobierno Vasco, *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco/Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak*, Vitoria/Gasteiz, 1986.

Que dicha forma euskérica es una transposición analógica de la existente en otras partes del País, como *Mañueta*, en Pamplona, como puede verse en la obra de José María Jimeno Jurío y Patxi Salaberri *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Ciudad de Pamplona-Iruña*, editada también por Euskaltzaindia en 1994, forma paralela a *Bañueta*, que lleva, entre otros lugares, un molino en Amurrio.

Que por todo ello, la Comisión se ratifica en la forma **Mañueta**, para su empleo junto a la romance *Baños de Ebro*, y en la forma *mañueta* para designar en euskera al habitante de ese municipio.

Y para que conste y surta efectos, expide el presente Certificado, en Bilbao, a veinticuatro de enero de mil novecientos noventa y siete.

V.º B.º E. Knörr,
presidente de la comisión
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi,
secretario de la comisión
de Onomástica

***EUSKERA* agerkaria**
INDEX (1980-1996)

EUSKERA AGERKARIAN EGILE AURKIBIDEA (1980-1996)

1997-IV-30

Juan San Martin

Euskal hizkuntzaren ondarea, hein batean, hizkuntz ikerkuntza eta literaturan datza eta hortan nabarmendu diren gizonetan arreta berezia jarri beharra dugu noski. Horregatik, Euskaltzaindiaren *Euskera XXV* (1980), bigarren aldikoaren lehen alea, "Index" aurkibidea, sei atalez osatua zen. Hirugarrena orotariko egileei toki berezia eskainiz (ikus alearen 185-207. orrialdeetan). Ordukoaren osagarritz, oraingo honek atal haren jarraipena izan nahi du, lehen eta oraingo egileei buruzkoaren osagarritz.

Atal garrantzizkoa deritzat. Esan beharrik ez dut, gizarteek gizonez osatzen direla eta hauen ekintzetan kultura oinarritzen eta indarberritzen dela. Erakundeek ordea, antolakuntza bereziak izaki kultur mota bakoitzaren barnean gai bereziak hornituz, baina hau ere gizonez osatzen da eta aldi berean hauen ekintzak eta emaitzak indartzen bai dute erakundearen egitekoa. Autore hioen biografiak, lanak eta hauei buruz egin diren ikerketak dira zenbait euskalariri esker *Euskera* agerkariak bere baitan jaso dituenak. Baina, horien emaitzak urrutiago garamatza mundu zabaleko beste zenbaiten lanak aztergai dituztenean eta, oraingo aurkibide honetan, horiengana ere luzatuko gara, euskal kunturan aridirenek kontutan hartuak izan direlako.

Ongi zioen aipatu dudan "Index" edo aurkibide haretan Fr. Luis Villasantek, euskaltzainburu zen aldetik: "Gure hizkuntzaren aldeko lanetan *Euskera* aldizkaria harrobi handia dela esan beharrik ez dago. Zernahi lan aurkitzen da bertan: euskararen kezka eta arrangura sentitu duten gizonei buruz, euskal idazle zaharrei buruz, euskalkien bilketa eta azterketak, testu zaharren edizioak, gramatika eta hiztegi lanak, euskara eta euskararen etorkiaz iker lanak, Euskaltzaindiaren eta euskararen kondairari dagozkion albisteak, biografi eta bibliografi lanak, eta, noski, Euskaltzaindiaren beraren Erabaki eta Agiriak, Euskaltzaindiko batzarreen aktak, batzarreetako txostenak, etab".

Aurrera jarraituz zioen bezala: "Euskal alorrean ikasle, irakasle, ikertzaile, hitz batzez, langile diren edo izan nahi dutenei eskaintzen diegu tresna hau, probetxuko izango zaien ustean".

Urte hauetan lehengo idazleei buruzko hizkuntz ikerketak gehitu dira eta horrek egiten du lehen genituen baino berri gehiago eta zehatzagoak edukitzea.

Gure hizkuntzaren aldeko lanetan, zalantzarik gabe, *Euskera* agerkaria harrobi ez ezik zuzpertzailer ere bada. Euskaltzaindiak, bere historia laburrean, iluntasun eta argialdi ostarteak bizi izan ditu, aldi bakoitzeko politikaren eraginagatik. Baina ahal izan duen neurrian jarraipena ematen jakin du Euskal Herriko lau Diputazioek 1918-1919.

urteetan erakunde hau sortzean agindu zitzaionean saiatuz. Orain aurkezten dugun atal hau diogunaren lekuko izan bedi.

Adema, Gratien “Zalduby” (1828-1907)

XARRITTON, P.

J.B. Elissamburu eta Gratien Adema

XXXVII 1992 55-63

Adoain, R.P. Esteban de (F. Marcuello Zabalza) (1808-1880)

SATRUSTEGI, J.M.

Homenaje al Padre Esteban de Adoain en el centenario de su muerte

Adoain-go Esteban agurgarriaren mendeurrenaz

XXVI 1981 53-58

SAN MARTIN, J.

Sobre el euskara de Urraul Alto y el venerable Esteban de Adoain

XXVI 1981 59-65

Agerre, Jose (1889-1962)

COLIN RODRIGUEZ, A.

Jose Agerre eta Migel Jabier Urmenetaren omenez

XXXV 1990 101

HARITSCHELHAR, J.

Jose Agerre eta M.J. Urmenetaren omenez

XXXV 1990 103-104

ZABALETA, P.

Jose Agerrearen omenez

XXXV 1990 105-113

OCHOA, C.

Aguerre y el vascuence

XXXV 1990 115-118

Agirre, José María “Xabier Lizardi” (1896-1933)

MURUA, I. (Zarauzko alkatea)

X. Agirre Lizardiren mendeurrena

XLI 1996 11-12

HARITSCHELHAR, J.

Lizardiren Mendeurrena

XLI 1996 13-14

IGERABIDE SARASOLA, J.K.

Lizardi: Lurraren arnasa

XLI 1996 15-19

MUJKA, L.M.

Lizardi eta paisaiaren trataera

XLI 1996 21-30

ARKOTXA, A.

Bultzi-leiotik espazio-denboraren korapiloa

XLI 1996 31-36

OTAEGI IMAZ, L.

Lizardiren prosaren estiloaz

XLI 1996 37-46

OTEGI, K.

Lizardiren ametsezko bidaia

XLI 1996 47-57

Agirre, Domingo (1864-1920)

GARCIA TRUJILLO, S.

La novela costumbrista de Domingo de Aguirre

XXXVIII 1993 651-654

Aizquibel, José Francisco (1798-1865)

GARMENDIA ARRUABARRENA, J.

Un inédito de Aizquibel

XXXIV 1994 487-499

GARMENDIA ARRUABARRENA, J.

Aizquibel e Iztueta

XXXIV 1994 501-503

Ajuria, Fr. Juan (1800-1825)

ONDARRA, F.

Fr. Juan Ajuriaren idazlanak

XXXVI 1991 923-992

Akesolo Olivares, Lino (1911-1991)

URIBARREN, P.

Aita Lino Akesolo Olibares

XXXVI 1991 1189-1201

Aldazabal Elisburu, María (1906-1995)

ARANA MARTIJA, J.A. (JAAM)

María Aldazabal Elisburu

XL 1995 1173

Alegria, Blas (1883-1947)

ULAYAR, E.

Lakuntzako herriak eta Euskaltzaindiak Blas Alegria, euskal idazleari, egiten dioten mendeurreneko goratzarrea

XXVIII 1983 315-334

IGUELTX, L.

Blas Alegriaren liburu eta esku-eskribuez

XXVIII 1983 335-339

VILLASANTE, Fr. L.

Blas Alegriaren mendeurrena ospatzean

XXVIII 1983 341-343

GANBOA, J.M. (Lakuntzako alkatea)

Blas Alegriaren omenez

XXVIII 1983 345

Altube, Sebero (1879-1963)

ARDANTZA, J.A. (Arrasateko alkatea)

Euskaltzaindiko IX. biltzarrera ongi etorria

XXV 1980 317-319

VILLASANTE, Fr. L. Euskaltzainburuaren biltzar-hasierako hitzak	XXV	1980	321-324
IRIGOYEN, A. Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak	XXV	1980	325-353
AREJITA, A. Aditzaren galdegai funtzinoaz	XXV	1980	355-369
AKESOLO, L. Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste	XXV	1980	371-380
Altuna Bengoetxea, Patxi (1927-...)			
LAZKANO, L. (Azpeitiko alkatea) Patxi Altunaren Euskaltzaindian sartzea	XXVI	1981	599-600
VILLASANTE, Fr. L. Patxi Altuna Aitaren Euskaltzaindian sartzea	XXVI	1981	601-603
MITXELENA, K. Patxi Altunari erantzunez (Euskaltzain sarrerakoan)	XXVI	1981	617-626
Alzola Gerediaga, Nikolas "Bitaño" (1922-1982)			
LIZUNDIA, J.L. Nikolas Alzola Gerediaga	XXVII	1982	725-729
Allendesalazar, Angel (1854-1885)			
ARANA MARTIJA, J.A. Angel Allendesalazar-en <i>Biblioteca del Bascófilo</i> katalogoaren mendeurrena	XXXII	1987	399-406
Amezaga Aresti, Vicente "Bingen" (1901-1969)			
SARRIA, J. (Getxoko alkatea) Vicente Amezaga Aresti omenaldia	XXXIV	1989	275-276
BADIOLA, R. Vicente Amezaga Arestiren omenez	XXXIV	1989	277-283
AMEZAGA CLARC, M. Homenaje a mi padre Vicente Amézaga Aresti	XXXIV	1989	285-286
AMEZAGA, A. Reseña para un pacto	XXXIV	1989	287-290
Anabitarte Irazu, Agustin (1891-1981)			
SAN MARTIN, J. Agustin Anabitarte Irazu	XXVI	1981	1001

Añibarro, P. Pedro Antonio (1748-1830)

VILLASANTE, Fr. L.

En torno a una carta, hasta ahora inédita, del escritor vasco P.P. de Añibarro

XXVIII 1983 403-409

Apraiz Buesa, Odón (1896-1984)

KNÖRR, E.

In memoriam Odon Apraiz Buesa

XXX 1985 691-696

HARITSCHELHAR, J.

Erramundo Olabide, Odon Apraiz, Federiko Belaustegigoitia eta Luis González de Etxabarri jaunei omenaldia Euskaltzaindiaren 75. urtemugan

XXXIV 1989 447-450

Arana Goiri, Sabino (1865-1903)

VILLASANTE, Fr. L.

Bilboko euskal katedraren chunurteburua

Bestalde, -z *mozorrotu* (*indioz mozorrotu*) ala -ø *mozorrotu* (*indio mozorrotu*) egituretako zein erabili den (erabili bada) jakiteko literaturako datuak begiratu beharko genituzke. Nolanahi ere, batzordearen ustez, -z *mozorrotu* bezalakoak berri samarrak dira, eta euskarak horren ordeztu beste egitura batzuk erabili izan ditu: hala nola, *indio jantzita*, *indio jantzian*, *indio mozorroan*, *indio arropetan* (*iparraldean*) eta abar. *Mozorrotu* aditza erabili izan da literaturan, baina esango genuke bakarrik agertzen dela gehienetan: *mozorrotuta joan zen kalera*.

3. *Euskal Herriko mapa* ala *Euskal Herriaren mapa*? Agian *Euskal Herri mapa*?

Egitura horien artean erabiliena, dudarik gabe, *Euskal Herriko mapa* litzateke. Hori da erabili izan dena eta erabiltzen dena. Dena den, honek ez du esan nahi *Euskal Herriaren mapa* gramatikalki gaizki dagoenik.

4. *Europa osoa ibili du*.

Literaturako datuak ikusi beharko genituzke erantzun ziuera emateko. Beharbada erabilera hori izan du literaturan; ez dakigu. Nolanahi ere, batzordeak bitxi samarra deritzo egitura horri. Adibidez, iparraldean *korritu* aditza erabiltzen dute horretarako: *Europa osoa korritu du*. Badirudi *Europa osoan zehar ibili da* ere tradizioiduna dela.

5. "... *por si viene*"

Batzordearentzat honako hauek izan daitezke gaztelerazko adibidearen itzulpen egokiak:

Ohartxo bat utziko diot badaezpada (ere).

Ohartxo bat utziko diot etortzen bada ere.

Ohartxo bat utziko diot, etor daiteke eta.

Zuek emandakoa ez dugu ontzat hartzen:

**Ohartxo bat utziko diot badaezpada etortzen bada.*

6. Azken puntua dela eta, (Nola itzul "tener entradas"; "tener patas de gallo"; "dar (a alguien) un derrame cerebral"?) adierazi behar dugu ez direla era horretakoak Gramatika batzordeak erabaki beharreko kontuak; ez dira gramatikari dagozkionak eta beraz, ez dira Gramatika batzordearen konpetentzia. Nolanahi ere, hiztegi on baten laguntzarekin argi daitezke, zalantzarik gabe.

Jesús Mari Makazaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

**R. M.^a AZKUE EUSKALTEGIKO LANDER ARRASATEK
AZALDUTAKO ZALANTZAK: GRAMATIKA BATZORDEA-
REN ERANTZUN-TXOSTENA**

Gasteiz, 1997-IV-21

1. Zergatik erabil daiteke baldintza errealarekin eta ez hipotetikoarekin?

— Lekurik badaukat kotxez eraman ditzaket.

— Lekurik baneuka kotxez eraman nitzake.

Gure iritziz biak leudeke ondo, eta ez dakigu benetan zer den galdetzen dena edo zer debeku dagoen galdetzen dutenaren atzean.

Edozein kasutan ere, goiko horiek bezala ondoko egitura hauek ere (mendebaldeko zein iparraldekoak) ontzat emango genituzke:

— Aberatsa banintz, txalet handi bat eros nezake
erosi ahal izango nuke
eros ahal nezake
erosten ahal nezake

2. Zergatik erabil daiteke -z *gero* formarekin eta ez baldintza hipotetikoarekin?

— Lekurik edukiz gero, kotxez eraman nitzake.

— Lekurik baneuka, kotxez eraman nitzake.

Hauek biak ere ontzat ematekoak lirateke gure ustetan eta ez legoke bigarrena erabiltzeko debekurik. Hala ere, ohar bat egin nahi genuke emandako adibide hauetaz: askoz ere normalagoa eta erabiliagoa litzateke *lekua badut/badaukat, lekurik badut/badaukat* baino.

3. Jatortasun aldetik, zeintzuk lirateke hauen itzulpenak?

(a) Si trabajara en la oficina te podría hacer gestiones

— Bulegoan lan egingo banu, gestioak egin (ahal) niezazkizuke
egingo nizkizuke

(b) Si hubiera trabajado en la oficina te habría podido hacer las gestiones

— Bulegoan lan egin izan banu, gestioak egin (ahal) niezazkizukeen
egingo nizkizun

Dena den, ohartarazi nahi dugu baldintza baten ondoren ez dela normalena ahalezko edo potentzialeko formak erabiltzea, eta bai *nizkizuke*, *nizkizun* gisakoak.

Jesús Mari Makazaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

HONDARRIBIKO UDAL EUSKALTEGITIK EGINDAKO GALDERAK: GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUN-TXOSTENA

Gasteiz, 1997-IV-21

Ondorengo hauek ziren egindako galderak:

1. Esaldi kontsekutiboak: hauetatik zein da zilegi eta zein ez:

ZENBAT ETA ... ORDUAN ETA
ZENBAT ETA ... HAINBAT ETA
ZENBAT ETA ... GERO ETA
ZENBAT ETA ... HAINBAT

Gramatika Batzordearen iritziz hirugarrena izan ezik gainontzekoak ontzat jotzekoak dira. Beraz, ondorengo hau da ontzat hartzen EZ duen bakarra:

*ZENBAT ETA ... -AGO, GERO ETA ... -AGO

2. Denborazkoetan:

Gutunean emandako perpausak berez ez dira gramatikalki okerrak.

(1) Etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.

(2) Orain dela hiru urte etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.

Dena den, esango genuke hor ematen diren perpausen ondoan, denbora erlazioa edo aldi-komunztadura gordez egindako perpausak erabiliagoak eta neutroagoak liratekeela, eta Udal Euskaltegikoek zuten zalantza argitzeko ez direla oso adibide egokiak. Hona hemen:

(3) Etorri **zenez** geroztik ez da bisitan etorri.

(4) Orain dela hiru urte etorri **zenez** geroztik ez da bisitan etorri.

Hori horrela izanik, haiek emandako perpausak baino egokiago litzatekeela goian emandako (3) eta (4) perpausez gain denbora-erlazioa gordez egindako beste hau:

(5) Gaur goizean etorri denez geroztik ez da isildu.

Jesús Mari Makazaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

PORTALE / PORTALEA

Gramatika batzordea

1996-X-11

GRAMATIKA BATZORDEAREN TXOSTENA *PORTALE / PORTALEA* DEITURARI BURUZ

Eztabaidan diren deituren aurrean Gramatika Batzordeak, 1996ko urriaren 11n egindako bilkuran, Eibarko Udaletik egindako eskariari erantzunez, honako iritzi hau ematea erabaki zuen.

Funtsean, arazoa da ea Eibarko Kultura Etxeari ezarri nahi zaion izenak artikulurik behar duen ala ez: *Portale*-k ez luke eramango, baina *Portalea*-k nahiz *Portaleakoa*-k, bistan denez, bai.

Jakina da izen arruntek artikulua eskatzen dutela. Toponimiako hainbat izen berez arruntak izan ohi dira. *Portale*-ren kasua ere horrelakoa da. Hala ere, toponimian, bi jokabideak aurki ditzakegu. Urruti joan gabe, hor ditugu *Arrate* bera, *Errekatxo*, *Etxebarri*, eta beste hainbat, artikulurik gabe, gainerako artikuluduneari ondoan. Gauzak horrela, gramatikaren ikuspegitik, berez, lehian dauden hiru deiturak zilegi izango lirakeke kultura etxearen izen gisa.

Berez, zilegi da izen arrunt batetik izen propiora pausua ematea. Hori da hainbat erakunderekin gertatzen dena. Gure kasuan ere etxearen izena izen propioz har liteke. Arazoa, ordea, praktikoa da. *Portale* hautatzen bada, izen arrunt hau propio gisa erabiltzera beharturik egongo ginateke, deklinabidean bereziki. Orduan, honelakoak esatera bortxatuak izango gara: “Portalen izango da hitzaldia”; “Portalek itxura ederra du” etab. Bildur gara, ordea, berez zilegi litzatekeen jokabide horrek eibartar euskaldunen belarriei min egingo ez ote liekeen. Kasu hauetan ere jendeari entzun behar zaio. Eta jendearen usadioa bestelakoa bada —eta hala dela pentsa daiteke— gramatikaren aldetik *Portale* zilegi izan arren, beste bi deiturak egokiago direla uste izatekoa da. Hauetako edozein hautatuz gero, azken *-a* hori artikulua denez, izen mugatu singularrean deklinatu beharko da beti: *Portalea*, *Portaleak*, *Portalean*, *Portaletik* (ez, **Portaleatik*), *Portaleko* (ez **Portaleako*), etab., nahiz *Portalekoa*, *Portalekoak*, *Portalekoan*, *Portalekotik*, *Portaleko* (ez, *Portalekoko*, noski), etab.

Deklinatzeko modu hau seguruenik guztiz ohikoa gertatuko zaie hiritarrei. *Portale* oinarritzat hartuta ateratzen diren deklinabide formak baino.

Kontu hauek begien aurrean izanik, Gramatika batzorde honen iritzia *Portalea* nahiz *Portalekoa*-ren aldekoa da.

Patxi Goenaga,
Gramatika batzordearen idazkaria

LEKU ESANGURAKO POSPOSIZIOTZAKO BATZUK

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

1. SARTAURREA

Badira elementu batzuk oraindino ondo definitu gabekoak euskara gramatiketan. Hona batzuk:

Aurre, ondo, atze, aitzin, ...

Gramatikalari batzuek posposiziotzat dauzkate; beste batzuek, izentzat. Auzi horretan sartuko ez naizenez artikulu honetan, *posposiziotzakoak* izendatuko ditut kategoria ondo definitu bako elementuok.

Dagoeneko eman dira gramatiketan arau batzuk zelan erabili oro har aipaturiko posposiziotzakook. Hona, berbarako, zelako sekuentziak, besteak beste, jotzen diren okertzat:

*Gizon (andre) ondoan/aurrean

*Koldo aurrean/ondoan

eta zelakoak zuzentzat

Gizon**AREN** (andre**AREN**) ondoan/aurrean

Koldo**REN** aurrean/ondoan

Bestela esanda, erraten zaigu oker daudela honako estruktura hauek

1. *[Izen bizidun *komunak*] + [posposiziotzakoak]

2. *[Izen bizidun *propioak*] + [posposiziotzakoak]

Eta hurrengook artez, zuzen

1. [Izen bizidun *komunak* + genitibo marka] + [posposiziotzakoak]

2. [Izen bizidun *propioak* + genitibo marka] + [posposiziotzakoak]

Baina begitantzen zait genitibo marka bako egiturek ere ondo daudela, zuzenak direla kontestu jakin batzuetan behintzat. Eta horixe erakutsi gura dut artikulu honetan.

Horra, beraz, zeintzuk egitura mota izango ditudan aztergai artikulu honetan. Baina soilik erakutsi gura dut zuzen daudela estruktura ikergaiok. Eta

ez naiz sartuko ikertzen posposizitzakoak zelan erabili behar diren jeneralean, zelako gramatika-ezaugarriak dituzten.

Posposiziotzako ikergaiek berez-edo leku esangura daukate. Ez ditut guztiak ikertuko, ezpada hurrengoak edo euron baliokideak:

Aurre, ondo, atze, arte, gain, azpi

Ezarritako helburua betetzeko, lehenik eta behin (2. apartaduan) agertuko dut posposiziotzakoen egoera zertan dagoen euskara gramatika desberdinetan, inportanteenetan behintzat. Hots, zeintzuk gramatikak zelako arauak ematen dituzten posposiziotzakoen laguntzan doan izen bizidun komun en edo propioen gainean, eta zelako kontestuetan eman ere.

Ondorik (3. apartaduan), erakutsiko dut erabili, erabiltzen direla egitura aztergaiak, hots, "Izen bizidun komunak+posposiziotzakoak" (3.A. azpiapartaduan) eta "Izen bizidun propioak+posposiziotzakoak" (3.B. azpiapartaduan).

Horretarako, adibideak emango ditut ugari han-hemengo idatzizkoak eta bat edo beste ahozkoak. Baita nik beren-berengi asmatuiko batzuk ere, sinesgarriak eurak, erakutsiko dukedanez.

Esan dezadan, geroago argiago adieraziko dudanaren aurreragarri, uste dudala aztertuko ditudan egiturak gaitzetsita daudela gramatikalariek nahasten dituztelako euskara bera eta euskaraz kanpoko realitatea. Gauza bat da euskararen kodigoa eta besterik euskaraz kanpoko egoera. Eta gizartean jazo ezik kondizio egokiak halako egoera edo diskurso bat sortzeko, ezin, beraz, gertatu euskararen bertan. Alegia, geroago erakutsiko dudanez esaten badira "juez aurrera", "juez aurretik" eta "juez aurrean" eta abar eta ez "juez ondoan", "juez ondora" eta abar ez da euskararen bertan ezina dagoelako, ezpabere gizartean sortu ez direlako situazio egokiak erabiltzeko sekuentziok eskatzen dituzten nozioak. Geroago azalduko dut luze eta zabal.

2. POSPOSIZIOTZAKOAK ZERTAN DAUDEN

Sartaurrean esan legez, euskarazko gramatika batzuek debekatu egiten die te posposiziotzakoei oro har izen bizidun komun en eta propioen ondorik joatea, tartean genitibo atzizkirik (-en) ez dagoela:

*Izen bizidun komunak + posposiziotzakoak

*Izen bizidun propioak + posposiziotzakoak

Hiru gramatika aztertuko ditut, nire ustez orain arteko onenak-edo, hegoaldean behintzat, eta eurotan zehaztuko da nork zer erraten duen posposiziotzakoen erabilerari buruz, aipaturiko e struktura batean zein bestean:

1. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Laburra*

2. Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan*3. R. M. Azkueren *Morfologia Vasca*

Lehenari dagokionez, Euskaltzaindiaren *Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* liburuko 469. orrialdean honako hauxe dio:

Berez lekua adierazten duten hitzen artean badira zenbait bere esanahiaren muinean beste zerbait edo norbaitekiko erlazioa ere daramatenak eta, hainbestez, posposizio gisa erabili ohi dira sarri:

- (20)gure aldean
- (21)aitaren aldamenean
- (22)perpausaren buruan
- (23)anaien artean

Ez da nahitaezkoa genitiboa:

- (24)zubi ondoan
- (25)mendi gainean

Genitiboaren marka kendu ahal izateko izenak bizigabea behar du izan (*gizon ondoan) eta ez du ondotikizenondorik hartzen ahal (*zubi handi ondoan).

Antzeko ideia ageri da gure Akademiaren aipaturiko gramatika bereko 159. orrialdean:

Posposizio batzuetan, hala ere, -en atzizkia ken daiteke. Hori gertatzen da *aurre*, *atze*, *gain*, *azpi*, *barne*, *ondo*, *alde* eta hauen kideekin eraturiko posposizioetan, izena bizigabea denean eta izenondorik gabe ageri direnean:

- (89)etxe aurrean
- (90)*Koldo aurrean
- (91)*etxe handi ondoan

Euskaltzaindiaren gramatikako aipu bietan, eta artikulu honi dagokion arloari oratuta, debekatuta dago berez leku esangurako posposiziotzakoa jartzea izen bizidunaren ondorik beronek genitibo markarik ez duela. Lehen aipuan, bizidun *komun* bidezko adibidea (*gizon ondoan) ematen zaigu okertzat; bigarrenean, bizidun *propio* bidezko adibidea (*Koldo aurrean).

Bigarren gramatikari dagokionez, hots, Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* ere antzeko ideia ageri da 100, 102 eta 103. orrialdeetan:

d) ONDO, AZPI, GAIN, AURRE, ARTE, ERDI... izenak dira

Hauek, berez, *izentzat* har daitezke, nahiz eta oso jokabide berezia izan. Lekua adierazten dute gehienbat (...)

Bestalde -eta oso inportantea- zenbait izenekin ezin daiteke osa **zubi ondoan** erako egiturarik: adibidez, izen propioekin eta gizakiari dagozkion izenekin:

andrearen ondoan eta ez ***andre ondoan**
gizonaren azpian eta ez ***gizon azpian**

baina bai,

astoaren gainean = asto gainean

Izen propioekin ere ezin da:

Andoniren aurrean baina ez ***Andoni aurrean**

Hemen mila arazo agertzen zaizkigu. Froga, honako sintagma gramatikal eta ez-gramatikaletan dugu:

Andoniren aurrean baina ***Andoni aurrean**

[+gizakia]

[+gizakia]

Andoniren bila baina ***Andoni bila**

Baina beste alde batetik hona hemen beste sintagma hauek ere:

	gizonaren aurrean			
			baina *gizon aurrean	
Eta	gizonen aurrean			
	gizonaren bila			
			eta gizon bila	
	gizonen bila			

Adibide hauek adierazten digutenez, **bila** eta **aurrean**-en aurrean **Andoni** bezalako izen berezi batek jokabide bat zuen bitartean, **gizon** bezalako izen arruntek jokabide berezia dute. Hortaz, izenen tasunak alde batetik eta “posposizio”-aren tasunak bestetik, hartu beharko dira kontutan gauzak ondo egin nahi badira.

Hala ere **arte**-rekin ez dirudi hain hertsia denik erregela hau:

gizonen artean eta gizon artean

Bistan da bi hauek ez dutela zeharo esanahi berdina. Eta bestalde, izenlaguna -atzizkiduna baldin bada- pluralean agertuko zaigu.

Badirudi **ondo**, **azpi**, **gain** ... eta abarrekin **-en** atzizkia duen izenlaguna agertuko dela beti.

Patxi Goenagak Euskaltzaindiaren iritzi berdintsua du, baina ez berdina. Diferentzia txiki bat dago azpeitiarraren alde: onartzen du *tarte* (eta *gain* ?) erabil daitekeela zuzenean izen bizidun komunekin, tartean ez dagoela genitibo markarik.

Eta azkenik, R. M. de Azkuek diosku bere *Morfologia Vasca*-ko 406 eta 407. orrialdeetan:

600. Estos compuestos aurre, aitzin, arte, barru, ondo, oste... (...) se unen a nombres de seres animados, lo mismo que de materiales, para componerse con ellos cuando son específicos; pero no a seres individuales, a nombres propios, con los cuales no se pueden formar nombres compuestos. No decimos ni-aurrean por nire aurrean delante de mí, ni Pedro atzean por Pedrorren atzean detrás de Pedro

eta berriro oratzen dio gai berari lekeitiar gramatikariak 474. orrialdean eta esan

Nuestras posposiciones necesitan del posesivo para relacionarse con nombres propios y con pronombres, ya sean éstos personales o ya demostrativos: debajo de Antonio Antonen azpian, delante de mí nire aurrean o aintzinean, junto a nosotros gure ondoan, alrededor de ésta casa etxe onen inguruan. No se puede decir como en castellano “bajo Alejandro” Alejandro azpian, sino debajo de Alejandro Alejandoren azpian. Ante mí es siempre para nosotros “delante de mí” nire aurrean, nunca ni aurrean (1)

En cambio, con nombres no personales, no propios, aunque sean de seres animados y vengan ya escuetos, ya acompañado de adjetivos, esa desinencia se indica sin desinencia alguna, formando nombre compuesto: esku-azpian *debajo de la mano*, zubi-aurrean *delante del puente*, gizon gorri artean *entre hombres rojos...* etc.

Azkuek ere Euskaltzaindiaren iritzi berdintsua dauka izen propioen arloan, baina ez izen bizidun komunei dagokienez. Bertzalde, azkenengo arloan esandakoaren frogagarri Azkuek han-hemen ematen dizkigu *aurrer*en bidezko hiru adibide behintzat, izen komunek ez dutelarik genitibo markarik, geroago ikusiko dugunez *aurreri* dagokion adibidetegia aztertzean: “Gizon-aitzinean”, “neskatilla-aurrean” eta “itsu-aurreko (aitzineko)”.

Kontuan hartuz gero hiru gramatikok zer erraten duten leku esangurako posposiziotzakoan gainean, esan dezaket bat datozela hirurok izen propioen arloan, baina izen komunenean Azkuek adierazirikoarekin ez datoz bat beste gramatika biak. Alegia, ados daude “Izen bizidun propio + posposiziotzakoak” estrukturan izen propioak genitibo marka (-en) behar duelakoan (AndoniREN aurrean). Ez daude ados “Izen bizidun komun + posposiziotzakoak” egituran. Eta berriro gomutatu nahi dut P. Goenagak salbuetsi egiten duela *arte*.

3. PROPOSAMENA

Apartadu honetan sartaurrean adieraziriko estruktura aztergai biak ditut ikerkizun:

A: Izen bizidun *komunak* + [posposiziotzakoak]

B: Izen bizidun *propioak* + [posposiziotzakoak]

Eta frogatu gura nuke artez daudela daudenetan, izen bizidunen eta posposiziotzakoan artean genitibo atzizkirik ez dagoela.

Horretarako, lehenik (3.A.-n) ikertuko dut lehendabiziko estruktura eta, bigarrenik (3.B.-n) bigarrena.

3.A. IZEN BIZIDUN KOMUNAK + POSPOSIZIOTZAKOAK

Azpiapartadu honetan egitura ahaleginduko naiz erakusten ikergai honi dagokion galaraziriko adibideok

*gizon ondoan/aurrean

*andre ondoan/azpian

zuzen daudela. Egitura aztergai hau jorratuko dut ondoko hurrenkeran daudelarik posposiziotzakoak:

1.AURRE/ 2.ONDO/ 3.ATZE/ 4.ARTE/ 5.GAIN/ 6.AZPI

Lehenengo agertu nahi dut erabili, erabiltzen direla aipaturiko egitura ikergaiak, frogatzat adibide franko emanaz. Gero (3.A.7-n) bertze datu batzuk ematen ditut egiazkoak batzuk eta asmatuak beste batzuk, ordura arte frogaturikoa sendoesteko.

3.A.1. AURRE (AITZIN)

Posposiziotzako honi buruzko adibide anitz daude han-hemenka.

Hona mordoa Luis Michelenaren *Orotariko Euskal Hiztegitik* aterea

Juez aurrian, ta mundubaren aotan darabilrelako, gorroto deutsa. Ib. 360 (III, 363)

Medikuen guzurrak/gaiso-aurrean esanak,... Ib.267 (III, 363)

Koñatuak, lagun-aurrian, ori lako jazokunetan ...Kk Ab I 42 (III, 364)

Emeti oi dator, ezkongeiya guzurragaz edo edo egijagaz Jutzizijagaz zama-itutia, Juez aurrera eruatia, karzelan sartutia. Ib. III 358 (III, 369)

Etorri ziran, ba, andra bijak bakaldun aurrera. Ib. 18. (III, 370)

Eraman zituzten berriz ere Xalbat eta Engrazi epaimai aurrera. Ib. 177 (III, 371)

Santua asto gainean eta Tifo asto-aurreko; laster beste guztiyak atzian utzi zituzten. Ib. 145 (III, 366)

Bakaldun aurrian eta zure aintziñian abua itxitta eukitteko aginddu zorrotzak eman dautsadaz. Otx 147. (III, 466)

Beingo baten aurkeztu zan bakandera aurrian. Otx 151. Bakaldun aurrian jaun eta aundizki guztijen erdi-erditik igaro zan. Ib. 12.

Konparituren guziak Kristen tribunal aitzinean. LC 2 Cor 5, tft.

Ta sar-erazten dute erreg-aitzinera. Ib. 144. (III, 469)

J. M. Mocoroaren *Repertorio de locuciones*en ere bi topatu ditut:

55955. Zer? Farra egiten didak? Gogoango didak! ... Nik salatuko aut alkate-aurrera!... G-726-122,92 (II, 2224)

54066. Frantzisko asto-gañean eta Tito asto-aurreko (asto-zai) jarri ziran bidean... G-610-58,191. (II, 2150)

R. M. Azkueren liburu batzuetan ere ageri dira adibide banakak:

Gizon-aitzinean ante hombres (Morfologia Vasca, 406)

Floren, uri andi nai txikietan, yaiegunez burua aizez beterik dabela dirutsu bailiran agertzen dakuzan mutil babalastoak, elizbiretako santuak baizen lerdan, neskaitila-aurrean beti irri-barrezka, (...) (Latsibi, 140)

itsu-aitzineko (AN-b) (*Diccionario Vasco-español-francés*, I, 441)

itsu-aurreko (B, G) (*ibid*, I, 441)

Fr. Bartolomeren bat ere badakart hona:

(...). Kura jaunaren aurrera eroanda, lotsea emon gura izan arren umeari, leen bere izanda dago, ta ez deusa ardura. Txaarrago. Alkate aurrera eroanda, egun batzuetan kartzelan eukitea, beste ainbeste. (Fr. BARTOLOME: *Sermoiak*; Iruinea, 1816-19) P. Urkizu-ren *Lengua y Literatura Vasca* (162) liburutik hartua)

Eta, azkenik, Ramon Labaienaren bat, idatzia Euskaldunon Egunkaria-ko zutabearen ez dakit zein egunetako "Barrionuevoren koplak" izenekoan:

Nolabait Barrionuevo jaunak emanen dio hasiera hauteskunde kanpainari, epaile aurrean kantari hasten denean.

Ahozko euskararen bestalde, arruntaren arruntak dira, esate baterako, hurrengo sekuentziak:

... **jende aurrean** ...

... **jende aurreko** ...

Baserri munduan ere ezin normalagoak dira ondorengoak

Itaurrean egin lan (idi-aurrean, itulean)

Itaurreko egin dut

Orain arteko adibide andanak erakusten digu "Izen bizidun komun + posposiziotzakoak" estruktura aztergaia zilegi dela euskaraz, *aurre* posposiziotzakoari dagokionez. Hots, "gizon, juez, alkate, neskaitila, lagun, ... + aurrera, aitzinera, ..." sekuentzia erabili, erabiltzen dela, baina definitu gaitzeko esangura duela, zehazteko nekeza-edo behintzat. Esandako hitz-kateak erabiltzen dira gizartearen euren eskatzen dituzten nozioak adierazteko beharra dagoelako.

Baina mundua aurrerabidean doa, egunetik egunera kontzeptu berriak sortuz. Orain artean gramatikalariek debekaturiko *gizon aurrean* edo antzeko hitz-katearen nozioa sortu ez bada, berau esatea lartxo bada ere, horrek ez du erran nahi delako sekuentzia hori edo antzekoak oker daudenik. Are gehiago, pentsa daiteke bidezkoa dela erabiltzea, emaniko frogak emanda. Aski litzateke *gizon aurrean* eta antzeko sekuentziek dauzkaten nozioak adierazteko beharritzana izatea gizartearen, izan ere aipatu sekuentziak erabiltzeko ezinik ez dago-eta euskararen bertan.

Eta *aurre*ren bidez erraz eta ugari samar gertatzen delarik estruktura aztergaia, beste leku esangurako posposiziotzakoe (ondo, atze,...) zer debeku edukiko lukete gure egitura aztergaia baliatzeko, baldin-eta gizartean gertatuz gero beharrezko kondizioak? Izan ere, ez dago egon euskaran bertan hizkuntzazko debekurik aipatutako egiturak erabiltzeko. Oztopoa, egotekotan, hizkuntzaz kanpoan dago, realitate estralinguistikoan. Zeren-eta, gizartean ez badago -hala izanez gero- egitura aztergaiak eskatzen duen kontzepturik, ez baita sortuko euskaran berean. Euskarak berak badauka eduki ahala, gaitasuna *aurre*ren adibideen bitartez frogatu dudanez, baina beharbada ez da gertatu gizartean *gizon aurrean* eta antzekoak esateko edo idazteko kondiziorik edo beharizanik. Baina hortik ez da segitzen erabil ezin daitekeenik.

3.A.2. ONDO (ALBO,ATZE,OSTE)

Zabal da euskal hiztunetan, batzuetan behintzat, *ondok* esangura bi dituela gutxienez, artikulua honetan dagokion arloan. Bata, “aldamenean, alboan” posposiziotzakoen adieran; bestea, “ostean, gibel, ondorik, ondotik, ondoren”-en adieran:

ONDO: 1 (c), lado, *côté*. (...) -2 (c), luego, à continuación: ensuite, à la suite, après. (R. M. de Azkue, Diccionario Vasco-español-francés, 113 or.)

Ez Euskaltzaindiaren, ez P. Goenagaren adibideetan ez da ageri, nik uste, aipaturiko zein esanguratan dauden, sekuentziak bere hutsean ematen dizkigute-eta, ezelako kontestu barik.

Aurre dela-eta ia zenbatgura adibide eman ditut. *Ondoren* beraren bidezko adibide bakarra ere ez dut, ez idatzizkorik ez entzunikorik.

Baina frogatu uste badut ere “Izen bizidun komun + posposiziotzakoa” egitura erabiltzen dela *aurre* posposiziotzakoaren bidez, ematen du *ondoren* bitartez ere ez dagoela zoztorrik delako estruktura ikergaia baliatzeko euskararen beraren aldetik. Nahikoa litzateke gizartean izatea edo sortzea egoera egokia “Izen bizidun komunak+ondo” estruktura aztergaiak eskatzen duen nozioa adierazteko.

Jarraian *ondori* buruz daukadantxoa azaltzen ahaleginduko naiz dituen adiera bietan: lehenengo adieran, hots, *alboarenean*, geroago, 3.A.7. puntuan, emanen ditut adibide batzuk beren-beregi asmatuak; bigarren adieran, *osteren* berdintsuan alegia, 3.A.7. puntuan emanen baditut ere sakonago adibide batzuk bertze batzuk paratuko ditut hemen atoa, baina *ondo* bidezkoak barik beronen atze, *ondoren* eta *ondotik* baliokideen bidezkoak:

a. Atze

Hona J. M. Mocoroaren *Repertorio de locuciones*etik jasoriko adibide bat:

54791. Ordura arte ezta asitzen andre-gei atzean, illargi beteagaz buruen ganean. B-284-1,38, II, 2180)

baita J. A. Mogelen *Peru Abarkako* beste bi:

...mutillok bere eztitu inok ikusiko neskatilla atzian (100)

Atxurren, lajetan, ira batuten, landara jorraan ta biargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilli arren, eztarue ain erraz estulik atera; ez osagille edo mediku atzian ibilli. (62)

eta, hondarreko, Luis Michelenaren *Orotariko Euskal Hiztegi*ko bertze bi:

Berrogei urte neska atzian/dabillan mutilzar bati. BEnb NereA 107 (269)
Geiago nekau бага, aberats atzean / (...) (III, 268)

b. *Ondoren*

Udaran-da, jai-arratsaldeetan joaten giñan aita ondoren ikustaldia ematera, eta antxe larratzen ziran negurarte,... (Zinkunegi, A, 18 or.)

c. *Ondotik*

Atso madarizione hori, errieta ondotik, heldu duk gure aitzinera, haur guziak, bat bertzearen ondotik,... (L. Michelena 1987, 469 or.)

Orain arte aipaturiko *atze*, *ondoren* eta *ondotik* bidezko adibideon ordezesan daitezke eta beharbada esan ere egingo dira nonbait, hurrenez hurreneko esaldiok:

... **andregai ondoan**
... **neskatilla ondoan ...**
... **osagile edo mediku ondoan ibili ...**
... **joaten ginen aita ondoan ...**
... **errieta ondoan ...**

Euskara mintzatuan ere badut adibide bat jasoa Juan Martin Elexpururen-gandik ("Jon neska *ondorik* dabil"). Berak dioenez, normal erabiltzen dute hiztun batzuek Bergara aldean.

3.A.3. ATZE (OSTE, GIBEL,...)

Posposiziotzako hauek ere arazo barik gaineratzen zaizkie izen bizidun komunei:

Hona hemen J. M. Mocoaroaren *Repertorio de locuciones* harturiko bat:

54791. Ordura arte ezta asitzen andre-gei atzean, illargi beteagaz buruen ganean. B-284-1,38, II, 2180 or.)

Jarraian beste bat J. A. Mogelen *Peru Abarkakoa*:

...mutillok bere eztitu inok ikusiko neskatilla atzan (100)

Atxurren, lajetan, ira batuten, landara jorraan ta biargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilli arren, eztarue ain erraz estulik atera; ez osagille edo mediku atzian ibilli. (62)

Hurrengoak Luis Michelenaren *Orotariko Euskal Hiztegitik* daude jasoak:

Berrogei urte neska atzian/dabillan mutilzar bati. BEnb NereA 107 (269)
Geiago nekau бага, aberats atzean /(...)AB AmaE 281. (III, 268)

Azkenengoa A. Zinkunegiren *Bizi naiak lege Zorrotzaketik* hartu dut:

Udaran-da, jai-arratsaldeetan joaten giñan aita ondoren ikustaldia ematera,
eta antxe larratzen ziran negurarte,... (18)

Atze posposiziotzakoa dagokionez, Miren Azkaratek ere ohartxo bat egi-
ten bere *Hitz-elkartuak euskarazen*:

Izen elkartuak osatzen dituzten gain, aurre, atze, barru, ondo... mugaki-
zunez osatutako adibideen artean, badaude, azkenik, postposizio gisa hartu
beharko liratekeen zenbait ere. Esaterako *diru atzian* (23), *ardi atzetik*
(20), *osaguille atzian* (08), *olerki gogai atzetik* (12)... adibideetan atze-k
jatorrizko adiera, “atzeko alde”, galdu egin du, atzetik ibili, atzetik joan
esapideetan duenaren parekoa hartuaz. Ezin daiteke esan, beraz, goiko esa-
pideok eta ate atzian erabat berdinak direnik. Eta alde horretatik atze-k
hartzen duen kasu marka ere ezin da edozein izan -n edo -tik izan behar
du (ez -ra ere: *osagile atzera joan da) (400,401)

Euskara izatez gauza baldin bada esateko

Juez aurrean/aurrera/aurretik
Lagun aurrean/aurrera/aurretik

Neska atzean/atzetik
Mediku atzean/atzetik

begitantzen zait “osagile atzera joan da” erabiltzeko ez dagoela ezelako
debekurik euskararen aldetik. M. Azkarateren sekuentzia eta antzeko beste ba-
tzuk behar izan ez direlako ez dira sortu edo gure eguneroko bizitzan sekuen-
tziok aditzen ematen dituzten prozesuak iruditu gaitzak direlako, ez direlako
erraz imaginatzen. Arazoaren untzea edo giltza, behin eta berriro erran dugu-
nez, estralinguistikoa da, hizkuntzaz kanpoan dago. “Osagile aurrera joan da”
hitz-kateak funtzio bat dauka, nozio bat adieratzen du: “osagiletara-edo joan
da”. Era berean “osagile atzera joan da” sekuentziak ere izan dezake bere kon-
tzeptua, nozioa, gure mendebaldeko zibilizazioan iruditu nekeza-edo, erabil
ezina-edo oraingoz. Baina jazo, jazo daiteke orain ez bada laster batean edo
inoizko denboraren batean, kondizio egokiak gertatuz gero gizartean. Edo da-
goeneko non-edo-nongo zibilizazioren batean jazotzen da jazo agian, edo jazo
daiteke.

3.A.4. ARTE

Patxi Goenagak dio *arte* bidez *-en* atzizkia ez erabiltzeko erregela ez dela
hain hertsia. Ni ere ados nator berarekin, izan ere, nire irudiko, arruntaren
arruntak gertatzen zaizkit genitibo marka bako sekuentziok:

... **neska artean** ...
 ... **jende artera** ...
 ... **lagun arteko bazkariak** ...
 (...)

3.A.5. GAIN

Batzuek “zaldi gainera” igotzen dute. Era berean umeek atsegin dute *gizon gaine*an ibiltzea, gizonak lau oinean edo pataka dabiltzala.

Zezenketa mota bati “zaldi-gaineko torea” deritzo. Igual egun batean *gizon-gaineko* torea ere asmatzen duten, izan ere urte gutxian inon diren joko eta olgeta sortu eta sortzen ari dira munduan barrena. Eta nik proposaturiko sekuentziak inondik egiten ote du huts?

Emakume bati itaunduz gero “Zelan egiten duzu narrutan gustoren?” badauka ihardestarik, nik uste, honetara

Nik **gizon gaine**an egiten dut larrutan gustoren

3.A.6. AZPI

Azpiren adibiderik ez badaukat ere, ez entzundakorik ez idatzitakorik, nire ustez ez dago batere problemarik erabiltzeko kontestu batzuetan izen bizidun komunen ondo-ondoan, bitarteko atzizkirik gabe. Berbarako:

Menderen mendetan egon da emakumea **gizon azpian**

Inoizkoren batean gizona egonen da **emakume azpian**

*Gain*en gainean esandako hondarreko esaldiak ere balio digu honetarako ere

Nik **gizon azpian** egiten dut larrutan gustoren

Beti ere zelan edo nola galderaren erantzuna delarik.

3.A.7. BESTERIK

Orain arte ahalegindu naiz erakusten zer-edo-zelan “Izen bizidun komunak + leku esangurako posposiziotzakoak” estruktura aztergaia erabiltzen dela erabili. Horretarako han-hemenkako datu batzuk eman ditut frogagarri, eta beste batzuk beren-beregi sortu, uste baitut posposiziotzakoon erabil-eremua ez dagoela behar bestean garatuta. Gainera, azaldu dut zergatik dagokeen gaitzetsita aipaturiko estruktura gramatikan.

Hemen adibide gehiago eman gura ditut aitzinekoen indargarri eta sendogarri, baina hiru esanguratara zedarritua: batetik denbora esanguran eta, bestetik, iharduera eta agente esanahietan. Adibideotatik batzuk erabiltzen dire-

lakoan nago, edo behintzat ulerterrazak dira; bertze batzuk, propio sortuak dira, baina uste dut hauek ere ulergarriak jazoko direla.

3.A.7.1. Denbora esanguran

Gure egitura aztergaiak zenbait kontestutan denbora adiera dauka. Eta horixe landuko dut hemen.

Lehenengo eta behin, erakutsi gura dudana hobeto aditzeko, entelegatzeko, beste adibide batzuk emanen ditut, ulertzeko errazagoak.

Euskaraz erabiliak ere erabiliak dira, erraterako, ondoko esaldiok:

Gerra aurrean (aitzinean) Ameriketara egin nuen alde.

Meza ondoan (ostean, gibelean) pilotan egiten genuen.

Luis Michelenaren hiztegian ere badira hainbat:

Negu aitzin, dena lan. Ib. 117. (I, 459)

Pazko aitzin ditutzu Egurgin errege. Ib. 23. (I, 459)

Bertzea sorthu zen, 518 urthe Yesus aintzinean. Ib. 72. (I, 464)

Azpmarraturiko sekuentziok, zertan esanik ez, denbora esangura dute.

Jakintsuek diotenez, gizonok edo gizakiok gizon izan aurretik izakiak izan ei ginen. Ideia hau kontutan hartuta erran ditzaket hurrengo esaldiok:

Ez dakigu zelakoa zen **gizon aurreko** izakia.

Zelakoa izango ote da **gizon ondoko** dena delakoa?

Zelan biziko ote da gizakia **gizon ondoan**?

3.A.7.2 Iharduera eta agentea esanguretan

Esangura bi hauetan zelan erabiltzen diren posposiziotzakoak ulertzeko joko dut batetik, baserriko lan mota batera eta, bestetik, probalekuetako beste behar bat edo bestera.

Bada baserrian behar mota bat, soroetan egiten dena idien bidez lur-be-rritzen, iraultzen, e.a. Behar honetan idi aurrean pertsona bat joaten da gidari lana-edo egiten. Lagun hori *itaurrean* (*idi aurrean*) aritzen da. Eta kontestu honetan arrunt-arruntak dira ondokoak lako esaldiak:

Urlia gaur **idi aurrean** ari da beharrean

Sendiak gaur **idi aurreko** dihardu

Ez dakit *idoi ondoetan* lan egiten dutenei buruz hurrengoak bezalako esal-
diak erraten ote diren:

Urlia **idoi ondoan** ari da beharrean

Sendiak **idoi ondoko** dihardu egiten

Baina aipatutako behar mota eginez gero, ez daukat dudarik goiko esaldiak zuzenak direla.

Era berean, behar izanez gero, ez dago euskararen beraren aldetik ezelako trabarik hurrengo esaldiok ere errateko

Urlia **idi atzean (ostean,...)** ari da beharrean.
gainean

Sendiak **idi atzeko (osteko,...)** dihardu egiten
gainea (...)

Eta idien gainean esanikoak balio digu, behar izanez gero, bertze animalia batzuentzat ere: zaldi, mando, asto, zezen,... Nahikoa da gizartean aipatutako lako iharduerak adierazteko premia izatea, euskararen aldetik ez dago-eta debekurik.

Eta badira Euskal Herriko probalekuetan, batzuetan behintzat, zenbait proba, hala nola, idi- eta zaldi-probak. Eta ez da batere gaitza imaginatzen probotan goian aipaturiko iharduera-eta agente-lanak, esate batera, *zaldi-aurrean* eta *zaldi-aurreko* hurrenez hurren.

Probalekuetan bada beste dema mota bat “gizon-proba” izenekoa, lantzean behin-edo egiten dena. Bertan gizon batek harri bat tatarrez edo narraz eroan behar izaten du, idi probetan egiten den antzera.

Aipaturiko gizon-proba motan laguntzaile bat edo gehiago izaten dira: bata, aurrean behintzat; bestea, ondoan. Biotarik zeinek bere behar mota egiten du. Ez dakit izenik dutenik ere, baina egoera honen berri jakinda, trankil-trankil esan ditzaket ondoko esaldiok:

Gaur urliak dihardu **gizon aurrean** edo **ondoan**
Atzo sendia aritu zen **gizon ondoko** edo **aurreko**

Aipatu sekuentziok ez dakit erabiltzen diren. Beharbada mintzatzaile batzuek esan ere esaten dituzte, baina esan ezik ere, zerk eragotziko luke esaldiok erratea?

Era berean, gizon probotan kondizio egokiak gertatuz gero esan litezke ondoko sekuentziak:

... **gizon atzean (ostean,...)**
gainean (...)

... **gizon atzeko (osteko,...)**
gainea (...)

nahiz eta beharbada egundo esan ez diren.

Eta posposiziotzakoon bidez beste hainbat eta hainbat adibide ere sor daitezke.

Egunen batean halako “andre-proba” motaren bat sortuz gero -dagoeneko non-edo-non sorturik ez badago- zerk edo nork debekatuko liguke esatea *andre aurrean* (*ondoan*) edo *andre aurreko* (*ondoko*)? Euskarak ez behintzat.

Uste dut frogatua-edo geratu dela “Izen bizidun komuna + posposiziotzakoak” egitura aztergaia erabiltzen dela, eta anitzez gehiago ere balia dezakegula.

3.B. IZEN BIZIDUN PROPIOAK + POSPOSIZIOTZAKOAK

Egitura aztergai honi buruz erakutsi gura nuke zuzen egon daitezkeela hiru gramatiketan debekaturiko **Andoni aurrean*, **Koldo aurrean*, **Pedro atzean* eta **Alejandro azpian* sekuentziak.

Izan ere, izen propio bati badago gaineratzerik artez posposiziotzako batzuk, ezelako tarteko barik, inolako atzizkirik gabe, beti ere denbora esanguran.

Euskaraz satsa beste erabiltzen dira hurrengook bezalako esaldiak, hiztun batzuen edo askoren artean:

Halako aztarna **Kristo aurrekoa** (**ostekoa**) da
San Juan aurrean (**ondoan**) pattal ibili ginen
Franco aurrean (**ostean**) hobeto bizi ei ginen

Era berean erran dezaket:

Ez dakigu ontsa nolako euskara egiten zen **Etxepare aurrean**
Koldo Mitxelena aurreko (**osteko**) euskal hizkuntzalaritza

eta hondarreko esaldi hau laburrago honetara

Koldo aurreko (**ondoko**) euskal hizkuntzalaritza

Jakina, esaldi hau soilik erabil daiteke zein Koldoren gainean dihardugun dakigun kontestuan, Koldo asko daude egon-eta.

Egin dezagun badugula Andoni izeneko euskal hizkuntzalari apartaren bat. Eta etorkizun hurbilean edo inoizkoren batean izango da esaterik

Andoni aurreko (**ondoko**) euskal hizkuntzalaritza

Esaldi honek, goragokoaren moduan, eskatzen du kontestu jakin batzuetan baliatzea.

Honelako esaldiak garauntzeko ez dugu ezelako debekurik euskararen beraren aldetik. Izan ere, gizartean bertan jazo behar dira kondizio egokiak aipatutako lako edo antzeko esaldiak erabiltzeko. Horra zergatik *Andoni aurrean* eta antzekoak ondo dauden, eguneroko bizitzan gertatuz gero horretarako kondizioak.

Orain arte *aurre* eta *ondo*, edo euron baliokideen bidezko adibideak jorratu ditut, eta denbora esanguran jorratu ere. Eta horrenbestez frogatu dut *Koldo aurrean* eta *Andoni aurrean* sekuentziak erabil daitezkeela.

Alejandro azpian hitz-katearen erabiltzeari dagokionez, antzeko bat badaukagu bizi ere bizi oraindino euskaldunok gogoan, batzuek bederen:

Franco azpian batzuk eztitan bizi ei ziren.

Izen propioa izan daiteke, berbarako, baserri baten izena eta, ondorioz, esan ditzaket honakook:

Franco azpian patari bat ikusi dute
gainean
aurrean
ondoan
atzean

Alejandro izan daiteke baserri edo leku-izen bat ere, edo historia unibersala apur bat dakienak gomutan izango du Alejandro Magno famatua. Beraz, Francoren bidez sorturiko esaldi berberak edo antzekoak sor daitezke Alejandroren bitartez ere.

Pedro atzean sekuentziak buruko min gehiago eman lezake esaldiak sortzeko, baina ez trabarik dagoelako euskaran bertan, euskararen kodigoan, ez-pabere, egotekotan, euskaraz kanpoan, behin eta berriro esan eta ustez frogatu dudanez.

Arte posposiziotzakoaren bidez ere adibide batzuk ateratzen zaizkit. Egin dezagun seme batzuk ditudala txirrindulariak. Eta Indurain izateko bidean daudela, edo hala ikusten ditut aita begiz. Kontestu honetan ez da bat ere raroa honako hau esatea:

Indurain artean bizi naiz.

Arte posposiziotzakoaren bitartez edozenbat adibide sor ditzaket horrelakoak. Nahikoa da gaur eguneko kirolari ospetsuak edo izandakoak hartzea (Ronaldo, Guerrero, ...).

Arte bidezko sekuentziotan izen propiook izen komun bilakatu dira kontestuotan, denotatzetik edo izendatzetik pasatu dira konotatzera. Alegia, referente bakarra adieraztetik halako ezaugarri multzoko elementuak adieraztera.

Eta bertze posposiziotzakoaren arartez ere eman litezke adibideak, eguneroko bizitzan jazoz gero kondizio beharrak. Euskararen beraren aldetik, behintzat, ez dago ezinik.

4. KONKLUSIOA

Sartaurrean esandako moduan helburutzat jarri dut ondoko egiturek

1. "Izen bizidun komunak + leku esangurako posposiziotzakoak"
Gizon ondoan

2. "Izen bizidun propioak + leku esangurako posposiziotzakoak"
Koldo ondoan

erabili, erabiltzen direla edo erabil daitezkeela eta uste dut, oso erraturik ez banabil, frogatu dudala. Horretarako eman ditut batetik, datu egiaztagarriak eta, bestetik, sorturiko adibide sinesgarriak.

Nire ustez, posposiziotzako aztergaiak genitibo marka (-en) derrigor behar duten uste ustela dator gaztelaniaren imitazioan eman izan direlako arauak edota kontzeptu bi nahasi izan direlako: batetik, estruktura ikergaiak erabiltzeko euskararen kodigoa eta, bestetik, egitura aztergaiok zeintzuk kondiziotan erabiltzen diren gizartean. Eta kondiziook anitzetan ez baitira jazo, edo jazotzeko iruditu gaitzak dira.

BIBLIOGRAFIA

- AZKARATE, Miren, 1990, *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Donostia, Deustuko Unibertsitatea (Donostia).
- AZKUE, Resurrección M. de, 1909, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, 2 lib., (1969, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao).
- 1923-25, *Morfología Vasca*, (1969, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca)
- 1989, *Latsibi*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- GOENAGA, Patxi, 1980, *Gramatika Bideetan*, Erein (2. argitalpena)
- EUSKALTZAINDIA, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbao, Euskaltzaindia.
- MICHELENA, Luis, 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- MOCOROA, Justo M., 1990, *Repertorio de locuciones del habla popular vasco*, 2 lib., Labayru.
- MOGEL, Juan Antonio, 1990, *Peru Abarka*, Euskal Editoreen Elkarte.
- ZINKUNEGI, Agustin, 1995, *Bizi Naiak Lege Zorrotzak*, Auspoa, Oiartzun.

ZEIN IZENORDAIN ERLATIBOAREN DEKLINABIDEA

1997-01-10

Alberdi Larizgoitia, Xabier
EHUKo irakaslea

García García de los Salmones, Julio
EHUKo irakaslea

0. SARRERA

Artikulu honetan erlatibo “klasiko” deiturikoaren (“zein ... bait/-n”) alderdi bat baino ez dugu aztertuko (1), *zein* izenordainaren deklinabidea, hain zuzen ere. Literatura-tradizioaren azterketa da gurea eta helburua, gaur egungo euskarari izenordain honen inguruan dagoen batasunik eta estandarizaziorik eza (deklinabide mugatua ala mugagabea?) ikusita, gai honi buruz argi pixka bat egitea da.

Lan hau egiteko, funtsean, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* “corpusaz” baliatu gara. Izugarri handia den “corpus” (2) horretatik adibidetegi aski zabala —mila esalditik gora dituen adibidetegia— aukeratu genuen, garai eta euskalki guztietako idazleak sarturik.

1. “ZEIN” ERLATIBOZKOAREN DEKLINABIDEA LITERATURA-TRADIZIOAN

Lehenengo eta behin, esan beharra dago puntu honetan ez dagoela batasunik literatura-tradizioan. Oro har, esan daiteke hiru eredu ditugula, aro eta euskalkiaren arabera banatuak. Lehenik, XVI eta XVII. mendeetan “deklinabide” mugagabea erabiltzen zuten gure idazle zaharrek (Leizarraga, Materrre, Axular, Oihenart...). Hona hemen, adibide gisa, garai horretako paradigmaren zati bat:

(1) Egitura honen ikuspegi zabal eta sakonagoa izateko ikus J. Alberdi eta J. Garcia 1995.

(2) “Corpusa” aukeratzeko eta osatzeko lan honetan Jesus Mari Makazaga lankidea izan dugu gidari eta aholkulari; horregatik, aurrera baino lehen, geure esker ona agertu nahi diogu, lan hau ezinezkoa izango baitzen bere laguntzarik gabe.

Bestalde, idazlanak aipatzeko *Orotariko Euskal Hiztegiako* laburdurez baliatu gara.

(I) MUGAGABEA
(AURREKARIA SINGULARRA NAHIZ PLURALA IZAN)

(NOR)	ZEIN
(NORK)	ZEINEK
(NORI)	ZEINI
(NOREN)	ZEINEN
(ZEREZ)	ZEINEZ (Lç)/ ZEINETZAZ (Ax, Mat)/
(ZERTAN)	ZEINETAN
(ZERTATIK)	ZEINETARIK

...

Ageri denez, garai honetan “zein” hitzak sail mugagabeko kasu-markak hartzen ditu beti, galdegilearen eta izenordainaren artean bereizketa formalik egin gabe. Hortaz, “zein” erlatiboaren aurrekaria singularra izan edo plurala izan, forma mugagabea nagusitzen da numeroko komunztadurari kasurik egin gabe (3); adibidez:

- (Ia) ZEIN = NOR SING.
(..) aita, zein {NOR SING.} baita gauza guzien lehen fundamenta eta kausa (...) (Lç)
- (Ia') ZEIN = NOR PL.
(...) liburu hauk diszerni eta berhez eraziten baitrauzkigu berze liburu eklesiastikoetarik, ZEIN {NOR PL.} probetxable izanagatik, ezpaitirade ordea halako non (...) (Lç)
- (Ib) ZEINEK = NORK SING.
(...) eta irakin hartarik ilkitzen da khe bat, lanbo bat, zeinek {NORK SING.}, poetak dioen bezala, itsutzen baitu adimendua (...). (Ax)
- (Ib') ZEINEK = NORK PL.
(...) ezterauet emaiten berehala, zeren ezpaitira oraiño bethe eta konplitu amorreoen bekhatuak, zeinek {NORK PL.} baitadukate herri hura (Ax)
- (Ic) ZEINETZAZ = ZEREZ SING.
(...) bekatu hura zeinetzaz {ZEREZ SING.} kutsaturik sortzen baikara Adam gure lehenbiziko aitaren bekatua dela kausa (...) (Mat)
- (Ic') ZEINETZAZ = ZEREZ PL.
(...) halatan egin ditut halakoentzat euskaraz debozinozko othoitz eta orazino batzuk, goizetan, arratsetan, eta bertze anhitz denboratan eta

(3) Izenordain erlatiboan numero-komunztadurarik egiten ez bada ere, ohar gaitezen adizkiak numero-komunztadura gordetzen duela aurrekariarekin; izan ere, izenordaina “kasu gramatikal” deituetariko batez (*zein*, *zeinek*, *zeini*) hornituta badago, singular/plural bereizketa aditzaren bidez egiten da: *zein baita/zein baitira; zeinek itsutzen baitu/zeinek baitadukate...*

okasinotan egin eta erran ahal ditezkeienak, ZEINETZAZ {ZEREZ PL.} egiten baitut hirugarren partea (...) (Mat)

Mugagabearen aldeko joera orokor honek XVII. mendean bertan baditu zenbait salbuespen, hala ere. Leizarragak, esaterako, “*zeinagatik* (sing.)/*zeinagatik* (pl.)” bereizketa ezartzen du eta Etcheberri Ziburukoa “*zeña* (sing.)/*zein* (pl.)” bikoteaz baliatzen da. Baina XVII. mendean, zalantza, nahaspila eta gorabehera askorekin bada ere, S. Pouvreau da deklinabide mugatuaren aitzindari nagusia (4). XVII. mendearen bigarren zatian deklinabide mugatuaren ildotik doazen ale solte batzuk agertzen dira: *zeina* (Arg), *zeña-ril/zeinei* (INav), *zeinaren* (Mong)...

XVIII. mendean Etcheberri Sarakoa da sistema berria finkatzen duena eta harrezkero XVIII. eta XIX. mendeetan (5) “*zein*” izenordain erlatiboaren deklinabide mugatua gailentzen da lapurterazko literatura klasikoan (6). “Singular/plural” bereizketa bilatzen da, honelakoxe paradigmnen bidez:

(II) MUGATUA (AURREKARI SINGULARRA /AURREKARI PLURALA)

(NOR)	ZEINA	/ ZEINAK
(NORK)	ZEINAK	/ ZEINEK
(NORI)	ZEINARI	/ ZEINEI
(NOREN)	ZEINAREN	/ ZEINEN
(NOREKIN)	ZEINAREKIN	/ ZEINEKIN
(NORENTZAT)	ZEINARENTZAT	/ ZEINENTZAT

...

MUGAGABEA (AURREKARIA SINGULARRA NAHIZ PLURALA IZAN)

(ZERTAN)	ZEIN(E)TAN
(ZERTATIK)	ZEIN(E)TARIK
(ZERTARAT)	ZEIN(E)TARAT
(ZERTAKO)	ZEIN(E)TAKO

...

(4) Pouvreuren idazlanetan sistema zaharra (mugagabea) eta berria (mugatua), biak aurkitzen dira nahastekatuta.

(5) Ithurrik (1895:20), esaterako, deklinabide mugatuaren aukera egiten du (“Ce pronom [rélatif], soit au singulier, soit au pluriel, se décline sur la déclinaison définie des noms communs.”) Leizarraga eta Axularren bidea baztertuz.

(6) Azpimarkatzekoa da, hala ere, tradizio horretatik kanpo dabiliztan ekialdeko idazlanetan mugagabeari eusten diotela. Hala gertatzen da, adibidez, hurrengoetan: Lizarraga Elkanokoa (*zeñen*, *zeintako*, *zeintan*), CatB (*zein*), CatLuz (*zein*, *zeini*), CatAe (*zeini*, *zeineki*), Legaz (*zein*).

Ikus daitekeenez, “zein” erlatiboak iparraldeko literaturan sail mugatuko kasu-atzizkiak hartzen ditu XVIII. mendetik aurrera (Etcheberi Sarakoa, Monho, Haraneder, Larreguy, Baratciart, Duhalde, *JesBih*, *MarII*, Jauretxe, Hiri-barren, Duvoisin, *ECocin*, Elissamburu, Arbelbide [BN]...). Dena den, joera orokor hori ez da hedatzen kasu-marka guztietara; izan ere, goiko paradigmak markatu denez, leku-denborazko kasuetan (*non*, *nondik*, *nora*, *nongo*...) deklinabide mugagabeari eusten diote idazle lapurtarrek (7). Hots, ez gure *cor-pusean*, ezta *Orotariko Euskal Hiztegiarenean* ez da ageri “zeinean, zeinera, zeinetik, zeineko...” tankerakorik. Horrela, oro har, “zeina/zeinak, zeinak/zeinek, zeinaren/zeinen...” oposizioa gordetzen duten idazlanetan honelakoak aurkituko ditugu:

- (IIa) (*MarII*). ZEINTAN = ZERTAN SING.
 (...) *ez da lengoaja bat ZEINTAN ximpleago eta naturalago ezar baititeke nola gurean* (...) (*MarII*)
- (IIa') (*MarII*). ZEINTAN = ZERTAN PL.
 (...) *bainan aithortzen dut, urthe bat baino gutiagoz, konbertsione gehiago egin izan zela ene herrian, ezen ez, aintzineko hogoi eta hamar urihetan, ZEINTAN ez bainuen pederikatzen ahal bezen pederiku eder eta aphaindurik baizen* (...) (*MarII*)
- (IIb) Duhalde: ZEINETARAT = ZERTARAT SING.
 (...) *hortik ere liburu sakratuak mintzo zaiku seinduen zorion hartaz, bazkari batez bezala, ZEINETARAT gonbidatuak direnek* (...); *eztei batzuz bezala, ZEINETAN sentsu baxhotxa dagokon atseginaz gain-di baitago* (...) (Dh)
- (IIb') Duhalde: ZEINETARAT = ZERTARAT PL.
 (...) *horra bi mugak, ZEINETARAT baitaramate mundu huntan atxikitzen diren bi bidek*; (...) (Dh)
- (IIc) Jauretxe: ZEINTARIK = ZERTATIK SING.
 (...) *gauza gutia daiteke, bainan gauza guti harrek ereman gaitzazke handiago batetara, ZEINTARIK baidoha* (...)
- (IIc') Jauretxe: ZEINTARIK = ZERTATIK PL.
 (...) *eta kontsidera ditzagun haren zauri sakratuak ithurri abundant batzu bezala, ZEINTARIK atherako baitire* (...)

Geroago, XIX. mendean, hirugarren ereduak sortu zen mendebaldeko literaturadun euskalkietan, hau da, bizkaieraz (J. A. Moguel, Añibarro, Vicenta Moguel, Astarloa, F. Bartolome, J.J.Moguel, Uriarte, E. Azkue, Iturzaeta, Arrese) eta gipuzkeraz (Izueta, Lardizabal). Eredu berri honek badu zerbait aurreko

(7) Instrumentalarekin ere gorabeherak daude: idazle batzuek (Jauretxe) deklinabide mugatua (*zeinaz/zeinez*) erabiltzen dute eta beste batzuek (Baratciart, *MarII*), aldiz, mugagabea (*zeinetaz*).

bietatik: alde batetik, lapurtar idazle klasikoan (Ax, Lç...) forma mugagabea hartzen dute singularrerako (8); beste alde batetik, pluralgiledun (*zeintzu(e)k*) sail berria —mugatu plurala— erabiltzen dute pluralerako. Gure *corpus*aren arabera, sistema honen lehen lekukoa *GavS* (1762) da (*zeintzuek* = nork pl.), baina XIX. mendera arte itxaron behar da sistema berria finkatuta ikusteko. Hona hemen, paradigma berriak:

(III) MUGAGABEA/ MUGATUA
(AURREKARI SINGULARRA / AURREKARI PLURALA)

(NOR)	ZEIN	/ ZEINTZU(E)K (ZEINTSUBAK)
(NORK)	ZEINEK	/ ZEINTZU(B)EK (ZEINTSUBAK)
(NORI)	ZEIN(ER)I	/ ZEINTZU(B)EI
(NOREN)	ZEINEN	/ ZEINTZU(B)E(E)N
(NOREKIN)	ZEINEGAZ	/ ZEINTZU(B)EKAZ=ZEINTZU- (B)EKIN
(NORENTZAT)	ZEINENTZAT	/ ...
(NORENGATIK)	ZEINGAITIK	/ ...
...		
(ZERTAN)	ZEINETAN	/ ZEINTZU(B)ETAN
(ZERTATIK)	ZEINETARIK	/ ZEINTZU(B)ETATIK
(ZERTARA)	ZEINETARA	/ ZEINTZU(B)ETARA
...		

Hau da, edozein kasutan, iparraldeko tradizio berriko idazleen ildotik, “singularra/plurala” bereizketari eusten diote mendebaldekoek: haiek “zein/zeinak” bikotearen bidez, hauek “zein/zeintzu(e)k” aurkakotasun formala dela medio. Baina hirugarren aro honetan beste urrats bat ematen da: singular eta pluralaren arteko bereizketa —(II)an ez bezala— kasu guztietara zabaltzen da, hots, baita leku-denborazko kasuetara ere.

LABURPEN-ONDORIOAK:

Labur bilduz, garaiazen eta euskalkiaren araberako hiru eredu nabaritzen dira “zein” erlatibozkoaren deklinabidean:

1. Eredu zaharra (XVI, XVII), balio anaforikodun galdegileari —galdegile hutsari bezalaxe— sail mugagabeko atzizkiak gehitzen dizkiona.

2. XVIII eta XIX. mendeetako lapurterazko idazleena, leku-denborazko kasuetan izan ezik, anaforikoa deklinabide mugatuaren arabera (*zeina* = sing./*zeinak* = pl. etab.) jokarazi duena.

(8) Beovidek (*AsL*), hala ere, lapurterazko eredu berriari jarraitu bide dio; gure *corpus*ean, singularrekoak diren honako bi forma hauek idoro ditugu: *zeina* (nork sing.), *zeinaren* (noren sing.)

3. XIX. mendeko bizkaierazko eta gipuzkerazko idazleena, “zein = sing. / zeintzu(e)k” bikotea dela medio, aurrekoen joera leku-denborazkoen sailera zabaldu duena.

2. “ZEIN” ERLATIBOZKOAREN DEKLINABIDEA GAURKO EUSKARAN

Jakina, gu ez gara nor gaurko euskaran zer bultzatu behar den eta zer bazter daitekeen erabakitzen hasteko. Dena den, deklinabidearen kontu honi buruz zenbait gogoeta plazaratzen ausartuko gara.

Ikusi dugun bezala, funtsean hiru aukera daude literatura-tradizioaren arabera, aurreko. ataleko (I), (II) eta (III) paradigmetan erakutsitakoak, hain zuzen ere.

Euskara estandarrari begira, gehienbat bizkaierazko tradizioko sistema erakusten duen (III)ko aukera (*zein/zeintzuk*) markatutzat jo daiteke agian, tradizio jakin eta mugatu bati lotua agertzen delako (ik. *Euskaltzaindiaren Arauak*, 11. araua). Formaren aldetik, dena dela, honelakoxe paradigmak lirateke gomen-dagarriak aukera honen barruan (9):

(III') ZEIN (mugagabea)	ZEINTZUK (“nortzuk” bezala)
(AURREKARI SINGULARRA)	(AURREKARI PLURALA)

zein	zeintzuk
zeinek	zeintzuek
zeini	zeintzuei
zeinen	zeintzuen
zeinengan	zeintzuengan
zeinengana	zeintzuengana
zeinengandik	zeintzuengandik
zeinekin	zeintzuekin
zeinez??	zeintzuez
zeinentzat	zeintzuentzat
zeinetan	zeintzuetan
zeinetako	zeintzuetako
zeinetara	zeintzuetara
zeinetatik	zeintzuetatik

Gauzak horrela, beharbada, (I)[*zein* mugagabea] eta (II)[*zein/zeinak*] izan daitezke aukera orokorragoak euskara baturako. Bi hauen artean aukera egitea ez da erraza. Dena den, gogoan izan beharko genuke mugagabearen aldeko

(9) Atzizkibide hau hartuz gero, aditz jokatuan “-n” menderagailua erabiltzea litzateke men-debaldeko tradizioarekin bat datorren hautua, jakina.

apustua (Villasante, 1979:91-92), nolabait esateko, gutxiengoa osatzen duten idazle klasikoen eredu zaharrenarekin (Leizarraga eta Axular nagusiki) bat datorrena dela. Beste aukera, (II)[*zein/zeinak*], tradizio hurbilen eta zabalarenarekin bat datorrena da. Edozelan ere, azken aukeraren alde makurtuz gero, leku-denborazko kasuetan mugagabearen aldeko neutralizazioa dagoela (*zeinetan*, *zeinetako*, *zeinetatik*, *zeinetara*) gogoratu behar genuke, “zeinean, zeineko, zeinetik, zeinera” tankerakorik ez baita inon ageri. Hona hemen, bide kontrajarriak gaurko euskara batuan:

(I') MUGAGABEA (AURREKARIA SINGULARRA NAHIZ PLURALA IZAN)	(II') MUGATUA (SING./PLUR.) (AURREK. SING.) / (AURREK. PLUR.)
zein	zeina / zeinak
zeinek	zeinak / zeinek
zeini	zeinari / zeinei
zeinen	zeinaren / zeinen
(zeinen baitan...)	(zeinaren baitan...)/zeinen baitan)
(zeinengan...)	(zeinarenengan...)/(zeinengan...)
zeinez, zeinetzaz?	zeinaz / zeinez
zeinekin	zeinarekin/ zeinekin
zeinentzat	zeinarentzat/ zeinentzat
zeinetan	zeinetan
zeinetako	zeinetako
zeinetara	zeinetara
zeinetatik (zeinetarik)	zeinetatik (zeinetarik)

Orain artekoan, literatura-tradizioak zilegitzen dituen aukerak agerian jar-tzen saiatu gara eta ez genuke aurrerago jo nahi geure gustuak edo lehenta-sunak eztabaidatzeko. Bego hortxe, beraz, deklinabideen inguruko auzia, ez baikenuke geure gain hartu nahi besteri Euskaltzaindiari? dagokion erabakia.

LABURPEN-ONDORIOAK:

1. Euskaltzaindiak erabakirik hartzen ez duen bitartean, uste dugu goiko hiru bideak (III', I', II') zabalik daudela eta bata bestea bezain zilegi dela gaur-ko prosa landurako.

2. Hiru ereduetatik (III') dialektalki markatutzat jo daiteke; eta beste bien artean (II') da tradizio berrien eta zabalarenarekin bat datorrena.

3. Hori bai, egiten dugun aukera egiten dugula, beti ere koherentzia bilatu beharko genuke; alegia, gure ustetan, ez litzateke bat ere txukuna izango sis-tema bateko eta besteko formak era nahasian erabiltzea.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J.; GARCIA, J. (1995): “«Zein (...) bait-/n (...)» erlatiboa: literatura-tradizioa”, *ASJU* 1995 (prentsan).
- ALTUBE, S. (1929): *Erderismos*, Bermeo, Gaubeka.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, ETONOLOGI MINTEGIA (1983): *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa —EAEI—*, Muniberen eranskina, Donostia.
- AREJITA, A. (1978): *Euskal joskera*, Durango, Leopoldo Zugaza.
- AZKUE, R.M.^a (1905-1906): *Diccionario vasco-español-francés*, 2 liburuki, Tours. (2. argitaraldia, Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca).
- (1923-25): *Morfología Vasca (Gramática básica dialectal del euskera)*, [=Bilbo, 1969, La Gran Enciclopedia Vasca].
- BIGURI, K. (1994): “Erdarazko erlatiboen itzulpenaz”, *Senez*, 10. urtea (1994), 37-71.
- CAMPION, A. (1884): *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa (Bilbao, 1977, La Gran Enciclopedia Vasca, 2 liburuki).
- ETCHEBERRI, J.d' (1712): *Eskual Herriari eta eskualdun guztiei eskuarazko hatsapenak latin ikhasteko*, berrargitarapen partziala X. Kintana (ed.), *Lan Hautatuak*, San Sebastián, 1972, Lur Editoriala (col. Kriselu 21), 219-254.
- GAVEL, H. (1929): *Grammaire Basque. I Phonétique. Parties du discours autres que le Verbe. II Le Verbe* (H. Gavel, G. Lacombe) (=Gure Herria, 1933 [maiatza-ekaina]-1936 [iraila-abendua]).
- GEZE, L. (1873): *Éléments de grammaire basque*, Baiona (= San Sebastián 1979, Hordago-Lur (col. Euskal Klasikoak 27)).
- GOENAGA, P. (1980): *Gramatika bideetan* 2, Donostia, Erein.
- INCHAUPE, M. (1858): *Le verbe basque*, Bayonne, Paris, Veuve Lamoignon née Teulière, imprimeur, et Benjamin Duprat,...
- ITHURRI, J. (1895): *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. (= Hordago-Lur (Euskal Klasikoak 26)). Donostia, Ediciones Vascas, 1979 berrargitarapenetik aipatua.
- BATZUEN ARTEAN (1994): *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz.
- LAFITTE, P. (1944): *Grammaire Basque (navarro-labourdin littéraire)*, (berrargitaratua, Donostia, 1979, Elkar).
- LAFON, R. (1944): *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* (2. argitaraldia, Zarautz, 1980, Elkar).
- (1966): “La particules *bait-* en basque; ses emplois morphologiques et syntaxiques”, *Bulletin de la Société de Paris*, 61, 217-248.
- LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*, Paris, Gabriel Beauchesne éditeur.

- LARRAMENDI, M. de (1729): *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, berragitarapen facsimila, San Sebastián 1979, Hordago-Lur (col. Euskal Klasikoak 23).
- MICHELENA, L. (1966): "Azkue lexicográfico" in Michelena, Caro Baroja-Tovar (1966), *Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático*, Bilbao, Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya.
- OYHARÇABAL, B. (1985): *Les relatives en basque*, Collection UA 1028, CNRS-Université Paris VII.
- (1987): *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Doktorego-tesia (CNRS, UA 04 1028, Paris 7).
- OIHARTZABAL, B. (1986): "Erlatibakuntza: perpaus erlatiboaren egitura: izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean", in Rebuschi et alii, *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*, Argitarapen Zerbitzua-Euskal Herriko Unibertsitatea, 131-153.
- RIJK, DE R. (1972): *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MITen aurkeztutako tesia.
- SALABURU, P. (1980): *Baztango euskalkiaz (I)*, Bilbo, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- SCHUCHARDT, H. (1923): *Primitiae Linguae Vasconum*. Einführung ins Baskische, Halle, Verlag von Max Niemeyer. A. Yrigarayren Espainierazko itzulpena, Salamanca, 1947, C.S.I.C., Tesis y estudios salmantinos-III.
- VILLASANTE, L. (1976): *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate, Edit. Franciscana Aranzazu.
- (1985): "Euskal anaforikoak", in J.L.Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena oblatae*, II, 971-980, Vitoria, U.P.V./EHU.
- (1988): *Euskararen auziaz*, Estella, Colección Eleizalde 9.

BESTE TXOSTEN BATZUK

ZINPEKOAK

1995-XII-25

Xabier Kintana

Euskaltzaindiari
Jaun-andreok:

Berezkoa du Euskaltzaindiak arauemaile izatea. Alde horretatik, on da, gramatika, morfologia eta ortografia arloko arau eta agindu nagusi eta orokorreaz gainera, Akademiak noizik behinean bana-banako kontuez ere oharrak plazaratzea, gure gizarteari bere eguneroko problematxoak ere bereak egiten dituela adierazteko. Hortaz, egoki datoz, adibidez, *Euskal Herria, ertzain, udaltzain, Arartekoa* edo *Autonomia Erkidegoa* moduko izenen erabaki konkretuak, idazle eta erabiltzaile askorentzat argigarriak izaten direlako.

Baina erabaki edo gomendio horien hizkuntz egokitasuna alde batera utzirik, Euskaltzaindiak gogoan eduki behar du, halaber, horretarako ere une egokiak izaten direla. *Arartekoaren* kasuan, adibidez, hizkuntz erabakia kargua bera ezarri bezain laster proposatu zuen, eta horri esker egundoko arrakastaz hedatu da, bai euskaraz eta bai erdaraz ere. *Autonomia Erkidegoaren* kasuan, ordea, berandu ibili gara, eta horrek, seguraski, problemak ekarriko dizkigu proposamena hedatzeko eta errotzeko orduan.

Hori dela eta, erne egon beharko genuke gizarteko bizitzan eragin handia izan dezaketen hitz batzuen kasuan. Hastera doan urtearekin batera figura juridiko berria indarrean jarriko zaigu, espainolez "*tribunal del jurado*" deitua, eta komeniko litzateke, berandu baino lehen, hori izendatzeko, Euskaltzaindiak gure hizkuntzaz formula bat lehenbailehen proposatu eta plazaratzea. Administrazioak, komunikabideek eta jendeak, oro har, biziki eskertuko lukeela uste dut.

Justizi Sailak, egia da, jadanik formula bat kaleratu du, oraingoan, Euskaltzaindiarekin kontatu gabea izan arren, egoki xamarra. Edonola ere, gerta daiteke hemendik zenbait egunetara beste itzultzaile batek —arlo honetako koordinaziorik eza tamalgarria izaten baita— beste modu bat kaleratzea, horrekin nahastea eta anabasa ekarriz. Hori dela eta, komeniko litzateke, nik uste, Euskaltzaindiak bere aholkua jakinaraztea, jendeak nora jo jakin dezan.

Euskal Gobernuaren publizitatea kaleratu baino aste batzuk lehenago Andres Urrutiarekin mintzatu nintzen arazo honetaz. Biok bat etorri ginen itzul-

penik egokiena zinpekoak gisako zerbait zatekeela, beti pluralez, *zinpekotza* edo *zinpekogoa* modukoak gaitzetsiz. Justizi arloko zinpekoak —eta ez, adibidez, *zinpeko zainak* edo *jagoleak*, hots, erdaraz *guardas jurados* deituak— zirela bereziki argitzeko, Andresek zuhurki *epai* hitza eranstea proposatu zidan, Epai-zinpekoak alegia, laburtuz zinpekoak gelditu daitekeen arren.

Euskal Gobernuak orain agertu duen publikizatean *Zinpekoen epaimahaia* dator, itxuraz egoki, eta guk pentsatua geneukanarekin bat. Horiek kontutan izanik, hona hemen proposamena:

Miembros del jurado: Epai-zinpekoak.

Mesa o Tribunal del Jurado: Zinpekoen epaimahaia.

‘El jurado ha decidido’ edo ‘Los miembros del jurado han decidido’: Epai-zinpekoek hau erabaki dute *edo* Zinpekoen epaimahaiak hau erabaki du.

Testuingurua aski garbia denena, dena den (epaiketaz ari garela begien bistan denean, kronika, film edo kontakizun batean adibidez) zinpekoak bakarrik erabil daiteke, aurretik epai hitza kendurik; *Zinpekoak oraino bildurik daude; zinpeko guztiak bat datoz; zinpekoek ez dute beren azken hitza esan...* kasu.

Dena dela, kontutan eduki behar da Espainiako lege-sisteman “*jurado*” hitza, kasu batzuetan, egoitza propioa izaten duen organo bat izendatzeko ere erabiltzen dela, “*Jurado Provincial de Expropiación Forzosa*” delakoan bezala, eta kasu horretan hitz hori euskara *epaitegi* gisa itzuli behar dela, *Nahitaezko Desjabetzapenerako Probintzi Epaitegia* alegia, ez baitu zerikusirik hemen aipatu diren Zinpekoen Epaimahaiarekin.

EUSKALKIETAKO HITZEN MORFOLOGIA FINKATZERA-KOAN AGERTZEN DEN ARAZO BATEZ

Bilbo, 1996-XI-29

Beñat Oihartzabal

Hiztegi batua moldatzerakoan behin baino gehiagotan gertatu zaigu hedapen mugatuko hitzen edo euskalki hitzen onartzea, batasunari begira beste hitz bati lehentasuna emanez batzuetan, beste ezer ondoan jarri gabe besteetan.

Galdera egina izan da horrelako euskalki hitzak baliatuz sortzen diren forma eratorrietan eta jokatueta ea euskalkiaren morfologia bereziari jarraiki behar zitzaion nahitaez, ala morfologia batuaren arabera erabiltzen ahal ziren haiek ere, forma berriak sortuz batzuetan, gutiago erabilitako formak hobetsiz beste batzuetan.

Adibidez, eskuen artean ditugun bi kasuren aipatzeko, *erran* aditza, *esan* aditzaren orde esaten duten euskaldun gehienek *erraiten* eta *erraitte* formak erabiltzen dituzte, idazterakoan behintzat, eta halaber *ediren* aditza *edireiten* forman agertzen ohi da testuetan ez edireten forman.

Nola onartu behar ditu Euskaltzaindiak hitz horiek: *errate(n)* forman orain artino horrelako kasuetan hartu duen biderari jarraikiz (adib. *emate(n)*), ala *erraitte(n)* forman gaur egun aditz hori darabilten euskaldun gehienek egiten duten moduan?

Halaber, demagun bihar Euskaltzaindiak geroko aspektu marka gisa beti -ko onartzen duela, zer moldetan erabiliko dira euskara batuan *jín*, *erran*, edo *ediren* adizkiak geroko aspektuan: *jinen* edo *jingo*, *erranen* edo *errango*, *edirenen* edo *edirengo*? Beste aldera ere egin daiteke galdera hau. Euskaltzaindiak -n batez bukatzen diren partizipioekin, -en hobesten balu geroko aspektua seinatzeko, zer formatan moldatuko dira euskara batuan, hegoaldean beregainki edo bakarrik agertzen diren *eten* edo *irten* bezalako adizkiak: *etenen* ala *eten-go*? *irtenen* ala *irtengo*?

Gogoan har, kasuak ez direla horretan gelditzen, eta orain artino Euskaltzaindiak beti batasunaren koherentziaren alde jokatu duela, adibidez *abestu* edo *aurkeztu* bezalako aditzentzat *abes* edo *aurkez* aditzoinei lekua utziz, nahiz aditzoin forma horiek franko arradoak izan mendebaldeko tradizioan. Ortografian ere horrela egin da. Adibidez, heskariekin aspirazioa ez markatzeko era-

bakia hartu ondoan, hitz guziei aplikatu zaie lehe hori, agertzen ziren euskalkietan aspirazioa erregularra zuten hitzekin ere bai: *akitu*, *borta*, *eki*, etab...

Zentzuzkoa izan da orain artinoko jokabide hori, eta ez da arrazoirik ikusten orain haren baztertzeko eta euskal hiztegi batua salbuespen dialektalez betetzen hasteko. Gehienez ere, bide bat irekirik utz daiteke, morfologia batuaren ondoan, euskalkiaren tradizioari dagokiona ere onartzeko.

Badirudi, beraz, kontrako arrazoi berezirik ez denean behintzat printzipio hau onar daitekeela: euskalkietako hitzak euskara batuan sartzerakoan eta erabiltzerakoan, morfologia batuaren arabera jokatuko dira (inflexioan nola eratorbidean).

GERO LIBURUA ERRETORIKAREN ARGITAN **(Aurkezpen modura)**

1997-03-10

Patxi Salaberri Muñoa

Gure berbaldiaren hari nagusiak burutu berri dugun ikerlanaren aurkezpenera mugatu beharko balira ere, ez genuke hitz egiten hasi nahi gaiaren hautaketa eta garapena ulertzeko funtsezko deritzogun zerbait aipatu gabe; izan ere, lan honen izenburuak berak planteatzan dituen galderen zentzua argitu behar baita lehenik eta behin: zer dela eta aukeratu da Axularren *Gero* liburua? eta, bigarrena, zergatik “Erretorikaren argitan”?

Hasi, beraz, lan honek Axularren obraren funtzionamendua ezagutzeko kezka pertsonal gehiegi zehaztugabeko batean duela bere jatorria aitortzetik hasi beharko genuke. Egia esan, aspaldidanik susmatu eta pentsatu izan dugu ez ote genituen urdazubiarra eta haren obra bigatasun antitetiko batetik aldareratzan eta, inkontzienteki nonbait, infernuratzen aldi berean. Aldaretara jasotzeko arrazoiak linguistikoak edo izan ditugun bitartean, beste alorretan inplizituki eraman den jokabide isiltzailea ozenki mintzo izan da haren literatur baloreen ustezko eskasiaz eta, ezbairik gabe, haren obraren inperfekzio usteaz. Hona hemen horren adibide gisako bat, alegia, kritikari gehienek *Gero*-n usnatu uste duten barne-anabasak berak ezinezko bilakatzen bide zuen Axular bezalako erretore perfektu bat —eta uler bedi “erretore” hitza apaiz eta erretorikan iaio modura— edizioaren erantzuleztat hartzea.

Denboran eta, noski, Axularrek idatzi orrialdeetan barrena aurrera egin ahala, kezka hutsa zen hura sarartuaren prosa eta estiloa aztertzeke premia bihurtu zen guregan, haren prosaren funtzionamendu estetiko eta literarioa eza-gezke eta azalerazteke premia hain zuzen.

Eta “premia” hitza darabilgunean, osagai objektiboa duen beharra azpimarratu nahi dugu berariaz, izan ere, gure literatura zaharraren ikerketen egocoraren aurrean ezinbesteko baita hasierako testu haietara begirada lehenbailehen zuzentzea, eta, ahal delarik, arretaz zuzentzea. Gure prosazko literatura erlijio-soan klasikitat ditugun egileen “balioztapena” ez da bakanka baizik —eta badakigu zeharo baiezen bortitza dela esaten ari garen hau—, ez da bakanka baizik literatur irizpideetatik planteatu; are gehiago, esango genuke ondoko hizkuntza nagusietako literaturen kantitate eta kalitatearen lilurak eragotzi egin

izan digula luzaroan gure apurraren oinarritzko literatur azterketa bera ere. Hein handi batean, *a priori* gisako hipotesi patetiko akonplejatuak —eta “patetiko akonplejatu” hitz bikotea erabiltzen dugu gure ahuleziak tapatzeko jokaera gizatiarra bainoago geure literatur tradizioa ez ezagutzeko ahalegin subkontzientea adierazten duelako—, hipotesi horrek, berriro diogu, beste hizkuntzetakoe-kin “konparagarriago” eta “homologagarriago” edo zitezkeen arloetara bideratu izan du ikerkuntza oro har.

Euskal Literaturaren historiaz diharduten liburuekin borrokatu duenak dakienez, irakurketa eta interpretazio parametro nagusiak irizpide linguistiko hutsetatik burutu izan dira prosa arloan. Horrezaz gain, maiz asko prosa-lan gehienek “literaturtasun” gabeziaren susmoa obra guzti-guztietara hedatuz, printzipioz hizkuntz balio hutsak zirenetara mugatu izan dira analisi-kriterioak.

Nabarmena zen, beraz, ohiko azterketen alderdi erabat “gramatikalizatu-
tatik” alde egiteko premia zegoela eta nabarmena zen, era berean, Axular bera izan zitekeela eginkizun hartan aritzen hasteko aproposena. Batik bat, dena esan dezagun, itzulpen huts eta itxietatik aldegiten duen lehen autore ezaguna dugulako, askatasunez jokatzeko duen lehena.

Pertsonalki, Aita Villasantek ezin garbikiago isladatu zuen gure egoera *Euskararen auziaz* liburuan (1988). Honela zioen:

“Gazte batek galdetu zidan behin: Axular-en *Gero*-ri buruz nahi nuke egin neure tesia; baina *Gero*-ren zein puntu gomendatuko zenuke zuk aztertzea? Erantzun nion: Axular-en *Gero*-n ageri den prosa egiteko modua. Eta ez Axular bakarrik. Euskalki guztietako gure prosista zaharrak aztertu beharko genituzke, ahazturik dugun geure tradizio zaharra bir-aurkitzeko” (154 or.).

Axularren obra ikuspuntu ahalik eta literarioenetik aztertzeke erabakiak obraren planteamendu estetikoaren funtzionamenduz galdetzeraz eraman gintuen, argitu eta frogatu beharra baitzegoen noraino mintza gintezkeen literaturaz eta estetikaz alde guztietatik xede eta izaera zeharo erlijioso-pragmatikoa erakusten zuen hartan. Helburua, beraz, Axularren prosa aztertzea izan da, betiere idazleak komunikatu nahi zuen mezua eragituratze orokor gisara eta obran azaltzen diren eduki eta funtzioen ikusmiran izanik.

Esan gabe doa esfortzu edo ahalegin honetan gure aldetik inolako meriturik ez duen ausardia antzekorik ere izan dela; baina ezer erakustekotan, gure inkontzientzia hutsa erakutsiko zuen ausardia litzateke hau. Gurekin itsasoratu zirenak itsasaldiaren arrisku eta gabeziez zeharo kontzienteak baziren ere, airtortu behar dugu lanean aritu ahala ohartu ginela hasberri iñozo izateari zor giniola beste ohartuagoren artean ausardia gorriari egotzi ohi zaiona.

Bat-batean, itsas bortitza jaurtiki ohi dituen uhintzarren antzera agertu baitzitzaizkigun arazo-eragozpenak trumilka: gure ikerketa klasikoen ainguraketa filologiko-historikoa, hipotesi hutsak gainditu beharko lituzketen literatur sistema interpretatzaileen ahulezia, dokumentazio eskasia, hutsune historiogra-

fiko gaindiezinak, orduko egoera sozio-literarioa gutxieneko fidagarritasunez ezagutzeko ezintasuna (besteak beste, zitekeen irakurleriaren oinarritzko ezaguerriak eta obren errezeptziarako baldintzak, euskarazko edizioen gora-beherak, ale kopuruak eta beste hainbat puntu behar bezala ez ezagutzea); horrekin batera, obren urritasuna (batik bat prosazkoen artean, eta, modu berezian, idazlearen edo egilearen “jenioa” adieraz zezaketenena), geratu zaizkigun obren barne-arazoak berak, etab., etab.

Axularren hitzak parafraseatuz, bazirudien ezen asko behar zatekeiela arrazoin mordo hura “ene gibelatzeko eta geldo arazitzeko ere”. Baina Axular aitzindari eta eredu harturik, geure egin genituen haren ondoko hitzak ere eta “ene kontra zirudien arrazoin hunek beronek ni esportzatzen eta aitzinatzen ninduen, hunek bihotz emaiten zerautan”.

Guztiarekin ere, edo agian horrexegatik, aitortu behar dugu atzera egindako bidai moduko honek apasionatu eta, neurri handi batean, irentsi egin gaituela denboran zeharrekotunelaren antzo. Erantsi nahi genuke, halere, lan hau burutu bitartean inoiz ez gaituela ezein asmo ikonoklastak bultzatu, ez eta idolatriak ere gidatu. Izatez, uste dugu lanak berak apasionatu gaituela eta ez maiz asko autore zein obrekiko ohi diren fobiak edota zaletasunak; eta, horrela, ahalik apalen eta behar uste zituen ahalegin, denbora eta arreta eskaintzen saiatu izan gara Urdazubiko seme zinez handiaren obra eta prosa ikertzen. Eta hemen da lan horren zitua.

Baina harira gaitezen!

Oro har, planteaturiko ikerkuntza hau bidera zezakeen irizpide nagusia eta giltzarria Axularren obraz egindako errezeptzioan eta bestelako argumentu historiko-literarioetan oinarritutako hipotesian zeutzan batik bat. Izan ere, Axularrez ezagutzen genituen gutxitxo guztiek haren idazteko modua eredu erretorikoetan oinarritzen zela pentsatzera bulkatzen gintuen eta horrela planteatu genuen lan honen hasierako hipotesia. *Gero*-ren errezeptzio-moduak berak ere areagotu egingo zuen ikuspuntu erretorikoa analisi metodo egoki gisara, Axular eta haren obra, bai ahozko tradizioan nola bestelako lekukotasunen bidez (urdazubiarrarren prestakuntza klasiko bera barne), betidanik irudikatu izan baitira fenomeno erretorikoari bereziki lotuta, **pertsuasiora bideratutako** “ars de bene dicendi” delakoarekin hertsiki lotuta alegia.

Era berean, obraren irakurketan barrena etengabe agertzen diren Erretorikaren berezko baliabideek, hau da, *logos*, *ethos* eta *pathos* direlakoekin zerkusia duten *irakatsi*, *atsegin izan* eta *mugarazi* aditzek bete-betean hartaratzen gintuzten izaera aszetikoko obra honen analisirako.

Ildo horretatik, nabarmen geratu zen hasiera-hasieratik eginkizun honetan nekez mintza gintezkeela funtsean eta oinarrian planteamendu erretorikoa izan zuen prosaren azterketaz Erretorikak berak eskaini ohi dituen tresnak baliatu gabe.

Aurrerago lan hipotesiaren egiaztapenak erakutsiko zigun bezala, ez zegoen Axularren egitekoa eta haren prosa ulertzeko perspektiba egokiagorik. Orain ere komentziturik esango genuke ikuspuntu erretorikoa dela Axularren obrak onar dezakeen analisi-bide egoki bakarra. Baina planteamendua areagotuz, eta lana burututa izateak eman ohi duen ikuspuntu orokorretik, irmoki azpimarra liteke Erretorikaren perspektiba Axularren obra parametro literario eta estilistikoetan kokatzen hasteko abiapuntu bakarra zela.

Funtsean eta finean, hori demostratzea eta frogatzea izan da ikerlan honen guztiaren erronka.

Nolanahi ere den, jakin, aldez aurretik genekien metodologikoki testuaren argitze-tresnatzat hartzen genuen Erretorikak ere bazituela bere mugak, eta ez nolanahikoak edota ondoriorik gabeko teoriko hutsak, Kibédi Vargaren lanek eta beste hainbatenek erakutsi bezala.

Batetik, Erretorika printzipioz *berbaldiaren* artea dela ahazten ez bada, bazezokeen alderik *testu* bihurturik agertzen zen ahozko hitzarekin, batik bat testuaren isokronia ezak sortarazten dituen mezuaren zentzu anbiguotasun eta arazoengatik; jakina denez, horiek areagotu egiten dira Erretorikaren bidezko azterketa testua idatzi zenetik 300 urte beranduago egiten denean.

Bestetik, ezaguna da erretorikaren mugak eta ezintasunak testu-azterketa-aren esparrura bertara iristen direla, metodologikoki ezinezkoa baita inolaz ere azterketa erretorikoa ez *zehatza* ez *erabatekoa* eta *oso*a izan. Ohiko kontsiderazio metodologikoei jarraikiz, esan genezake azterketa erretorikoa ezin zehatza izan daitekeela baliabideak, hau da, terminologia bera zenbaitetan lausoa delako, zehaztugabea, anbigua; besteak beste, esapide bat aldi berean *irudi* edo kategoria estilistiko desberdinetan sailka daitekeelako. Era berean, ez dirudi azterketa erretorikoa *erabatekoa* eta *oso*a izan daitekeenik, mugagabe luza baitaiteke erabilitako edo erdi-izkutututako argumentuen azterketa, emozioena eta bestelakoena.

Edonola ere, eta eragozpen metodologikoak ondo gogoan harturik genituen arren, Axularren obraren sorkuntzaren deskribaketa eta analisiari aurre egiteko modu egoki bakarra iritzi genion erretorikarenari eta horrela abiatu ginen lanean, metodologikoki, egileak egindako idazte-bidea alderantziz ibiltzera bultzatuko gintuen planteamendua saihestuz eta nagusiki aribide deduktiboan oinarrituz. Izatez, metodo honen arriskuak gutxiestekoak ez badira ere, oro har testu mota aszetiko hauetan aski garbi finka daitezke egilearen intentzioak —ageri-agerian baitaude mezua eta asmoak— eta, era berean, errazkiro “egiaztat” daitezke baliabide eta prozedimendu erretorikoen egokitazpena eta egokitasuna.

Horrela, analisisan Axularrek jarraitutako bide erretorikoetatik barrena abiatzea eta, neurri batean behintzat, berreraikitzea izan da gure eginkizuna. Ibilaldi horretan Erretorikaren lehendabiziko hiru atal kanonikoetan eman izan dira

urratsak, hau da, prosaren sorkuntzarekin zerikusi estu-estua dutenetan hain zuzen: *inventio*-tik hasita *elocutio*-raino, *dispositio*-tik iraganik eta ahaztu gabe *actio* delakoak ere izan zezakeela eraginik haren prosan.

Luze joko luke burututako ikerlanaren taxuzko laburpena egiteak, eta ez gara horretan arituko, ez baita hau horretan hasteko toki aproposena. Alabaina, gogo onez saiatuko gara aipatu atal kanoniko hauen azterketatik zitu gisa atera direnak harilkatzen.

1. Funtsean buru-lana den *inventio* atalak, liburuaren oinarrian dauden materialaren berri eskaintzeaz gainera, egilearen arrazonamendu motaren berri ere eskaintzen digu. Eta honako puntu honek berebiziko garrantzia izango du irakurleari dagokionez, izan ere haren maila eta tasun intelektuala erakustez gain, harengan sortu nahi diren emozioen erakusle ezin hobea izango baita.

Obra osatzeko materialei dagokienez, liburuaren planteamendua Axularrek azalean bertan aitortzen duenaren ildotik doa bete-betean: “Eskritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik ... bildua” dioenetik, alegia. Jakina, *Gero* obraren aniztasun tematiko-argumentala hasierako premisa horren ondorio hutsa baino ez da izango.

Aniztasun eklektiko hori, dena den, ez da agortuko iturrien atalean, nahiz eta horretan ere orain arte baino “demostratuago” geratu uste den gazteleraz ziharduen aszetikarekiko dependentzia, Granadakoarena besteak beste.

Era berean, autore klasikoen kasuan eta idazle erlijioso ospetsu gehienenean ere, nabarmena izango da bitarteko testuen erabilpena, bitartekaritzaren bidezko irakurketarena hain zuzen. Baina hemen ere azalean bertan aitortuta-koaren ildotik doa Axularren uztza.

Bestalde, ikuspuntu ideologikotik eta *aptum* delakoari begira oso garrantzitsua izango den jokamoldea erakutsiko du Axularrek *Gero*-n, herri-jakitu-riaren aldeko jokamoldea hain zuzen. Bibliako obren artean egindako hauta- ketak, esaterako, agerian uzten du liburuaren irakurlearen mundu-ikuskerarekin bat egin nahi duen planteamendu gnomikoa.

Obraren azterketaren aldetik, arazo gehiago sortu ohi du bigarren atal ka- nonikoaren azterketak, materialaren ondozkatze eta antolamenduaz diharduen *dispositio* delakoarenak hain zuzen. Egia da atal honetan burutzen den operazio erretorikoak printzipioz ez duela ideien eta hitzen gainean ezelako eragin zu- zenik izaten, ez bada antolamenduaren zeharkako eragina. Testuan zeuden ar- gilunak eta arazoak medio, ordea, derrigorrezko iritzi genion *dispositio*-ari au- rre egiteari. Besteak beste, eta adibiderik maiseatuena baino ez aipatzeko, Axularren obraren izaera anabastuaz iharduteko eta argitzeko aukera ere es- kaintzen zigulako.

Metodologiaren ikuspuntutik zail da jakiten noiz gertatzen den *dispositio*-aren unea; eta *inventio* eta *elocutio*-ren arteko loturak eta jauziak ia etenga-

bekoak badira ere, ez da berdin gertatzen bigarren atal kanoniko honekin. Prezeptibaz den bezainbatean, ezaguna da eremu honetan ez dela normalean aholku gutxi baino izaten, irakurleria-entzuleriaren hunkipen arlora zuzendutakoak eskuarki: hasierak edo exordioak eta *peroratio* izenekoak, eta tartean argumentazio ereduak. Eta hain zuzen, horietxek izango dira Axularrek ere ongien zainduko dituenak, irakurlea hunkitzeko eta haren jokamoldea aldarazteko baliabideak modu berezian tratatuko baititu.

Testuratu bezain azkar, alabaina, sortze edo *inventio* atalean ikusitako “eklektizismoaren” islada antzemango da *dispositio*-ari dagokion egituraketa-
ren esparruko lehenengo maila batean, batik bat gaien antolamenduari lego-
kiekeen nahasmendua. Intxauspek eta Lafittek besterik uste bazuten ere, Axu-
larren testu-antolamenduaren “anabasa” horren oinarrian, neurri handi batean,
kapituluen bideratzailerik gisa agertzen diren jatorri desberdineko testuak daudela
pentsa liteke. Gainera, egungo “koherentzia” irizpideak ez du derrigorrez or-
dukoa bezalakoa izan behar, are gutxiago “koherentzia” logika kartesiarraren
ildoko zerbait dela pentsatzen bada. Eta ez da gogoratu behar —eta barka bedi
arinkeria— Descartes Axularren garaikide izan zela. Gure lan honetan erakutsi
bezala, Axularren liburuak ongi gainditzen du “koherentzia”-ren frogia, eta,
edozein modutan ere, ez garaiko liburuek baino gaizkiago.

Ildo horretatik, testuan sakabanaturik antzematen diren iturri desberdine-
tako pasarteak eta testuaren tonu errepikakorra bera direla eta, zenbaitetan area-
gotu egiten da logika faltaren inpresioa. Guztiarekin ere, gabezia hori egituran
baino lehenago sormen-lanaren linealtasunaren faltan bilatu beharko litzate-
keela ondorioztatu genezake.

Paraleloki, eta kapituluaren edo multzoen barne egiturari gagozkiola, klarki
geratu uste da Axularrek predikariaren ohiko egituratzeaz tindatu zituela obraren
unitate desberdinak, atalek “tesia-garapena-amaiera” eskema sermonarioari ja-
rraituko ziotelarik. Eskema honetan *exempla*-ren atalak berebiziko garrantzia
hartuko du argumentazioaren garapenerako.

Eta argumentazioaren hariari helduz, bereziki nabarmendu nahi genuke
arrazonomenduaren antolamendu orokorrerako Axularrek darabilen metodoa.
Izan ere, egilearen intentzioak ahalik denbora gehien gordetzen zituen metodo
analitiko-sokratikoak ez bezala, urdazubiarraren metodo sintetiko klasikoak ha-
sieratik beretik uzten ditu asmoak eta xedeak agerian, obrari eskaini nahi dion
izaera bera ere ezinago nabarmen utzirik. Prozedurak ere berezkoak izango
ditu: tankera ezberdinetako argumentuak nahasi gabe aurkeztuz, argumentuak
areagotzera daramaten gradazioak erabiliz, anplifikazioak, etab.

Jakina, honaino iritsi ondoren, ez dirudi azpimarratu behar denik Axula-
rren predikari prestakuntza eta lanbidea aipatu eskema horren hautaketaren oi-
narrian bertan daudela. Baina eskemaz gain, ohartarazi behar da obraren plan-
teamendu orokorrean ere “predikari” agertzen dela Axular: gauzekiko
egokitzapen mota, taxuzko iruditeria, hizkuntza biunibokoa eta inolaz ere ez

ekibokoa (sinonimiak erlazio biuniboko hori areagotzeko ere balioko luke, ez bakarrik elementu erretoriko gisa, zitekeen bigarren zentzua arbuiatzeko), etab.

Baina horrela, literatur planteamenduekin eta prosaren izaerarekin ezin es-
tutago loturik doan alderdi elokutiboraino iritsiak izango ginatke.

Artikulu honen mugak erraz gaindituko lituzketen xehetasunetan sartu gabe, Axularren prosak erakusten duen erritmo bikoitza nabarmendu nahi ge-
nuk lehenik eta behin. Batetik, erritmo argumentatzailea izango genuke, luze eta pausatu samarra, erretorika klasikoaren eredukoa eta konparazio egituren bidez garatua; bestetik, *ecclesiastica consuetudo* delakoaren ildotik abiatuko den prosa latza baina bizia, perpaus motz eta itaunketa modukoekin osatua, irkaurrearen baitako sentimentuetaraino iritsi nahi duena. Bien arteko uztartze eta konbinaketaren fruitu izango da *Gero* liburuaren hitz laua. Guztiarekin ere, erritmo horren funtzionamendua borobilagoa-edo izan dadin ez da faltako Axu-
larraren prosan erritmoaren areagotzaile eta orekatzaile bihurtuko den baliabide errepikakorrik.

Esan gabe doa: irudi eta baliabide horiek argumentazioaren indarra are-
gotzeko elementuak izango dira, baina estilistikoki ere prosaren edertasuna izango dute helburu; irakurlea *era eder* batean *hunkitzea* bilatuko dute, eta ho-
rrela, balio estetiko eta afektiboa uztarturik agertuko dira.

Oro har, esan genezake *elocutio*-aren atal honetan datzala Axularren ekar-
penik gogoangarriena. Izan ere, Axularrek erretorika eklesiastikoak aholkatu-
riko baliabide garrantzitsuenak erabiliko ditu sistematikoki, baina, aldi berean, azpimarratzekoa da berak darabilen prosa-hizkuntzaren arabera taxutuak izango direla baliabideok, euskararen senaren arabera taxutuak, hain zuzen.

Edergarri horietako nabarmenenak paralelismoaren formetara biltzen di-
renak izango dira, hau da, hitzen, hotsen, forma eta egitura sintaktikoen, ka-
dentzia erritmikoen, eta abarren ezarpen paraleloak. Horren ondorioz, berbal-
diaren osagai argienak eta, aldi berean, “entzungarrienak” isokolona eta fenomeno homofonikoak (homioptotona, besteak beste) suertatuko dira. Si-
nonimiaren erabilera erretoriko aplikatzaileak ere prosaren erritmoaren erre-
gulatze-funtzioa izango du *Gero* guztian.

2. Nolanahi ere den, ezin ahaz daiteke idatzizko literaturaren historian
Axularren ekarpena ohiko esparru erretoriko hutsetik harantza ere badoala.

Lanean demostratu den bezala, oralitatearekiko lotura estua duen testua
utzi zuen Axularrek idatzirik, izan ere garbi baieztu baitaiteke haren prosaren
ezaugarriak “predikagarritasun” kontzeptuari atxikiak sortu zirela. Horrezaz
gain, eta baldin obra-igorlearen planteamenduan “predikagarritasuna” baze-
goen testuaren garrantzizko bideratzaile eta faktore bezala, mezu-hartzailearen
konfigurazio kulturalaren ikuspuntutik ahozkotasan mistoaren fenomenoak ere
berebiziko garrantzia hartuko zuen, finean irakurleari ozenki irakurria izateko
testu alde aurretik berbalizatua eskaintzen baitzitzaion.

Era horretan, zinez ondoriozta daiteke abiapuntua eta baliabidetegia izan zela erretorika urdazubiarrarentzat, eta oralitatea, ahozkotasuna diskurtsoaren egokitzapenerako egiazko irizpide praktikoa. Horrela ulertzen da, esaterako, erretorikak ahalbidetzen dituen “ahozko” ezaugarriak areagoturik eta azkenearaino aprobetxaturik agertzea Axularrenean. Jakina, aldi berean eta elementu antitetiko eta kontraesankor bezala, ahozkotasunak berezko duen jarioa eta “naturaltasuna” erretorikaren artifizialtasunak irentsiko du. Dena den, oratoria eklesiastikoak eskaini baliabideetatik gogokoen eta erabilien izango zituenak irakurlearen ikuspuntutik testuaren egokitzapen naturalena eman ziezaioketenak izan ziren.

Historikoki ez dirudi harritzekoa izan behar duenik ahozko eta landua uzarteko joera horrek, are gutxiago planteamendu horien presentziak euskal prosaren hasieretan, izan ere ez baitira bestez mintzo garai hartako kulturaren bideak eta inguru hauetako tradizio ideologiko-kultural garailea. Handik isurtzen diren baloreak, mezuak eta bestelako bitarteko kulturalak, estilistiko-literarioak zein irudimenezkoak sorkuntzarako baliabide eta bide ziur bakar bilakatuko dira ezinbestez eta, horrexegatik hain zuzen, ohiko bihurtzen joango dira prosan.

Ildo horretatik, Axularrena ahozkotasuna ezin albora dezakeen prosatzat jo behar da, eta neurri beretsuan, idatziaren eta ahozkoaren arteko zubitzat. Ezauagarriak ez dira falta: liburuaren planteamendua erabat pragmatikoa eta ez-erreflexiboa da (ez da arazo erlijioso-teologikorik planteatzen), katolikoki bizitzeko pautak baino ez baitira; baliabide estilistikoak: erritmoa (bertso antzeko pasarte neurtuak, etab.), homofoniak, similikadentziak, etab.; mezua zabaltzeko errekursoak: irudi grafikoak, errazak (herri kulturarekin bat dagitenak), historiak, pasadizoak, erreferentzia gnomikoak (errefrauak, etab.); Bibliaren erabileran ere ildo gnomikotik abiatuko da: proberbioak, salmoak, etab. Ikusten denez, ahozkotasunaren presentzia nabarmena da bai tematikoki (gatazkarik gabeko formulaziopeko gai errazak), bai forma aldetik (irudiak, edergarriak, erritmoa, etab.).

Azpirarra dezagun, dena den, prosa-liburu honetatik isurtzen den ahozkotasun lurrina euskarri idatzia eta inprimatua etengabe darabilen ahozkotasun motarena dela oro har, oralitate misto-sekundarioaren mailakoa, Zumthor-en hitzetan.

3. Baina ez guke aspergarri suertatu nahi eta ez ditugu hitzok gehiegi luzatuko. Horregatik, honen guztiaren aurrean, eta obraren originaltasunari eta Axularren ekarpenari buruzko balorazio orokor bat egin beharko balitz, zalan-tzarik gabe esan beharko guke Axularren *Gero* guztian *ikuspuntu erretorikoa* dela izaera aszetikoko mezua inguratzen duen faktore nagusia, hala planteamendu formalari dagokionez nola prosaren tratamenduari. Ildo horretatik, sarartuak darabilen formulazio erretorikoa, urte haietan gazteleraren esparruko *oratoria eklesiastikoan* teorizatzen zenarekin tinko lotua dago eredu nagusietan, ohikoak ziren ezaugarriak Axularrek ongi jasotzen jakin izan zuelarik, hala

nola gaia, argumentazio mota, egituratze eredua, exenpluak, irudiak, etab. Nabarmentzekoa da, era berean, nola heldu zion *latinezko tradizioko erretorika eklesiastikoari* funtsezko baliabideetan eta nola egokitu eta erabili izan zituen garrantzizkoenak, betiere *ahozkotasunaren* ikuspuntu orokortzailea eskura zuelarik.

Egia da ondoko hizkuntzetako prosa-parametroekin erkatuz gero, Axularrek hizkuntza horien ereduatarantz jo izan duela maiz asko, baina betiere euskararen eta orduko euskal herriaren mundu-ikuskeratik hurbilen zeuden baliabide morfo-sintaktikoak, semantikoak eta kulturalak egokiro baliatzen. Guztietatik, ahozkotasunaren fenomenotik hurbil dauden baliabideak izango dira *Gero*-n nabarmenenak, eta entzungarrienak, jakina. Baina estilistikaz honatago ere, elementu foniko-erritmiko horiek ezin aproposago bihurtzen dira honelako testu aszetiko batean, batik bat irakurlea ahozkotasunaren parametrotara ohitua denean.

Literario bihurtuaz joango den prosaren finkapen-prozesuan, Axular izango da, beraz, hizkuntz egokitzaile, moldatzaile eta, finean, egiazko sortzaile. Eta Axularren obrak dakarren tematika berria ez bada ere, egia da euskaraz bizi zen gizarte haren barnean, *Gero* liburuak “mezu aszetiko tridentiarra” itxura berrian ekarri zuela. Horrela, bitarteko egokiak erabiliz, prosa “berezi” baten sorketa etorriko da Axularren eskutik. Berezia diogu, darabilen hizkuntza laua eta, aldi berean, erritmikoa delako, arazorik gabekoa, ornatu errazekoa, mezua ongi ulertaraztea ahalbidetuko duena, eguneroko “arruntasunetik” hurbila, sintaktikoki zuzena eta lexikoaren aldetik ere argia eta ez polisemikoa delako eta, jakina, afektiboki irakurlearen hunkipena eta jarrera aldaketa ahalbidetzeko modukoa.

Horretan guztian letzake nagusiki Axularrek Historia txikian eta Historia handian zehar izango zuen ospearean zioa. Horretan guztian leutzake nagusiki Axularrek herritar alfabetatugabeen artean ere ondoko hiru mendetan jasoko zituen prestigioa, ohorea eta itzala. Eta horretan guztian datza, zalantzarik gabe, egun Axularrek Literaturaren Historian duen toki berezi eta garrantzitsuen arrazoia.

Eta gure lana hori guztia frogatzen, demostratzen eta erakusten saiatu da.

Berbaldia bukatzeko, alabaina, ondorio zeharo praktikoa eta inolaz ere ez kaltegarria izango den bat nabarmendu nahi genuke *Gero*-ren gaurko irakurlearentzat, alegia: Axularren prosa behar bezala dastatu ahal izateko, idazleak *Gero* liburua atontzean eta idaztean erabili zituen mekanismoak jarri behar ditu martxan irakurleak. Ondorioz, irakurketa benetan atsegin eta emankor gertatuko bada, ezinbestekoa izango da Urdazubiko sarartatuaren prosa, esaldiak, hitzak, hotsak, isilka bada ere, ahoskatuak izatea, garai bateko apaizek zegiten bezala. Jakina, irakurketa ozenki, belarriek entzuteko moduan egin dezana ez da agian bere sare aszetikoan eroriko, baina, ezbairik gabe, prosaren lilurak harrapatuko du.

EUSKALZALE ALDIZKARIAREN MENDEURRENA

Bilbon, 1997-01-31

Jose Antonio Arana Martija

Astean asteango albistari edergarriduna deitzen zion R.M. Azkuek 1897.eko urtarrilaren 3an kaleratu zuen *Euskalzalet* aldizkariari. Ehun urte bete dira, beraz, Azkue kazetari gisa agertzen zaigunetik eta asko badira lehen euskaltzainburuaren euskararekiko emaitzak, hau da ahaztu ezinezko bat, gaur gogoratu eta txalotu behar duguna.

Arraroa badirudi ere, *Euskalzalet* agertu arte, XIX. mendean euskaraz soil-soilik kaleratu ziren aldizkariak, urteetako iraupenekin, Californiako Los Angelesen atera zituzten bi hauek dira bakarrik: *Escualdun Gazeta* (1885-1896) eta *Californiako Euskal Herria* (1893-1898). Euskal Herrian, euskararen herrian, ez zen inor ausartu % 100ean euskaraz aldizkari bat argitaratzen eta gertaera honek mereziko luke ikerketa sozio-linguistikoa edo/eta sozio-politikoa egitea. Beste arlo askotan bezala, Azkue izan zen honetan ere aitzindari. Hiru urteren zehar, astero eta hutsik gabe, zortzi orrialdedun albistaria argitaratzea ez da txantxetakoa, kontuan izanik, gainera, Azkuek berak idazten zuela gehiena. Horregatik bizkaiera zen aldizkariaren euskalkirik ugariena, baina idazkideen zerrenda ikusirik, beste euskalkiak ere han zeuden euskara mota ezberdinen lekuko. Guztira 1.252 orrialde eman zizkigun Azkuek euskaraz eta ez da, zinez, altxor makala. Lehen edizioa aurkitzea hain zaila denez, eskerrak eman behar zaizkio Sendoa argitaldariari 1982an argitalpen faksimila egin zuelako, Justo Maria Mokoroa jaunaren hitzaurrearekin.

Bizkaiko Institutuan euskal katedra irabazi zuenetik (1888), arduratuta zebilen Azkue euskararen pedagogiaz eta hizkuntzaren normalizazioaz. Aldizkari bat atera baino lehen beharrezkoa zen ortografia arautua onartzea eta hori izan zen 1896an egin zuena *Proyecto de Ortografía* argitaratuz. Ez zetorren bat Jose Ignacio Arana jesuitak eta Arturo Campionek proposatutako sistemekin. Eta hiruren kontra jarri zen urte berean Sabino Arana *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* argitaratu zuenean. Astinketa gogorak ematen dizkio abantotarrak lekeitiarrari baina, oraingoz behintzat, bakoitzak bere bidea jarraitzen du. Ahaztu ezin duguna da 1896 urte horretan, euskararen irakaskuntza eta hedakuntzarako Ikastetxea eta Euskaldun Biltokia sortu zituela Azkuek.

Euskararen hedakuntzarako eskuartean beharrezkoa zuen tresna aldizkaria zen. Hurrengo orrialdean ematen dut euskara —gutxi edo asko— ematen zuten

aldizkarien zerrenda. Oso gutxi zen hegoalde honetan *Euskal Erriak*, *Baserriarrak* eta *Euskaldunak* zekartena. Zerbait asmatu behar zuen euskararen zabalkunderako eta iruditu zitzaion elizgizonak izan zitezkeela biderik onena eurei eta haien bidez herritarrei mezua emateko. Horregatik lehen alearen atarian idatzi zuen: “Elizgizonak izango dira paper onetan iratsi edo eskribiduko daben geienak” Horien partaidetzak —uste zuen— emango ziotela harpidetzak lortzeko aukera. Bestalde, “abadetseetan ateak zabal zabalik” izatea nahi zuen, lankide ez baziren ere, irakurleen harpidetzak jasotzeko. Gero ikusiko dugunez, asmatutako plangintza honek 600 harpidedun edo eman zizkion.

EUSKAL ALDIZKARIAK (1815-1899) (1)

Urteak	Izenburua	Non	Nork	Aldizkatasuna	Hizkuntza	Euskara %
1815	Egutegia eusquerazcoa	Bilbo	Ullibarri	Ale bakarra	B.	100
1834	El Correo del Norte	Donostia		2 ale astero	Gaz. E.	
1844-1852	Ariel (2)	Baiona	J.A. Chaho	Astekaria	F.I.E.	
1848	Uscal-Herrico Gaseta (3)	Baiona	J.A. Chaho	2 ale bakar.	L.	100
1877-1880	Cancionero Basco (4)	Donostia	J. Manterola	Hilabetero	Gaz. euskalk.	70
1878-1883	Revista Euskara	Iruñea	A. Campion	Urtekaria	Gaz. N.	30
1880-1883	Beti Bat (5)	Bilbo		Egunkaria	Gaz. B.	(5)
1880-1918	Euskal Erria	Donostia	J. Manterola	Hamaboskaria	Gaz. euskalk.	40
1883	Bai jauna bai	Donostia		Astekaria	Gaz. G.	

- (1) RUIZ DE GAUNA, Adolfo: *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*. Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritzak, 1991, baita DIAZ NOCI, Javier: *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994, 188 orr. 25 cm. Julien Vinson eta Jon Bilbaoren Bibliografiak ere begiratu ditut lauki hau osatzeko, eta beste argitalpen batzuk ere gero aipatuko direnak. Euskaraz argitaraturiko Almanakak eta Egutegiak ez ditut laukian sartu.
- (2) Aldizkari honen testuetatik gehienak frantsesez idatziak dira, baina badaude euskal herri kantak, idazle batzuen euskarazko lanak, hala nola, J.A. Chahoren “Herritar Ecinaco-maitiac”, Agustín Iturrigaren “Etchecho arratoia eta soro arratoia” eta beste euskal testu batzuk. Ikus: SOTA, Manuel de la: “Inventario vasco de viejas revistas. I. Ariel”. *Eusko Jakintza*, 1947, 1, 277-281.
- (3) OIHARTZABAL, Beñat: “Euskarazko kazetaritzaren lehen entseia: A. Chaho-ren Euskal Herriko Gazeta. 1848”. In: *Patxi Altunari omenalaia*, Donostia, Mundaiz, 1990, 191-206. Faksimilaturik ematen ditu agertu ziren bi ale bakarrik.
- (4) ARANA MARTIJA, Jose Antonio: “Manterolaren Cancionero Basco”. *Euskera*, 1984, 449-462. SAN MARTIN Juan: “Jose Manterola, egile eta eragile”. *Ibid.* 443-448.
- (5) Egunkari honetan agertu zen lehendabizi, 1880an, Juan Antonio Moguel-en *Peru Abarca*.

Urteak	Izenburua	Non	Nork	Aldizkatasuna	Hizkuntza	Euskara %
1883-1889	El eco de San Sebastián	Donostia		Egunkaria	Gaz. G.	
1885-1896	Escualdun Gazeta	Los Angeles		Astekaria	BN	100
1886-1894	Le réveil basque	Pabe		Astekaria	F. Z. BN.	50
1887-1944	Eskulduna (6)	Baiona	L. Etcheverry	Astekaria	F. L/ BN.	90
1888	Gure izarra	Paris		Ale bakarra	Euskalkiak	100
1889-1890	La abeja (7)	Bilbo	R.M. Azkue	Hilabetero	Gaz. B.	30
1893-1898	Californiako Euskal Herria (8)	Los Angeles	J.P. Goytino	Astekaria	L.	100
1893-1897	Baserritarra	Bilbo	S. Arana	Astekaria	Gaz. B.	20
1893-1895	Bizkaitarra (9)	Bilbo	S. Arana	Hilabetero	Gaz. B.	15
1893-1911	Biarritz-Thermal (10)	Biarritz		Astekaria	F. L.	
1893-1936	La Basconia	B.° Aires		Hamaboskaria	Gaz. B. G.	5
1896-1909	Euskalduna	Bilbo	Euskalerriako	Astekaria	Gaz. B.	15
1897-1899	Euskalzale	Bilbo	R.M. Azkue	Astekaria	B. euskalk.	100

- (6) Astekari honen berri, datu zehatzak, zuzendarien izenak eta abar eman zizkigun Piarres Charritton euskaltzainak 1887-3-29an Baionan Euskaltzaindiak egindako omenaldian. Euskal kazetari izari buru hitz egin zuten eginkizun berean Luis Villasante euskaltzainburuak, eta Martin Ugalde, Luis Alberto Aranberri eta Jose Mari Iriondok. Ikus *Euskera*, 1987, 2, 243-269.
- (7) Euskal kultura eta euskararen alde lan egiteko bildu ziren, aldizkari honen inguruan, Resurreccion Maria Azkue, Sabino Arana, Silberio Etxebarria, Antonio Arginzoniz eta besteren bat. Hauetatik euskaraz idatzi zuen bakarra Azkue izan zen eta *La abeja* honetan eman zigan “Peru matraka ta Pedranton” ipuina.
- (8) KNÖRR, Endrike: “De cuando se hacían periódicos vascos en California”. *Diario Vasco*, 1990-2-11, 20. orr.
- (9) *Bizkaitarra* Sabino Aranak kaleratutako aldizkaria zen. Baina izen berbera zeraman sortu zuen talde politikoak. Bizkaiko Diputaziorako karguen hauteskundeak izan ziren 1898an eta Bilbo-aldean Sabino Arana eta Gernika-aldean Angel Zabala Ozamiz-Tremoya hautagai aurkeztu ziren. Propagandarako erdaraz idatziriko orria kaleratu zuten, Azkue euskarara itzuli zuena *Euskalzen* argitaratuz (1898-9-1). Papertxo horren edukinari zera gehitzen zion Azkue: *Euskalzale* ez zela politika arazoetan sartzen eta ez zeukala ezer talde horren alde edo kontra, baina “Euskerea zabalduko iaio giñean, da euskerea zabalduko alegiña egiten dabenak begi onagaz ikusteko. Goreago aitaturiko biak, batez bere lenengoak, euskerearen alde zeinbat alegiñ egin daben edonok daki; ta ekauta izatera elduko balitz, len beste edo geiago egingo dabela esan leike. Onegatik EUSKALZALEk dei au argitaratu ez eze pozarren ikusiko leueke Arana eta Zabala Bizkaiko lauregian”. Luzea izan arren aipamena, testu osoa ematea interesgarria dela uste izan dut irakurleak ikus dezan nola baloratzen zuen Azkue, euskara arloan, Aranaren lana.
- (10) Astekari honetan agertzen dira euskarazko testu hauek: Mme. D’Abbadie: “Hescualdun emazteki azcarra”, Miss. M.G. Webster: “Ama eskualdunaren bihotz-mina”, J.B. Daranatz: “Eskuara” olerkia, Cayetano S. Irure: “Gaspar, Melchior ta Baltasar” olerkia, J.B.A.: “Etcheona” olerkia eta Paulo Zamarripa Uraga: “Bi soldado baigorriarrak”. Ikus: SOTA, Manuel de la: aipaturiko lana, 282-287 orr.

Baina ortografian batasuna lortzetik gain, lexikoan ere garbiketa egin nahi zuen, erdal hitzak baztertuz. “Alik garbien da errazen agertuko dira euskarazko berbak” zioen eta euskararen sartutako hainbat erdal hitzak baztertuko zituela

uste zuen (adibideak ematen ditu) eta “su emongo iako erderakada-pilo orreri” esanaz, nolabaiteko garbizale azaltzen zaigu Azkue bere bizitzako lehen aldi honetan. “Vascuence edo azkuence” ote zen gomendatu nahi zuena, Dodgsonen esanetan?

Lehen aletik hasita finkatzen ditu *albistariaren* sailak. Ez du aldizkari monolitiko astuna kaleratu nahi. Irakurtzeko erraza, erakargarria eta xarmagarria nahi du eskaini. Aldizkariaren plangintzan sartzen ditu ikaskizunak, gutunak, irakurgaiak, sermoiak, “done edo santuen bizitzak” eta erlijio gaiak, elizgizonei begira, baina herritar arruntentzat ematen ditu “tširristadak”, hitz neurtuak, esakuneak, izkirimiriak, igarkaiak, ipuinak, euskal festen berriak, eta abar. Gai jolasgarri eta entretenigarriak, hain zuzen.

Berehala lortu zuen orduko idazle ezagunen lankidetza. Hara hemen zerrenda: Txomin Agirre, Antia, Arakiztain, Jose Inazio Arana, Emeterio Arrese, Felipe Arrese-Beitia, Arriandiaga, Gregorio Arrue, Artola, Azkarate, Azkuna-ga, Bustinza, Campion, Dodgson, Etxegarai Karmelo eta Bonifazio anaiak, Guerra, Inzagarai, Iñarra, Iraola, Maguregi, Mokoroa, Orkaiztegi, Unamunzaga, Urruzuno, eta Zamarripa. Orduko idazleen islada baliotsua eman zigula esan dezakegu.

Aipatutako idazle batzuen lanak bereziki azpimarratu nahi nituzke, lehen emanaldiak zirelako eta euskal literaturan, urteak joan urteak etorri, ereduzko tokia lortu dutelako. *Euskalzal*en agertu ziren Txomin Agirreren “Joan etorri bat Erromara”, “Auñamendiko lorea” Sermoiak, “Anton Betozko”. Azkueren “Bein da betiko” Antoine d’Abbadieri heriotzaren ondoren eskainitakoa, “Tširristadak” eta “Sasi-eskola”. Karmelo Etxegarairen “Malko bedeinkatuak” eta “Euskal Herria”. Juan Carlos Guerraren “Ama Birjina Arantzazukoaren kon-daira”.

Bizirik zeuden idazleen lanetatik aparte, jadanik klasikoak izatera iritsi ziren hildakoen lan hauek ere argitaratu zituen *Euskalzal*ek: Barrutiaren “Gabinetako ikuskizuna”, Elizanbururen kantak, Iparragirrerrenak, Kardaberaz “Euskararen berri onak”, Mendibururen “Jesusen biotz maitearen debozioa”, Bizenta Moguelen “Ipui onak” eta Juan Antonio eta Juan Jose Moguelen lan hautatuak.

Hemen gehitu behar dut Azkuek Jardines kalean zeukan moldiztegian “Euskalzale liburutegia” sailean liburuak ere kaleratu zituela. Salgai zeuden Azkueren “Sancta sanctorum” horretan, baina aldizkarian agertzen ziren igarkizunen asmatzaileei opari gisa ere igortzen zizkien Azkuek. Bost liburu hauek argitaratu zituen:

Añibarro: *Esku liburua* eta *Lore-sorta ezpirituala*.

Moguel: *Konfesiño ona* (bizkaieraz).

Ubillos: *Kristau doktriñ berri ekarlea*.

Añibarro-Moguel: *Meza-entzukera bi*.

Denok dakigunez, herri musika biltzaile eta musikagilea ere izan zen Azkue. Ia ale guztietan argitaratu zituen, pentagraman jarriak eta berak harmonizatuak liturgiaren aroak eskatzen zituzten doinuak eta herri kantak. Hauen artean bereziki aipatuko nituzke: “Lekeitioko Marijesiak”, “Done Agedaren eresia”, “Hiru Errege” kantua, gero Jesus Guridik ahotsetarako harmonizatuak, eta testu aldetik gauza berezi bat aipatzearen “Basa-txoritxu” herri kanta. Azkuek ematen digun testuak hala dio: “Basa-tsoritxu mustur luziak / ez joan zerura bila”. Sabino Arana edo “aranisten” eskutik testua hala geratu zen: “Ez jun donokira bila” Azkue baino garbizaleago zela Arana denok dakigu.

*Edergarri*duna zela *Euskalzale* azpтитuluak esaten digu. Edergarri edo ilustrazio horiek argazkiz edo irudien bidez agertzen dira. Hainbat Euskal Herri zabaleko herrien argazkiak eman zizkigun Azkuek. Elizak eta bestelako erai-kuntzak ere bai. Bizpahiru aldiz ematen dizkigu Gernikako Arbolaren argazkiak. Euskal liburuak ilustratzeko pertsonaien argazkiak bilatzen ibiltzen gara eta dira argitaldaria. Ikonografia aldetik hau da *Euskalzale*k ematen diguna: Iparragirre eta familia, Iñarra, Arrese-Beitia, Trueba, Labayru, Antia, E.M. Azkue, Elizanburu, Aizkibel.

Hiru urte betetzear zegoen Azkueren albistaria hilzorian aurkitu zen 1899.eko irailean. Euskaraz soilik argitaratzen zuelako 100 pezetako isuna leporatu zion Bizkaiko Gobernadore Zibilak, Inprentaren Legearen 11. artikulua galerazten zuelako. Amore eman zuen Azkuek bi zutabetan euskaraz eta gaztelaniaz hurrengo 13 aleak kaleratuz, urtea amaitu arte, irailaren 27tik aurrera. Ale bakoitzaren erdia euskaraz ematera behartua izan zen, baina, hala eta guztiz ere, iruditu zitzaion ekinean jarraitu behar zuela. Urriaren 8ko alean isuna ordaintzeko dirulaguntza eskatu zien Azkuek harpidedunei, eta hara hor non agertzen diren 600 kolaboratzaile. Isuna ordaintzeko beste diru lortu zuen, baina pazientzia agortu zitzaion harpidedunen berri eskatu zionean Gobernadore Zibilak. Halako irainik pairatzeko ez zegoela prest erantzun zion Azkuek eta bertan bera utzi zuen hain maite izan zuen albistaria. Gero baretu omen ziren istiluak eta 1902an, Kirikiñoren lankidetzaz, bizkaieraz eta gipuzkeraz kaleratu zuen *Ibaizabal* aldizkaria. Baina hau beste historia bat da.

Alfonso Irigoien adiskidea, lankidea, ikerlari eta idazle jakintsu, zehatz eta nonbait sutsua gogoan daukadala idatzi dut lan hau. Bera hil ondoren idazten dudana lehen lana da. Gera bedi hemen nire begirunearen adierazpena.

BERRIAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: 'R. M.^a AZKUE' LITERATURA SARIAK

*Bilbo, 1997-01-28
Juan Otegik irakurria*

RESURRECCION MARIA AZKUE LITERATURA-SARIAK, 1995

Bilbo Bizkaia Kutxak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten 'Resurreccion Maria Azkue' literatura sariak gaur banatuko dira Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan.

Haur eta gazteei zuzendatutako sari hauek bi mailatan ematen dira: A maila 10 eta 13 urte bitarteko haurrentzat eta B maila 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Maila bakoitzean bi sail daude, narrazioa eta olerkia.

Sari honetara euskaraz idatzitako edozein narrazio edo olerki-lan aurkez daiteke. 1996ko deialdira 193 lan aurkeztu dira, eta gora egin du jasotako lanen kopuruak. Edizio honetan lanik gehienak Bizkaitik eta Gipuzkoatik heldu dira.

Epaimahaia osatu duten Xabier Altzibar, Joseba Butron eta Joan Otaegik ondorengoiei esleitu die saria:

Haurrak: 10-13 urte

Narrazioa:

1. saria: *BAKE MEZULARIAREN GARRAIOLARI*
Irati Goikoetxea Asurabarrena
Alkartasuna lizeoa. Beasain (Gipuzkoa)
2. saria: *GOROSTIA, BASOAREN ERDIAN IRLA BAKARRA*
Irati Goikoetxea Asurabarrena
Alkartasuna lizeoa. Beasain (Gipuzkoa)
3. saria: *ZALDIA*
Borja Olano Ibarretxea
Andra Mari ikastola. Zornotza (Bizkaia)

Olerkia:

1. saria: *ILUNTASUNA*
Edurne Salaberria Salaberria
Pasaia-Lezo lizeoa. Lezo (Gipuzkoa)

2. saria: *MARA-MARA*
Edurne Berasategi Zabaleta
Beasaingo ikastola. Beasain (Gipuzkoa)
3. saria: *ILUNTASUNEKO BAKARDADEA*
Nerea Elorriaga del Arco
Juan Orobiogoitia BHI. Iurreta (Bizkaia)

Gazteak: 14-17 urte

Narrazioa:

1. saria: *ZEHARKA OTE LITEKE KALEKANTOIRIK*
Lierni Mendizabal Escribano
Hondarribiko institutua. Hondarribia (Gipuzkoa)
2. saria: *ISILPEKO GAIKOTASUNAK*
Ainara Aizpurua Urrestarazu
Ataun. Beasaingo institutua (Gipuzkoa)
3. saria: *BART GAUEAN*
Leire Erkoreka Gonzalez
Areeta. Lauro ikastola - Loiu (Bizkaia)

Olerkia:

1. saria: *NOR DA MAITASUNA?*
Urki Bilbao Barruetabeña
Ondarroako institutua. Ondarroa (Bizkaia)
2. saria: *DESPUZZUTAKO BALOIARI*
Urki Bilbao Barruetabeña
Ondarroako institutua. Ondarroa (Bizkaia)
3. saria: *POEMA ESKIZOFRENIA*
Nagore Amondorain Ipiña
Arantzazu. Arratia institutua (Bizkaia)

Maila bietan, 50.000 pezetakoa da lehenengo saria, 40.000koa bigarrena eta 30.000koa hirugarrena. Saritutako lanak zuzendu dituzten irakasleek 10.000 pezetako saria jasotzen dute.

* * *

Epai-mahaikoen oharrak:

AO: Tonu poetikoa erretzen ari da: bai gaien aukeratzean eta berauen erabileran. Era berean gai horien garatze prozesuan.

Gauza bera esan liteke baliabide literarioei buruz: sentimenduen adierazte zuzenetik distantzia hartzen haste horretan. Egituratzeari errepikazioan (intentsitate baliabidea den

neurrian), kontrasteen, poema burutze moduan, metaforizazioan eta kanpo-barne ikuskera gauzatzean erreferentzia literarioak emetzen doazela ikusten da.

AN: Narrazio molde ezberdinak agertu dira: kontaketa eta deskrizio zuzena batetik, zenbait kasutan. Gizarte arazoei aurpegi emate fikzionatua bestetik, gaia bera ikuskera literariotik erabili nahia eta gauzatzea (ahal izan den neurrian). Inguruneari begira dau-den gauzak ere bai, ekologiarena esaterako; baina hau ere erabilera fikzionatu-literarioa gauzatuz.

BO: Molde ezberdinetako olerkiak. Neurtuak batetik, bertso egitura tradiziozkoetan emanak. Bertso askean emanak gehienbat. Olerkien barne gauzatzeari begira, sentimenduen arabera emanak askotan; baina sentimenduen agertze zuzenetik aldenduak eta irudimenezko parametroetan biribilduak gehienbat, lantze poetiko-erretorikoen arabera mamituak: jolas olerkia, ironiazko irria, ustegabeko sorpresetan eta sinbologia edo beste irudi literarioetan oinarrituak onenak.

BN: Badira zenbait kontaketa zuzenean eta hizkuntzaren erritmoan oinarrituak. Alabaina, gero eta gehiago ikusten da, gure ustez, erreferentzia literarioen arabera gauzatuak diren narrazioak: irudimenezko kontaketa, fikzio mundua (ametsarena, esaterako), artifizio literarioa. Beraz, literatura sorkuntza, kontaketaaren tonuari eusten jakitea, erritmoaz hornitua izatea. Horra saritu nahi izan ditugun edukiak.

Nahia: Literaturazko sorkuntza. Kontaketaaren tonua eta erritmoari eustea. Hizkuntza lantze zainduagoa.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: 'R. M.^a AZKUE' LITERATURA SARIAK, 1995

Bilbo, egoitza, 1997-I-28

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

RESURRECCION MARIA AZKUE SARIAK, 1995.EKO LIBURUAREN AURKEZPENA

1995ean Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak deitu zuten Resurreccion Maria Azkue Sarian, irabazle gertatu zirenen idazlanak batzen dituen "Ipuinak eta Bertsoak" liburua aurkezten dugu 1997.eko otsailaren 14an, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren aretoan. Erabili ere behin banan dira egoitzak erabiltzen, batean BBKkoa, hurrengoan Euskaltzaindiarena. Oraingo honegaz, bosgarren liburuak ikusten du argia.

1995.eko urteak oparotasuna eskaini zigun Gazte Literaturan. Horren frogarako nahiko dugu argitaratu ziren narrazio goi mailako batzuk zein horien idazleak aurrera ekar-tea:

"Denboraldi bat ospitalean" Juan Kruz Igerabiderena.

"Nire eskua zurean" Mariasun Landarena.

"Xolak badu lehoien berri" Bernardo Atxagarena.

"Hakuna Matata" Jon Arretxerena.

"Biolin bat Maribeltxarentzat" Patxi Zubizarretarena.

Zorionean, gainera, itzulpenari esker, haur gailegoek, ume katalanek, gazte inge-lesek nahiz gazteleradunek irakurri dituzte honezkero hauetariko zenbait.

Gehitzen badiogu horri, 1996.eko uztaillean Xabier Etxanizek, Jean Haritschelhar buru zen epaimahaian aurkeztu zuen "Euskal Haur eta gazte literaturaren historia" cum laudeduna, aitzinerako urratsak eman ditugula ohartuko gara. Gaur ez diraugula atzo-koan. Marijane Minaberrik 63an argitaratu zuen "Itxulingo anderea" ipuin liburutik egungora bide ibili gabeak ireki direla.

Guk, dena dela, gaurko ekitaldian, 1995eko urte horretan idazle saritu gertatu ziren gazte eta gaztetxoak ditugu aipatuko bereziki. Idazle horizontalak, adinkideentzat es-kribatzen dutenak:

11 urteko Irati Goikoetxea.

13 urteko Gaizka Amondarain.

15 urteko Ekaitz Goikoetxea.

16 urteko Nagore Amondarain eta Unai Goti.

17 urteko Leire Bilbao, Joana Garnendia eta Maialen Zubeldia.

Ez legoke lekuz kanpo, bestalde, idazleoi esker goien gradora igon duten Sara hiri berriak aipatzea: Beasain, Arantzazu (Arratiakoa), Ikaztegieta, Ondarroa, Anoeta eta Markina.

Ez didazue esango ez dela zirrarezkoa, kilikagarria, arestian izentaturiko idazle nagusi, urrutiko horien narrazioen parean, adinkidearena irakurtzeak zer sentipen, indar bultzatzaile sor lezakeen gazteengan jakitea!

Zeren, dakizuenetz, Euskal Idazleen Elkartek arrakastaz antolatu ohi duen "Idazleak Ikastetxeetan" kanpainaren barruan, elkarrekin egiten baitute topo profesionalek eta idazle saritu gazteok. Gelako saio intimo horretan, idazle handi hori ez da gehiagotan mitiko izango, ezta arrotz ere. Eta saridun neska-mutilek idaztearen bizipoza, fikzioaren abenturarekiko ilusioa bereganatuko dute.

14 urtetik gora, gaztea literaturarako adinik ez den sasoian sartzen dela baieztatzen da. Hala ere, ezingo dugu ukatu, bai irakurzaletasunari zein sormenari dagokionean, gazteak aro adierazgarrian bizi direla. Joseba Intxaustik orain dela urteak idatzi zuenez, garai horixe baita literaturaz ere maitemintzeko garaia.

Nagusioak, beraz, ume eta gazteentzat ekoizten den edozein produktu, kulturala denean batik bat, ez dezakegu har zerbait tikiakoa bezala, gehienetan hartu izan dugun moduan.

1996. urtea ia aspaldikorik urriena izan da, nagusien sariketa askotara aurkeztu den idazleen kopurua. Alde honetatik, interesgarri bezain beharrezko da literaturako jokalaria berrientzako harrobiari produkzioan eustea, Euskaltzaindiak BBKrekin batera egiten duen erara. Horrela behar egingo ez balitz, atzeritarrak fitxatu beharko lirateke —arlotan honetan neurtutako proportzioz premiazkoak—, bertokoek mailarik ez erakustean. Geure pozerako, gaur egun hemen haur literaturan sortzen eta itzultzen denaren egoera nahiko orekatua eta osotua da.

Umeak zein gazteak sortzen duen literatura ez zaio adinkideari bere mundutik kanpoko gertatuko, ezen, berez, Bernardo Atxagak dioenetik, "Ez da hain erreza umeentzako idaztea, esate baterako, umeentzako umorea egitea". Eurek eraikia denean, ordea, beraienengoagotzat, propioagotzat hartuko dute zalantzarik gabe.

Horrez gain, idazle gazte sarituok, nagusioi dardara eragiteko adinako indar duten testuak ere eraiki dituzte Ipuinak eta Bertsoak liburu honetan. Guk frankotan gazteen aitzinean erakutsi gura dugun bizitza sasiapaindua, erreallitate gordinaz zaputzen digute.

Gazteen testuak irakurri dituenak, badaki ez dutela moral ikasketarik atsegin. Izan ere ez baitira leloak eta badakite non dagokeen ona eta non txarra. Hortaz, ez dugu beti zerbait irakasteko helburua erabili behar, aski da eta gazteek eurek sortu duten literaturaz gozatzen ikustea eta geuk beraiekin batean plazer ukaitea.

Hara Maialen Zubeldiaren testua: "Malko tanta lodiak doaz nire masailetatik behera, ohea bustitzera. Nola galde ziezadakeen hori nire amak? Inoiz ez naiz oso ondo eraman amarekin. Uste dut aitak ni horrenbeste maite nauelako, beti izan didala inbidia pixka bat eta beti ikusi izan nau etsai bat bezala. Ez dut inoiz, nire lagunak egin ohi duten bezala, amarekin mutilei buruz hitz egin, eta gutxiago sexuari buruz. Ama beti izan da ama, nire gela txukuntzeko, arropak garbitzeko eta janaria prestatzeko. Baina ez hitz egiteko, ez nire gazte denborako dudak argitzeko".

Zorionak eta eskerrik asko.

DONOSTIAKO UDALA-EUSKALTZAINDIA
AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA/SAN SEBASTIAN
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

Donostian, 1997ko otsailaren 28an

Jean Haritschelar jauna,
euskaltzainburua.
Hiria


Lagun hori:

Atsegin handiz igorri dizut egiaztagiri bat gutun honi erantsita, PARVISAk, Alkatetza honek eskaturik, Euskaltzaindiari Fermín Calbetón kaleko 25. eraikineko lokala erabiltzen uztearen gainekoa, bertan *Orotariko Euskal Hiztegia* gauza dezan.

Aurrekoaren lagun, Udal honetako Gobernu Batzordearen erabakia ere erantsi dut, lagapenaren jakitun dagoela esaten baitu.

Agur t'erdi,

Odón Elorza,
Donostiako alkatea




Estimado amigo:

Me complace adjuntarle certificado de la cesión realizada a Euskaltzaindia por PARVISA, a petición de esta Alcaldía, de un local en Fermín Calbetón, n.º 25 para la elaboración del *Diccionario General Vasco*.

Asimismo se acompaña el acuerdo de la Comisión de Gobierno de este Ayuntamiento dándose por enterada de dicha cesión.

Reciba un cordial saludo,

Odón Elorza,
Alcalde de Donostia/San Sebastián



UDAL GOBERNU BATZORDEARI

Gaia: Fermín Calbetón 25eko lokala Euskaltzaindiari uztea.

Kultura ordezkaritza honek joan den urtean jaso zuen Euskaltzaindiak eginiko eskaera Fermín Calbetón 25ean dagoen sotoko lokala *Orotariko Euskal Hiztegiko* lanetan erabiltzeko.

Lokal hau PARVISAREN lokala denez, Alkatetzak, Euskerako eta Kulturako ordezkaritzekin hitzegin ondoren, bere adostasuna agertu zuen eta PARVISAKO gerentziari Administrazio Kontseiluak erabakia har zezala eskatu zion. Eskaera onetsia izan zen diktamen honi eranstean 1996ko azaroaren 27ko bilera agirian agertzen den bezala.

Adierazitakoagatik, Kultur Ordezkaritza honek, Gobernu Batzordearen erabakirako proposamen hau egiten du:

PARVISAK eginiko, Diccionario General Vasco/Orotariko Euskal Hiztegiko lanetarako, Fermín Calbetón 25eko lokalaren uzteaz jakinaren gainean jartzea.

Donostia, 1997ko otsailaren 20an.

O.E.
Alkatea

Ramón Etxezarreta,
Kultur Delegatua



A LA COMISION DE GOBIERNO

Asunto: Cesión a Euskaltzaindia del local sito en Fermin Calbetón, 25.

Esta Delegación de Cultura recibió el pasado año la solicitud de Euskaltzaindia para utilizar el sótano de Fermín Calbetón, n.º 25 con destino a los trabajos de elaboración del *Diccionario General Vasco/Orotariko Euskal Hiztegia*.

Dado que este local es propiedad de PARVISA, la Alcaldía, favorable a la cesión tras consulta realizada a las Delegaciones de Euskera y de Cultura, solicitó de su Gerencia sometiese a consideración del Consejo de Administración la petición, siendo aceptada, tal y como se refleja en el acta de 27 de noviembre de 1996 que se adjunta a este dictamen.

Por todo lo expuesto, esta Delegación de Cultura, somete a la Comisión de Gobierno la siguiente propuesta:

Darse por enterada de la cesión realizada por PARVISA a Euskaltzaindia para el uso del local de sótano de Fermin Calbetón, n.º 25 con destino a los trabajos de elaboración del Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia.

Donostia/San Sebastián, 20 de febrero de 1997.

V.º B.º
El Alcalde

Ramón Etxezarreta,
Delegado de Cultura

Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzako Sozietate Anonimoaren Administrazio Kontseiluko idazkaria.

NEUK EGIAZTATUA

PARVISA deritzon Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzako Sozietate Anonimoko Administrazio Kontseilua bederatzi kontseilarik osaturik bildu zen mila bederatziehun eta laurogeita hamaseiko azaroaren hogeita zazpian PARVISAk Donostiako Konstituzio plazako lean daukan bilkura salan, lehenengo deian. Honako konsteilari hauek bertara ziren:

José Enrique Arana Arregui jauna, bilkura lehendakari gisa,
 Martín Elizasu Orbegozo jauna,
 Manuel Errazkin Alemán jauna,
 Ernesto Gasco Gonzalo jauna,
 M.^a Teresa Hernández Rodríguez andrea,
 Luis Felipe Hernández Rodríguez jauna,
 Alfonso Murguiondo Echeverría jauna,
 Fernando Uriondo Ispizua jauna,
 Enrique José Villar Rodríguez de Hinojosa jauna.


Besteak este, aho batez honako erabaki hau hartu zuten bertaratutako kontseilariak: Euskaltzaindiari erabiltzen uztea Fermín Calbetón kaleko 25. zenbakidun eraikinean eskatu duen lokala, 1. osagai independentetzat jotzen delarik Obra Berriaren Deklarazio Eskrituran zein jabetza horizontalaren birmoldaketan eta eraikin horretako elkartearen estatutuetan. *Orotariko Euskal Hitzegia* lantzeko erabiliko da lokala, lagatzeko modua erabakitzeke uzten delarik eraikin horretako okupazio guztien gainean behin betiko erabaki arte.

Eta horrela jasota gera dadin, honako zirutagiri hau luzatu dut, lehendakari jaunak ordezkari gisa ontzat emana, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko otsailaren hogeita zazpian.

O.E. Lehendakaria,
Izpta.: José Enrique Arana Arregui

NAN: 15.139.149
1995-07-14ko ordezkaritza

Idazkaria,
Izpta.: Juan Carlos Etxezarreta
Villaluenga
NAN: 15.921.831

A large, stylized handwritten signature in black ink, featuring a prominent loop on the left and a long, sweeping tail extending to the right.A smaller, more compact handwritten signature in black ink, with a circular loop on the left and a short, horizontal tail on the right.

1997. URTEKO 'KORRIKA' AURKEZPENA

*Euskaltzaindiaren egoitzan,
Bilbon, 1997-03-01*

*Jose Antonio Arana Martija,
euskaltzaina*

Euskaltzaindiak, eta Euskaltzaindiaren areto honetan, harrera egiten dio X. Korrikari, hainbat arrazoi baititu hori hala egiteko. Lehenbizikoa, Institutzio hau izan zelako lehen korrikari hasiera eman ziona Oñatin. Ez dut zertan aipatu behar euskararen alde egiten duen ekintza txalogarri honi euskaldun guztiok eman behar diogun laguntza eta babesa. Baina oraingoan Luis Villasante euskaltzainburu ohiari omenaldia egiten dionez korrikak, Euskaltzaindiak begi onez ikusi behar du eta antolatzaileei eskerrak eman. Honekin lotuta dago Arantzazun hasiko dela aurtengo korrika eta baduela honek zerikusirik Euskaltzaindiarekin, hiru biltzar antolatu zituelako Arantzazun eta bat, 1968koa, euskara batuari bultzada emateko, hain zuzen. Arantzazu da, beraz, kokalekurik egokiena eta tokirik aproposena gure gogo eta indar guztiak bertan biltzeko, han ereindako hazia loratu baita udaberrian.

Pello Zabalak hitz egingo digu Aita Villasanteren perfilaz. Gero Remigio Mendi-buru zenaren familiakoei egingo dute "lekukoaren" aldaketa, Juan Gorriti nafarrak egin duenari txanda emanez. Eta azkenean, Angel Olaldei emango digu X. korrika honen berri.

Ondo etorriak izan zaitezte hemen bildutako guztiak, partaide, kazetari eta entzuleak. Denok besotik oratuta egin dezagun zerbait euskararen alde. Besterik ez.

X. 'KORRIKA'-REN AURKEZPENEAN

Bilbon,
Euskaltzaindiaren egoitzan,
1997-III-01

Pello Zabala

Iragan igandean, gustatu zait Xabier Kintanaren Euskaltzaindiko "idi"arena. "Idiaren geldotasunez, baina beti aurrera joanez, Luis Villasante", zioen *Euskaldunon Egunkari*tik. Mantxo baina beti aurrera, bai, halaxe ezagutu dugu beti aita Luis, bere satorzulo partikularrean. Birigarro tenoretarako ez baino, satorretarako sasoiak baitziren haiek, Andoni Egañak gogoratu digunez: "Txori ezin zen eta izan ginen sator".

Txorizalea banaiz, eta maiz erreparatu diot txepetxari: gutxitan kantuan, isilik ia beti, gordeka aukeran, baina bere burua chun halakoz doblatzeko lanak egiten ondotoxoko daki. Iaioa txoriñoa! Habia handi eta zarpaila, baina, zenbat arrautz errun...? Batek daki, bere ttikian, nondik atera dituen horrenbeste! Etxeko habiak maite ditu Villasantek: 330 artikulua bai *Arantzazu* hilerokoan. Zienta pare ondoso bat *Euskera* aldizkari Euskaltzaindikoan. 16ren bat bai, *Egan* aldizkarian. Beste 13 lantxo *Cantabria Franciscana*. Eta auzoko habietan, kukulanetan edo, dozena bana artikulua *Fontes Linguae Vasconum* eta *Real Sociedad de Amigos del País* aldizkarietan, eta beste hamaikatzoko bai, han-hermenka banatuta... Emankorra atera zaigu Gernika ondoko txepetxa!

Bueno, idi, sator, txepetx... Izan ere, eskolattikitik, asko trebatu gabe asmatzen genuen gure irakasleei mozorrotxoren bat topatzen. 1952an, hainbeste latinen latatz eta erdal-ikasgaiaren artean, euskera maitatzen irakatsi zidan Karmelo Iturria zenduberria dugunari 'xagua' deitzen genion, xera-puntuu batekin, noski. Handik bi urte, 54an, euskera eta frantsesa gustarazi zizkigun Luis Villasante fraile gazte eta sanoari, ile-kalpar 'trikuarena ikusten geniola akordatzan naiz. Hurrengoari, urtetako jardunean umotu eta goxatu den Bittoriano Gandiagari ere, nire ondorengoek agudo erantsi zioten berea. Akorduan dut beti, pozik eskertzen geniola aita Luis Villasanteri, noiztanka eskolara zekargun fraile txantxazale eta artista hura, aita Perea, haren irakasteko moldeak betiko eredutzat suertatu zitzaizkigulako.

Holaxe ezagutu genuen aita Luis gure seminarioan. Eta komentuan? Eliza berria eraikitzean, komentuko ateari arku pare arre eta ilunxka atera ziotenean, kirkil-zulorako bidea zirudigun. Mutiko bihurriok, ordea, Arantzazuko komentu barrura orduko, txindurri gaztelu baten labirinto traza hartzen genion. Gero, teologia ikasketak egitean, hobeto jabetuko ginen, bertako inurri laborarien jardun mantxo, setati eta beti aurrerako horretaz. Batez ere, Axular maisu handiaren hiztegi-lanetan, Villasante etsikaitzaren ordenetara ibili ginen urte parean. Kartoizko zapata-kaxa mordoska bat bete fitxa ordenatu ezinik orduak suelto sartzen ikasi genuen. Baita Axular eta bere garaia maitatzen ere.

Han ohartu nintzen aunitz maite zituela Sarako apezak sagarroiak, 'trikuak', beste azien-da asko bezalaxe, eta bere mintzaldietan nola usu zerabiltzan. Trikuak sagar mordoxka muturtxoaz pilatu eta heien gainean itxulipurdi eginez, bizkarra betean sagarrok bere habiara eramaten artista zela, hantxe, Axularren *Gero* estimatu hartan ikasi genuen, fitxak zapata-kaxetan txukun ordenatzearen truke. Hala neritzon orduan Villasante langile apartaren koarto liburudunari ere: sagarroiaren habia betea, bihitegi ttiki bat. Eta handik sortzen ziren noizean behin liburu mardulak: 1950ean Angeles Sorazuren emaitzarekin hasi bazen hasi, 34tik gora dira ehun orrialdetik gora dituzten ale mardulak. 47 urte hauetan, aipatuez gainera, beste 26 bai, bota ditu argitara, liburuxka, separata eta antzerakoetan...

Mantxo bai, baina asko, lan asko moldatu eta gauzatu du aita Villasantek. Eta nola! Kartoizko zapata-kaxak aipatu ditut *Axularren Hiztegiko* akordutzat. Huraxe zen gure ordenadore partikularra. Badago alderik, badagonez, urte haietako lanerako moldetik gaurko ordenagailuen fitxero ordenatuetara. Idipare mantxotik traktore axkarretaraino-koa. Sarri pentsatu dut "aita Lasa" batek ez zuela ordenagailu behar handirik: nork ordenatu ahalko zuen haren koarto hura, hasi ohegainetik eta mahaiperaino liburu zabaldukaz eta orri xahar eta paper-mutturrez blai, baina beretzat guztiz ordenatua zen inurritzulo bedeinkatu hura? Horrelako maisuen itzalean lanean jardun garenok, badugu ordenagailuz aurreko langile porrokatuok miresteke joera: Villasante pasiloan harat-ho-nat ikustean, edo baieta-zapia eskuetan duela mahaiak garbitzen, edo harrikoa egiten, edo paseotxoia egitera bostetan, beti bostetan doanean, edo leihoaren aurrez-aurre "gaur zer eguraldi egiten du" galdetzen duenean, edo nire aurrean juxtu, goizero errezatzen, gorespenetako goratzarrea orrialdez-orrialde ezin topatuz sumatzen dudanean, mires-menez belaunikatzeko tentazioa sentitzen dut. Berak ez lidake barkatuko, teologia za-harrean idolo-gurtza iritziko lioke, baina nire baitan, bihotza belaunikatzen diot, be-launikatu Axularri ikasi nion gisara, sano, adeitasun xaloz...

HIL BERRIAK

ALFONSO IRIGOIEN ETXEBARRIA

Igazko abenduaren 16an Alfonso Irigoien Euskaltzaina hil zen Bilbon, itxuraz garrantzirik gabeko ebakuntza izan ondoren, dirudienez tronbosi batekin korapilaturik. Bi aste lehenago, Durangoko Liburu eta Disko Azokaren arrimuan berarekin erabateko normaltasunez mintzatzeko eta bazkaltzeko aukera izan eta gero, haren ustegabeko heriotzak guztiok erabat hunkitu gintuen. Euskaltzaindiaz eta haren lagunez gainera, euskal filologiak ere galera mingarria izan du, bere 67 urteetan Alfonso bere sormen eta buru-ahalmen osoen jabe zela kontuan izanik. Ondoko lerro hauekin haren bizitzaren eta lanen berri eman nahi dugu, laburki bederen, bildu ahal izan ditugun datuen arabera.

Alfonso Irigoien Etxebarria Bilbon jaio zen 1929.eko azaroaren 14an, langile familia batean. Ama arratiarra zuen, Areatzakoa, aita, aldiz, Zumaiarra, eta, beraz, txikitandik etxean bertan izan zuen bizkaiera-gipuzkerak bereganatzeko aukera. Gerra garaian, kaleko giro gogorretik ihes egiteko, gurasoek amaren baserrira bidali zuten, Arratiko euskara errotik ikasiz. Gerra ondoan Bilbora itzuli eta irudigintza eta kontabilitate ikasketak egin zituen. Osaba baten okindegian lanean ihardun zuen, aldi berean lantegi baten kontabilitatea eramanez. Sasoi horretan bertsozaletasuna piztu omen zitzaion.

Euskara eta bertsolaritza ez zituen, ordea, maite bakarrak. Gaztetandik pinturazalea ere bazen Alfonso, eta ez edonolanahikoa. Seber Altuberen irudi ezaguna, kasu, hainbat lekutan argitaratua, hari zor diogu, bai eta bertsolari txapelketen eta Euskaltzaindiko bilera batzuen zuri-beltzeko zirriborro bikainak ere. Bilbon pintura erakusketa batzuk egin zituen eta La Gran Enciclopedia Vascak kolorezko koaderno eder bat argitaratu zion. Haren etxea bisitatu duen orok badaki zer nolako koadro bikainak zituen paretetan, berak eginak. Pintatzen hil arte segitu zuen eta azken aldian eskulturak egiteari ekin zion; brontzezko figurak batez ere.

Euskal arloan Azkueren aldamenean egin zituen lehen urratsak. Lekeitiar maisua hiltzean Euskaltzaindiko langile moduan hasi zen 1955ean eta bi urte geroago, 1957.eko uztailaren 26an euskaltzain urgazle izendatu zen. Akademian zelarik, hainbat liburu argitaratu zituen: *Lardizabalen Testamentu Berriko Kondaira edo Historia* (Bilbao, 1957) eta *Euskal kantak* (Bilbao, 1959 eta 1960). *Euskera* aldizkariaren arduradun izendatu zen 1963ean eta aldizkari horretan hainbat artikulu publikatu zituen, horien artean —Aportaciones al diccionario vasco— (1956), —Cartas de Mariano Mendigacha a Don Resurrección María de Azkue, escritas en roncalés y en castellano— (1957), —Cartas de Inchauspe al Príncipe Luis Luciano Bonaparte (1857-1887)— (1957), —Del epistolario de Azkue— (1957), —Berbak eta izkuntza— (1959), (Aita J. Mokoroarekin batera:) —Sermones manuscritos antiguos. Fr. Francisco Tristán de Huandurraga (1822), Fr. Juan de Ajuria (1800) (1806)— (Euskera, 1960), —Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario— (1958). *Egan* aldizkarian —Bilbaotik— eta —Munduz mundu— idazlanak eman zituen argitara 1958an eta *Anaitasuna* aldizkarian beste artikulu eta lantxo ugari ere bai.

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan Alfonso Irigoienek X. Peña, Goenaga eta E. Erkiagarekin batean euskal eskolak ematen zituen eta Nazario Oleagaren laguntzaile gisa, idazkari-lanak eginez. Haren heriotzaz gero, 1963etik, Euskaltzaindiko bigarren idazkaria izan zen, 1966an idazkariorde izendatu arte.

Ikastolen mugimenduari ere bere emaitza egin zion Alfonsok, berak Diputazioan egindako gestioei esker Juliana Berrojalbiz andrea aurrera atera nahian zebilen R. M. Azkue ikastola, Bizkaian lege onartu zen lehenbizikoa, 1958.ean ireki baitzen. Zentro hau geroago Lauroko Ikastola bilakatuko zen.

Bera zen, halaber, Euskaltzaindiak Bilbon urtero egin ohi zuen jaialdiaren antolatzaila. Baina garai honetan Alfonsok lanik nabarmenena bertsoaritzaren alde bete zuen. Bera izan genuen, Santi Onaindia, Manuel Lekuona, Antonio Zavala, Jose Maria Satrustegi eta Pedro Diez de Ulzurrunekin batera, herri-literaturaren arlo hau birpizten sutuenik saiatu zirenetako bat, eta bertsolariak ordurarteko aurriritziengatik zokoraturik zeudeneko giro ilunetik ateratzen ahalegindu zen. 1958. urtean hasita, Bizkai guztiko txapelketak eta eskualdeetako txapelketa txiki ugari antolatu zituen, eta Nafarroa eta Gipuzkoako txapelketa eta bertsolari-jaietan ere parte hartu zuen luzaro. Ez da harritzekoa, hortaz, duela bi urte Euskal Herriko Bertsolarien Elkarteak, merezimendu nabarmen horiek gogoan, Alfonsori esker oneko omenaldia eskaintzea.

Gerra ondoko garaian, frankismoaren debeku gogorrez gainera, gure hizkuntzak ba-zeukan beste mehatxu bat gainean, eta ez txikia, garbizalekeria alegia, praktikan gure hizkuntza zikiratzen zuena. Hortaz, Irigoienek, korrontearen kontra abiatuz, Villasante eta Mitxelenarekin batera, purismoaren aurkako eta euskal lexiko tradizionalaren aldeko adierazpen famatuaren alde jokatu zuen 1959ean, erdal jatorriko euskal lexikoa patri-monialtzat aldarrikatuz. Horrek premiazko arnasa berria eman zion gure literaturari, gal-deriko euskal tradizioaren bidera itzultzer lagunduz.

Politika arloan Alfonso, beti bere independentzia gorde arren, kezkatu ibili zen frankismo garaian Euskal Herriaren egoera larriaz. Hori dela eta, Txillardegi, Julen Ma-dariaga, Benito del Valle eta orduko beste intelektual batzuekin harremanetan aritu zen bera ere, gerora hain erro luzeak utziko zituen Ekin taldearen partaide gisa. Geroztik, Bilboko politika eta kultura bilera klandestino askotara joaten zen, sozialista, komunista eta abertzaleen artean ibiliz, aniztasuna eta errespetua gidari.

Euskaltzain oso 1963.eko maiatzaren 18an izendatu zen. Garai hartan ohitura izaten zen bezala, ordea, sarrera-hitzaldia askoz ere beranduago irakurri zuen, 1974.eko ekai-naren 15ean, non eta Donemiliaga Kukulan, Monasterio horretako euskal glosen eta toponimiaren gainean datu interesgarriak emanez. Erantzun, L. Villasantek egin zion.

Nik 1964. urte inguruan ezagutu nuen Alfonso, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Ibaiondo kalean. Hara zerbait kontsultatzer joan nintzela uste dut, edo agian kuriositate hutsez, Euskararen Akademia barrutik nolakoa zen jakiteko. Gogoan dut oraino arratsaldea zela eta *enterratu* / *lurperatu* / *ehortzi* / *lurra eman* hitzak zirela eta, eztabaida bat izan nuela bertan zen beste pertsona batekin. Geroago Gabriel Aresti zeritzola ja-kingo nuen.


Bere goi mailako ikasketak Salamancan burutu zituen Irigoienek Filologia Klasi-koaren arloan, jadanik gizon heldua zenean, eta ordutik zetorkion, noski, beti erakusten zuen latin eta greziera zaletasuna. Han, beste zenbaiten artean, Koldo Mitxelena izan zuen irakasle.

1970.eko uztailaren 29tik 1978.eko azaroaren 24 arte Euskaltzaindiko bibliotekari izan zen. J. Antonio Aranak 1992-2 Euskera aldizkarian gure bibliotekaz egindako historian Alfonso liburuzain izan zen garaiko aipamenak xeheki kontatu dituzenez, hemen lan hori gogoratu besterik ez dugu egingo.

60en hamarkadaren bukaeran Deustuko Unibertsitateak euskara-irakasle gisa hartu zuen, eta geroago, hango irakasle katedraduna izan zen, Euskal Filologia espezialitatean eskolak emanez. Haren ikasle izandakook parada ederra izan dugu haren jakituriaraz jabetzeko. Unibertsitateko irakasle bilakatu zen garai honetan Libe Alkorta lekeitiarra-rekin ezkondu zen, eta harekin seme bat izan zuen, Eneko, duela gutxi abokatu ikasketak bukatu dituen.

Bilboko semea izan arren, Irigoienek harreman handia izan zuen Lekeitio eta Aulestiarekin ere, haren emaztea, esan berri denez, eskualde horretakoa zelako. Izan ere, azken herri horretan etxe bat zuten, eta hortxe egoten zen asteburu eta oporretan. Horrek aukera ederra eman zion inguruko euskararen ezaugarri fonetiko eta azentuzkoak aztertzeko, toponimia aherentzi gabe.

Alfonso, pintatzaile, ikertzaile, irakasle eta eskultore izateaz landa, idazle eta poeta izan dugu. Gorago aipaturiko lanez gainera, *Sorterriaren alde* izeneko obra idatzi zuen, gaztaroko oroitzapenekin, eta *Hi eta ni garade zu*, *To ez date no*, *Orbel eta orri* poema-liburuak. Horietan maiz ironia eta kritika zorrozki zerabiltzan. Formaz sonetoak lantzen saiatu zen, euskaraz maizegi egin ez dena. *Olabeagatik* poemaz 1969.eko Bilboko poesi lehiaketan garaile gelditu zen.



Alfonso Irigoien, Durango, 1996-XII-06

Euskara batuari dagokionez, hasieran batasuna begi kritikoz ikusi arren, Alfonsok hura berehalaxe onartu zuen. Euskara batuan euskalki guztiek eta herriko euskara mintzatuak eduki behar duten partaidetasuna eta zeregin osagarria behin baino gehiagotan azpimarratu zituen, gure jaurreriko lexiko aberats eta berezia guztion literatur euskararen integratzen ahaleginduz. Batasunaren alde egindako lanen artean, aditz batuaren batzordean izandako partaidetza, deklinabidea finkatzeko 1978an Bergaran aurkezturiko lana eta azken urteotan onomastika batzorkide gisa egindakoak aipa daitezke, gramatika batzorderako prestatuturiko txostenak ahortzi gabe.

Autonomi aro berrian bigarren mailako irakaskuntzarako institutuetan lehenbiziko euskal katedrak sortu zirenean, 1980. urtean Alfonso Irigoienek katedra bat lortu eta Durangoko Frai Juan de Zumarraga Institutuan urtebete eman zuen irakasle moduan.

Gure literatura klasikoa arretaz miatu eta Etxepare eta Leizarragaren euskararen aztertzaile porrokatua izan dugu, euskal aditz sistema zaharra bereziki arakaturik. Atsotitzen ikerketa, bestalde, arlorik gogokoenetakoa zuen. Iruñeko 1596.eko esaera zaharrak maiz jorratu ditu, esaldi zailen eta bihurrienak batik bat. Eta hor jo eta ke saiatu da, hil arte, aurtengo abenduan, Durangoko Liburu eta Diskoen Azokaren ondoan Euskaltzaindiak antolaturiko Paremiologi Ihardunaldietan buru-belarri parte hartu zuen eta.

Alfonso Irigoienek gehien eta sakonen landu duen arloa, ordea, onomastikarena izan da. Horrexerik buruz egin zuen, hain zuzen ere, Ricardo Zierbideren zuzendaritzapean, bere doktorego-tesia, *La Lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales* izenarekin 1983an Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu zuena. Lan hori Antonio Tovarrek, Koldo Mitxelena, Julio Caro Barojak eta José Antonio Pascualek osaturiko epaimahaiak aztertu eta kalifikatu zuten. Eta zinez esan daiteke arlo horretan, Mitxelena galduz geroztik, Alfonso izan dugula Euskal Herriko espezialistarik hobereana, beraren ikerlanek garbi erakusten diguten bezala. Haren jakituria nabarmen azaldu digu luzaro Onomastika Batzorderako egindako lan ugarietan, sarritan euskaltzain guztiei helaraziak. Hortik landa, beste anitz ikerlan ere eman zituen argitara: *Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico* (1981), *Las lenguas de los vizcaínos: Antroponimia y toponimia medievales* (1985), *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco* (1985).

Lan asko *Fontes Linguae Vasconum* nafar aldzkarian, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*-n, *Euskera*-n eta bere kontutik argitaratzen zituen *De re philologica linguae vasconicae* izeneko bost liburu mamitsuetan irakur daitezke (1985-1996). Arlo horretan Alfonso Irigoienek ongi heldu zion informatikaren desafioari eta oso goiz hasi zen lanean ordenadoreekin, bere idazlanen autoedizioetan trebetasun eta kalitate handia lortu arte.

Bestaldetik, Nazioarteko hizkuntzalaritza-bilera askotan parte hartua zen Irigoien. Aspaldiko urteotan, Ricardo Zierbide irakaslearekin batera, *PaiRom* proiektuaren partaide zen, Euskal Herriko euskal eta erdal onomastikaren zehaztasunak kanpoko iker-tzaileei helarazteko. Hori dela eta Pisan 1988an egindako lehenbiziko elkarraldian hasi eta igaz Udinen ospaturikoan buka, guzti-guztietara joan zen Irigoien.

Bilbon, F. Krutwig, J. Pujana, Josu Lavin eta beste adiskide batzuekin *Jakintza-baita* izeneko kultur elkarte greko-latindarra eratu zuen, kultura klasikoak mende-baldoko zibilizazioan izandako garrantzia nabarmendu eta horren eragina bultzatu nahian. Ildo horretatik, euskarak nazioarteko hitzak bereganatzeko prozeduran latindar eta gre-

ziar iturriak ondo azpimarratzen zituen beti, hor F. Krutwigekin bat etorritz, eta, alde horretan, hil baino bi urte lehenago, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman*, exotoponimiari buruzko eranskinarekin, eman zuen argitara Deustuko Unibertsitatean, bere iritzia eta proposamenak azaltzeko. Anekdota moduan, Ernazimenduan, eta geroago ere, zenbait kultur elkartetan sartzean egin ohi zen bezala, Alfonso Irigoienek izen berria hartu zuen, Ακροπολιος, hots, bere euskal deitura bera, baina grezieraz emana.

Bilboko hiriko bizitza kulturalen betidanik hartu zuen parte Irigoienek. Euskal jai, hitzaldi, euskara eta ikastolen aldeko ibilaldi eta antzeko ospakizunetan ere maiz agertzen zen. Prentsan, gainera, aldizka idazten zuen, bai euskaraz eta bai erdaraz, eta horregatik oso pertsona ezaguna zen. Hortixek heldu zitzaion, noski, 1993.ean Bilboko jaietako pregoalaria izateko ohorea, eta hartarako bereziki egindako jantzi dotore batekin pregoia bota ere bai: euskaraz eta greziera klasikoz gainera!

Pertsona moduan umoretsua eta atsegina izan ohi zen, desinteresatua eta eskuzabala, trankil eta patxadazkoa, eta jan-edanak, jaialdiak, omenaldiak, bertso-saioak eta zeremoniak oso gogoko zituen. Horrek ez zion eragozten —gizona gizon edo lastazaku!— gustuko ez zituen egoera edo pertsonen aurrean noiz edo behin ateraldi biziegiren batekin erantzutea. Dena den, umorez zegoenean, bera ere bertsoetan hasten zen, eta orduan bere ohiko ironia zerion. Hizkuntzari dagokionez, herri-sena eta jendearekiko lotura ez zituen behin ere galdu, eta euskara herritar eta landuaren arteko oreka zailean, esan daiteke beti erdian mantentzen ahalegindu zela.

Dakigunez, ez zen inoiz afiliaturik egon inongo alderdi politikoan, eta ideologiaz bere burua eszeptiko eta liberal gisa aurkeztzen zuen. Hori dela eta, talde politiko jakin batekoa izan ez arren, eta halere, euskara eta bertsoaritzaren alde zebilelako, frankismo garaian luzaro karlista edo poliziaren konfidentea zela zabaldu zen, Alfonsok berak barrezka kontatu ohi zuenez. Egia aitortzeko, ordea, zin-zinez esan daiteke pentsaeraz abertzalea izan zela guztiz, eta hori argi utzi zuen euskadunon autodeterminazio-eskubidearen aldeko manifestaldietara joan eta hori aldarrikatzeko manifestu publiko bat sinatzean.

Esaniko merezimendu guztiongatik, eta seguraski denborarik ezaz hemen biltzeko dauden beste askorengatik ere, bidezko zorra kitatzen dugu gaur Bizkaiko seme eta bilbotar euskaltzain honen oroitzapena gure artean gogoratu eta ohoratzean. Baina ez dezagun ahantz, Alfonsori egin dakiokkeen omenaldirik onena eta, aldi berean, hark lukeen gogokoena hauxe dela, berak bukatzeke utziriko lanak guk aurrera eramatea, guztiok euskararen alde ekinez jarraituz.

Bera ezaguturik, uste dut, haren hilarrian epitafio bat jartzekotan, gustukoa lukeela igaz laurehun urte Iruñean argitaratu zen euskal esaera zahar hau jartzea: —Gal bedi gizona eta ez haren ospe ona—. Edo agian beste honako hau, latinez: —Verba volant, scripta manent—. Esan dugu.

Bilbon, 1997-I-31an

Federico Krutwig eta Xabier Kintana

